

**ETIENNE LAPEYRE**

**KREDO**

**EDO**

**SINHESTEN DYT ESPLIKATVA**

**AITA LVIS VILLASANTE-K**

**PRESTATVA**

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA — EUSKALTZAINDIA

BILBAO, 1982



U4 6763



KREDO EDO SINHESTEN DUT ESPLIKATUA

Colección EUSKARAREN LEKUKOAK - 5

La Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia reedita esta obra de Etienne Lapeyre con la colaboración financiera del Banco de Vizcaya

Estebe Lapeyre-ren liburu hau Bizkaiko Bankuaren laguntzaz  
bir-argitaratu du Euskaltzaindiak

ETIENNE LAPEYRE

(1840 - 1893)

K R E D O

E D O

SINHESTEN DUT ESPLIKATUA

(Edizio berria, «Euskararen Lekukoak» bildumarako

Fr. Luis Villasantek prestatua)

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA "EUSKALTZAINDIA"  
BILBAO 1982

ISBN 84-85.479-19-X

Depósito legal: BU-720. — 1982

---

Imprenta de Aldecoa. Diego de Siloe, 18. — Burgos

20243



# S A R R E R A

## PROSA EGILE BAT: ETIENNE LAPEYRE

(1840-1893)

Geure hizkuntza guztia beharrean dugularik, ez da erraz behar horien mailakatzeko bat egitea, zein den beharrik premiatsuena etab. epaitzea. Edozein modutan ere, bada premia gorri bat, eta beronekin noiznahi egiten dugu topo: tresnen eskasia. Euskara sustraitik ezagutzeko baitezpadako da tresnak eskumenean edukitzea, gure tradizioa arakatzea, gure autoreak eskuetan erabiltzea. Baina non daude horien obrak? Gehienetan ez dira aurki errazak. Argitalpen berri-egokiak egiten ez diren bitartean oztopo hori ezingo da gainditu.

Egia da premia honi erantzuteko zerbait egin dela azkenaldi honetan, baina ez aski, inolaz ere. Gure idazle zahar askoren obrak zailak dira eskuratzen; horien bir-argitalpen egokiak, behar bezalako sarrera, hiztegi eta oharrez hornituak, gehienetan eskas ditugu.

Gaitz hau erremediatu nahirik sortu zuen Euskaltzaindiak «Euskara eta euskal literaturaren Lekukoak» deritzon batzorde eta liburu bilduma (1).

Euskaltzaindiko batzarrerara aurkeztutako txostenean hara zer irakurtzen dugun:

«Mendez-mende, edozein euskalki eta edozein literatur muetatan euskara landu duten autore eta hizlariekin liburu bilduma bat osatu nahi du Euskaltzaindiak —arrazoi bategatik edo bestegatik estudiantuak izatea merezi duten testuak izan beharko dute, noski—... Bilduma huni esker, euskararen lekuko horiek gaurko ikasle, irakasle, idazle, euskaltzale eta abarren eskuetan jartzeko aukera egongo da».

---

(1) Euskaltzaindiaren Agiria: «Euskara eta euskal literaturaren Lekukoak» liburu bilduma sortzeaz, *Euskera* (1978), 343-349.

Euskara idatziaren barrunbean prosagintza da segur-aski gutien aztertutik dugun alorra. Eta edonork daki zer-nolako garrantzia duen prosa ongi muntatzen jakiteak. Hori gabe euskara ez da sekulan erre-minta trebe eta gai bihurtuko.

Horra zergatik dakargun *Lekukoak* bildumara Lapeyre-ren liburua. Edo guztiz oker gaude, edo prosagintza moldea estudiatzeko liburu hau ez da bat ere desegokia. Egilea ez dabil hitz garbien, guti ezagutuen edo asmatuen bila. Euskaldunak egunoro darabiltzan hitz arruntez baliatzen da. Hiztegi joria duenik ez nuke esango. Gramatika legeetan ere ez da beti maisu.

Nik esango nuke barneagoko dohain batean datzala Lapeyre-ren eredutasuna. Lapeyre-k badu mami bat edo mezu bat, mezu horren aparteko balioaz konbentziturik dago eta mezu hori irakurleari harrarazi eta itsatsi nahi dio. Horretarako adimenduaren eta bihotzaren baliakizunez baliatzen da.

Liburua hats luzekoa da, batasun hertsiki batekin kontzebitua eta burutua. Ez da literatura «ederra» —nolabait esan— lantzeko egiten diren horietakoa. Liburu hau irakurtzen duzunean —eta ez da hori beronen alde egin daitekeen goresmenik ttipiena— badirudi, hizkuntzaz ahazturik, gogoaz zuzenean mamira dihoakizula. Eta ez ote da hau hizkuntzaren lehen betekizuna: tresna izatea, alegia, mintzagaiaren zerbitzutan bere burua itzaltzea?

Prosa molde aseptiko bat, kolorerik eta zaporerik ez duena, nola muntatzen den erakusten digu, bada.

Lehenbizikoz liburu hau ezagutu nuenean (1942-1943 ikasturtean) oroit naiz zer-nolako zirrara egin zidan. Erdaraz ezagutzen nituen taxu honetako liburuak, baina ez euskaraz; ez behintzat, honek bezala, hizkeraz ahazturik, gogoaz zuzenean mamira gidatzen dakitenak.

Eta euskal erreminta inoiz zerbait izatera helduko bada, horrelako idazleei kasu egin beharra dugu.

Joan mendearen azken hondarrean eta gurearen hastapenean halako eten bat gertatu zen euskal literaturan, tradizioaren haustura bat. Garbiaren kezka nagusitzen da, bai hitzetan eta bai joskeran. Baina horrek elkortasuna eta zurruntasuna ekarri du berekin. Perlesiak jokatuko literatur mueta. Alde batetik irabazi zena bestetik galdu zen.

Gure idazlea —E. Lapeyre— txarranpin edo elgorri horretaz kutsatu gabea da oraino.

Ez dezagun pentsa, haatik, txarranpina Hegoaldean soilki hedatu zela. Hegoaldearen eragina Iparraldera ere heldu zen, Lafittek Arrasateko Biltzarrean (1979) lainoki aitortu zuen bezala. Adema, Broussain, Anxuberro, Etxepare, Lhande, Landerretxe, Lafitte bera etab., Hegoaldeko literatur mogimenduz har-emanetan egon ziren. Eta hain zuzen, ikusmolde berrien ondorioz Lapeyre-ren obrak estimu galtze bat jasango du. Horrek, ordea, guretzat beste hau frogatzen du: tradizio zaharraren ildoan dagoela Lapeyre, tradizio horren lekuko jatorra dela.

Hizkuntzaren tradizioa bir-aurkitzeko, bada, gure prosista zaharrei begiak itzuli beharra daukagu. Eta hain zaharra ez izanik ere, horietako dugu Etienne Lapeyre, apaiz jauna.

## 1

### EGILEA. BIZI-XEHETASUNAK

Jaun honen bizitzeaz dakigun guztia P. Lafitteri zor diogu. Egia esan, ez da gehiegi. Azkainen (Lapurdi) sortu zen 1840. urtean. Bere ikasketak herriko eskolan eta Seminarioan egin zituen, hots, Azkaine, Larresoro eta Baionan. Apaizen karrera arruntaz lekora, ez dirudi beste maila berezirik erdietsi zuenik, baina hartze onekoa izanik eta ikas-nahi handikoa, estudioak ez zituen sekulan utzi.

1863. urtean apaiztu zen. Segidan Uztaritzen koadjutore ikusten dugu, gero Baionako Saint-Léon ikastegian Filosofi irakasle, eta azkenik Bidarteko erretore (1871). Osasun eskasiagatik erretorgoa utzi behar izan zuen. Orduan ohorezko kalonje eta Camp-de-Prat xahartegiko kapeilau egin zuten (1889). «Conférences ecclésiastiques» direlakoen buru ere jarri zuten elizbarruti osorako. Hortik ageri da jakintsu handizat zeukatela Apezpikutegian.

Heriotze lazgarria izan zuen. Gauaz bere idazlanetan zegoela, dirudienez, petrolío ontzia lurrera erori zitzaion eta suaz ito eta errea gelditu zen (1).

---

(1) *Eskualduna* astekariak honela dio (1893-III-31): «Cette mort lamentable est un deuil cruel pour le diocèse que monsieur Lapeyre honorait par son savoir et sa grande intelligence; pour l'hospice où il avait su gagner l'affection des enfants et des vieillards; pour le parti conservateur du pays basque, dont ce prêtre eminent était un des défenseurs les plus énergiques et les plus dévoués». — Elizbarrutiko boletinak, aldiz (1893-IV-2): «M. l'abbé Lapeyre parlait et écrivait le basque avec une rare perfection. Il avait entrepris un Exposé de la doctrine chrétienne dont le premier volume a seul paru».

Gure idazleak bazuen beste anaia bat apaiza, Martin zeritzona, Hazparneko misionesta eta gero Belokeko Beneditarren sortzaile eta baita monasterioko priore ere izan zena. Beneditar sartzean Damian izena hartu zuen. Gure liburuaren hitzaurrean bada alusio bat anaia honi buruz.

Lapeyre-k, segur-aski, Seminariorik ekarriko zuen, beste askok bezala, euskara lantzeko lehen hazia edo grina. Ezagunak izango zituen, beharbada, lehenagoko idazle batzuen zenbait lan ere; baina, damurik, horretaz ez dakigu ezer.

Hona hemen, labur, gure Lapeyre-ren «curriculum vitae»: Azkainen jaio (1840-IV-30). — Apaizgintza, 1863-V-30. — Uztaritze-n. koadjutore. — Baionan, San Leon (gero San Luis Gonzaga deitua) kolejoan Filosofi irakasle, 1864. — Bidart-eko erretore (1871-XI-17). — Baionako Camp de Prat zahartegiko kapeilau, ohorezko kalonje eta Conférences Ecclésiastiques direlakoen Zuzendari nagusia (1889-II-10). — Heriotzea, 1893-III-23.

## 2

### LAPEYRE-REN EUSKAL LANAK, ETA, BEREZIKI, KREDO

1892an liburu bat argitaratzen da Baionan: *Hazparneko Kalbarioa*. Zenbait apaizen predikuak datoz bertan: Arbelbide, Zanzinena, Chorbit, Abbadie, Bastres. Horien artean bi gure Lapeyre-renak: «Jesus Olibetako baratzean» eta «Jesus Judasez saldua».

Lapeyre-ren beste lana hemen bir-argitaratzen dugun hauxe da: *Kredo edo Sinhesten dut Esplikatua*, Baionan 1891an agertua. Beraz, bestea baino urtebete lehenago.

Liburu honi buruz piska bat xehekiago mintzatu beharra daukagu.

#### LIBURUAREN BEREZGARRIAK

1891. urtean inprimatzen da Baionan, andre Lamaignère alargunaren moldetegian, Jacques Laffiteko karrikan, 9 (hala dio barneko azalak).

Liburuaren neurriak: 175 × 119. Luze-laburrez aski tarrotua: 438 orrialde ditu. Liburua lau zatitan zatitua dago. Kapituluak orotara 60 dira. Axularren *Gero*-k ere 60 kapitulu ditu, baina Lapeyre-renak gehienetan laburragoak dira.

Itxuren arabera eta Lafittek dioenez, Lapeyre-k bere obra osoa hiru liburutan emateko asmoa zuen, baina heriotzeak galerazi zion. Beraz, kristau erlijioaren azalpen bat osoa, katekesi mailakoa, egin nahi zuen.

Bizkitartean lehen liburua soilki utzi digu, hots, kristau fedeko sineskaiei azalpena. Azalpen hori egiteko Kredoa hartzen du ardatz edo oinarritzat (1).

#### INGURUMARIA ETA GIROA

XIX. mende hondarrean eta XX. aren hastapenean Eliza eta Estatuaren arteko har-emanak Frantzian ez dira gozoak. Hirugarren Errepublikak laizismora lerratzen da. Fraide eta serorak atzerrira jaurtiak dira. Erlijioaren irakaskuntza eskoletarik kentzen da. Herrixka bakoitzean erriente —maisua— eta apaiza elkarren etsai dira. Pertsekuzio giro bat edo fedea erasotua delako sentimendua pizten da katolikoen artean.

Mokoka honen ondorioak Ipar Euskal Herrira ere heldu dira, nola ez? Beharbada Frantziako beste zenbait tokitan baino bortitzagoak dira hemen erlijio eta politikaren arteko eztabaidak (2).

Eta guretzat gogoangarri dena: Estatuak frantses hizkuntza soilki aitortzen eta erabiltzen duen bitartean, Eliza, neurri handi batean, euskaraz baliatzen da.

Orduan, hain zuzen, halako pizte edo lorealdi bat ezagutzen du euskal literaturak Iparraldean. Idazle, olerkari, kazetolari, gramatikari etab. Eta idazle horietako batzuk ez dira nolanahikoak, guztiz bikainak baizik. Hona hemen izen batzuk: Arbelbide, Diharassary, Joannateguy, Adema, Elissamburu, Frère Innocentius, Etxeberri, Hiriart-Urruty, Héguy. Gramatikari bezala Ithurry. Horien artean kokatu behar da, noski, Lapeyre ere. Oso-osoki eta bete-betean belaunaldi horretakoa du.

#### LIBURUAREN MAMIAZ

Kristau fedearen azalpen sistematiko bat egin nahi du Lapeyre-k. Norentzat, ordea? Bistan da, euskaldun arruntarentzat, denbora berean kristau fededun eta euskaldun den gizon arruntarentzat (3).

---

(1) Orripeko ohar batean agertzen digu egileak sakramenduei buruz beste liburu bat egiteko asmoa duela (ikus 175).

(2) Ikus J. INTXAUSTI, *Iraultzaren bildotik*, Jakin 1972.

(3) «Bainan mintzo naiz Euskaldun fedea duteneri, hekien gehiago argitze-ko», 144.

Lapeyre-k gogoan duen irakurlea ez da jakintsua. Kristau fedean hazia eta neurri batean eskolatua, hori bai. Irakurle honi bat-batean fede horren kontrako erasoak heldu zaizkio. Fedean sendo irauteko lagundu nahi dio. Lapeyre-k uste du fedearen ezagutza sakontzea dela horretarako biderik onena, eta bide hori hartu du berak (1).

Katekesi mailako lana da gure liburua, eta egileak nahi du etxean guztiek elkarrekin irakur dezatela (2).

Kristau fedea aitzingibel askotako gaia izanik, honelako sintesi bat egitean murrizteak gertatzen dira, nahi-ta-ez. Lapeyre-ren liburuan ere hala da. Badira bertan anitz gauza garaiko marka dutenak eta gaur gaindituak iruditzen zaizkigunak. Kristautasunaren alderdi batzuk azpimarratzen ditu, beste batzuk isilik uzten. Maiz-sarri, razionalismo idor baten erasoei taxu bereko beste razionalismo batekin erantzuten dio. Teologian tradizionalisten eskolari atxikia dela ematen du zenbaitetan (3). Badirudi harentzat Elizan dena dela argi eta kanpoan dena beltz. Anitzetan oin berean jartzen ditu fedeko egiak eta egia horiek nolabait argitzeko ematen diren adierazbideak. Obraren zati batzuetan moralismo huts-soilera lerratzen da, etab.

Honekin liburuaren zenbait muga adierazi nahi ditugu, gainerakoan beroren mami baliotsua gogoz aitortzen dugularik.

Argiaren alderdia da gure egileak kristau fedean gehienik goraipatzen eta prezatzen duena. Fedea, alegia, argi gidari bat dela gizonarentzat, nondik nora ibili behar duen etab. erakusten diona. Gizonaren ilunbeak oro suntsitzen dituen argia.

Badakigu alderdi honek gaur ez duela arrakasta gehiegi, zenbaitek ukatu ere egiten duela; baina Elizaren dokumentuek orai ere, eta arrazoi osoz, alderdi honen garrantzia azpimarratzen dute (4).

## LIBURUAREN EGITURA

Erabateko batasun trinkoa du liburuak. Obra hau ez da, bada, batasunik ez duten pusketez edo adabakiz osatua. Batasun honekin kontzabitua eta bururatua izan da. Arrazoiketek toki handia dute bertan. Liburu guztian barna egileak haria zuzen bere xedera gidatzen daki.

---

(1) «Uste izan dut, denbora hautako guduen erdian, Ertlijonearen ezagutza zaitekela hamarrik hoberena eta segurena Fedearen etsaien garaitzeko. Hortik, lan hunen lehen pentsua», 2.

(2) Ikus 32.

(3) Ikus 3.

(4) Ikus, esate baterako, «Catechesi tradendae» gutuna.

Perpauz luze xamarrak ugari aurkitzen dira liburuan. Era askotako perpauz konposatuak ere bai: kausalak, konpletiboak, kontzesiboak, etab. Beraz, prosa mueta baten lekuko jatorra da Lapeyre.

#### LIBURUARI BURUZ EMAN DIREN ERITZIAK

Lafitte jauna izan da, noski, Iparraldeko euskal literaturaz gehienik axolatu dena.

Gure idazle honi buruz hara zer zioen 1941. urtean:

«Etienne Lapeyre est certainement inférieur aux deux auteurs précédents: son explication du *Credo* est excellente, mais son vocabulaire est un peu maigre et sa construction manque de souplesse» (1).

Hiztegi pobrea eta joskeran malgutasun falta dituela dio. Eta Arbelbide eta Diharassary baino maila apalagoan jarri behar dela.

Geroago, berriz, 1975. urtean, txosten bat, propio eta berariaz idazle honi eskeinia, ekarri zuen Lafitte berak Euskaltzaindira. Bertan hara zer dioen:

«Aitortuko dut, 23 urtetan liburu hori lehen aldikotz eskuratu nuelarik, ez zitaidala hanbat laketu, idorskoa aurkitu nuen, eskola liburu baten parekoa; ene inguruko apezgaiek ere esker guti zioten, latin eta frantses kutsu hanixko hautemaiten ziotelakotz, ala hitzetan, ala joskeran. — Egungo egunean, estakuruak estakurutei, ezagutzen diot, erakaspenez bertzalde, jainu, indar, argi eta bizi. Atsegin nuke, oraiko idazleak euskara mota hortarat hurbil balite» (2).

Nik, ordea, neure *Historia de la Literatura Vasca*-n (3), liburu hau lehen aldiz irakurri nueneko zirrara edo inpresioa kontatzen dut. Arras bestelakoak dirudite eritziok —Lafitte-ren lehena eta enea—, baina agian norberaren girotik argitzen dira. Lafitte jaunak 23 urte zitueanean 1924. urtea zen. Eta ordurako Hegoaldeko literatur joera eta erizpideak Iparraldera helduak ziren. Eta horien ondorio bide dira hor agertzen diren aburu eta ikuspuntuak.

Dena dela, egia izango da hiztegi aldetik liburu honek ez duela aparteko joritasunik. Joskeraz denaz bezanbatean, ordea, prosista zahar guztien ildo beretik dabil. Idazle zahar haiek mesede paregabea egin ziguten, hots, hizkuntza idatziaren tresna tankeratu, moldatu. Zoritxa-

---

(1) *Le Basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*; Bayonne 1941; 66 orrialdean.

(2) «Etienne Lapeyre (1840-1893)». *Euskera* (1976), 113.

(3) Lehen edizioa 1961, 187 orrialdean. Bigarrena 1979, 191 orriald.

rrez gure aroan mesede hori aintzat hartu beharrean, haien lana txarizat joa izan da, eta haiekin lokarriak hautsirik abiatu nahi izan dugu, baina nora?

Azken zolan edo hondoan hemen datzan auzia hau da: Guk, euskaldunok, kokaturik gauden tokian eta Histori unean, arbuia dezakegu Mendebal guztian hedaturik eta onarturik den prosa egiteko moldea, dakigularik, gainera, horrela jokatzuz geure tradizio propioa arbuiatzen dugula? Horretaz Mitxelena jaunak zerbait esan zuen Arantzazuko txostenean (1).

#### LAPEYRE-REN ORTOGRAFIA

Ortografiaren aldetik Lapeyre-ren liburuak berri aire bat du. Gaur darabilgun ortografiatik oso hurbil da.

Ortografiaren modernotasun hau hiru puntutan nabari da:

1) «ka», «ke», «ki», «ko», «ku» eta «ga», «ge», «gi», «go», «gu» idazten du beti, zaharren «ca», «co», «cu», «ça», «ço», «çu», «que», «qui», «gue», «gui» baztertuz (2).

2) «V» letra baztertzen du, gehienetan behintzat.

3) *Ez* adberbioa beti aditzetik aparte idazten du.

Euskal ortografiaren historia ez dago oraino egina, eta horren erruz askotan uste okerrak izaten ditugu. Berriztat jotzen diren gauzak, alegia, ez ohi dira beti hain berri, eta berritasunaren asmatzaileak ere ez dira guk uste ditugunak izaten.

1) Lehenbiziko puntuari buruz hara zer dakigun: «ka», «ke», «ki», «ko», «ku»; «ga», «ge», «gi», «go», «gu» idazkera beti soinu berbera adierazteko erabiltzea, eta, beraz, «c», «ç», «qu», «gue», «gui» baztertzea, usuario hau Lapeyre baino lehen Iparraldean zabalduxea dago.

Inchauspe kalonjeak Axularren 3. edizioa atera zuen Baionan 1864. urtean. Ortografia zaharra erabiltzen du; baina halako esplikazio bat ematera behartua balego bezala, hara zer dioen aitzinsolasean:

«Esquiribatceco araz ere bi hitz erran behar dugu, ceren batec guisa batera, bertcec bertcera nahi baitçuten Axularena alda gueneçan. — Oraico denboretan euscaraz esquiribaçaille guehieneç hautatu dute esquiribatceco molde bat euscarari hobequi eta chuchenquiago dohacona. Baina esquiribatceco ara hura ezta oraino

---

(1) L. MITXELENA, «Ortografia», *Euskera* (1968), 219 orriald.

(2) Haatik, tituluari *Credo* hitzaren «C» hori errespetatu du.



asco hedatua; ezta ere populuaz ongui hartua, ceren eman behar baitçaicate le-trey erdaran emaiten eztioten soinu eta balio bat; eta are catechimaco eta Eliça-liburuetaco euscara ezpaita hala esquiribatua»(1).

Beraz, aitortzen du Inchauspek idazteko molde berria bere garaian hedatua bai, baina gutziz onartua ez zela.

Duhalderen liburuan (*Meditacioneac*, 1809) «ga», «ge», «gi», «go», «gu» idazkera hau ikusten dugu; eta «V»ren ordeztu beti «B» jartzea ere bai, baina bestetan ortografia zaharrari atxikia da.

1838an agertzen da Baionan *Andre Dena Mariaren ilhabetea*: hau da esukal liburu inprimatuetan idazteko molde berriari sistematikoki bidea zabaltzen diona.

Ikusten denez, era berria Iparraldean sortu, eta poliki-poliki bere bidea egin zuen eta Lapeyre-ren garairako erroak egin eta finkatua zegoen.

Hegoaldean ere ortografiaren berritzea Aizkibelek proposatzen du bere Hiztegian (1883), eta, berak dioenez, *Andre Dena* delakoa agertu baino lehen asmatua zuen. Hala izango da, baina Iparraldean ere *Andre Dena* baino lehen da Darrigol-en liburua (2) eta XVIII. mendeko *Birjina*, elaberri argitaragabea. Beraz, lehenasuna Iparraldeari zor zaiola dirudi (3).

2) «V» letra erabat baztertzea eta horren ordeztu beti «B» idaztea. Era hau ere Duhalderen liburuan jadanik agertzen da eta Lapeyre-ren garairako onarturik zen.

3) *Ez* adberbioa beti aditzetik bereziturik idaztea. Era hau noiz eta nork hasi zuen zuzen ez dakigu; baina Iparraldean XIX. mende hon-darrean aski zabaldua ikusten dugu. Arbelbidek, esate baterako, *Erlisio-nea* 1892an agertzen du: hor ere *ez* beti askaturik ageri da. Joan-nateguyk, aldiz, *Sainduen Bizitzea*-n —Baiona 1890— aditzari loturik idazten du.

Aztartu beharko litzateke artoskiago noiz eta non hasten den *ez* askaturik idazteko era. Nolanahi den, era hori ez da inoiz uste izan den bezain berria (4).

---

(1) *Gueroco Guero*, Edicione berria, Bayonan 1864; Aitcinsolhasa, IX.

(2) *Dissertation critique et apologétique sur la langue basque*, Bayonne 1827.

(3) Ikus ene *Historia de la Literatura Vasca*; Indice de Materias: Ortografia.

(4) Ikus VILLASANTE, *Sintaxis de la oración simple* (Serie Eleizalde, 6), p. 32ss.

## EUSKALKIA

Lapeyre azkaindarra zen eta lapurdiera da Azkaingo euskalkia. Lapeyre-k darabilen euskara mueta ere lapurdiera da, noski. Halarik ere, hizkuntza biziak bere aldaketak ezagutzen ditu eta mendeetan barna ez dago beti geldi eta higitu gabe. Axularren euskalkia ere funtsean lapurtarra da, baina Axular eta Lapeyre erkatuz, bion artean badela diferentziarik aski ohartzen gara. Gainera, idazlea ez da, ia inoiz ere, txoko bateko hizkerari erabat lotzen. Adibidez, gure liburuan ageri da inoiz *ontsa* hitza. Orai bada, hitz hau ez da lapurtarra, benafarra baik. Etab.

## FONETIKA

Fonetismo batzuk aurkitzen dira liburuan. Itxuren arabera, lokalismo edo txokokeriak dira. Adibidez, «oa»ren ordez «ua» idaztea, «oe»ren ordez «ue», «ea»ren ordez «ia». Etsenploak: *Erromanueri* (32), *onesgua* (186), *oboingua* (187), *arrastuetan* (31), *erruak egin* (23), *gachtuen* (27), *guriak* (69).

## BUSTIDURAK

Daranatz Baratciarten liburuari buruz (1) idatzi zuen artikulu batean honela mintzo da:

«Ce livre remplit fort bien la première condition de la méthode prônée par les oeuvres de nos meilleurs auteurs basques, celle d'unir l'ampleur et la fermeté du dialecte labourdin à l'atticisme et à la délicatesse du sous-dialecte *costatar*. — Baratciart exclut, d'une part, l'abus des lettres mouillées *ll* et *ñ*, qui ôtent au langage de sa noblesse et de sa dignité; de l'autre, il lui conserve des lettres aspirées. On peut dire que, sous ce rapport, l'abbé Baratciart est parvenu à réaliser le beau idéal de la manière d'écrire le basque» (2).

Lapeyre ere ildo beretik doa. Berak ere gehienetan bustidurak kentzen ditu. Beraz honela idazten du: *oraino*, *bainan*, *choilaz*, *ginen*, *egina*, *gainean*, *ilhun*, *oinetan*, *izkribatzaile*, *oilo*, *Salbatzaile*, *irakurtzaile*, *Phiztu da hilen artetik*, etab.

---

(1) *Guiristinoqui bicitceco eta hiltceco moldea*; Baiona, 1784.

(2) DARANATZ, «L'auteur de *Guiristinoqui bicitceco eta hiltceco moldea*», *Riev* I (1907), 55.

Haatik, aurkitzen dira, gutitan eta bakan, zenbait bustidura: *llilluratu*, *llilluramendu*, *zigillu*, *laño*, *lañoiki*, baina, esan dugunez, oso guti dira.

«CH» multzoa, berriz, Lapeyre-ren grafian «X»ren ordain dena, erruz erabiltzen du: *adichkide*, *trichtexia*, *ichtorio*, *michterio*, etab.

### 3

## GRAMATIKAKO ZENBAIT PUNTU

Ez da gure zeregina liburu honi buruz erabateko deskribapena egitea. Hain zuzen, argitalpen berriok egiten dira —besteak beste—, ikerketa gaia eskeintzeko. Haatik aztarna edo zantzu batzuk ematea ez da, agian, alferrik izango.

### PERPAUS KAUSALAK

Autore honek perpaus kausalak nola egiten dituen Arrasateko Bilzarrean aztertu zen. Ez dugu, bada, horretaz hemen deusik esango.

### «NOR» ADIZKIAK «NORI»KOEN ORDEZ

Hegoaldeko batentzat pixka bat estrainio egiten da joera hau, baina, uste dudanez, Iparraldean oso hedatua eta zilegizatua joa da. Gure autoreak maiz erabiltzen ditu «Nor» adizkiak «Nori» adizkiak erabili behar diren tokian. Adibide bat edo beste emango dugu soilki, baina honelakorik franko eta erruz ageri da liburuan:

*Haren gorphutzari xoilki behatzen badugu*, 4 (*dugu*, *diogu*-ren ordez).

*Jendetze guzietan, nork eman ahal izan du sentimendu hori?*, 184 (*du*, *die* edo *diote*-ren ordez).

### AHALEZKO ADITZ-JOKOAK

Galderazko perpausetan Lapeyre-k ez du sekulan *ahal* edo *al* jar-tzen; ahala edo ahal izatea adierazteko, ordea, erruz, baita ezezkoetan ere (orduan *ezin*-en ordez, *ez* + *ahal* erabiltzen du).

Adibideak:

*Enganatzen ahal ez gaituena*, 15

*Zer aurkitzen ahal duten*, 14

*Aurkitzen abal badu*, 6  
*Nola heltzen abal garen*, 7  
*Nabiz ez ditugun...osoki konprenitzen abal*, 18  
*Agertzen abal dauzkigu*, 17  
*Ardiesten abal dugu*, 22  
*Ikusi abal izan direnak*, 21  
*Gure eskuek unkitzen abal dituztenak*, 20  
*Egin abal ez dutena*, 23  
*Ez baitugu aurkitzen abal*, 191  
*Salbatu abal izan dire*, 69

Aditzaren Modu Potentziala ere erabiltzen du, baina, iduriz, guti.  
Hara nola:

*Ez dezaket onbets*, 15  
*Ez dezakegu ukha*, 34  
*Ez daiteke egia baizik izan*, 33  
*Mundua salba zezaketen sakrifizioa eta bitartekoa*, 69  
Beraz, ezin partikula holakoetatik baztertzen du.

#### GAZTELANIAZKO «SOBRE, ACERCA DE»REN EUSKAL ORDAINA

Esanahi hori adierazteko Lapeyre-k usu erabiltzen du *gainean*. Adibidea: *Ez du nibork dudarik egiten Adameren eta Ebaren salbamenduaren gainean*, 69.

(Adibide gehiago: 5,6,8,10,12,14,33,34 zatietan).

Esanahi hau berau «-z» atzizkiaz ere maiz adierazten du. Adibidez: *Zoin den nigar-egingarri hoin ederki Fedeaz mintzo den gizon batek, fedea galdua izatea!*, 14.

Gaur, Hegoaldean, erruz erabiltzen dugu *buruz* posposizioa datiboko kasuaren ondotik, esanahi hau adierazteko. Egia esan, gure autoreagan itzulika hau aurkitzen da, baina beste ñabardura batekin, hots, «con respecto a», «de cara a», «frente a» adieraz. Adibidez:

*Fedeak...erakusten dauku...zer eginbide dugun gure Kreatzaileari buruz*, 23 (1).

---

(1) Ikus VILLASANTE, *Estudios de Sintaxis Vasca* (Serie Eleizalde, 5), p. 71ss.

Gorago esan dugu *ezin* partikularen erabilera ahalezko aditz jokoeta-  
tik baztertua dela gure autorea baitan. Baina arrunt erabiltzen du par-  
tikula hau «-zko» atzizkiaz horniturik diren partizipioen aurrean. Era  
horretara gaztelaniazko «invencible», «incontable», «inmutable», «in-  
visible», «imperturbable» etabarren ordainak moldatzen ditu. Hona  
hemen adibide batzuk:

- Ezin ukatuzko lekukoek*, 21
- Ezin mudatuzkoa*, 15
- Ezin kondatuzkoak*, 149
- Ezin betezko*, 183
- Ezin erranezko*, 188
- Ezin bentzutuzkoak*, 145
- Ezin ikusizkoa*, 147
- Ezin konprenituzko gauzak*, 19
- Ezin kenduzko*, 23
- Ezin agortuzko nigarrak*, 26
- Ezin kordokatuzko*, 28

#### ADITZ MODALEKO PERPAUSEI DAGOZKIEN LAGUNTZAILEAZ

Aditzak bere ondoan *behar*, *nahi*, *gogo*, *gura*, *uste* duenean, halako  
zalantza bat sortzen da frankotan aukeratu behar den laguntzaileari bu-  
ruz: ea transitiboa ala intransitiboa behar den erabili, alegia. Badirudi  
transitiboa behar dela, baina praktikan zalantzak izaten dira (1).

Gure autoreagan ere zalantza horren arrastoak nabari dira. Maiz  
erabiltzen du intransitiboa iduriz transitiboa behar litzatekeenean. Adi-  
bidez:

- Bekatuak egin kaltea erreparatuko zuena, baitezpada, gizona behar zen  
izan*, 69
- Behar gare mintzatu*, 73
- Ez naiz xehetasunetan sartu nahi*, 70
- Egon nahi izan direnentzat*, 186
- Jesu Kristoz behar gare mintzatu*, 65

---

(1) VILLASANTE, *Sintaxis de la Oración Simple* (Serie Eleizalde, 6), p. 76ss.

Baina beste aldera ere egiten du:

*Sinhetsi nahi ez dutenek*, 189

*Hegaldatu nahi luke*, 188

*Ez dezagun mugarririk eman nahi izan*, 189

#### IZEN ORDAIN PERTSONALAK

Gure autoreagan ez da nabari zenbait idazle zaharretan (Axular, Leizarraga) ageri den jokoa: *nik-neure*, *zuk-zeure*, etab., hots, erreflexibotasuna adierazteko «u» «eu» bihurtze hori (*zure/zeure* etab.). Lehen pertsonarako *ene* soil-soilik erabiltzen du beti. Eta beste pertsonetan *hire*, *zure*, *gure*, beti, aldaketa gabe.

Adibideak:

*Garraia zazu zure kurutzea*, 27

*Nik piztuko zaitut, zeruko erresuman hartuko enekin*, 27.

#### «EDO» ETA «ALA»REN EREMUAZ

Bi konjuntzio hauen eremua mugatzerakoan ere izaten dira eztabaidak. Gure autoreak *ala* oso guti erabiltzen du (1). Beti edo ia beti, *edo*, nahiz berdintasuna nahiz disiuntiba adierazteko. Ikus atzekaldeko Hiztegian ematen diren aipuak.

#### «ERE» PARTIKULAREN KOKAERA

Esaldiaren barnean zein tokitan edo lekutan jarri behar den partikula hau, ez da beti erabakitzen erraz. Badirudi usuario bat baino gehiago dela gure herrian. Lapeyregan partikula honek duen kokaera inoiz arraro edo bitxi iruditzen zaigu Hegoaldekoen. Pasarte bat bakarra aipatuko dugu, baina liburuan gehiago eta salatariagoak ere badirela ohar-taraziz:

*Aurkitzen dire, bekien sinbesteetan, asko gauza, Erlijioneak, eta ere adimendu zuzen eta argitu batek onhetsi behar ez dituenak*, 184.

#### PERPAUS AURKARI EDO ADBERSATIBOAK MUNTATZEKO ERA

Hemen ere problemak izaten ditugu, batez ere erdarazko «sino» eta erdarazko «más que»ren ordainak zuzen asmatzen. Lapeyre-ren jorkaera honako hau dela uste dut:

---

(1) Inoiz edo behin, bai. Ikus 96 zatia.

- a) Gaztelaniazko «sino», euskaraz *bainan*.
- b) Gaztelaniazko «más que» (edo «sino», baina «más que»ren barioaz): euskaraz *baizen* eta *baizik*.

Adibideak:

- a) *Bainan*

*Ez da su hura, mundu huntako suak bezalakoa, bainan su bat, Jainkoak bere justizian eta koleran phiztu eta bubatzen duena*, 189.  
*Eta ez mendekuzko bainan bakezko pentsamendu eta asmuak ditut harrentzat*, 69.

- b) *Baizen, Baizik*

*Biziaren eta heriotzearen legeak, nork egin ditu baizen Jainkoak?*, 189.  
*Nola daiteke gauza hori, baizen Jainkoaren indarrak?*, 148.  
*Zer erran nahi dute horiek? Baizen, Jainko gure egileak eman duela gu baitan, bethi-ereko zorion oso baten asmua eta gutizia?*, 184.

Baina, bistan da, pasarte guti hauek ez dira aski aurkarien eremu bere osotasunean hartzeko. Ikerketa zabalago eta zehatzagoa behar ko litzateke.

#### PERPAUS PASIBOAK

Inoiz kasu ergatiboaz ere bai, baina usuago instrumentalaz antolatzten ditu.

Adibide guti batzuk emango ditugu:

*Fedeak...erakusten dauku, nortaz eginak garen*, 23

*Suez erreka*, 32

*Norbeitez aurkitua*, 30

*Adixkide batez saldua*, 67

*Jainkoaz ikusiak*, 187

Baina:

*Gizonek egina*, 18. Etab.

#### ERLATIBOZKO PERPAUSAK

Erlatibozko perpausak muntatzeko era bat baino gehiago du Lapeyrek:

- 1) «*bait-*» aurrizkiaz
- 2) «*-n*» atzizkiaz
- 3) *zoin* (*zein*) izen-ordainaz.

Lehen erari buruz zertxobait esan genuen perpaus kausalak autore honetan aztertu genituenean. Ez goaz, bada, bir-esatera.

*-n* atzizkiak moldatueta maiz ezartzen dio artikulua *-n* honi eta era horretara «antecedente» deitzen denaren ondotik botatzen du erlatibozko esaldia. Beti ez du hola jokutzen, noski, baina bai sarri. *Itzalik ez duen egia*, esan beharrean, alegia, *egia, itzalik ez duena*, esango du, 192.

Hona hemen beste adibide batzuk:

*Huna, ifernuko sofrikario bat, errexkiago konprenituko duguna*, 189.  
*Hau da su bat bethi erretzen, eta bethi bizi uzten duena*, 189.

Ikus dezagun, azkenik, *zoin* (*zein*)en bidez nola antolatzen dituen erlatibozko perpausak:

*Eta, egia dorphea eta garratza, bainan egia, zoinaren pentsamenduak lazten baikaitu*, 189.

*Mixerio espantagarria, bainan, zoina gabe ez baitziteken gizona izan salbatua*, 69

*Guzien sinbestea izan da, leku bat badela, zointan, bizi huntarik lekorra, onak izanen baitire sariztatuak, eta bertze leku bat, zointan gaxtoak izanen baitire guztigatuak*, 187.

Ikusten denez, *zoin* horrek *bait-* aurrizkia ere behar du aditzean.

#### PERPAUS KONPARATIBOAK

Honelakoetan esaldi bikoitzak muntatzen ditu, zati banatan elkarri deika dauden partikulak ezarriz:

*gehiago...ezen ez  
zenbatena...eta hanbatena  
hain...non*

Adibideak:

*Hain da gauza hori zuzena, non, paganoek berek onhetsi izan baitute*, 187

*Zenbatena ere zorion baitu, eta hanbetena gehiago nabi du*, 183

*Aberats tzarra, ifernuan gehiago tormentatua da, galdu duen zeruko zorionaren pentsamendua, ezen ez, jasaiten dituen sofrikarioez*, 188.



Inoiz edo behin, bai, baina Altubek emandako erregelak beste askotan ez dituela gure autoreak betetzen, aitortu behar. Ez goaz adibiderik aipatzera, baina irakurleak berak aurkituko ditu, erraz gainera.

Hemen zilegi izan bekit Mitxelenak oraintsu esan duena gogoratzeari:

«No llegaremos a ninguna parte si postulamos un orden (en abstracto) normal y todo lo demás se considera desviación. Hay casi siempre más de una posibilidad de ordenación: lo que hay que determinar es si influyen en el significado, si son o no igualmente corrientes» (1).

#### AUTOREAREN BESTE BEREZGARRI BATZUK

Bukatzeko, aipa ditzagun laburzki Lapeyre-ren idazmoldean maiz edo ardura azaltzen diren beste zenbait gauza:

1) Izenaren aurrean partizipioak ezein atzizki gabe jarriak: Hala nola:

*Jesusek eman bidea*, 147

*Bere eskuez egin Jainko faltsoak adoratuko ditu*, 9.

Jakina denez, Iparraldean arrunta da ohitura hau.

2) Aposizioak. Ugari aurkitzen dira liburuan. Hona adibide bat edo beste:

*Erlifione, gizonen pasionez eta adimenduaren flakezaz ilhunduak*, 9.

*Mintzo naiz Eskualdun fedea duteneri*, 144

*Boza bat, irakusten eta erraiten diona...*, 33.

3) Laguntzailea ez beti, noski, baina frankotan aditzaren aurretik jartzen du:

*dezagun erran*, 5

*dezagun ikus*, 11

*behar dauzkigute eman*, 2

*non behar duen indarra bilhatu*, 15.

4) Gauza batzuetan uste dugu maisu dela Lapeyre. Esate baterako, *haren* eta *bere*-ren erabilera. Orobat, *bera*-ren enplegu zuzen jatorrean. Halaber, *-zko* atzizkiak adjetiboak moldatzean: *lanezko*, *aitazko*, *agintazko*, *bizizko*, etab. Deklinabide mugagabea, berriz, ez hainbeste. Honetan askoz seguruagoa da Axular.

---

(1) Ikus VILLASANTE, *Sintaxis de la Oración Simple* (Serie Eleizalde, 6), p. 234 nota.

## GURE EDIZIOA

Liburuaren ortografia gaurkotu egin da. Egia esan, gauza guti batzuk bakarrik aldatu behar izan dira ondoko lerroetan ematen diren printzipioen arabera.

Aipamenak errazkiago egin ahal izateko, testu guztia 194 zatitan partitu dugu, zati bakoitzari bere zenbakia emanaz. Beraz, zenbaki horien arabera eginak dira aipamen guztiak, bai Sarreran eta bai atzekal-deko Hiztegian ere.

Horra liburuaren ortografia gaurkotzeko hartu diren arauak:

1. — «H» letra egileak dakarren bezalaxe utzi da.
  2. — «Ch», beti «X» jarri dugu. Adibidez, *michterio* = *mixterio*.
  3. — «Tch», beti «Tx». Adibidez, *etche* = *etxe*.
  4. — «B» eta «P»ren aurrean beti «N», ez «M». Adibidez, *zembait* = *zenbeit*.
  5. — «V», beti «B». Adibidez, *privilejio* = *pribilejio*. Egia esan, egileak berak ere gehienetan hala egiten du.
  6. — «Y» grekoaz izan ditugu istiluak. Egileak ez du beti jokaera berbera. Batzutan idazten du *Ebanjelio*, beste batzutan *Ebanyelio*, batzutan *juye*, beste batzutan *juye*, *yuye*, etab. Guk gehienetan *i* ipini dugu, inoiz *j*, behin *dd*. Adibidez: *leial*, *Ebanjelio*, *lanjeros*, *onddoak*. Segidako atalean ematen dira xehetasun zehatzagoak.
  7. — Bokalen arteko zenbait «s» doble —frantses ortografiaren eraginez jarriak—, «s» bakunaz idatzi dira. Adibidez: *Messias* = *Mesias*, *Assuerus* = *Asuerus*.
  8. — *Ba-* eta *bait-*, beti aditzari lotuak doaz (egileak dakarren bezala, bestalde. Inoiz, ordea, *ba-* marratxoaz ere erabiltzen du).
  9. — *Ez*, beti aditzetik askaturik jarri dugu (egileak ere halaxe egiten du).
  10. — Liburuak dakartzan orripeko oharrak gure edizioan ere gorde dira.
  11. — Egileak ez du sekulan apostrofoa (') erabiltzen: beti marratxoa (-). Gure edizioan ere berdin egin da.
  12. — Puntuazio markak (,;/:./!/?) lehen edizioak dakartzan bezala utzi dira.
- Kasu partikularretan izan ditugun korapiloak hurrengo atalean izendatuki eta xheki aipatzen dira.

## TESTUARI BURUZ OHARPENAK

Zenbait zalantzazko hitz, kasu partikularretan, aurkitu dugu. Batzutan lehen edizioko hutsak ziren (huts nabariak, ustezkoak edo dudazkoak). Beste batzutan grafia aldaketaren istiluak. Pasarterik gehienak ondoko zerrendan datoz, kasu bakoitzean nola jokatu den argituz.

*Liburuaren tituluan: Kredo jarri da. Lehen edizioan Credo dago.*

*Barneko azalean: Baionan jarri da. Lehen edizioan Baïonan dago.*

*Bikario Jeneralaren Baimenean Lapeyre-ren liburuan baino ortografia zaharragoa ageri da. Honelako izkribakerak daude: *esplicatceco, iracurtu, gucien, fededunec, prezatzeco, causitcen; baina agertu, egia, arthoski, azken, jakin, clarki.**

3 zatian: *Kredoan. Lehen edizioan Credoan.*

5 zatian: *errokeria (sic. Hala uzten da). Erokeria.*

6 zatian: *juiatzeko. Lehen edizioan jujatzeko.*

7 zatian: gauza bera.

8 *nor-naik (sic). Nor-nabik.*

9 *Ejptoko. Lehen edizioan Ejyptoko.*

10 *pensamendu (sic).*

13 *juie. Leh. ed. juye.*

15 *Bainan Fedearen... Leh. ed. bainean.*

16 *Ebanjelioko. Leh. ed. Ebanyelioko.*

16 *juiatzekoa. Leh. ed. jujatzekoa.*

17 *ilkitzen. Leh. ed. ilkiltzen.*

18 *adimendu flakoaz. Leh. ed. adimendua flakoaz.*

22 *juiatu. Leh. ed. yuyatu.*

22 *jadan. Leh. ed. yadan.*

22 *Ebanjelistak. Leh. ed. Ebanyelistak.*

22 *hitzetan. Leh. ed. hetzetan.*

22 *Ebanjelioa. Leh. ed. Ebanyelioa.*

24 *unkitzera. Leh. ed. unkintzera.*

25 *juia. Leh. ed. juya.*

26 *leial. Leh. ed. leyal.*

26 *kontsolatzen. Leh. ed. kontzolatzen.*

28 *Erekusten. Erakusten.*

29 *Kredoaren. Leh. ed. Credoaren.*

29 *Salbaienek. Leh. ed. salbayenek.*

- 31 *himno*. Leh. ed. *hymno*.  
 32 *salbaia*. Leh. ed. *salbaya*.  
 32 *juiatzeko*. Leh. ed. *yuyatzeko*.  
 33 *leial*. Leh. ed. *leyal*.  
 34 *juierik*. Leh. ed. *yuyerik*.  
 35 *dakigu*. Leh. ed. *daukigu*.  
 40 *nabi dukana*. Leh. ed. *naki*.  
 40 *juie*. Leh. ed. *juye*.  
 41 *klarki*. Leh. ed. *clarki*.  
 42 *Ebanjelioa*. Leh. ed. *Ebanyelioa*.  
 42 *beldur*. Leh. ed. *heldur*.  
 42 *higual* (sic).  
 44 *Trinita* (sic). *Trinitate*.  
 44 *bathaiako uretik* (sic). *Bathaioko*.  
 44 *Jesu-Kristo*. Leh. ed. *Jesu-Kkristo*.  
 44 *klarki*. Leh. ed. *Clarki*.  
 46 *ariñan* (sic). *Harean*.  
 47 *gaik*. Leh. ed. *gäik*.  
 48 *nonai* (sic).  
 48 *Arkanjelu*. Leh. ed. *Arkanyelu*.  
 48 *leial*. Leh. ed. *leyal*.  
 48 *jenerosen*. Leh. ed. *yenerosen*.  
 51 *lanjeretan*. Leh. ed. *lanyeretan*.  
 56 *ezkontza*. Leh. ed. *eskontza*.  
 57 *leial*. Leh. ed. *leyal*.  
 59 *zukeien*. Leh. ed. *zukeyen*.  
 59 *lanjer*. Leh. ed. *lanyer*.  
 61 *oian* (sic).  
 62 *oiban* (sic).  
 63 *bekatu orijinalaren*. Leh. ed. *bekatua*.  
 64 *leial*. Leh. ed. *lejal*.  
 65 *Arkanjelua*. Leh. ed. *Arkanyelua*.  
 66 *leial*. Leh. ed. *leyal*.  
 66 *Moise*. Leh. ed. *Möise*.  
 69 *erreperatuko* (sic). *Erreparatuko*.  
 69 *juie*. Leh. ed. *juje*.  
 70 *zalba* (sic). *Salba*.  
 71 *hautsi*. Leh. ed. *hautzi*.  
 73 *Arkanjelu*. Leh. ed. *Arkanyelu*.

- 75 *ikharagarri*. Lhe. ed. *ikharragarri*.  
79 *atseginen*. Leh. ed. *atzeginen*.  
79 *gabeta*. Leh. ed. *gabektua*.  
84 *bantuak*. Leh. ed. *hauntuak*.  
85 *mirraren*. Leh. ed. *myrraren*.  
86 *eztienez*. Leh. ed. *estienez*.  
86 *Jaidura*. Leh. ed. *jaidurra*.  
91 *juiatua*. Leh. ed. *yuyatua*.  
93 *juia*. Leh. ed. *juya*.  
95 *leproaz* (sic). *Lepraz* (?).  
95 *zueri emaiteko*. Leh. ed. *zure emateko*.  
97 *Jaire*. Leh. ed. *Jaire*.  
97 *Sinagogako*. Leh. ed. *Sinagoko*.  
97 *Naim*. Leh. ed. *Naim*.  
98 *Jesusez*. Leh. ed. *Jesuses*.  
100 *juiatzeko*. Leh. ed. *juyatzeko*.  
102 *Moisen*. Leh. ed. *Moysen*.  
104 *pobrean*. Leh. ed. *pobrean*.  
108 *Bonabenturak*. Leh. ed. *Bonaventurak*.  
109 *Sofrikario*. Leh. ed. *sofrakario*.  
109 *jasaiten*. Leh. ed. *jastatzen*.  
110 *juiatua*. Leh. ed. *juyatua*.  
110 *juie*. Leh. ed. *juye*.  
111 *majestateari*. Leh. ed. *mayestateari*.  
114 *juie*. Leh. ed. *juye*.  
115 *leial*. Leh. ed. *leyal*.  
117 *kuraia*. Leh. ed. *kuraya*.  
121 *bekaturako*. Leh. ed. *bekaturak*.  
121 *kuraiaz*. Leh. ed. *kurayaz*.  
122 *izan zezan*. Leh. ed. *izan zen*.  
122 *distiatzen*. Leh. ed. *distiantzen*.  
122 *ibets* (sic). *Ibes*.  
124 *juiatzen*. Leh. ed. *juyatzen*.  
124 *kuraiarekin*. Leh. ed. *kurayarekin*.  
125 *oiartzun*. Leh. ed. *oyartzun*.  
126 *den dela* (sic). *Dela* (?).  
127 *bere penetarik*. Leh. ed. *pere penetarik*.  
128 *hirur garren egunean*. Leh. ed. *hirur ganean*.  
134 *orhoit gaitzen*. Leh. ed. *gatezen*.

- 135 *igaiteaz*. Leh. ed. *egaiteaz*.  
 135 *suzko*. Leh. ed. *susko*.  
 137 *ez dut deus*. Leh. ed. *deut*.  
 137 *Naimeko*. Leh. ed. *Näimeko*.  
 147 *Baionako*. Leh. ed. *Baïonako*.  
 147 *Moisen*. Leh. ed. *Moysen*.  
 149 *Martiren*. Leh. ed. *Martyren*.  
 150 eta 151. Gauza bera.  
 151 *juiamenduak*. Leh. ed. *juyamenduak*.  
 151 *leial*. Leh. ed. *leyal*.  
 152 *iguritzeko* (sic). *Igurikitzeko*.  
 153 *arbuiautuko*. Leh. ed. *arbuyatuko*.  
 153 *Moisek*. Leh. ed. *Moysek*.  
 155 *eretikoen*. Leh. ed. *eritikoen*.  
 158 *arbuiautu*. Leh. ed. *arbuyatu*.  
 158 *bertze gutiago* (sic). *Bertze batzuek gutiago*.  
 159 *juiamendurat*. Leh. ed. *juyamendurat*.  
 160 *leialaren*. Leh. ed. *leyalaren*.  
 161 *izpirituatarat*. Leh. ed. *izpirituerat*.  
 161 *arbuiautuz*. Leh. ed. *arbuyatuz*.  
 162 *juiamenduko*. Leh. ed. *juyamenduko*.  
 162 *Tir*. Leh. ed. *Tyr*.  
 163 *basarkatzen*. Leh. ed. *basarkatzen*.  
 169 *Pribilejio*. Leh. ed. *pribileyio*.  
 170 *gorphutz bat baizik*. Leh. ed. *gorphutz baizik*.  
 170 *konparazione*. Leh. ed. *konperazione*.  
 170 *zilbegi*. Leh. ed. *silbegi*.  
 174 *juie*. Leh. ed. *juye*.  
 175 gauza bera.  
 176 *juiatuak*. Leh. ed. *juyatuak*.  
 179 *juiamendu*. Leh. ed. *juyamendu*.  
 183 *kontentazeko* (sic). *Kontentatzeko*.  
 184 *Martirak*. Leh. ed. *Martyrak*.  
 184 *juiatuko*. Leh. ed. *juyatuko*.  
 186 *juie*. Leh. ed. *juye*.  
 188 *zaukan* (sic). *Daukan*.  
 191 *ez baitire*. Leh. ed. *ez batire*.  
 191 *kontsolagarria*. Leh. ed. *kontzolagarria*.  
 193 *orhoit gaitezen*. Leh. ed. *orhoiten gaitezen*.

Aurkibidea. Desobedientziako. Leh. ed. *desobedientziako*.

Aurkibidea. Gauzak Elizan. Leh. ed. *gauzan*.

Hitz baten forma dudazko denean atzekaldeko Hiztegian galderazko marka jartzen diogu (?).

6

BIBLIOGRAFIA E. LAPEYRE-RI BURUZ

P. LAFITTE, *Le Basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*, Bayonne 1941; 66 orrialdean. — I. OMAECHEVARRIA, *Euskera. Un poco de gramática y algo de morfología del verbo vasco*, Zarauz 1959 (Ikus atzekaldeko «Crestomatía», 191-193 orriald.). — L. VILLASANTE, *Historia de la Literatura Vasca*, San Sebastián 1961, 187-188 orriald.; bigarren edizioa, Aránzazu-Oñate 1979, 190-192 orr. — P. LAFITTE, «Etienne Lapeyre (1840-1893)», *Euskera* (1976), 111-114. — *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*, Vol. II *Literatura*, 424 orriald. — S. ONAINDIA, *Euskal Literatura*, II, 203-205. — L. VILLASANTE - M.<sup>a</sup> PILAR LASARTE, «Perpauk kausalak Lapeyre idazlea baitan» (Arrasateko Biltzarrean, 1979), *Euskera* (1980), 537-563. — Ikus, baita ere, «Nécrologie», *Bulletin Catholique* du 3 avril 1893.

Damien Lapeyre-ri buruz (1842-1894) xehetasun batzuk aurki ditezke A. Rafael Muskarditz-en *Nor da hor?* liburuan, 35. orriald.; Editions Ezkila, Notre Dame de Belloc, Urt, 1975.

Azkenik, eskerrak eman beharrean gara edizio hau prestatzen, modu batera edo bestera, lagundu digutenei: K. Mitxelena, P. Charritton, B. Goity, Iratzeder, M.<sup>a</sup> Pilar Lasarte, María Isabel Goikoetxea (Lapeyrenen liburua mekanografiaraz aldatu zuena), Karmele Rotaetxe eta abarri.

FR. LUIS VILLASANTE

Arantzazun, 1980, Irailak 15





## ERAKUSLEAK LAPEYRENGAN

M.<sup>a</sup> PILAR LASARTE

Erakusleak hartuaz dialektologiarako lagungarri izan daitezken konparaketa batzuk egin ditugu, horretarako Euskaltzaindiak onartutako erakusle formen ondoan, Lapeyrek obra honetan erabiltzen dituenak jarriaz. (Ikus 30-32 orrialdean).

Kuadroan agertzen diren zenbakiak liburuan ikus daitezken adibideak dira, erraztasunagatik 33-38 orrialdeetan adibideen zerrenda osoa jartzen dugu.

Beste aldetik Lafitte Jaunak «Grammaire Basque» 83. orrialdean aipatzen dituen zehaztasunak idazle honengan betetzen direla ikus daitezke. (Begira 32. orrialdea).

Adibidez pluralean «HAUI-» idatzi ordez «HAU» hartzen du.

Baita ere formaz genitibo kasoan izanik nominatiboaren funtzioa betetzen dute batzuetan. Ikus 29, 31, 36 autorearen zatietan agertzen diren esaldiak.

Hau guztia begi kolpe batez ikusteko 30-32 orrialdeetako kuadroak begiratu.

## ERAKUSLEEN KONPARAKETA

Euskaltzaindiak onartua ezker aldean dator, Lapeyrek erabiltzen duena zenbakiaren ondoan

*Singularra*

hau — hau 1, 3  
honek — hunek 29  
honen — hunen 4, 36  
honi — huni 59

honekin — hunekin 183  
honetan  $\left\{ \begin{array}{l} \text{hontan 10} \\ \text{huntan 2, 4, 12} \end{array} \right.$   
honetako — huntako 4  
honetara  
honetatik — huntarik 13  
honetaz — huntaz 4

honengan  
honengana  
honengandik  
honegatik  
honentzat — hunentzat 99

hori — hori 1  
horrek — horrek 7  
horren — horren 17, 29, 31  
horri — horri 192

horrekin  
horretan — hortan 1, 7  
horretako — hortako 15  
horretara — hortarat 160  
horretatik — hortarik 11  
horretaz — hortaz 12, 14

horrengan  
horrengana  
horrengandik  
horregatik  
horrentzat — horrentzat 54

hura — hura 8, 12  
hark — harek 9, 8  
haren — haren 4, 7, 35 — harren 27, 76  
hari — hari 13

harekin — harekin 99  
hartan — hartan 78  
hartako — hartako 170  
hartara — hartarat 68  
hartatik — hartarik 56  
hartaz — hartaz 29

harengan  
harengana — haren ganat 74  
harengandik — haren ganik 68  
hargatik — hargatik 15, 17  
harentzat — harentzat 6, 15

*Plurala*

3

hauek — hauk 16, 19

hauek

hauen — haukien 152

hauei

hauekin — haukiekin 176

hauetan  $\left\langle \begin{array}{l} \text{hotan 164} \\ \text{hautan 1} \end{array} \right.$

hauetako — hautako 172

hauetara

hauetatik — hautarik 58

hauetaz — hautaz 50

hauengan

hauengana

hauengandik

hauengatik

hauentzat — haukientzat 106

hauetz — hautaz 45

horiek — horiek 5, 10

horiek — horiek 1, 2, 18

horien  $\left\langle \begin{array}{l} \text{hoikien 1, 14, 15, 30, 41} \\ \text{horien 1} \end{array} \right.$

horiei — hoikieri 6, 26

horiekin — horiekin 45

horietan  $\left\langle \begin{array}{l} \text{horietan 31} \\ \text{hoikietan 169} \end{array} \right.$

horietako

horietara

horietatik — horietarik 32

horietaz — horietaz 22, 111

horiengan

horiengana

horiengandik

horiengatik

horientzat — hoikientzat 24, 111

horiez — horiez 22

haiek  $\left\langle \begin{array}{l} \text{hek 20, 85} \\ \text{heiek 90} \end{array} \right.$

haiek — heiek 84 — hek 8, 88

haien  $\left\langle \begin{array}{l} \text{hekien 4, 5, 6, 51} \\ \text{heien 116} \end{array} \right.$

haiei — hekieri 15 — heki 88

haiekin  $\left\langle \begin{array}{l} \text{heiekin 131} \\ \text{hekiekin 133} \end{array} \right.$

haietan — hetan 70

haietako

haietara  $\left\langle \begin{array}{l} \text{hekietarat 132} \\ \text{hetarat 128} \end{array} \right.$

haietatik  $\left\langle \begin{array}{l} \text{hekietarik 29} \\ \text{hetarik 113} \end{array} \right.$

haietaz  $\left\langle \begin{array}{l} \text{hekietaz 21} \\ \text{hetaz 4, 20} \end{array} \right.$

haiengan

haiengana

haiengandik

haiengatik

haientzat  $\left\langle \begin{array}{l} \text{hekientzat 48, 103} \\ \text{hikientzat 24} \end{array} \right.$

haiez — hetaz 4

31

## B. — DECLINAISON

182. — Les trois démonstratifs se déclinent sur le modèle de *hau* que voici:

Cas	Singulier	Pluriel
Nominatif .....	haur	hauk
Actif .....	hun · ek	hau · ek
Médiatif .....	hun · ta · z	hau · e · ta · z
Inessif .....	hun · ta · n	hau · e · ta · n
Elatif .....	hun · ta · rik	hau · e · ta · rik
Adlatif .....	hun · ta · rat	hau · e · ta · rat
Génitif locatif .....	hun · ta · ko	hau · e · ta · ko
Génitif possessif .....	hun · en	hau · en
Datif .....	hun · i	hau · e · r · i
Unitif .....	hun · ekin	hau · ekin

*Variantes.* — Certains écrivains réduisent *hau-* à *hau-* ou même à *ho-* et suppriment le *e* aux cas locatif du pluriel.

Ex.: hautan, hotarik.

De même pour *hei-* réduit à *he-*.

Ex.: hetako, hetaz.

Nous ne recommandons pas la réduction de *hau-* et de *hoi-*, à *ho-*, car on en arrive à confondre les cas de *haur* et *hori* au pluriel.

## ERAKUSLEEI BURUZ OBRA HONETAN AGERTZEN DIREN ADIBIDE BATZUK

- Hau* — 1. Bazter guzietarik ez da hitz *hau* baizen entzuten: ...  
3. Zuentzat da guziz liburu *hau*, ...
- Hori* — 1. osoki egia othe da gauza *hori*
- Hura* — 8. Egiazko Jainkoa, bakarrik adoratu beharra, *hura* zen adoratzeko ez zutena, dio Bossuetek.  
12. bi musuen artean erran dauku, badugula Aita bat zeruan, *hura* behar dugula maitatu eta hari othoitz egin.
- Honek* — 29. Etxe batek galdegiten du hargina, burdin lanak, harotza. Eta mundu miragarri *hunek* ez lukela egilerik?
- Horrek* — 7. *Horrek* dauku segurki erakasten, Jainkoak eginak eta haren kreaturak garelak;
- Hark* — 9. Zer egin dezake unti *hark*?  
18. Zer atrebentzia! Zer errokeria, Jainkoa gure neurrian eman nahi izaita, konprenitu nahi izaita, *hark* bere Jainkozko argiekin konprenitzen dituen eta dakizkin gauza guztiak.
- Honen* — 4. Bainan, materiaz egin den mundu *hunen* mugetan gelditzen othe da gizona?  
36. Gisa berean mundu *hunen* konprenitzeko, behar da izaita bat, bethitik dena, nihork egin ez duena, eta zoinak egin baititu diren guztiak. (funtz. nominatiboa)
- Horren* — 17. Nahiz, Adameren bekatuaz eta bekatu *horren segidez*, gizonaren adimendua hainitz flakatu eta ilhundua den, asko egietarat hel daiteke hargatik.  
29. Iduri luke aski behar laitekela, begien idekitzea, egia *horren* onhesteko (funtz. nominatiboa)  
31. Zer, osaba, badire gizon aski zoro eta ozarrak *horren* erraiteko. (funtz. nominatiboa)

- Haren* — 4. zeruko izarrak berak bortxatzen ditu *haren* gidari izaitera.  
 7. Horrek dauku segurki erakasten, Jainkoak eginak eta *haren* kreaturak garena;  
 35. Ai! Zoin den flakoa gure izpiritua *haren* konprenitzeko (funtz. NOR)  
 27. eta hil ondoan putzu ilhun bat lurrean, gure gorphutzarentzat, *harren* bazka izaiteko. — 76. Bere jainkozko bertutea altxarazi du odol *harren* ithurrirat.
- Honi* — 59. Voltairen biziari da, galde *huni* ihardestea.
- Horri* — 193. Eta, zorion ezin erranezko *horri* bere gaindia emanen diona, hau izanen da: ...
- Hari* — 12. bi musuen artean erran dauku, badugula Aita bat zeruan, hura behar dugula maitatu eta *hari* othoitz egin.
- Honekin* — 183. gorphutz hilkor *hunekin* daramekan biziaren ondolik, ...
- Horrekin*
- Harekin* — 99. Bihotza unkitua, Maria eta *harekin* ziren juduak nigarretan ikusiz, erran zioten Jesusek:
- Honetan* — 10. ezen, aurkitzen nuen ere sosegua, fede bizi eta dudarik gabeko *hontan*:
2. Egia zerbeit ez othe da, dolozeko samin *hontan*.  
 4. Zer da ene egitekoa mundu *hontan*?  
 12. Errebelatu batzuek bezala bizi dire mundu *hontan*.
- Horretan* — 1. Eta egiazki, *hortan*, bere komentuko eta ordenako deboziora maitatuari jarraiki izan da.  
 7. Ez da *hortan* baratzen.
- Hartan* — 78. Denbora *hartan*, dio S. Luke Ebanjelistak, Auguste Erromako Enperadoreaz manua emana izan zen, ...
- Honetako* — 4. Bai, hetaz probetxatzeko, Jainkoak eman diozkan mundu *honetako* on eta aberastasun guzien erdian, bere baitan sartzen da.
- Horretako* — 15. Huna zer, gisa *hortako* gizon urgulutsuari, ihardesten zioten Aita Saindu Pio IXak...
- Hartako* — 170. familia *hartako* menbro guziek bat egiten dute.
- Honetara*
- Horretara* — 160. Nork izan dezake, portu *hortarat* kontrako bidez heltzeko asmu zoroa?
- Hartara* — 68. Graziazko estatua naturalezaz goragoko dohain bat da; ez daiteke beraz *hartarat* hel, ...

*Honetatik* — 13. Nolakoa izanen baita zure bizia dauku erakusten Fedeak, araberakoa aurkituko duzu Jainkoa, bizitze *huntarik* ilkiren zarenean;

*Horretatik* — 11. Dezagun ikus *hortarik*, zenbat atzarriak behar dugun egon, gure onik baliosena, gure fedea, ilhunberik gabe begiratzeko.

*Hartatik* — 56. Eta Adameri hartu zuen sahets hezur *hartarik*, Jainkoak egin zuen emaztea:

*Honetaz* — 4. Ah! badakit; badire gizon libertinak, lur *huntaz* ...

*Horretaz* — 12. Nola aski esker bihur Jainkoari, Fedearen dohain berezi *hortaz*?

14. Nahi dugu jakin zer pentsatzen zuen Katixima *hortaz*, aintzineko kapituluan aipatu dugun Jouffroy filosofoak?

*Hartaz* — 29. Bada Jainko bat! Liburu Sainduak *hartaz* bethi mintzo dire.

*Honengan*

*Horrengan*

*Harengan*

*Honengana*

*Horrengana*

*Harengana* — 74. Trinitate Saindua bera, errespetu handirekin bezala *baren ganat* heldu den.

*Honengandik*

*Horrengandik*

*Harengandik* — 68. ... eta dituen Jainko handi *baren ganik* dagozkanak.

*Honegatik*

*Horregatik*

*Hargatik* — 15. Ezen, nahiz, Fedea gure adimenduaz gorago den, ez daiteke *hargatik* hoikien artean, egiazko gerlarik sekulan izan, ...

17. Nahiz, Adameren bekatuaz eta bekatu horren segidez, gizonaren adimendua hainitz flakaturia eta ilhundua den, asko egietarat hel daiteke *hargatik*.

*Honentzat* — 99. ... nik banakien; bainan erraiten dut populu *hunentzat*, sinhest dezan zutaz egorria naizela».

*Horrentzat* — 54. ... arima hura izpiritu hutsa da. Harek emaiten gaitu mundu huntako izaite guzietz gorago. Zer estimu eta errespetu izan behar dugu arima *horrentzat*.

*Harentzat* — 6. *Harentzat*, gezurra, gauza ona, zerbait on emaiten badio...

15. ... Jainkoaz eta *harentzat* xoilki eginak garela...

*Hauek* — 16. Eskualdun gutientzat dire hitz garratz *hauk*; gehien gehienak Elizaren eta Fedearen erakaspeneri, umilki, amodioekin jarraikitzen dire.

19. hitz *hauk* izkribatzen ditudalarik, ...

*Horiek* — 5. Doi doia erraiten gintuen galde *horiek* noiztenka bederen izpiriturat, ethorriko dire.

10. arbuaiatu nuelakotz gauza *horiek* sinhetsarazi zauzkidan autoritatea.

*Haiek* — 20. Eta *hek* dire Erlijionearen zimendu hazkarrenetarik.

85. Hirur ziren Errege *hek*: Gaspard, Melxior eta Balthazar.

90. *Heiek* izanen dire Jesusen hamabi Apostoluak.

*Hauek*

*Horiek* — 1. Entseiu *horiek* bere frutu eta probetxuak ekarri dituzte.

2. *Horiek* guziek kontsolazione handiak behar dauzkgute eman

18. Mixterio *horiek* berek frogatzen dute...

*Haiek* — 84. *Heiek* nahiko eta igurikitzen zuten Errege botheretsu eta gloriaz inguratua izanen zen Mesias edo salbatzaile bat.

8. Bere buruaz bethe eta hanpatu gizon batzuek erraiten dute-nean, ez dugula onhetsi behar gure adimenduak ongi ikusten duena baizen, ez dituzte, *hek*, gizonaren naturaleza ta behar-rak ongi ezagutzen, eta maizenik, itsu eta urgulutsu batzuek dire.

88. Familia giristinoek, heki jarraikiz, eta *hek* gidatzat hartuz, izan lezakete mundu huntan daiteken zorion handiena: esposek elgar garbiki eta sainduki maitatuz.

*Hauen* — 152. Apostoluen ondokoak aldiz, *haukien* lekukoak izan dire menderen mende.

*Horien* — 1. Hirur debozione premiatsu *horien* gainean, Apez Eskualdun guziek khar ederrena agertu dute.

1. Zenbat sustatzen gintuzten eta ongian finkatzen gure haurrean, giristino handi eta fermu *hoikien* hitzek eta egintzek!

14. Gorago ikusi dugu, zer aurkitu izan duten eta oraino orai, zer aurkitzen ahal duten, gauza premiatsu *hoikien* gainean...

15. Ezen, nahiz Fedea gure adimenduz gorago den, ez daiteke hargatik *hoikien* artean, egiazko gerlarik sekulan izan, ...



30. Zeren hortan baitire hainitz gauza, hain ongi moldatuak eta ordenatuak, non, ez baita nor nahi den gai hoin zuzenki *hoikien* egiteko (funtz. NOR)
41. Ez da hain gaitz *hoikien* guzien konprenitzea, izpirituko artha poxi batekin.

*Haien* — 4. *bekien* indarrak probetxatzen da bere onarentzat.

5. Batzuek asmatu eta erran izan dute ez dela Jainko Kreatzailerik; mundu hau bethitik eta bere baitarik dela; *bekien* erranez, lehenik landareak, gero bestiak, ximinoak eta azkenean gizonak, bere baitarik moldatu izan dire.
6. *Hekien* ezin eginak ungi ikustera emaiten dauku, gure bi-ziaren gidatzeko ez dela aski gure adimenduaren argia.
51. Aingeru Begiralea zen, zerutik jausia *bekien* laguntzera.
116. Arima hotz, alfer eta epherek ikas dezatela hemen, zer indar duten *heien* kontra, deabruaren amarruek.

*Hauei*

*Horiei* — 6. Ene ethorkiaren eta eginbideen gainean, ilhunbetan utzi nauten gizon *hoikieri*, galdegiten badiotet; eta gero, hil ondoan, zer da?

26. Elgar hain ongi maite zuten bihotz *hoikieri*, zer geldituren zaiote, ez badire Fedearen esperantzez sustengatuak?

*Haiei* — 16. Han bilhatu dituzte, zeren baitzakiten Fedean zela itzalik gabeko iguzki argia. Zer zare zer gare *bekieri* buruegiteko?

88. Familia giristinoek, *beki* jarraikiz, eta hek gidatzat hartuz, izan lezakete mundu hontan daiteken zorion handiena: esposek elgar garbiki eta sailduki maitatuz;

*Hauekin* — 176. Beztitua izanen naiz berritz ere ene haragiez eta begi haukiekin berekin ikusiko dut...

*Horiekin* — 45. Sakramenduak ere, Jainkozko hirur izen *horiekin* emaiten dire.

*Haiekin* — 131. Jan ere zuen *heiekin*.

133. Agindu zioten Izpiritu Saindua egorriko ziotela, eta *bekiekin* eta hekien ondokoekin izanen zela munduaren akabantzaraino.

*Hautetan* — 164. Bainan, bilkura bat bada Eliza, behar zaio buruzagi bat; bilkura *hortan*, guziek fede, sinheste, dotrina bera dute-naz geroztik behar dute irakastaile bat.

1. Hirur gauza badire, azken urthe *hautan*.

*Horietan* — 31. Brancks izena zuen gizon bat zen hainitz aiphatua, lurraren asko bazterretan ibili zituen urratsez, eta *horietan* bildu zuen jakitateaz.

169. Elizaren erakaspeneren erakustaile eta argi ezin ilhunduzkoa, ez da gauza horietaz mintzatu nahi izan; *hoikietan* utzi du gizona...

*Haietan* — 70. Bi populu izan ziren bereziki, denbora *betan* aiphatuak;...

*Hauetako* — 172. Hirur Elizako *hautako* membro guziek, ...

*Horietako*

*Haietako*

*Hauetara*

*Horietara*

*Haietara* — 132. Izpiritu Saindua *bekietarat* Mendekoste egunean ethorri zenetik, ...

128. zer bozkarioa Adame eta Eberentzat eta Abrahame, Isaak, Jakobe, Dabide, eta bertze hainbertzeentzat Jesusen arima leku *betarat* jautsi zenean!

*Hautatik* — 58. Testamentu zaharraren hastean irakurtzen ditugu hitz *hautarik*:

*Horietatik* — 32. Egia da populu pagano *horietarik* hainitz, hobeki erraiteko, guziak, enganatu eta oraino enganatzen dire, Jainkoaren izaitearen juiatzeko.

*Haietatik* — 29. Gure buruez gainean, zeru urdinean, iguzki distianta, ilhargi ezta, izar ezin kondatuak bethi lege eta bide berak segitzen dituztenak, sekulan lege *bekietarik* apartatu gabe.

113. bainan nor da, *betarik*, orai orhoitzen dena, nork ungi egin dion?

*Hauetaz* — 50. Nor ez da orroitzen, Ebanjelio Sainduko hitz *hautaz*, ...

*Horietaz* — 22. Mundua gobernatzen duten legeak egin dituen Jainkoa, ez da, bera, lege *horietaz* estekatua,

111. Bainan nola izan dezakegu atrebentzia, behar laiteken bezala, gauza *horietaz* mintzatzekoa.

*Haietaz* — 21. Berak hala nahi badu, edo hobeki erraiteko, denbora batentzat, sahetserat utz dezakeia, *bekietaz* kanpo, zerbeit egiteko bere bothere soberanoaz.

4. Bai, *betaz* probetxatzeko, Jainkoak eman diozkan mundu hunktako on eta aberastasun guzien erdian bere baitan sartzen da.

20. Ebanjelioa *betaz* bezik ez da mintzo.

*Hauengan*

*Horiengan*

*Haiengan*

*Hauengana*

*Horiengana*

*Haiengana*

*Hauengandik*

*Horiengandik*

*Haiengandik*

*Hauengatik*

*Horiengatik*

*Haiengatik*

*Hauentzat* — 106. «Oi ene Aita, zioen, ez zaituk xoilki *haukientzat* othoizten, bainan ere, ni baitan sinhestea izanen duten guzientzat».

*Horientzat* — 24. Bai. Nahi bezain garratz zaioten, iduriz Jainkoa agertzen, ez da *hoikientzat* ere, bizi hau bera, kontsolazionerik gabe, egiazko giristinoak badire;

111. Zer probetxu izanen du *hoikientzat* ene odolak: Quae utilitas in sanguine meo?

*Haientzat* — 24. Zer? Izan daitekela *hoikientzat* mundu huntan zorianik?

48. Aingeru erreboltatuak bentzutuak izan ziren, eta ez zen gehiago lekurik izan zeruan *hekientzat*.

103. Ez dutela *hekientzat* estimurik.

*Hauex* — 45. Hitz *hautaz*, mixterio miragarria agertzen zaiku bere egia eta edertasun guzian.

*Horiez* — 22. Lege *horiez* kanpo, eta hoikien sahetsean, berari zaiona egin dezake.

*Haiez* — 4. Bai, *betaz* probetxatzeko, Jainkoak eman diozkan mundu huntako on eta aberastasun guzien erdian bere baitan sartzen da.



K R E D O

edo

SINHESTEN DUT ESPLIKATUA

## B A I M E N A

Arthoski irakurtu dugu Murde Lapeyre kalonjeak Credo edo Sinhesten duten esplikatzeke egin duen liburua. Dadukagu, azken denbora hautan gure herrian agertu diren liburuen artean, ez dela hau gutienik prezatzekoa.

Hemen kausitzen dire giristinoak jakin behar dituen egia premia-tsuenak, Elizako Aiten eta Teologalen esplikazionez argituak, egin ahala klarki, eta mintzaira garbi batean, izpiritu guzien menerat ekharriak.

Hortakotz gogotik onhesten dugu liburu balios hori izan dadin inprimatua. Esperantza dugu Eskual-Herriko fededunek, lehenagoko usaia onei jarraikiz, egingen dutela horren irakurtzeaz beren arimen hazkurria.

Baionan egina, Abendoaren 10 an 1891an.

DIHARCE,  
Bikario-Jenerala.

K R E D O

edo

SINHESTEN DUT ESPLIKATUA

Zenbeit hitzekin lehen zathian

ERLIJIONEAZ ETA FEDEAZ

Et. LAPEYRE apezak egina

Andre Lamaignère alhargunaren moldetegian

Baionan, Jacques Laffiteko karrikan, 9

1891





## ZENBEIT HITZ LEHENIK

1 Bazter guzietarik ez da hitz hau baizen entzuten: Gure Eskual Herri maitean, bertzetan bezala, Fedea ilhuntzen, ttipitzen galtzen hari da?

Gutarik hainitzek ezagutu izan dituzte, eta orai ere ezagutzen, hor hemenka, lege zaharreko giristino Eskualdun handi batzuek. Horrela deitzen zituzten gure aitek; giristino hazkarrak, bere fedean finkatuak, hala nola gure itsaso hegietan, ibai borthitzeri buruz, bethi zuzen dagozin harrokak; edo ere, gure mendietan, tenpesten haize borthitzeri buru egiten duten haitz eder eta zaharrak.

Zenbat sustatzen gintuzten, eta ongian finkatzen, gure haurrean, giristino handi eta fermu hoikien hitzek eta egintzek!

Eta, orai entzuten duguna, hau da: Joan dire denbora horiek. Non da, eta zer bilhakatu gure Aiten fedea? Egunetik egunerat, ilhunduz eta flakatzuz doha.

Osoki egia othe da gauza hori, eta behar othe dugu etsimenduan sartu, edo, den gutiena ere, gure kuraioa flakatzera utzi? Ez; ez zait iduri.

Erran dezagun gora. Frantzia guzian, eta handizki Eskual-herrian kharrik beroena aphezek ekhartzen dute Jainkoaren erresuma arimetan begiratzeko eta gero eta gehiago hedatzeko.

Hirur gauza badire, azken urthe hautan, Eskualdun Erretor, Aphez, Fraide, Beditano, Misionest eta bertzek, arta eta khar berezi batekin predikatu eta arimetan sararazi dituztenak: Aldareko Sakramenduaren amodioa eta Komunione Sainduaren pratika usua; Jesu-Kristoren Bihotz Sakratuaren alderako debozione amultsua; Arrosario saindua, gure aitez hain maitatua, eta Leon XIIIgarren Aita-Sainduaz hantat prezatua eta galdegina. Hirur debozione premiatsu horien gainean, Aphez Eskualdun guziek khar ederrena agertu dute.

Entseiu horiek bere frutu eta probetxuak ekarri dituzte. Ikusi ditugu Eskualdun giristino onak ardura mahain saildurat hurbiltzen. Jesusen Bihotz Sakratuaren debozionea, bazter guzietan, ezagutua eta maitatua da. Ez da orai, erran badaiteke, etxerik, familiarik Bihotz Sakratuari kontsekratua ez denik: eta guziek badakite Eskual-herrian, Aita Beneditano Eskualdun batek bereziki bere bihotz eta amodio guzia lan hortan eman duela. Eta egiazki, hortan, bere komentuko eta ordenako debozione maitatuari jarraiki izan da. Arrosario saildua amodio handian da, eta errana egun oroz, osoa ez bada, parte bat bederen, familia giristino guzietan.

2 Horiek guziek, kontsolazione handiak behar dauzkigute eman.

Eta hargatik, badire ere trixteziako arrazoin handiak. Debrua ez dago lo.

Egia zerbait ez othe da, dolorezko oihu samin huntan; Fedea flakutzen hari da gure Eskual-Herrian? Hori ere egia da hainitzentzat, eta guzientzat, bada hor, mehatxu bat. Ez gaitezen beraz, bake gozo eta faltso batean loharka. Gure Aphez khartsueri esker, ungia egiten bada, gaizkiaren ibaiak ere bethi goiti dohazi. Ez bagare atzarriak egoiten, laster ongia itho lezakete.

Eskual-herrian, bertzetan bezala, Fedea kordokatua da; hemen ere, sartzen dire liburu eta Gazeta tzarrak, Jainkoa ez deusentzat atxikitzen dutenak, Aita Saildua eta Eliza burlatzen, Erlijioneko gauzak eta Aphezak oinen pean emaiten.

Bai; zorigaitz handia. Irakurtze tzarrek, eta, hor hemenka, Erlijionearen kontra entzuten diren hitzek flakutzen, eta hurriskutan emaiten dute Eskualdunen Fedea. Izpirituetan eta bihotzetan Erlijionearen eta Elizaren errespetu eskas bat bezala sartzen hari da. Odol hotzian, orai ikusten diren asko gauza, ez zituzten gure aita zaharrek horrela jasanen.

Zer egin beraz? Besoak kurutzan, esperantza gal, utz gaizkia, gure begiez ikusten dugularik, indarren hartzera?

Badakit, Aphez Eskualdun bat ez dela, pentsu hori duenik.

Ez dut deus zueri erakusteko, Aphez ene anaia maiteak. Erran dezaket hargatik, nik ere, zuek bezala, ikusi ditudala gure Eskual-herri maitean, Jainkoa eta debrua, ongia eta gaizkia elgarrekin gerlan. Ezagutzen ditut beraz ongi, zuen kontsolazione eta esperantzak, zuen penak eta trixteziak, zuen nahi on eta khartsuak.

Zuen bihotzekin bat egiten dudalarik, liburu hau egin dut, zuen laguntzeko, egun guzietako zuen lan eta gudu sailduetan. Uste izan



Murde Lapeyre kalonjea  
(1840-1893)



HAZPARNEKO  
KALBARIOA

ETA

KANTIKA ESKUARAK  
BEREN AIREEKIN



BAYONAN

L. LASSERRE BATHAN IMPRIMATUA

—  
1892

*Hazparneko Kalbarioa* liburuaren azala



## JESUS JUDASEZ SALDUA

---

*Qui autem tradiderat eum, dedit illis signum dicens : quemcumque osculatus fuero, ipse est, tenele eum. (Matth., ch. 26.)*

Jesus saldu zuenak seinale hau eman zioten : Nori eta ere musu emanen baitiot, hura izanen da hartu behar duzuen.

Gauza min egiten duena eta nigar egingarria da, Jesus ikhustea Olibetako berraztean, agonian eroria, odolezko izerdi batez estalia; bainan hori da gauza bat komprenitzen ahal duguna, Jesusek gure bekhatuen karga bere gain hartu izan zuenaz geroz : Jainkoaren justiziak bere bidea segitzen zuen.

Bainan zer sentimendu izanen dugu, kontsideratuz Judasen traidorekeria, eta nola komprenituko dugu arima horren beltztasuna? Erran daiteke, Kaïn anaya hiltzalea izan dela Lege Zaharreko arima tzarrena eta beltzena; gisa berean eta orainogehiago, Judas Lege Berrian. Horra zertako, Kaïnen eta Judasen izenak, deslustu batekin bezala aiphatzen ditugun.

«Jesus Judasez saldua», Lapeyreren predikua,  
Hazparneko Kalbarioan datorrena





# CREDO

EDO

## SINHESTEN DUT ESPLIKATUA

ZEMBEIT HITZEKIN LEHEN ZATHIAN

ERLIJIONEAZ ETA FEDEAZ

ET. LAPEYRE aphezak egina



ANDRE LAMAINÈRE ALHARGUNAREN MOLDETEGIAN  
*Baïonan, Jacques Lassiteko karrikan, 9*

1891

*Credo edo Sinbesten dut Esplikatua*  
(lehen edizioaren azala)

# LAUR-GARREN ZATHIA

## LEHEN KAPITULUA

### Izpiritu Sainduaz

Ikusi ditugu orai arte Trinitate Sainduko hirur presunetarik bia, bere Jainkozko ageriak emaiten. Ikusi dugu Aita, bere bothereaz mundua ez deusetarik kreatu eta egin zuenean. Agertu zaiku geroago, Berbo Dibinoa, Trinitate Sainduko bigarren presuna; amodiorekin adoratu dugu Bethleemeko heian, Nazaretheko etxean, bere bizi lanezko eta gordean; entzun dugu bere Ebanjelioa predikatzen; haren mirakuiluetan ezagutu dugu haren Jainkozko botherea. Gero oraino ikusi dugu kurutzearen gainean guretzat hiltzen; hirur-garren egunean, hilen artetik phizten, berak erran zuen bezala; azkenean, berrogoi egunen buruan, zeruetarat igaiten.

Orai kontsideratu behar dugu Trinitate Sainduko hirur-garren presuna, Izpiritu Saindua, zerurat igan baino lehen, Salbat-

dut, denbora hautako guduen erdian, Erlijionearen ezagutza zaitekela harmarik hoberena eta segurena Fedearen etsaien garaitzeko. Hortik, lan hunen lehen pentsua.

### 3                    ESKUAL-HERRIKO FAMILIA GIRISTINOAK!

Zuentzat da guziz liburu hau, zointan aurkituko baitituzue xeheki esplikatua KREDOAN edo SINHESTEN DUTEAN, Apostoluek hitz laburretan eman dituzten Erlijioneko egia premiatsuenak. Zoin on laiteken, etxe bakotxean, guziek elgarrekin, egun oroz ahal bezinbatean, edo bederen ardura, liburu huntako kapitulu baten irakurtzea!

Hori egiten baduzue, bethi gogoan atxikiren dituzue zuen artzain onen erakaspak; egonen zarete bethi zuen fedean hazkar, Eskualdun on eta giristino katoliko, Jainkoaren eta Elizaren zerbitzari leial eta beldurgabeak.

E. L.



**LEHEN ZATHIA**  
ERLIJIONEAZ ETA FEDEAZ



## LEHEN KAPITULUA

### *Zoin den premiatsua eta beharra Erlijionearen ezagutza*

4 Zeru ederraren, itsaso zabal eta mendi handien sahetsean emanenez, zer daiteke gizona, haren gorphutzari xoilki behatzen badugu?

Deus, erran baditake. Ur ttintta bat, hare bihi bat.

Bainan nahi bezain flakoa izan dadien iduriz gizona, bere arimaz munduaren errege da.

Adimenduaz, bere nahiari sumetitzen ditu bestia hazkarren eta borthitzenak; hekien indarrak probetxatzen da bere onarentzat; itsasoko ibaiak aphaltzen ditu, bere eskuez egin dituen untzien pean. Zeruko izarrak berak bortxatzen ditu haren gidari izaitera, munduaren bazter guzietarat egiten dituen urrats eta kurridetan. Mendiak zilhatzen ditu, eta ebasten diozkate bere erraietan gordeak dagozkaten burdinak, zilharrak eta urreak; eta, Jainkoaz eginak izan diren aberastasun horiek, bere behar eta atseginentzat antolatzen eta moldatzen ditu.

Bainan, materiaz egina den mundu hunen mugetan gelditzen othe da gizona? Haren adimenduak ez othe du pentsu eta gutizia handiago eta gorago denik?

Bai; hetaz probetxatzeko, Jainkoak eman diozkan mundu huntako on eta aberastasun guzien erdian, bere baitan sartzen da. Ikusten du, horiek guziak baino gorago den zerbeit badakarkela berekin, eta dio: Zer naiz? Nondik eta noren ganik heldu naiz? Zer da ene egitekoa mundu huntan? Norat noha?

Othe da gizon bat, adimenduaz dohatua den phondutik, noiz edo noiz, bere kontzientziaren eta pentsuen sekretuan, galde horiek bere buruari egin ez diozkanik?

Ah! badakit; badire gizon libertinak, lur huntaz gorago deus ikusi eta bilhatu nahi ez dutenak; bere zoriona, aberastasunetan eta aberas-

tasunek emaiten dituzten atseginetan bilhatzen dutenak, hitz batez, haragian pulunpatuak bizi direnak; heki ez zaiote laket gauza hauki ohartzea.

Gogo onez erran lezakete: Zer dire horiek guziak? Gure atseginetan nahasten gaituzten amets tzar eta ilhun batzuek; bizi gaiten alege-raki, bizi atseginetan. Zer duten gure begiek ikusten, zer gure sent-suek sentitzen, badakigu. Gero zer izanen den nork daki? gerokoa, gero...

- 5 Hori bada hainitz zoroen mintzaira, ez daiteke izan, zerbeit adimen-du eta geroaz den gutieneko antsia dutenena. Doi doia erraiten gin-tuen galde horiek noiztenka bederen izpiriturat ethorriko dire. Nahi dugu jakin zer garen, nondik heldu, eta norat hari garen.

Hemen agertzen zaiku Erlijionearen baitezpadako beharra.

Denbora guzietan izan dire gizon izpiritu ernekoak, argia, gauza hoikien gainean, bilhatu dutenak. Bainan, entseiu guzien gatik, egiazko Erlijioneaz kanpo, zenbat duda, zenbat ilhunbe, eta dena den errai-teko, zenbat errokeria!

Eta lehenik, Jainkoaren beraren ezagutzaren gainean! Batzuek on-hetsi izan dituzte bi Jainko: bat ongiarena, bertzea gaizkiarena. Hai-nitz populu izan dire Jainkotzat ezagutu eta adoratu dituztenak iguz-kia, izarrak, lurreko bestiak eta landareak berak.

Eta ahalgerekkin erraiten dudan gauza izigarria, izan dire populuak, zaharretan argituenak, hala nola Grekoak eta Erromanoak, aski behera erori direnak, bizio tzar guzien baimena, bere Jainko faltsuetan bilha-tzeko. Bazuten ohoingoaren Jainkoa; bazuten lohikeriarena. Hitz ba-tez, krima itsusienak ohoratzen zituzten eta berek egiten, Erlijioneko gauza batzuek bezala, hartako ziren tenploetan eta urtheko egun hau-tatu batzuetan.

Desordena izigarri hoikien guzien erdian, nola aurki, egiazko Jainko osoki saindu eta perfetaren ezagutza? Urrun detzagun laster gure be-giak, usteldura zikin hortarik, eta dezagun erran: Egiazko Erlijioneaz kanpo, ez da hehin ere egiazko Jainkoa ezagutua eta adoratua izan, berak nahi duen bezala(1).

---

(1) Erran dezagun ere hargatik, ez dela sekulan, osoki itzali, gizonen artean, egiazko Jainkoaren ezagutza. Patriarkak, Israelgo populua, Job, hor ditugu leku-ko, izan dituela Jainkoak, denbora guzietan, egiazko adozatzaileak; eta Paganoen artean berean banaka batzuek.



Hobeki jakin izan othe dute bederen gizona nondik heldu den? Horren gainean ere, zenbat erakaspén gezurrezko eta zenbat errokeria!

Batzuek asmatu eta erran izan dute, ez dela Jainko kreatzailerik; mundu hau bethitik eta bere baitarik dela; hekien erranez, lehenik landareak, gero bestiak, ximinoak eta azkenean gizonak, bere baitarik moldatu izan dire: haitz azpitan eta lur gizenetan onddoak heldu diren bezalatsu. Eta oraino hemen, guk badakigu lurra badela Jainkoaz egina, eta lurrean ere, Jainkoaz emana onddoaren hazia edo gaia.

6 Ditezkeela gisa hortako zorokerietan baratu direnak, eta, bere us-tez, gizon argituak! Nola erakustera emaiten daukuten zoin den laburra gizonaren adimendua, egiazko Erlijioneaz argitua ez denean!

Baina, gisa hortakoa balitz gizonaren ethorkia, zer luke mundu hun-tan egiteko? Zer behar luke bilhatu, hemen iragaiteko dituen egun la-burretan?

Ez du nahiko hitz hau baizen entzun: Bizi nadin atseginetan; goza ongi, lehenik, biziaren primaderaz, eta gero, bil aberastasanak, zer nahi den bidez. Bertutea? Zer da hori? Zer da zuzena, zer justizia, ez balin-bada ni baino gorago Jainko bat, ene Egilea eta Nausia, ene egintzen juiatzeko?

Eta horrela eginen du. Harentzat, gezurra, gauza ona, zerbait on emaiten badio; ohointza, balentria ederra, ez bada atxemana; adixkide baten enganatzea, haren etxeari eta familiari bakearen kentzea, zer atse-gina, bere tzarkerietan, zerbeit probetxu aurkitzen ahal badu.

Lehen ere segurki izan dire, Jesu-Kristoren Erlijioneak mundua orai-no argitu ez zuenean, gizon aiphatu eta izpiritu handikoak.

Nola bada, gizon argitu eta aiphatu horiek, hala baitire Platon, Aris-tote eta bertze asko, hainbertzetaraino errebelatu izan dire, gizonen bi-zia gidatu nahi izan dutenean, eta erakutsi nola behar den Jainkoa ado-ratu eta zerbitzatu? Zertako hekien liburu eta erakaspén ederretan, han-bat gauza egiaren eta adimendu zuzen baten kontrakoak, giristino legean altxatua den haur ttipi batek errexki xuxen letzazkenak?

Hekien ezin eginak, ungi ikustera emaiten dauku, gure biziaren gi-datzeko ez dela aski gure adimenduaren argia.

Ene ethorkiaren eta eginbideen gainean, ilhunbetan utzi nauten gi-zon hoikiari, galdegiten badiotet: Eta gero, hil ondoan, zer da? Zer iza-nen da ene zortea? Batzuek erraiten dautet: hil ondoan, pausu ezti bat, lo bat sekulan akabantzarik izanen ez duena. Bertze batzuek: hil ondoan ez da deus gehiago gutarik gelditzen. Zer da arima, diote? Hitz bat, eta

bertze deus; beraz gorputza lurrean ustelduko da, harrek janen dute, eta oro akabo hortan.

- 7 Horra zertarat garamaten Erlijioneaz eta Fedeaz argituak ez diren erakaspenak. Ez, ez dugu sekulan hori onhetsiko; badugu arima bat; kontzientzia bat badugu ongiaren eta gaizkiaren juiatzeko; sentitzen dugu badela bertze bizi bat, hunen ondotik, zointan, ungia eta bertutea saristatuak, gaizkia eta bekatua gaztigatuak izanen baitire.

Bainan zerk du, gu baitan, finkatzen eta hazkartzan sinheste hori, duda guziak, den ttipienak ere, kentzeko moldean? Jainkozko erakaspen naturalezaz goragoko batek; Erlijionearen ezagutzak, Fedeak.

Horrek dauku segurki erakasten, Jainkoak eginak eta haren kreaturak garela; bizi labur hunekin ez direla guziak akabo, bainan bethiereko bertze bizi batentzat eginak garela. Horrek dauku erakusten, bethi-ereko bizitze zorionezkoa ardietsi nahi badugu, zer behar dugun egin: gaizkiari ihes, eta ongiari jarraiki.

Ez da hortan baratzen. Bere erakaspenak osatzen ditu, erranez, zer den gaizki eta zer ongi, eta beraz, nola heltzen ahal garen akabantzarik izanen ez duen zorionerat.

Lauda dezagun, Fedea eman daukun Jainko ona eta handia: Fedea, argi saindua, munduko nahasmendu eta gezur guzien erdian, segurki gure urratsak zerurat gidatzen dituena.

## BI-GARREN KAPITULUA

*Gizona baitan den Fedearen eta Erlijionearen beharra.*

8 San Thomasek erran du arrazoin handirekin: hirur gauza beharrak dire salbamenduaren egiteko: jakin zer behar den sinhetsi, jakin zer behar den gutiziatu edo nahi izan, eta azkenian, zer behar den egin(1).

Hirur gauza horien gainean, ez dute jakin ahal izan zer erran, Fedeaz argituak ez ziren gizonek, nahi bezain aiphatuak eta jakintsunak izan gatik bertze hainitz gauzetan.

Ez dute erran ahal izan: nondik eta noren ganik heldu den gizona, norat dohan eta zer duen mundu huntan egiteko. Are gutiago oraino: zer den Jainkoa, eta nola behar dugun adoratu; zer obligazione eta eginbide hertxiak ditugun Jainkoaren, gure buruen, eta gure iduriko gizonen alderat.

Gauza premiatsu hoikien gainean, ez dugu aurkitzen jakintsun paganoetan, dudarik baizen, eta askotan erakaspen falsoenak eta izigarrienak.

Hain urrun joan izan da gizonen itsumendua, non, denbora batean, kreatura guziak, erran behar bada, adoratzen baitzituzten. Egiatzko Jainkoa, bakarrik adoratu beharra, hura zen adoratzen ez zutena, dio Bossuetek.

Erran dezagun berritz ere, jadanik aintzineko kapituluan aditzera eman duguna: Fedeaz argituak direnetan, nor-naik, haur ttipi batek bere katiximarekin, badaki, gauza premiatsu guzien gainean, Sokratek, Platonek, Aristotelek eta bertze jakintsun pagano aiphatuenek, bere adimendu xoilaz, jakin ahal izan duten baino mila aldiz gehiago.

Eta hori, Fedeaz argitua delakotz.

Zer da bada Fedea?

---

(1) Tria sunt homini necessaria ad salutem, scilicet, scientia credendorum, scientia desiderandorum et scientia operandorum. (S. Th. Opusc. IV).

Fedea da Jainkoaren dohain bat, eta denbora berean bertute bat, zointaz fermuki sinhesten baititugu Jainkoak bere Elizari irakatsi diozkan gauza guziak.

Jainkoa egia bera da; ez daiteke beraz errebela, eta ez gaitzakke ere engana. Horra zerk egiten duen gure sinhestearen segurantza eta bake osoa.

Ez naute, menturaz, hainitzek errexki ongi hartuko, erraiten badiotet, gizona bere baitarik edo bere naturalezaz ekharria dela, bere adimenduaren aphaltzera autoritate baten aintzinean, erran nahi dut, bertzeen erranaren sinhestera.

Bere buruaz bethe eta hanpatu gizon batzuek erraiten dutenean, ez dugula onhetsi behar gure adimenduak ongi ikusten duena baizen, ez dituzte, hek, gizonaren naturaleza eta beharrak ongi ezagutzen, eta maizenik, itsu eta urgulutsu batzuek dire.

Hain ongi konprenitu izan dute paganoek berek, gizona baitan den Jainkoaren beharra, non erran baitute, gizona *animalia Jainkotiar* bat dela. Bai, gizonak badakarke bere baitan Jainkoaren beharra. Sentimendu hori flaka edo errebela daiteke; ez daiteke hil osoki.

- 9     Eta horra zertako, bai lehen, bai eta orai, egiazko Erlijionea eskastu zaiotelakotz, Erlijionerik batere gabe egonen diren baino lehen, populu paganoek munstrokeria izigarrienak sinhetsiko eta asmatuko dituzten. Ez da populurik, bere gisako Erlijione bat ez duenik, bere pratika eta sakrifizioekin.

Ejiptoko, Kaldeako, Chinako, Indiako populuek izan dituzte bere Erlijioneak; Erlijione, gizonen pasionez eta adimenduaren flakezaz ilhunduak, eta, hainitz erakaspén eta pratika tzarretan errebelatuak, nahi dut. Bainan horrek berak ez othe dauku ikustera emaiten ez daitekela gizona bizi Erlijionea gabe? Erlijione bat gabe egonen den baino lehen, berak bat asmatuko du: kreaturak, edo bere eskuez egin Jainko faltsoak adoratuko ditu.

Zoin den handia Fede katolikoa duenaren zoriona eta bihotzeko sosegua! Untzi baten maxtruak Norteko izarrak gidatua denean, badaki bide segura, itsaso zabalaren erdian; badaki non dabilan, zer bide behar duen hartu porturat heltzeko, nola, harroka eta kosta lanjeroseri ihes eginen dioten; eta hedoi beltzek izarra itzaltzen badiote, badu hargatik bere orratza, gida salbatzailea, non aurkitzen den, irakusten dioena.

Gisa berean fede-duna. Bizi huntako itsaso zabal, lanjerez eta kalernaz bethearen erdian, badu gidari, Fedea, izar distianta, sekulan itzaltzen eta tokiz mudatzen ez dena; izar horrek irakusten dio zer bide behar duen segitu, segurki heltzeko, bilhatzen duen zeruko portu eternalerat. Eta noizik behin, pasionek, naturalezaren flakezek itzaltzen badiote Fedearen argia, badaki norat joan; hor da Eliza, Fedearen zaintzaile ezin enganatuzkoa, ilhunbe guziak ezeztatzen eta urruntzen dituen.

Bainan, untzi gaixo bat emagun, tenpesta eta kalerna ikharagarri batean hartua, kostako harrokeri hurbil; hedoi beltzen gibelean izarra gordea; orratza galdua; mastak eroriak; lema zathikaturia. Zer egin dezake untzi harek? Itsaso hasarraren jostagailu bilhakaturia, galtzea segurua du.

Ez othe da hori Fede gabekoaren itxura sobera egiazkoa? Izpirituko ilhunbeen eta bihotzeko pasionen tenpesten erdian hartua, ez argi bat, ez gidari bat; ezin jakin norat dohan, zer egin behar duen, zer bilhakaturia den heriotzetik lekora. Oi! zer bizitze trixte eta tormentaturia! Ezen, bere ilhunbe guzien erdian, duda bat bederen oraino gelditzen zaio. Nahi bezain errebelaturia izan dadien, ez du osoki galdu ahal izan, ongiaren sentimendua, Nausi soberano baten justiziaren beldurra eta bethiereko zorionaren gutizia.

Ez du oraino hainitz urthe, hil izan dela Frantzian filosofo jakintsun aipaturia bat. Jouffroy zen haren izena. Zoin den nigar egingarri ikustea, Fede eskasetik zenbat pairaturia izan duen!

10 Berak zer dion, entzun dezagun.

«Sorthu nintzen buraso Jainkotiarretarik eta, Fede katolikoa, men»de hunen hastapenean, oraino hazkar zagoen leku batean. Irakutsi »zautaten haur haurretik, gizonaren geroko zortea estimatzen eta pre»zatzten, eta arimaren artha, biziko egiteko handiena eta premiatsuen»dela; eta geroago oraino, altxaturia izan nintzen moldeak, hazkartu zuen »ni baitan sentimendu hori:

»Banakien, mundu huntan zer bide behar nuen segitu, zertarat be»har nintzen heldu, bertzean. Ene Jainkoa maite nuen, enetzat zituen »xede onak zirelakotz; zorionean eta bakean bizi nintzen; ezen, aurki»tzen nuen ene sosegua, fede bizi eta dudarik gabeko hortan; emaiten »zautan, erakaspen bat gizonarentzat premiatsu diren gauza guziak ar»gitzen zituen».

Baina zorigaitzean, ez zuen bake horrek bethi iraun. Jouffroy bizi zen mende eta mundu tzar batean; Erlijionearen eta Fedearen kontra hainitz erakaspen zabilzan airean. Kuriostasun lanjeros batetarat leratu zen. Bertze hainitzek bezala, edan zuen gezurraren pozoina; eta emeki emeki, bera ohartzen ez zelarik, duda sarthu zen haren ariman; Fedea galdu zuen.

Ez zezaken, hargatik, bere izpiritua urrunt osoki, Erlijioneko pentsamenduetarik eta ikusi zuen noizbeit zer estatu deithoragarrirat eroria zen.

Arima urrikaltzekoa! Jouffroy bera oraino mintzo zaiku, nigarrez bustiak iduri duten hitz haukietan:

«Sekulan, ez, sekulan ez dut ahantziko, Abendu ilhabeteko arrats »hura, zointan urratu baitzen, ene fede eskasa gordetzen zautan beloa. »Kanbara pobre eta hertxi hartan entzuten ditut oraino ene urratsak; »pausua hartzeko orena aspaldion iragana gatik, laket zitzaitan oraino »harat-hunat ibiltzea... bazohazen orenak, batzuek bertzeen ondotik, eta »ez nintzen ohartzen... arimako antsia handi batean, uzten nuen ene »izpiritua joaitera bere pentsamenduetarat...Alferretan, ene sinheste »ondarrerri estekatzerari hari nintzen, ithotzera dohan gizona, untziko zur »puska bati lotzen eta josten den bezala; alferretan, ikaratua, ikusiz ene »oinen pean egiten hari zen putzu eta leze beltza, begiak itzultzen nituen ene haurtasuneko urthetarat, ene etxekoetarat, sor lekurat, maite »eta errespetatzen nituen gauza guzietarat... Ikusi nuen, orduan, ez »zela deus gehiago ene ariman xutik gelditzen; sinhetsi nituen gauza »guziak, Jainkoaren, ene buruaren eta ene zortearen gainean, bizi huntan eta bertzean, ez nituen gehiago sinhesten; arbuiatu nuelakotz gauza horiek sinhetsarazi zauzkidan autoritatea.

...»Nola erran, zer eta nolakoa izan zen memento hura enetzat! »Goiz aldera, unhatua, akitua, etzan nintzen ene ohearen gainean; idu »ritu zitzaitan, hain alegera eta bozkarioz bethea izan zen, ene biziko »lehen parte hura, itzali zela; hasten zela, enetzat, bertze bizitze bat, »pisua, desertu baten parekoa, zointan beharko bainuen bizi, bakarrik, »ene pentsamendu ilhunekin.»

- 11 Zer erakaspenera guzientzat ixtorio nigar egingarri huntan! Jouffroy buraso giristinoetarik sorthu zen eta berak dion bezala, giristinoki altxatua izan zen. Bertzalde, izpirituko eta bihotzeko dohainez aberats zela, bere mintzairak aski ikusterat emaiten dauku. Bainan fede gabeko nausien erakaspenera eta irakurtze tzarrek errebelatu zuten. Dezagun ikus hor-

tarik, zenbat atzarriak behar dugun egon, gure onik baliosena, gure fedea, ilhunberik gabe begiratzeko. Zer gintezke hura gabe, Jouffroy zen bezain izpiritu argitueta, fede eskasak, eskas bat hain ilhuna eta hain trixtea izten duenaz geroz?

Belarriak eta arima detzagun bethi idek Fedearen, Elizaren, Aita Sainduaren hitzeri, eta ez dugu errebelatzeko beldurrik izanen. Urguluak galdu du gizona; urguluak oraino galtzen du. Izan gaiten umil Fedearen eta Elizaren erakaspeneri buruz; umiltasun horrek eginen du gure segurantza, bai eta ere handitasuna.

## HIRUR-GARREN KAPITULUA

*Zer on eta argi daukun Fedeak emaiten*

12 Ikusi dugu, egiazko Erlijioneaz eta Fedeaz gabetuak diren gizonek ez dezaketela segurki jakin, zer diren eta norat dohazin. Errebelatu batzuek bezala bizi dire mundu huntan. Aintzineko kapituluan erran dugun etsenpluak, aski eman dauku ikustera.

Dudak, izpirituko ilhunbeak, gauza premiatsuenen ganean; bihotzeko deboilamenduak, eta, ardura, Jainkoaren justiziaren beldurra-ekin, bizi guziko pozoina eta sofritzea; horra Fede-gabekoen eta Fedea galdu dutenen zortea.

Bainan, guk, Fede-dunek, zenbat behar dugun prezatu Fedearen dohain baliosa! Zer argia adimenduarentzat, eta zer gozoa bihotzarentzat! Zer indarra eta sustengua bizi huntako nahi-gabe eta atse-gabeen jasaiteko! Zer nahi gertakarien erdian, hor da bethi Fedea, argitzen eta gidatzen gaituena, eta zeruan irakusten daukuna, bizi huntako gudu eta jasan-gogorren akabantza eta sari ederra.

Nola aski esker bihur Jainkoari, Fedearen dohain berezi hortaz? Hainbertze jendetze, munduaren bazterretan, eta, gutartean berean, hainbertze arima Fedearen argiez gabetuak dagozin denboran, guk, izan dugu giristino-herri khartsu batean sortzeko zorte ona.

Sorthu garen ordutik, gure aita-amek eramana-razi gaituzte tenplo saindurat, gure herriko elizarat; eta han, gure kopetaren gainerat aphezak ur Saindua ixurtzen zuelarik, Jainkoaren eta Elizaren haur eginak izan gare.

Gure aitaren eta amaren izenekin ikasi ditugun lehen hitzak izan dire Jesusen eta Mariaren izen Sainduak. Doidoia handitzearekin, ama giristino batek bere belhaunen ganean hartzen gintuelarik, bi musuen artean erran dauku, badugula Aita bat zeruan, hura behar dugula maimitatu eta hari othoitz egin.



Geroago, irakaspen hazkarrago baten errezibitzeko gai izan denean gure adimendua, Jesu-Kristoren Aphezek gure amaren besoetan hartu gaituzte, Eliza Sainduaren izenean eta haren autoritatez, Fedean hobeki oraino argitzeko. Eta orduan, pagano jakintsunenek, bere argi xozilez, jakin ahal ez dituzten egiak ikasi ditugu.

- 13 Ikusi dugu Jainkoaz kreatuak eta eginak garel; baditugula Jainkoaren alderat adorazionezko, esker onezko, eta amodiozko eginbideak. Ikasi dugu paseatzaile batzuek garel mundu huntan, ez dela hemen gure bethiko egoitza, bainan bertze bat behar dugula bilhatu, eta bertuteaz merezitu.

Horrela, izpiritua Fedeaz argitua; bihotza, othoitzaz eta Elizak emaiten dauzkigun sakramenduez sustatua eta hazkartua fidantziarekin sartu gare mundu huntako gudu handian. Beldurrik gabe eta kuraiarekin, hartu dugu, askotan hain dorphea den biziaren karga, bere eginbide guziekin. Fede kontsolagarriak, gure bihotzen altxagarri, zer nahi den gertakarietan, irakusten dauku zerua; zerua, bethi-ereko gure pausua eta zoriona.

Bi hitzez erraiteko, Fedea da gure argia eta gure ona. Segurantz osoarekin erakusten dauku nondik heldu garen eta norat gohazin: Jainkoaz eginak gare, eta haren ganat behar dugu joan. Hortan da gure bizitzearen legea, hortan gure egintzen erregela. Nolakoa izanen baita zure bizia, dauku erakusten Fedeak, arabera aurkituko duzu Jainkoa, bizitze huntarik ilkiren zarenean; sariztatzaile on eta aberatsa, zerbitzari onarentzat; juie justu eta garratza, gaizki egilearentzat.

- 14 Gorago ikusi dugu, zer aurkitu izan duten eta oraino orai, zer aurkitzen ahal duten, gauza premiatsu hoikien gainean, Fedeaz argituak ez diren gizon aiphatuenek. Den hoberenean ere, duda trixte bat, izpiritua eta bihotza ilhunbetan uzten dituen.

Fedea beraz, Erlijionearen ezagutza, eta, erran dezagun lañoki, katixima, haur haurretik, eskuetan izan dugun liburu ttipia, horra gure argia eta kontsolagarria.

Nahi dugu jakin zer pentsatzen zuen katixima hortaz, aintzineko kapituluan aipatu dugun Jouffroy filosofoak? Entzun dezagun:

«Bada, zioen, haurreri ikas-arazten den liburutto bat... Irakur za-  
»zu: Katixima da. Galde guzien errepusta hortan aurkituko duzu...  
»Galdegiten baduzu giristino bati, nondik heldu den gizona, badaki;  
»norat dohan, badaki; zer egin behar duen harat heltzeko, badaki. Gal-

»degin zazu, haur ttipitto gaixo horri, zerentzat den mundu behere hun-  
»tan, eta zer izanen den hartaz, hil ondoan, errepustarik ederrena  
»emanen dautzu. Munduaren eta gizonaren hastea; gizonaren egitekoa  
»bizi huntan, zer behar den bilhakatu bertzean, horiek guziak bada-  
»kizka. Gizonaren eginbideak, Jainkoaren, eta gizon lagun en alderat,  
»horietan guzietan argitua da ... Horra, zion oraino, zer deitzen dudan  
»Erlijione handi bat.»

Zoin den nigar-egingarri hoin ederki Fedeaz mintzo den gizon ba-  
tek, fedea galdua izaitea!

## LAUR-GARREN KAPITULUA

15

*Fedea ez dohala gure adimenduaren kontra*

Zoin den beharra Fedea, argi distiant eta enganatzen ahal ez gaituena, ikusi dugu, laburzki.

Jadan erranak bi hitzetan hesteko, Fedeak segurantza osoarekin erakusten dauku, Jainkoaz eta harentzat xoilki eginak garela eta bethiereko zorionerat heltzeko, garela mundu huntan emanak. Erakusten dauku ere zer dugun hortarakotz egiteko. Ez du deus ilhunbean uzten; Fedeaz gidatua dena segurean dabila, biziko kalerna eta deboilamendu guzieren dian.

Traba bat aurkitzen du bai bere bidean? Badaki nola behar dion ihes egin. Bere jaidura tzarrek nahi dute bethiereko zorionetik urrundu? Badaki non behar duen indarra bilhatu eta nola garaia eraman.

Horra zer dugun aintzineko kapituluetan ikusi.

Erranen daut menturaz norbeitek. Fedea! Bainan Fedearen erakaspenerarik hainitz ene adimenduaren kontra dohazi. Eta bada, nik, ez dezaket onhets ene adimenduak onhesten duena baizen. Ene argia eta gidaria, ene adimendua da.

Huna zer, gisa hortako gizon urgulutsueri, ihardesten zioten Aita Saindu Pio IXak, mundu katolikoari egin zion lehen letra, edo, Enziklikan, Elizaren mintzairan erraiten den bezala:

«Ez daiteke deus asma zoroagorik, inpioagorik, eta adimenduaren beraren kontra gehiago dohanik. Ezen, nahiz, Fedea gure adimenduaz gorago den, ez daiteke hargatik hoikien artean, egiazko gerlarik sekulan izan, zeren biak Jainko beraren ganik heldu baitzaizkigu; eta, Jainkoa da egia eternalaren ithurri bakarra, ezin mudatuzkoa. Horrela, adimendu zuzenak eta Fedeak behar dute elgar lagundu, adimenduak, erakustera emanaz, eta sustengatuz Fedearen egia; Fedeak aldiz, gure adi-

mendua begiraturuz gezur guzietarik, argitzen eta hazkartzen duelarik eta osatzen Jainkozko gauzen ezagutzaz eta jakitateaz» (1).

Erran behar dugu atsegin handirekin, Pio IXa Aita-Sainduaren erakaspenaren kontra dohazin guti aurkitzen dire gure Eskualdunetan. Fedea badu Eskualdunak eta bere fedeari iratxekez du. Fedea, bere amaren esnearekin edan izan du. Haren odolean da, eta hezur fuinetan; federik gabeko Eskualduna, Eskualdun arnegatu bat laiteke, kanpo herrietako haize tzar zenbeitetik ekharri luken hazi pozoindatua.

Bainan gutiak badire ere, badire zenbeit holako Eskual-herrian be-rean; edo bederen, egiaz ez bada, balentriaz holakoak agertzen direnak.

- 16 Zenbat izkribu eta *gazeta* tzar, gure herrietan ezagutuak ez zirenak orai arte, Erlijioea eta haren mixterio sainduak burlatzen dituztenak, Eliza eta Elizaren minixtroak mezprezatzen eta gezurrez belzten? Horrela, sekulan lo ez dagoen ifernuko etsaiak, bilhatzen du gure fedea-ren kordokatzea.

Diozu, oi zu! zure ustez gizon jakintsuna, zure adimendua kolpatzen duela fedea, eta ez duzula nahi, zure izpirituak onhesten duena baizen sinhetsi.

Oi! Ez balitz gauza hain premia handikoa, zer hirri egiteko gutizia eman zinezaken! Beraz, zure iduriz, Agustin, Thomas, Bonaventura, Bossuet, Kepler, Newton, Paskual, Leibnitz, guzien artean osoki jakintsunak, eta guziez hala iratxeikiak izpiritu ttipi eta flako batzuek ziren.

Izpiritu argitu guziek, erregetzat dagozkate jakintsunen artean, orai aiphatu ditugun gizon handiak, eta hargatik, umilki, Fedea-ren erakaspenen pean, bere adimendua aphaltu izan dute. Fedean aurkitu izan dituzte bere argirik segurenak. Han bilhatu dituzte, zeren baitzakiten, Fedean zela itzalik gabeko iguzki argia. Zer zare, zer gare hekieri bu-ruegiteko?

Ikusten dut orai eta pozi bat enthelegatzen. Zure buraso giristinoek ikasarazi dautzute irakurtzen. Soseko *gazeta* tzar bat erosten duzu eta ahal bezala irakurtzen. Konprenitzen duzuna, konpreni; gaineratekoan, zure iduriko, eta oraino tzarrago batzuek, ostatueta eta bertzetan erraiten dituztenak, har, Ebanjelioko egiak balire bezala. Eta uste izan du-zu orduan, bazinduela zuzena, Jainkoaren bothereari izarien ezartzekoa, Elizaren eta haren erakaspenen juiatzekoa.

---

(1) Pio IX<sup>a</sup> Enzi. «Qui Pluribus jam» Hazil, 9an 1846<sup>an</sup>».

Utz nazazu erraiterat; zure jakin eskasak ez du parerik, zure ur-  
gulu zoroa baizen.

Eskualdun gutientzat dire hitz garratz hauk; gehien gehienak Eli-  
zaren eta Fedearen erakaspeneri, umilki, amodioekin jarraikitzen dire.

Bainan, on eta behar da, Fedea argitua izan dadien; jakin dezan  
bakotxak, nola ihardets, hortik edo hemendik entzuten dituen Erlijio-  
nearen kontrako hitz tzarrereri.

Horra zertako, xehatuko ditugun oraino asko gauza, segidako ka-  
pituluan.

## BORTZ-GARREN KAPITULUA

### *Mixerioez*

17 Bi argi edo bi gida eman diozka Jainkoak gizonari egiarat heltzeko. Bat, argi *naturala*, gizon bakotxak berekin sortzean dakarkena: hura da arrazoia edo adimendua.

Bertze argi bat da, *surnaturala* deitzen duguna, gure arrazoiaren eta adimenduaren argiez goragokoa. Profeten eta bereziki Jesu-Kristo Gizon eginaren medioz emana izan zaikuna. Hau aurkitzen dugu Fedean edo Elizaren erakaspenetan.

Bada, bi argi horiek, adimendua eta Fedea, Jainko beraren ganik heldu direlakotz, ez daitezke bat bertzearekin gudian izan, ez dezakete batek bertzea kolpa.

Ez da Jainko bat baizen, ez eta ere egia bat baizen. Gure adimenduak eta Fedeak ithurri eta sortze bera dute Jainkoa baitan: bi argi dire, bat bertzea baino ederragoa eta distiantagoa iguzki beretik ilkitzen direnak.

Nahiz, Adameren bekatuaz eta bekatu horren segidez, gizonaren adimendua hainitz flakaturik eta ilhundua den, asko egietarat hel daiteke hargatik. Hala nola: mundu hau ez dela bere baitarik, baduela Egile bat; lurrean, zeruetan, izarretan ikusten dugun ordenantza ederrak ordenatzaile bat frogatzen duela, etxe eder edo bertze obra batek egile aitu eta jakin bat frogatzen duen bezala. Hala nola ere; ongia eta gaizkia ez direla gauza bera: ongiari saria zor zaiola, gaizkiari gaztigua.

Bainan, hargatik, hainitz dezaken arren gizonaren adimenduak edo arrazoiak, baditu bere mugarriak; ez dezakegu ausartzia zoroa izan, egia osoa badakigula, eta ez dela Jainkoaren jakitatea gurea baino urrunago hedatzen. Uste izaitea, errokerietan handiena laiteke.

Hola nahi badu beraz Jainkoak, gure onetan, hobeki oraino gure argitzeko, asko egia agertzen ahal dauzkigu gure adimenduaz gorago

direnak. Guretzat duen amodioan eta ekarraian, hola nahi badu Jainkoak, nor errenkura daiteke?

Bada, gure adimenduaz gorago diren, eta bertze molde batez Jainkoak erakusten dauzkigun egia horiek, deitzen ditugu mixterioak.

- 18 Argi guziek ez dute indar eta hedadura bera; iguzkiaren argiak urrunago dakarke eta hobeki distiatzen du, ezen ez olio argiak. Gisa berean, hainitz egia, Jainkoak, Fedeaz agertzen dauzkigu, gure adimendu flakoaz ikusten ahal ez ditugunak. Diot, berritz ere, zer da hortan, gure zentzu zuzenaren kontra dohanik? Jainkoa bezain argituak eta jakintsunak othe gare? Norat nahi itzul zaitezen, zioen Voltaire inpioak berak, bi gauza behar ditutzu aithortu: zure jakin eskasa, eta Jainkoaren bothere mugarri gabekoa.

Dezagun beraz erran: nahiz ez ditugun Erlijioneako mixterioak osoki konprenitzen ahal, gure izpiritu flakoaz gorago direlaketz, konprenitzen dugu hargatik, izan ditezkeela, gehiago diot, badirela mixterioak: erran nahi da gauza, egia batzuek, gure adimenduaz goragokoak, Jainkoaren adimendu eta jakitate mugarri gabekoetan direnak, eta bere amodio miragarrian, erakutsi nahi izan dauzkigunak.

Zer gare, gu, izpiritu flako eta herbalak, Jainkoa baitan diren egia guziak jakin nahi izaiteko? Zer gare, Jainkoari erraiteko: Ene adimenduak konpreni ez dezakena ez daiteke egia izan, zuk, zer nahi den erranik ere?

Zer atrebentzia! Zer errokeria, Jainkoa gure neurrian eman nahi izaitea, konprenitu nahi izaitea, harek bere Jainkozko argiekin konprenitzen dituen eta dakizkan gauza guziak!

Gehiago erranen dut. Mixteriorik ez luken Erlijionea ez laiteke egiazko Erlijionea. Jainkoa mugarririk gabekoa da bere izaita eta perfezionetan, mugarririk gabekoa ere bere obretan agertzerat emaiten duen botherean eta amodioan. Nola beraz, gisa guziz herstua den adimendu batek, nola baita gizonarena, horiek guziak osoki konpreni detzazke?

Mixterio horiek berek frogatzen dute beraz, Jainkozkoa dela gure Erlijionea, ez gizonek egina.

- 19 Bainan, mixterioak, edo, guk ezin konprenituzko gauzak, ez othe dire bada Erlijionean baizik aurkitzen? Mixterioen erdian bizi gare. Gizon ez deusa! Erran diezadazu zer den, gure pentsamenduak, burdin hari baten medioz, urrunerat eramaten dituen indar hori? Izen bat eman diogu, zer den ez dakigu: Mixterioa! Erran diezadazu, nola, ene arima eta gorputza, bat, izpiritu hutsa, bertzea materia, erran nahi

da, iduriz bat bertzearen kontra dohazin bi izaite, elgarrekin juntatuak diren, gizon bakar bat egiteko gisan? Mixterioa! Erran diezadazu, nola, ene mihia higituz mintzo naizelarik, edo, hitz hauk izkribatzen ditudalarik, ene sentimenduak ene arimatik zure arimarat dohazin? Mixterioa!

Mixterioz inguratuak gare bizi huntako gauza naturaletan beretan. Nola beraz ez onhets, balinbadire Jainkozko gauzetan gure adimenduaz goragokoak?

Kontrarioa laiteke espantitzeko; hanbat da Jainkoa gutaz gorago!

Ez dezagun beraz bilha, eian, hau edo hura, gure adimendu xoilarekin konprenitzen ahal dugun.

Jainkoa eta haren Eliza mintzatu izan diren mementotik, erran dezagun: Jauna, sinhesten dut: CREDO! sinhesten dut, zeren, zuk, egia bera zarenak, erakutsi baideraukuzu.

Horra salbatzen gaituen egiatzko giristino fedea.



## SEI-GARREN KAPITULUA

### *Mirakuiluez*

20 Gure Erlijio sainduan badiren bezala mixterioak, erran nahi baita, aintzinean esplikatua izan dena, gure adimenduaz goragoko egiak, ba-dire ere mirakuiluak; eta hek dire Erlijionearen zimendu hazkarreneta-rik; ezen mirakuilua Jainkozko obra bat da.

Hemen ere, zenbat gauza, hainitzen izpirituetan xuxendu behar direnak!

Entzuten ditut Erlijionearen etsaiak erraiten dautedala: «Fedearen erakaspenetan, mixterioaz bertzalde, bada oraino gauza bat onhets ez dezakeguna; hura da mirakuilua. Bada zure erranetan, bethi eta be-thi, mirakuilua aurkitzen dugu. Ebanjelioa hetaz bezik ez da mintzo. Erran daiteke, predikatzen daukuzun sinheste guzia, mirakuiluen gai-nean jarria eta finkatua dela. Ken beraz mirakuilua, eta Fedea eta Erlijionea airean gelditzen dire. Bada, zuk, mirakuilua deitzen duzuna, niri zait ez daiteken gauza bat».

Horra zer erraiten dautan inpioak, Fede gabeak.

Nik erranen diot aldiz: zoro eta adimendu gabe bat bezala mintzo zare.

Diozu: Mirakuilurik ez daiteke izan: beraz ez dire izan.

Nik erraiten dautzut: Izan dire mirakuiluak, beraz izan daitezke.

Mintzo zare, zu, zure pentsuen arabera; ni mintzo naiz, aldiz, du-dan ezin emaneko lekukotasunez seguratuak diren gauzen gainean fin-katzen naizelarik. Hortan da ene garaia, laster zeronek aithortu behar-ko duzun bezala.

Mirakuiluak, gauza ageri batzuek dire, gure begiek ikusten eta gure eskuek unkitzen ahal dituztenak.

Huna hementxe, itsu bat: norbeitek unkitzen diozka begiak eta erraiten dio: «nahi dut izan zaiten sendatua; idek dezatzu begiak eta

ikus zazu,» eta hala gertatzen da. Horra gauza bat guzien begietarat dohana.

Bertze aldi batean, huna jende oste handi bat, gizon gazte baten gorphutza hobian daramakana: badakite guziek, gizon gazte hori hil izan dela. Norbeit hurbiltzen da, eta guziek ikusten eta entzuten dutelarik, hobia eskuaz unkitzen du, eta erraiten: «Gizon gaztea, altxa zaitte hobi hortarik, manatzen dautzut.» Eta hila, guzien begietan altxatzen da bizirik eta mintzatzen da.

Ehunka, milaka direnean lekukoak gauza horiek segurutzen dituztenak, bere begiez ikusiak bezala; deus irabazirik gabe berentzat; kontrarat, hainitzek gauza hoikien finkatzeko bere bizia emaiten dutenean, nork bada dudarik izan dezake?

- 21 Ez ditut gauza horiek, ene begiez ikusi, diozu? Bainan zenbat gauza, sinhesten eta sinhetsi behar ditutzunak, bertzeren erranaren gainean? Sinhesten duzu, Frantziak, hainitz urthez bere buru eta aintzineko izan duela, Napoleon lehena. Sinhesten duzu garaia eraman duela, Auzterlitzeko, Marengoko, Jenako eta bertze hainitz guduetan, eta hori, zeronek ikusi izan gabe. Nola bada? Gauza horien lekuko izan direnen erranari jarraikiz.

Zertako beraz, ez sinhets, gisa berean mirakuiluak? Hek ere dire agerizko egintza batzuek, ikusi ahal izan direnak eta ezin ukatuzko lekukoek segurutzen dituztenak.

Bainan ikus dezagun artoski zer den mirakuilua.

Mirakuilua othe da gauza bat ez daitekena?

Gauza bat Jainkoaren bothere soberanoaz gorago dena?

Ez. Mirakuilua da xoilki gauza bat, mundu huntako gauzak ordinariozki gobernatzen dituzten legez gorago, eta hetaz kanpo dena.

Hola mintzo da S. Thomas. Dio, mirakuilua dela: «Kreazionearen ordenaz kanpo eta gorago den gauza bat.»(1) Dotor saindu berak erraiten du oraino; «Mirakuiluak deithu behar ditugu: Jainkozko bothereaz mundu huntako lege ordinariozkoez kanpo egiten direnak.»(2)

Bada, Jainkoa baitan sinhestea dutenetan, nor izanen da erraiteko, mundu hau egin eta kreatu duen Jainkoak, ez dezakela deus egin berak egin dituen legez bertzalde?

---

(1) Quod fit proeter ordinem totius naturae creatae. (1Pars q. 110 art. IV in corp.).

(2) Illa simpliciter miracula dicenda sunt, quae divinitus fiunt praeter ordinem communiter servatum in rebus. (S. Thom. contr. Gent. Lib. III. Cap. 101).

Errokeria laiteke pentsatzea eta erraitea. Bere baitarik doha, mundu hau bere ordenantza eta lege miragarriekin egin duenak, lege horiek kanbia eta muda detzazkela, berak hala nahi badu, edo hobeki erraiteko, denbora batentzat, sahetserat utz detzazkela, hekietaz kanpo, zerbeit egiteko bere bothere soberanoaz. Bertzela, ez luke, berak egin duen munduaren gainean nausitasunik; ez laiteke Jainko.

22 Kreatura ez deusak, aski zoroak izanen othe gare, Jainkoaren bothereari zedarriak eman nahi izaiteko? Aski zoroak erraiteko: Ez daiteke mirakuilurik: hori baita ene argiez eta ahalez gorago den gauza bat.

Bainan mirakuilua ez da xoilki egia bat, gure izpirituaz eta adimenduaz juiatu behar duguna. Da ere, gauza bat, egintza bat, gertakari bat gure begiez ikusten ahal duguna, gorago jadan erran dugun bezala. Eta gauza, egintza, gertakari horiek bermatuak direnean lekuko segurez, hala nola izan baitire Ebanjelistak eta Apostoluak, bere odola hartako ixuri izan dutenak, nola daiteke dudarik?

Bi hitzetan emaiten dut kapitulu premiatsu hunen erakaspena.

Mundua gobernatzen duten legeak egin dituen Jainkoa, ez da, bera, lege horietaz estekatua, haren nahitik dutenaz geroz bere indar guzia. Lege horiez kanpo, eta hoikien sahetsean, berari zaiona egin dezake. Zer da hor gure adimendua kolpa dezakenik? Eta hori da mirakuilua.

Egiazki, Jainkoak egin izan ditu horrelako mirakuiluak. Hor dire frogatzeko Testamentu zaharra, Ebanjelioa, Jesu-Kristoren bizia, Elizaren eta Sainduen ixtorioa, eta berme, lekukoak milaka.

Bainan jakin dezagun ere, Jainkoak xoilki egin ahal detzazkela mirakuiluak. Mirakuilua Jainkoaren zigillua da. Ardiesten ahal dugu askotan gure othoitzez; bainan Jainkoa da bakarra egin dezakena.

Ikusten dugu beraz, Fedezko egiek, mixterioek, mirakuiluek, ez dutela, den gutiena ere, gure adimendua kolpatzen. Gure adimenduaz gorago dire, ez haren kontra. Bainan ere, non eta baitire, Jainkoa han da.

## ZAZPI-GARREN KAPITULUA

### *Fedea gizonaren bihotzarentzat*

23 Nork duda dezake, erran ditugun guzien ondotik, Fedeak eta Fedeak bakarrik emaiten ahal dauzkigula, izpirituarentzat eta adimendua-  
rentzat galdegiten ahal ditugun argi guziak?

Filosofo pagano guziek egin ahal ez dutena, Fedeak, ilhunberik gu baitan utzi gabe, erakusten dauku, nortaz eginak garen, zer eginbide dugun gure kreatzaileari buruz, norat gohazen, eta zer behar dugun egin, Jainkoak guretzat dagokan zorionerat heltzeko.

Jainkoaz eginak gare, eta egin gaitu, guziek katiximan, haur haurretik, ikasi izan dugun bezala, haren ezagutzeko, maitatzeko, zerbitzatzeko, eta gisa hortan bethi ereko zorionaren ardiesteko.

Horra gure izpirituarentzat. Badakizkigu segurki, guretzat premia-tsuenak diren gauza hauk: noren ganik heldu garen, zer behar dugun egin, eta noren ganat gohazen.

Bainan, ez da xoilki hortan gizona. Badu izpiritu bat, adimendu bat, argitua izan nahi duena: badu ere bihotz bat zorionaren gosea eta egarria duena.

Zoriona! Guzien gutizia eta ametsa. Ez da nihor bilhatzen ez due-nik.

Gerta daitezke eta ikusten dire, epheltasunean, hoztasunean egoi-ten direnak, Erlijjioneko gauzen eta egien gainean; batzuek ere gerla egiten diotenak. Ez da nihor, alde bat eta bethikotz, zorionari uko egin nahi dionik. Eta ongi eta xeheki bilhatzen baginitu gizonen urhatsen eta harat hunaten arrazoiak ikus ginezake, bethi zorionaren bilha da-biltzala.

Nola daiteke bertzela?

Jainkoak, gizona zorionean eta zorionarentzat egin zuen; arraina urean igeritzeko, hegastina airetan hegaldazeko bezala, orobat gizona, zo-

rionean izaiteko. Bere hutsak galdu zuen, eta eman zorioneko baratze-  
tik kanporat.

Bainan gizonaren naturaleza ez da mudatzen: lurreko parabisuko go-  
zotik ilkitzean, eraman du berekin haren orhoitzapena eta bihotz mina.  
Zerentzat egina izan baita, eta hura, molde guziez bilhatuko du.

Izan daiteke errebela dadien, ardura ere, bere urhatsetan, bide tza-  
rrak har detzan; eta dohakabeak ez du menturaz ikusiko, begiak itsu-  
turik leze zolarat dohala. Hargatik, bere urhats errebelatuenetan, zo-  
riona eta bihotzaren asean bilhatzen du. Hanbat eta hain barna ditu ha-  
ren bihotzean, erruak eginak zorionaren gutizia ezin kenduzko horrek!

Zer bada? Jainkoak bere kreatura idorki enganatzen othe du? Be-  
rak eman othe dio bihotzean, zorionaren nahia eta gutizia, sekulan apha-  
zegatua eta sasiatua ez izaiteko?

- 24 Errana da, marinelek, edo, itsasoan dabilzanek, gertakari bat as-  
kotan ikusten dutela. Itsaso zabalaren erdian direlarik, iduri zaiote, ar-  
giaren eta hedoiaren arrimu berezi batez, lurra hurbil ikusten dutela. Ba-  
dohaz aintzinat, laster lurra zangoz unkitzeko esperantzarekin. Bainan  
zer? Huna non, zenbatenaz aintzinat baitohazi eta hanbatenaz, bere us-  
tez, ikusten zuten lurra, urruntzen zaioten! Begietako enganu bat zen.

Horrela othe da gizonaren bizia? Kondenatua othe da, noiz eta ere  
uste baitu zoriona eskuez unkitzera eta besarkatzera dohala, gero eta  
gehiago urruntzen ikustera? Ez dezakegu uste izan, jakinez, Jainkoa  
zoin den Aita ona, bere amodioan egin duen gizonarentzat. Dударik ez  
da, Adamek bekatu egin duenetik, sofrikariozko eta gaztiguzko bizi  
batean dela gizona; bainan ez da haren gaztigua, leze bat hain ilhuna,  
non ez baititazke harat hel argiaren zenbeit arraio; haren pena ez da  
esperantza gabekoa.

Geroago, xehetasunekin erranen duguna, hitz batez erran dezagun,  
orai beretik. Lurreko parabisuan zuen zoriona galdu izan du gizonak:  
bainan nahi badu jeneroski merezitu, Jainkoak emanen dio, zeruan,  
Jesu-Kristoren merezimenduez, eta, mila aldiz nasaikiago, hain finki  
desiratzen eta bilhatzen duen zorion osoa.

Bainan zerua urrun da. Harat hel arteraino, ez othe du fede-dunak  
berak, deus kontsolazionerik igurikitzeke mundu huntan?

Zer ikusten dugu? hanbat pena, nahigabe, nigar ixurtze. Egia da,  
zenbeit badire, iduriz bederen, deus gutiziatzeko ez dutenak; gauza gu-  
ziak eskuetarar dohazkote; nahi izaitea aski, eta hekien nahi guziak,  
hain laster betheak dire. Diru, lur, ohore, ez dute deusen eskasiarik.

Hekien aldean eta inguruetan, zenbat bertzelako? Pobreak eta erromesak, eriak, ezinduak eta bertze hainitz gisetako, mundu huntako ungi eta gozo guzuez gabetuak direnak!

Hemen, espos desolatu bat, bere lagun maitea galdurik, nigarretan eta pobrezian bere bizi guzikotz gelditzen dena; hortxe, aita-ama gabeko haur gaixo batzuek, bere nigarrez baizik mintzatzen ahal ez direnak; hor oraino, familiako eta etxeko buruzagi bat, eritasunaz bere ohean itzaturia: bereak ikusten gosea menturaz sofritzen, eta ezin laguntzarik eman; hantxe, zoko batean, buraso xahar eta ezindu batzuek bere haurrez idorki ahantziak eta bazterrerat utziak. Eta zenbat bertze holako!

Zer? izan daitekela hoikientzat mundu huntan zorionik?

Bai. Nahi bezain garratz zaioten, iduriz, Jainkoa agertzen, ez da hoikientzat ere, bizi hau bera, kontsolazionerik gabe, egiazko giristinoak badire; balinbadakite beraz, Jainkoa baitan, bere kontsolazionea bilhatzen.

25 Ez detzagun gauzak idurien arabera xoilki preza eta juia. Mundu huntako bereko gozoa eta zoriona ez dire bethi guk uste dugunetan aurkitzen.

Asko gizon zorionean direla atxikitzen ditugu, hala dutelakotz itxurra. Nork daki hekien aberastasun, ohore, jauregi eta edergailu guzien gibelean, zer pena eta sofririkario, arta handirekin gordetzen diren? Errana eta egia da: distiatzen duen guzia ez dela urrea. Gisa berean, gure begientzat zoriona iduri duena, ez da bethi egiazko zoriona.

Barna eta funtsean gauzak pisatzen baditugu, erran behar dugu, ez daitekela zorion osorik aurki, mundu huntan: Adamen bekatuak deboilatu du Jainkoak hastapenean egin zuen obra. Ez ditu hargatik Jainkoak, bere amodiozko begiak, osoki gure ganik urrundu.

Fedean eta Erlijionean emaiten dauzkigu, gure bihotzarentzat, asko kontsolazione ezti eta gozo, gure indar eta sustengu izaiteko, bizi huntako gudu eta jasan gogorretan.

Bainan kapitulu hau ez sobera luzatzea gatik, gauza hori, segidakoan ikusiko dugu.

## ZORTZIGARREN KAPITULUA

### *Fedeak zer kontsolazione duen gizonaren bihotzarentzat*

26 Maitatzea, horra gizonaren bihotzaren lehen beharra. Bainan bihotzeko behar horrek, bere satizfazione osoa izaiteko, galdegiten du, maite duguna, leial egonen zaikula bere aldetik, eta ez dugula sekulan galduko.

Bada, horiek dire gauzak, Fedeaz eta Erlijioneaz kanpo, mundu huntako amodioak emaiten ahal ez dituenak.

Har dezagun amodioetan hazkarrena, garbiena, sainduena: ephel daiteke eta iraungi, gizonaren bihotzeko sentimendu guziak bezala, zeren berenaz, gizonaren bihotza flakoa eta itzultzeko errexeta baita. Trixteki egun guzietan gauza hori ikusten da.

Kreaturen amodio eta adixkidetasunen duda muden erdian, non aurkituren du gizonak, bere bihotzaren sosegua eta bakea? Bakarrik, sekulan enganatzen ez duen adixkidea baitan.

Erranen dio Fedeak baduela zeruan Aita bat, adixkide bat, bethi leial, bethi amultsu egoiten zaiona, sekulan ahanzten eta begietarik galtzen ez duena. Erranen dio Fedeak, baduela adixkide eta Salbatzaile bat, bere amodio izari gabea, gure ganat jautsi eta aphaldu izan dena, Jesu-Kristo, Jainko-Gizon, gure adixkide eta anaia nahi izan dena egin. Eta guzien gainetik Jesusen Bihotz Sakratuan aurkituren du bere bake osoaren leku gozoa.

Bainan erranen dautazue menturaz: Jainkoaren eta Fedearen kontsolazionetarot joan gabe, ez othe da amodio bat, bat bederen, deusek hausten eta kordokatzen ez duena? Amodio bat, deusez ttipitua izan gabe, denboraz beraz hazkartuz dohana, aita-amen amodioa bere haurrentzat, eta haurren amodioa, bizia eman dioten aita-amentzat?

Emagun, gehienez bederen hola dela. Bai; bainan, lokharri hain maite, ezti eta amultsu horiek berek, badute etsai bat trenkatzen di-

tuena, eta hura da heriotzea, maiteenak berak bat bertzea ganik berexten dituena.

Elgar hain ongi maite zuten bihotz hoikieri, zer geldituren zaiote, ez badire Fedearen esperantzez sustengatuak? Deus ere; bizi direino ezin agortuzko nigarrak, eta tonban, bethiereko ilhunbeak.

Fedeaz ordean argituak balinbadire, badakite ongi, ez dela fededunentzat, bethiereko heriotzerik; heriotzea dela, xoilki eta bakarrik, bat bertzea ganik denbora batentzat berexia izaitea; belo bat, pareta bat bezala, bizi hunen eta bertze biziaren artean. Ken dezagun belo eta pareta hura, eta bertze aldean agertzen zaizkigu, bethiereko zorionaren argian, bizi huntan maite izan ditugunak. Fedeaz argituak eta sustatuak, badakigu, ongiari, bertuteari, Jainkoari leial egonez, elgarren ganat bilduko garela egun batez, bethiko zoriona, Jainkoaren aintzinean gozatzeko.

Oi! Zenbat aita-ama, zenbat haur, zenbat espos giristino, sinheste horrek kontsolatzen eta hazkartzen dituen! Zenbat nigar xukatzen! zenbat bihotz sustatzen bizi huntako atsegabe guzien erdian!

Sinheste eta esperantza hori kentzen badugu, bihotz eri eta dolortuetarik, zer zaiote gelditzen? Ilhunbe beltzak eta etsimendua.

- 27 Bihotzeko pena eta jasan gogor horietaz bertzalde, bertze zenbat oraino, gizonari, bizi huntan jarraitzen direnak! Egun guzietako ogiaren irabazteko jasan behar diren unhadurak; pobrezia, miseria, gosea, eritasunak, etsaien herrak, gaxtuen persekuzioak; nork erran bizi huntako pena eta nahi gabe guzien saila handia?

Hemen ere badu fededunak argi bat errebelatzen ez duena; gozo bat, daiteken bezinbatean bederen, bihotza kontsolatzen diona.

Argi harek, zeruan irakusten dio pena guzien akabantza. Boza ezti batek erraiten dio: penetan zare, baina ez dire bethikoak izanen zure penak; fedearen erakaspenen arabera jasaiten badituzu, bethiko zoriona merezitzen dautzute. Jesu-Kristok ere bere gorphutzean, bihotzean eta ariman jasan izan du, gizon guziek baltsan emanik jasan ahal izan duten baino gehiago. Baina, bere Pasioneaz saindutzen ditu zure penak, harekin bat egon nahi bazare. Sofritu du eta hil da; baina bentzutu du heriotzea, eta piztu da, gehiago ez hiltzeko eta zeruetarat igaiteko. Erraiten dautzu: garraia zazu zure kurutzea; jarraik zaite niri, eta nik piztuko zaitut, zeruko erresuman hartuko enekin, eta partalier eginen sekulan akabantzarik izanen ez duen zorionean.

Esperantza horrek ditu hazkartu denbora guzietako martirak hanbat bozkarioekin, bere bizia Jainkoarentzat eman dutenean. Esperantza



horrek berak, nahiz molde gordeagoan, sustengatzen ditu egiazko g-ristino leialak, egun guzietako penen jasaiteko.

Zoin dorphea eta ilhuna laiteken gure bizia, ez bagindu Fedeak emaiten daukun esperantza! Zoin trixtea laiteken gure zortea gure burueri erran behar bagindu: hemen, lur behere huntan sofritu eta penatu ondoan, akabo guziak. Hemen, ez bake eta kontsolazionerik; deus, gure bizia ezti dezakenik; eta hil ondoan putzu ilhun bat lurrean, gure gorphutzarentzat, harren bazka izaiteko.

Ai! bai! Zer laiteke esperantza gabeko bizitze hori?

28 Bainan, zorionean, erakusten dauku Fedeak, badela, bizi huntarik lekora, bertze bizi bat, zointan izanen baitugu gure ongi eginen eta bertuten saria.

Horra zer egiten duen Fedeak gure bihotzarentzat. Mundu huntan, amodio on eta sainduaz elgar maitatu izan duteneri, esperantza emaiten diote, ez direla bertze bizian, elgarren ganik berexiak izanen. Pena guzien erdian, hazkartzen eta sustatzen ditu bihotzak, zeruko sariaren esperantzaz.

Urusak beraz, miletan urusak bere bihotzaren bakea, eta biziko penen kontsolazionea Fedearen erakaspentetan bilhatzen ahal dutenak! Penetan badire, altxa detzatela goiti bihotzak: *Sursum corda!* Badakite, Jainkoak berak, zeruan, nigarrak xukatuko diozkatela.

Erran dezagun beraz. Bizi huntan berean, aurki daiteke, neurri batean, gure bihotzak bilhatzen duen zoriona. Ez osoa; hori, zeruan da. Bainan, bizi iragainkor eta miseriazko huntan izan daiteken bezin batean, aurkituko dugu, pena eta kalerna guziez gorago, Jainkoaren amodioan eta zerbitzuan, zeruaren esperantzan, edo, bertze hitzez erraiteko, Fedean eta Erlijjionean.

Bertze gauza guziak iragainkorrak eta enganakorrak dire. Jainkoa baitan bakarrik da gure zoriona, eta gure esperantza ezin kordokatu-  
tuzkoa.



**BI-GARREN ZATHIA**  
JAINKOAZ ETA KREAZIONEAZ



## LEHEN KAPITULUA

*Jainkoaz. — Bada Jainko bat munduaren Egilea*

29 Erlijioneko lehen egia hau da: Bada Jainko bat.

Giristino Erlijione guziak sinheste hortan du bere zimendua.

Horra zertako, bere *Kredoaren* buruan Apostoluek eman duten: *Credo in Deum*: Sinhesten dut Jainkoa baitan. Hortan da bertutearen eta salbamenduaren hastapena. Apostoluak dio: «Jainkoa ganat hurbiltzeko, behar dela lehenik, Jainko bat badela sinhetsi.»(1)

Bada Jainko bat! Liburu Sainduak hartaz bethi mintzo dire. Bainen, Liburu Sainduz bertzalde ere, hori da egia bat, zoinaren gainean, ez baidaiteke dudarik izan adimenduaz dohatua den izpiritu batean.

Populu eta jende guziek, salbaienek eta gutienik argituek, egia hori sinhetsi izan dute, eta bere moldean Jainkotasuna adoratu.

Bada Jainko bat! Zeruak eta lurak bere ordenantza ederraz, haren izaitea eta zuhurizia kantatzen dituzte.(2)

Iduri luke aski behar laitekela, begien idekitzea, egia horren onhesteko.

Zer ikusten dugu? Itsaso zabal miragarria; mendi eder eta handiak bi lekuko bezala, Jainkoaren izena erraiten dutenak: «Miragarriak dire itsasoaren goratzeak, miragarria da Jainkoa mendietan, dio Dabid Profeta Erregeak.»(3) Zer ikusten dugu oraino? Gure inguruetan, landare, arbola, lore eta frutuak bere denboretan ethortzen; gure buruez

---

(1) Credere enim oportet accedentem ad Deum, quia est. (Ep. B. Paul. Apost. ad Hebr. XI, 6).

(2) Coeli enarrant gloriam Dei, et opera manuum ejus annuntiat firmamentum. (Psal. 18).

(3) Mirabiles elationes maris, mirabilis in altis Dominus. (Psal. 92).

gáinean, zeru urdinean, iguzki distianta, ilhargi ezta, izar ezin kon-  
datuak, bethi lege eta bide berak segitzen dituztenak, sekulan lege  
hekietarik apartatu gabe.

Eta horiek guziek, ez dutela egilerik? Hoin ongi erregelatu gauza  
horiek bere baitarik direla? Zer zoramendua!

Egia bat bada guzietz aithortua: deusetarik, ez dela deus berenaz  
ilkitzen. Etxe batek galdegiten du hargina; burdin lanak, harotza. Eta  
mundu miragarri hunek ez lukela egilerik?

30 Badute gauza guziek hastapen bat. Emagun landare edo animalia  
bat, zoin nahi. Landare, animalia bakotxak hazi bat izan du bere has-  
tapentzat. Hori da nihork ukhatuko ez duen gauza bat. Bainan, zohaz  
nahi duzun bezin gora. Hastapenean aurkitu beharko duzu hazi bat,  
ez dena bere baitarik.

Huna nola, sei urthetako haur ttipi bati, egia hori agertu zitzaion.

Goizeko aphairu edo gosariaren egitera zohan bere amarekin. Atse-  
gin zen ikustea, zoin gogo onez, bere ogi poxiak bustitzen zituen arrol-  
tze freskoan.

— Badakizu, ene haurra, galdegiten dio amak, nork egin duen orai  
jaten duzun arroltze hori?

— Bai, dio gure gizon ttipiak; zuk, ene phestan, eman dautazun  
oilo xuriak.

— Eta oilo xuria nondik ilki da?

— Bertze arroltze batetarik.

— Eta nork egin du arroltze hura?

— Arroltze hura? dio haurrak hirriz dagolarik; eta bada bertze  
oilo batek, eta bethi gisa berean; oiloak arroltzea, eta arroltzetik oiloa.

— Bainan nondik heldu da lehen arroltzea?

— Lehen oilotik.

— Arras ongi, ene haurra, horrat dino. Bainan erraiten bazinaut,  
nondik heldu den lehen oilo hura?

Haurra eman zen pentsaketan, eta laster, erran zion amari: Ama,  
hura, Jainko maiteak egin izan du.

Gizon jakintsunek edo, bere ustez bederen hala direnek hitz ede-  
rrak erranen dituzte. Mundu hunen hastapenaz den bezinbatean, ez  
dute aurkituko sei urthetako haur ttipi horren hitza baino zuzena-  
gorik.

\* \* \*

Gau eder eta ezti batekin, Fenelon Kanbraieko Artxaphezpiku handia, freskuran zabilan bere iloba gazte batekin.

Mila izarrez distiatzen zuen zeruak; iduri zuten urre xorta edo itze batzuek zeru urdinean finkatuak.

Arratseko aire ona hartuz zabiltzalarik, galdegiten dio haurrak bere osabari zer oren den. Fenelonek hartzen du eskuetan oren erakustekoa. Zortzi orenak ziren.

Oi! Zer gauza ederra, dio haurrak; hurbildik nahi dut ikusi.

Osabak erraiten dio: Gauza eder eta orenak hain xuxen irakusten dituen hau, bere baitarik eta bakar bakarrik egin da, ene haurra.

— Bere baitarik? dio haurrak, osabari hirri ezti batekin behatzen diolarik.

— Bai, bai, bera; norbeitez aurkitua izan da, uste gabean, toki galdu batean, eta segurki bera egina da.

— Hori ez daiteke; nitaz hirri egin nahi duzu.

— Ez haurra, ez naiz zutaz burlatzen. Zer da bada hor ez daitekenik?

— Bainan, ene osaba, orena irakusten duen gauza bat ez daiteke bera egina izan.

— Zertako ez bada?

— Zeren, hortan baitire hainitz gauza, hain ongi moldatuak eta ordenatuak, non, ez baita nor nahi den gai, hoin zuzenki hoikien egiteko. Izpiritu ernea eta esku ona behar dire hortako. Ene osaba, hori erran dautzunak enganatu zaitu.

31 Fenelon, Artxaphezpiku jakintsun eta sainduak besarkatu zuen bere iloba, eta zeru eder eta distianta erriz irakusten ziolarik, erran zion: Zer uste izan, beraz, ene haurra, gauza eder eta miragarri horiek guziak, berak eginak direla erraiten dutenez?

— Zer, osaba, badire gizon aski zoro eta ozarrak horren erraiteko?

Bai; badire hori erraiten dutenak. Bainan, ikusten duzu: ez balinbadaiteke oren irakusteko bat bera egin, nola daiteke, lurra, zerua eta gizona bereziki, berak egitea?

Gizona, guzien gaintik, ez daiteke Jainkoaren obra baizen izan. Bere gorphutzean eta oraino hobeki, bere ariman dituen bothere miragarriak ageriak dire, Jainkoaz egina dela.

Galien, bi-garren mendean bizi zen miriku jakintsun aipatu batek, gizonaren gorphutzean diren gauza miragarriak ikusi ondoan, errai-

ten zuen: «Oi zu! gu egin gaituzuna, zer himno ederra kantatu du-  
dan zure ohoretan!»

Afrika mortuko Arabe gaixo bati galdegiten zion norbeitek, nola bada segurtatu zen bazela Jainko bat.

Errepustu eder hau eman zion: hala nola, ikusten baitut harrina-  
ren gainean, arrastoetarik, eian bestiak, edo, gizonak ibili diren.

Nork beraz, ikusiz munduan eta bereziki gizona baitan, bothere so-  
berano baten frogak, ez du erran nahiko: Bai, egiazki, Jainko handiak  
bere urratsen seinaleak hemen utzi ditu.

Brancks izena zuen gizon bat zen hainitz aiphatua, lurraren asko  
bazterretan ibili zituen urratsez, eta horietan bildu zuen jakitateaz. Joan  
zen egun batez Georges Angletarreko Erregearen ikustera. Asko gau-  
zez mintzo zirelarik, Erregek galdegin zion: Zer da, bada, munduko  
zure itzuli eta harat-hunat guzien erdian, ikusi duzun gauzarik ederre-  
na? Errege, zion erran, Nik ikusi dudan gauzarik ederrena izan da,  
munduaren nausia.

Errepustu ezin ederragoa!



## BI-GARREN KAPITULUA

### *Jainkoaz (segida)*

32 Bada Jainko bat.

Jende eta populu guziek bere sinhesteaz lekukotasun bihurtzen diote. Joan gaitezen munduaren bazter guzietarat, iguzkiaren suez erreak, horma-pean direnetarat bezala. Ikusiko ditugu, pentsu, sinheste, bizitzeko molde osoki desbardinak. Bainan guzietan aurkituko dugu Jainkoaren sentimendua eta haren baitako sinhestea.

Ez dugu zeren mintza Liburu Sainduez; bai Testamendu Zaharra, bai Berria Jainkoaren izenaz betheak dire.

Eman detzagun xoilki, Pagano zaharren lekukotasunetarik zenbeit. Platonek erraiten dauku: «Ez dela nihor egon haurretik, zahartu artino, Jainkorik ez delako sinhestea.» Aristotek dio, mundu hunek Jainkoaren izaitea frogatzen duela. Huna zer dion, bere aldetik, Ciceron Erromakoak: «Ez da jenderik, nahi bezain salbaia eta barbaroa izan dadien, jakin ez duenik badela Jainko bat, nahiz menturaz, ez duen jakin ahal izan nola behar duen adoratu.» Entzun dezagun Plutarke: «Munduaren parrapioetan ibiltzen bagare, aurkituko ditugu menturaz, paretez inguratuak ez diren hiriak; jakitate, lege, etxe, diru eta aberastasun gabekoak... bainan tenplo edo eliza, Jainko eta othoitzik gabeko jenderik, ez du nihork ikusi.»

Egia da. Populu pagano horietarik hainitz, hobeki erraiteko, guziak, enganatu eta oraino enganatzen dire, Jainkoaren izaitearen juaitzeko eta preatzeko moldean. Hekien sinheste eta Erlijioneko egintzetan, hainitz gauza aurkitzen dire hirrigarriak eta askotan ere izigarriak.

Bainan ilhunbe guzien erdian, Jainko bat bazela eta adoratu behar zelako sinhesteari hain ziren estekatuak arimen zolatik, non, egiazko Jainkoa ezagutu eskasian, kreaturak, iguzkia, ilhargia, izarrak, bestiak berak adoratu baitituzte.

Nondik eta noren ganik bada, ethorri zaiote sinheste hori populu guzietan, denbora eta leku guzietan? Argitueroi, hala nola Grekeri eta Erromanueri, hala ere, salbaia, bertze gauza guzien gainean, ilhunbe handietan pulunpatuak zireneri?

Batzuek bertzetarik, bere pentsu eta bizitzeko moldeaz, hain desbardin populuek, elgar sekulan ikusi ahal izan gabe, nola bada izan dute, denbora eta leku guzietan, sinheste bera Jainkoa baitan?

Ez dezagun hainitz bilha. Jainkoa bera da, gizonaren bihotzean eta ariman sentimendu eta sinheste hori eman duena. Jainkoak berak eman ziozkan bere erakaspenak Adame lehen gizonari; nahi bezain ilhunduak izan diren Adamaren bekatuaz, denboraren lanaz eta gizonen pasionez, zerbait hetarik gelditu da, eta bereziki Jainkoaren baitako sinhestea.

33 Jainkoak gure baitan eman duen sentimendu hortaz bertzalde, bada bertze gauza bat oraino, populu, guti argituen beren begietarat dohana.

Zoroak, sinheste gabeak erraiten du: Nork ikusi du gauza guzien Egile eta Nausi dagokazun Jainko hori?

Zoroa, bai! Zenbat gauza, zure begiez ikusi gabe onhesten dituzunak? Ikusten duzu airea, ikusten zure arima? Ikusten dituzu zure eta ene pentsu eta sentimenduak? Ez; eta, hargatik, gauza hoikien guzien gainean baduzu sinhestea; hekien efetuak eta obrak ikusten dituzulakotz.

Gisa berean da, Jainko munduaren Egileaz. Haren obra miragarriak ikusiz, den gutieneko adimendua duten guziek konprenitzen dute badela gauza horien Egile bat.

Bada, denbora eta leku guzietako jendek onhetsi eta sinhetsi dutena, ez daiteke egia baizik izan; hori baita, gu baino goragoko norbeitek gu baitan eman duen argiaren lekukotasuna; edo lehen gizonaren erakaspenen orhoitzapena, menderen mende atxikia.

Jainko bat badela emanen dudan bertze frog bat, hau da.

Gutarik bakotxak garraiatzen du bere ariman, argi bat, boza bat, irakusten eta erraiten diona zer den ungi eta zer gaizki; zer behar dugun egin, eta halaber zeri ihes egin.

Eta ez da hori xoilki aireko hitz bat, bainan lege bat hertziki *obligatzen* gaituena. Gure baitan sartzen bagare ez othe dugu aitortuko egiazki *obligatuak* garela asko gauzeri ihes egitera eta kontrarat bertze hainitzen egitera?

Nork ez du bere baitan entzuten oihu bat erraiten diona: Ez duzu ebatsiko; bertzerena, ez da zurea; ez duzu nihor hilen edo hel-gaiz-

tuko; ez duzu nihori eginen, bertzek zuri egitea nahi ez zindukenik. Horrela eginenez, hobendun zintezke eta gaztigua merezi zinduke.

Nork ere ez du bere bihotzaren zolan entzuten bertze hitz hau: egin zazu ongia; zure ahalaren arabera lagun zazu beharretan dena; gose denari emozu jatera; egarri denari edatera; bilhuzia denari, jaun-tzia; izan zaite justu zure egintza eta urrats guzietan; zuzen zure lanetan; leial zure hitzetan.

34 Erran nahi da, hitz batez: Egin zazu bertzeri, bertzek zuri egitea nahi zindukena. Horrela, ungia eginen duzu eta sari bat zor izanen zaitzu.

Guziek gu baitan garraiatzen dugu lege hori; ez dezakegu ukha; gure ariman eta kontzientzian gora mintzo da.

*Lege hori ez da gu baitarik heldu.*

Ezen, ardura, dorphea eta garratza da. Gure naturalezari min egi-ten dio; hainitzetan, gure gutizien eta jaiduren kontra doha. Bertzalde eta gehiago dena, jenerala da, eta guziek bere baitan dakarketena.

Bainan ez bada lege hori gu-baitarik heldu, gure jaidura tzarren kontra balinbadoha, nondik heldu da bada? Nork egin du? Nor izan da aski botheretsua gizon guzien bihotzetan horren emaiteko? Nork, bereziki, gizon guzien bihotzetan eman ahal izan du, lege horri obeditzeko den *obligazionearen* sentimendua?

Nor izan daiteke, baizen Jainkoa, erran nahi da Izaite soberano bat, gizona baino lehen eta gizonaz gorago dena, gizonaren Nausia eta Egilea, erakutsi diona zer den ongi eta zer gaizki; manatu ongia, sariaren esperantzarekin, debekatu gaizkia gaztiguen mehatxuarekin?

Bi hitzetan zerratzen dut azken froga hau. Balio eta indar handi-koa da.

Bada lege bat, gure obra eta egintzen gidaria, nahi edo ez, gu bai-tan garraiatzen duguna. Erran dut, nahi edo ez; ezen nahi ginduke as-kotan haren kontra joan, gure jaidura tzarrerri jarraikitzeke.

Ez da beraz lege hori gu-ganikakoa.

Bada beraz, gutaz kanpo, eta gutaz gorago, lege emaile bat.

Ez daiteke gizon bat izan. Ezen, gizon guziak bere naturalezaz igualak dire, eta lege horrek guzieren manatzen diote.

Lege horren egilea ez daiteke beraz Jainkoa baizen izan.

Errexki onhesten dute erakaspén hori kontzientzia garbi eta xu-xenek. Tzarrek eta bide makurretan dabiltzanek lukete gutizia, lege emailerik eta juierik ez izaitea.

Hala dio Liburu Sainduak: «Zoroak erran du bere bihotzean: Ez da Jainkorik»(1).

Guk erran dezagun goraki: Bai, bada Jaino bat; haren izaitea frogatzen du munduaren ordenantza ederrak; frogatzen du gure kontzientziak, ongiaren eta gaizkiaren gainean dugun argiak; frogatzen du ere guzien baitan den sinheste hunek: Badela, behar dela izan nonbeit jule bat, ongia eta gaizkia sariztatuko edo gaztigatuko dituen.

Bilha dezagun nor den ongi eta giristinoki bizi dena: harek, Jainkoa baitan, amodioz sinhesten du. Gaizki bizi denak eta gaizki dabilanak, harek nahi luke ez balitz Jainkorik.

Bainan, egun batez, aurkituko du harek ere Jainkoa, bere salbamenduarentzat ez bada, bere kondenazionearentzat.

---

(1) Dixit insipiens in corde suo: non est Deus. (Psal. XIII, 1).

## HIRUR-GARREN KAPITULUA

### *Zer den Jainkoa*

35 Badakigu orai, ezin dudatuzko gisan, badela Jainko bat.

Zeruak eta lurak kantatzen dute. Zeruan eta lurrean eta guzien gainetik gizona baitan ikusten dugun ordenantza ederra haren zuhurtziaz eta bothereaz mintzo zaiku: *Coeli enarrant gloriam Dei et opera manuum ejus anuntiat firmamentum.*

Gogo onez erraiten dugu Linnée jakintsun handiaren hitz hau: «Ikusi dut ene begien aintzinean, Jainko bethiereko, guziz handi, guziz botheretsu eta guziz zuhurraren itzala, eta espantitua izan naiz. Desertuan segitu dut haren urratsen arrastua; zer indarra, zer zuhurtzia, zer, ezin konprenituzko edertasun osoa, haren egintza guzietan, den ttipienetan ere!»

Bainan, balinbadakigu Jainko bat badela, othe dakigu zer den Jainko hura? Ai! zoin den flakoa gure izpiritua haren konprenitzeko, zoin garen ez deusak, behar liteken bezala, hartaz mintzatzeko!

Bainan, badakit hargatik, liburu hau irakurtzen duten giristino onek zenbait xehetasun gure ganik galdegiten dituztela. Emanen ditugu beraz, gure ahalean, adimenduaren eta Fedearen argieri jarraikitzen garelarik.

Filosofo eta theologal jakintsunek hainitz liburu egin dituzte Jainkoaren, haren izaiterean eta perfeziorik miragarrien gainean. Bainan errexki ikusteko den bezala zenbat, Jainkoaren handitasunez beherago gelditu diren!

Konprenitzeko da. Mugarririk ez duen Izaiterik perfeta ez daiteke den bezala, gure argi flakoez ikusia izan.

Jakiten ahal dugun bezinbatean, zer da Jainkoa?

Jainkoa da izpiritu huts bat, eternala edo bethitik dena eta bethi izanen dena, osoki perfeta, gauza guzien Egilea eta Nausi soberanoa.

Jainkoa izpiritu huts bat da, erran nahi da, izaitze bat gorphutzik gabekoa, ezin ikus ez unki dezakeguna.

Badire hirur izaitze suerte.

Batzuek, xoilki gorphutz; bertze batzuek gorphutz eta arima elgarri juntatuak, eta azkenean eta horietaz gorago, izpiritu hutsak.

36 Gorphutzak ez du, ez adimendu, ez nahikunde, ez amodiorik; gure begiek ikusten dute, gure eskuek unkitzen; hala nola, lurra, harria, ura, zura, eta bertze hainitz gauza.

Bertze izaitze batzuek badire, gorphutz eta izpiritu, adimenduaz dohatuak: hek dire gizonak.

Gizonak badu gorphutz bat, eta gisa hortan, lur eta mundu hontan diren bertze gorphutzen idurikoa da.

Bainan, badu gehiago arima bat, adimenduaz, nahiaz, amodioaz dohatua, bere baitan ikus ez daitekena, kanporat ageri diren egintzez agertzen zaikuna. Gorphutz eta arima elgarri juntatuak, deitzen dire, gizona.

Gorago oraino, aurkitzen dugu izpiritu xoila. Harek ez du deus gorphutzaren dorphetasunetik eta flakezetarik ez eta herioaren beldurrik. Kreaturretan, hura da aingerua. Eta kreatura guziez gorago, guzien kreatzailea eta Egilea, perfezione guziak bere baitan dituen izpiritu xoila: JAINKOA.

Jainkoak egin ditu gorphutzak ez deusetarik; bainan berak ez du gorphutzik, zeren gorphutzak, bortxaz bere flakezak eta mugarriak baititu, eta Jainkoa Izaitze osoki perfeta eta mugarririk gabekoa baita. Jesu-Kristok erraiten zion emazte Samaritanoari: «Jainkoa izpiritu bat da»(1). Hitz bera egortzen zioten Jaun Doni Paulok Korintiako dizipulueri: «Jainkoa izpiritu da»(2).

Egia da, ardura Liburu Sainduak Jainkoaz mintzo direla, begiak eta belarriak balitu bezala. Hori da xoilki gure araberako mintzaira bat, adiarazteko gure hitz eta egin guzien lekuko dela; Jainko bezala, oro entzuten eta ikusten dituela.

Eta ez dire bakarrik Liburu Sainduak, Jainkoa izpiritu huts, dagokatenak. Erromako jakintsun paganoen artean gauza bera, Cicero-nek(3) eta Tacitek(4) erraiten daukute.

---

(1) Spiritus est Deus. (Joan IV, 24).

(2) Dominus autem spiritus est. (II, Corinth. III, 17).

(3) Cic.; Tusc. Qucest. Lib. 1. P. XXVII.

(4) Tacit. Hist. I, V.

Jainkoa eternala edo bethierekoa da; erran nahi da, ez duela izan hasterik, eta, ez duela izanen akabantzarik.

Ez du izan hasterik. Haste bat izan balu, denbora bat izanen zen, zointan ez baitzen. Izanen zuen beraz kreatzaile bat, egile bat; orduan, hau izanen zen Jainkoa. Orhoit gaitezen gorago erran dugun oiloaren eta arroltzearen ixtorioaz. Lehen arroltzearen egiteko, behar da lehen oilo bat. Gisa berean mundu hunen konprenitzeko, behar da izaite bat, bethitik dena, nihork egin ez duena, eta zoinak egin baititu diren guziak. Hura deitzen dugu Jainkoa, guzien hastapena, berak hasterik ez duena.

37 Emazu gathe bat, nahi duzun bezain luzea, zerutik lurrerat jausten dena; erreztun guziek batzuek bertzeri atxikitzen diote. Bainan ez baduzu eman nahi erreztun bat edo haren egile bat, bethitik dena, hastapenik gabea, zure gathe guzia airean eta herbail gelditzen da, zeren ez baitu hastapeneko sustengurik. Gisa berean mundu huntako izaite guziez, non ez dugun nahi onhetsi, hastapenik ez duen Jainko bat, gauza guzien Egilea.

Hastapenik izan ez duen bezala, Jainkoak ez du izanen akabantzarik. Bizia bera da; guzien Egilea; nork ken diozake bizia? «Jainkoa bethi bizi da, dio Errege Profetak(1). «Bizi naiz eternitate guzian, dio Jainko Jaunak berak»(2).

Entzun dezagun oraino Dabid Erregea: «Jauna, hastapenean lurra egin duzu, eta zeruak zure eskuen obra dire. Horiek, bere akabantza izanen dute; bainan, zu, bethi egonen zare; bertze gauza guziak bezti batzuen pare higitzen eta zahartzen diren denboran... Bainan zu, bethi bera zare, eta zure urtheek ez dute akabantzarik izanen»(3).

Elizako aitek, Tertullien, Agustin, Anselmek, eta Dotor guziek, S. Thomas Akineko, guzien prinzea aintzineko, gauza bera erakusten daukute.

Jainkoa bethitik da eta bethi izanen da; edo ez laiteke Jainko. Gure adimenduak berak ez dezake bertzela ikus gauza horren gainean.

---

(1) Dominus in aeternum permanet. (Ps. IX, 8).

(2) Vivo ego in aeternum. (Deut. XXXIII, 40).

(3) Ps. CI, 27.

## LAUR-GARREN KAPITULUA

*Zer den Jainkoa. — Jainkoa osoki perfeta dela*

38 Jainkoa osoki perfeta da, erran nahi dut, ez dela deus onik haren baitan eskas denik, eta on guziak, hura baitan, mugarri gabekoak direla.

Bainan nor ausarta daiteke Jainkoaren perfezione eta on izari gabekoez mintzatzeraz? Zoin ongi hemen ikusten dugun gure flakeza eta ez egintasuna! Jainkoaren tronuari hain hurbil diren aingeruek berek ixildu behar dute eta umiltasunean adoratu Jainkoaren handitasun, edertasun eta saindutasun ezin errenezkoak. Jainkoa bera, eta hura xoilki, laiteke gai, Jainkoaz behar laiteken bezala mintzatzeko.

Dezagun hargatik erran, gure ahal ttipian, Jainkoa dela ongi soberanoa, amodio izari gebekoa, bothere osoa, nihor beraz gorago ikusten ez duena, bainan guziak bere pean dagozkana.

Mundu huntako edergailu guziak haren ganik heldu dire, eta haren edertasunaren itzal flako eta ez deus batzuek dire.

Itsaso handia miresten baduzu bere indarrean eta hedaduran, Jainkoaren bothereaz eta handitasunaz mintzo zaitzu. Gau eder eta argi batez, zeru urdinean ikusten badituzu distiatzen ezin kondatuzko izarrak, ezin erranezko urruntasun batean, Jainkoaren mugarri gabeko izaitza kantatzen dute: *Coeli enarrant gloriam Dei*.

Landareak ikusten badituzu lur hunen gainean, loreak ekhartzen gure begien alegeratzeko, frutuak, gure gorphutzaren hazkurri izaiteko, Jainkoaren aitazko amodioa da, nasaiki bere haurreri agertzen dena.

Ikusten baduzu, zure iduriko gizonetan, gorphutzeko edertasuna baino oraino hobeki arimakoa, bihotzeko ontasuna, bertutea; pobre eta flakoen, aita-ama gabeko haurren amodioa; egintza on eta saindu guzien alderateko ekharritasuna; Jainkoaren ontasun eta saindutasun soberanoaren itzal bat duzu ikusten.



Hitz batez: Asma zatzu, asmatzen ahal dituzun perfezione, handitasun, on, edertasun guziak! Erranen dautzut oraino: Horiek guziak, Jainkoa baitan dire, neurri eta izari gabe. On eta edertasun hoikien guzien ithurria, Jainkoa da. Nahi izan du eman, mundu huntako gauzetan, gure izpiritu eta bihotz flakoeri, bere izaite bethiereko eta soberranoaren asmu flako bat bezala: zer den, zoin den ederra, zoin ona, zoin handia eta botheretsua. Bainan ez dezagun nahi izan urrunago joan: ez ginezake.

Egiten ahal duguna da, Jainkoaren perfezionetarik batzuek bederen, zenbeit xehetasunekin aiphatzea.

39 Jadanik erran dugu Jainkoa bethitik dela. Bethitik den bezala, gisa berean ere, leku guzietan da. Zerua eta lurra, diren guziak, bere izaiteaz, bothereaz eta majestateaz bethetzen ditu: «Zerua eta lurra, bethetzen ditut, dio Profeta baten ahoz.»(1) S. Agustinek bere mintzaira ederrean erraiten dauku, Jainkoaren izaitea mugarririk gabekoa dela, hala nola itsaso handi bat, zointan kreatura guziak pulunpatuak baitire: han dire, sekulan, handik ezin atheratzeko gisan. Jainkoa baitan gare, arraina urean, hegastina airean bezala. Haren zuhurtzia, botherea, majestatea guzietarat hedatzen dire eta haren izaitearekin bat egiten dute. «Haren baitan bizi, haren baitan mugitzen eta haren baitan gare.»(2)

Ez du horrek erran nahi, Jainkoarekin bat egiten dugula, asko zoroek erran izan duten bezala: bainan xoilki, ez dezakegula haren izaiteari eta bothereari ihes egin. «Norat joanen naiz, Jauna, erraiten zuen Dabid Errege Profetak, zuri ihes egiteko?... Non gordeko naiz zure begitarteari? Zeruatarat igaiten banaiz, han zare; ifernuetarat jausten banaiz, han zare oraino; hegalak hartzen baditut munduaren bertze buruatarat eta itsasoez bertze alderat joaiteko, zure eskuak ekarriko nau handik, eta zure bothereak aurkituren nau.»

Jainkoak gauza guziak ikusten ditu eta gure pentsamendu gordeenak berak. Dabid Erregeak paganoen Jainko gezurrezkoek mintzo zelarik erraiten zuen; «Badituzte begiak, eta ez dute ikusten, belarriak eta ez dute entzuten»(3) Zertako hori? Zeren ez baitire Jainko; bainan, zurez, harriz, zilharrez eta urrez, gizonek bere eskuez egin dituzten obrak. Bainan leku guzietan Jainko egiazkoak guziak ikusten ditu;

---

(1) Coelum et terram impleo (Jerem. XXIII, 24).

(2) In ipso enim vivimus, et movemur et sumus (Act. XVII, 28).

(3) Oculos habent et non videbunt, aures habent et non audient (Ps. 113).

ez da haren begientzat ez urruntasunik, ez ilhunberik. Harentzat, gauza guziak, arimako pentsamendu gordeenak berak agerian dire.(1).

40 Orhoitzapen hunek: Jainkoak ikusten nau, Jainkoak entzuten nau! Zenbat behar gintuzken, gure pentsamendu, hitz, urhats, egintza guzien gainean atzarriak atxiki! Bilha zak leku bat, zion S. Agustinek, zointan Jainkoa ez baituk aurkitzen, eta egin zak nahi dukana. Bai; bainan Jainkoa leku guzietan baita, eta haren begia bethi, gau eta egun, gure gainean baita: *Omnia nuda et aperta sunt oculis Dei*.

O bekatorea, zenbatetan menturaz, gizonen begieri gordetzen zinelakotz, uste izan duzun, ez zinduela beldur izaiteko! Ahanzten zinduen, badela lekuko bat zoinaren begiak ez baitire behinere hesten, argi bat, ilhunbeek itzaltzen ez dutena, juie bat guziez kondu dagokana. Zaude bethi ene presentzian eta ene aintzinean, eta saildu izanen zare, dio Izpiritu Sainduak: *Ambula coram me et esto perfectus*. Egia handi eta premiatsua. Nor izanen da, aski atrebitua, Jainkoaren laidoztatzeko, orhoitzen bada, gure urhats guzien gainean haren begi zorrotz eta ezin enganatzkoa bethi atzarria dagoela?

Dohatsuak egiazki, Jainkoaren presentziaren orhoitzapena gogoan bizi direnak! Bekatoreak beldur salbagarri batean sartuko dire; debruak tentatuak eta deboilatuak direnek indar hartuko dute, orhoituz Jainkoa bera laguntzaile, bere sahetsean dutela; justuak bozkariotan emanen dire, hasten dutelarik, bizi huntarik beretik bethi-ereko zoriona, zoina baita Jainkoaren ikustea(2).

Kapitulu hau osoa izaiteko, erran behar ginduke oraino, Jainkoa osoki zuhurra, ona, zuzena, justua, saildua, urrikalmendutsua dela. Bainan zertako sar xehetasun horietan? Zenbat nahi gure hitzak luzaturik ere, ez dugu sekulan aski erranen Jainkoa zoin den ona eta perfeta. Jainko da, eta aski da; hitz hortan dire guziak: on guziak haren baitan dire mugarririk eta itzalik gabe.

---

(1) *Omnia nuda et aperta sunt oculis Dei* (Hebr. IV, 13).

(2) *Semper vident faciem Patris*. (Math. XVIII, 10).

## BORTZ-GARREN KAPITULUA

### *Ez da Jainko bat baizen*

41 Aintzineko kapituluetan, klarki agertu zaiku egia hau: Badela Jainko bat gauza guzien Egilea eta kreatzailea, izaite guzien ithurria eta zoina gabe deus ez bailitake.

Fedeak, gure adimenduak, gizon eta mende guzien sinhesteak agerian eman daukute egia handi hori, egia guzien zimendu beharra.

Bainan othe da Jainko bat baino gehiago?

Ez, erranen dut katiximarekin, ez da Jainko bat baizen, eta ez daiteke izan gehiago.

Gure adimenduari bere argiak galdegin baino lehen gauza horren gainean, erran dezagun, zer lekukotasun Jainkoak bihurtzen dion bere buruari, Liburu Sainduetan.

Huna nola mintzo zen Israelgo haurreri: «Ikus zazue, ni... ni naizela Jainko bakarra, eta ez dela nitaz bertze Jainkorik»(1). «Ni naiz lehen eta azkena; nitaz kanpo ez da bertze Jainkorik.»(2) «Nor da Jainko, zioen Dabid Erregeak, baizen gure Jauna; nor da Jainko, baizen gure Jainkoa?»(3) Gauza bera dio Jesu-Kristok hainitz aldiz. Bainan luzeki bailaiteke guzien erraitea, huna nola bere Aitari mintzo zaion, Jaun Doni Joanesen Ebanjelioan: «Bizitze eternala da, zu ezagutzea, zu egiazko Jainko bakarra.»(4) Entzun dezagun oraino Jaun Doni Paulo: «Badakigu ez dela Jainko bat baizen.»(5)

---

(1) Videte quod ego sim solus, et non sit alius Deus proeter me. (Deut. XXXI, 39).

(2) Ego primus, et ego novissimus, et absque me non est Deus (Is. XVI, 6).

(3) Quoniam quis Deus praeter Dominum? aut quis Deus praeter Deum nostrum? (Ps. XVII, 32).

(4) Haec est autem vita aeterna: Ut cognoscant te solum Deum verum. (Joan XVII, 3).

(5) Scimus... Quod nullus est Deus, nisi unus. (I. Cor. VIII, 4).

Hori izan da Lege zaharreko Patriarken, Profeten, Israelgo populuaren sinhestea, ez zenean noiztenka, bere pasioneak gatik, Jainko faltsuen adoratzera errebelatzen. Hobeki oraino eta argi handienarekin, Eliza katolikoaren sinhestea, hitz huntan Nizeeko konziliuaz emana zai-ku: «Sinhesten dut Jainko bakar bat baitan.» Gauza bera dio Latran-go laur-garren konziliuak.

Ikus dezagun orai, zer dion gauza horren gainean gure adimenduak, nahi bezain herbala izan daiteken.

1<sup>ik</sup> Jainkoa da, jadanik erran dugun bezala, izaite bat osoki perfeta; ez daiteke beraz haren sahetsean izan, bertze izaite bat osoki perfeta laitekena. Bat ez bertzea ez laiteke orduan, osoki perfeta. Baten perfeziorak ez laitezke bertzearenak; orduetik, batek bertzea, bere izaitean eta perfezionetan ttipi eta mendra lezake; bat eta bertzea elgarren mugarriak laitezkenaz geroztik. Bia diren orduetik, batek ez bertzeak ez luke beraz izaite osoa! Ez laiteke beraz Jainko.

Iduri edo etsenplu bat. Bazindu lurraren gainean, landa bat, izari edo muga gabekoa osoki, ez daiteke bertzerik izan; balitz bertze bat, hura zurearen muga laiteke.

2<sup>ik</sup> Jainkoa osoki botheretsua da, eta guzien nausia; haren bothere eta nausitasunak ez dute mugarririk; ez laiteke bertzela egiatzko Jainko. Bainan nola daitezke bi izaite betan osoki botheretsuak eta betan guzien nausiak. Hetarik bat bederen, bertzearen bothere eta nausitasunetik kanpo laiteke eta bertzea haren peko. Bat balinbada bertzearen nausi, hura bakarrik da Jainko: batek ez bertzeak ez balu nausitasun oso hori, ez laiteke Jainkorik.

Ez da hain gaitz, hoikien guzien konprenitzea, izpirituko artha poxi batekin.

- 42 Bertzalde oraino, mundu huntan ikusten dugun ordena miragarriak ez othe dauku ikustera emaiten, ez duela mundu hunek Egile, nausi eta gobernatzaile bat baizen? Gauza guziak, zeruetan, lurrean bezala, lege eta ordena beretan dohaz. Ageri da hortarik, ez dela lege bat, ordenatzaile eta nausitasun bat baizen. Non eta ere bai litezke bi nausi, bat bertzearen peko ez direnak, laster eta zalu, ordena ona hautsia laiteke. Ez laiteke haren iraupena hainitz denboretako.

Iduri zaut ikusten dugula orai, ez dela Jainko bat baizen, eta ez daitekela izan gehiago. Lege zaharreko Profeten, Jesu-Kristoren eta Apostoluen hitzek, konziliuen erakaspeneak, gure adimenduaren argiek; guziek, gauza bera diote, horren gainean.

Ez dugu, hargatik, deus nahi gorde irakurtzen gaituzteneri. Egiak ez du deusen beldurrik. Erraiten dugu beraz, hainitz populu eta jende izan direla, Jesu-Kristoren Ebanjelioa predikatua izan aintzinean, kreaturak berak Jainkotzat ezagutu eta adoratu dituztenak. Ez dute konprenitu ahal izan ez daitekela Jainko bat baizen. Bere itsumenduan, Jainkotzat atxiki dituzte iguzkia, izarrak, bestiak, lureko landareak: hitz batez, zerbeit on egiten edo zerbeit beldur emaiten ziozkatena. Bossuet handiak, denbora ilhun hetaz mintzo zelarik, erran ahal izan du, guziak, erran behar bada, Jainkotzat atxikiak zirela, salbo egiazko Jainko bakarra. Badire oraino holakoak pagano jendeen artean.

Gehiago oraino, gorago aditzera eman dugun bezala, Erlijionearen beharraz mintzo ginelarik. Populu argituenetan beretan, pasione tzarren amodioak berekin dakarken itsumendua hain handia izan da, non krima itsusienak eta ahalkagarrienak ohoratu eta Jainkoztatu bezala izan baitituzte. Mintzo naiz hemen Grekoez, Erromanoez, erran nahi da denbora zaharretan, izan diren jende argituenez. Tzarkeria guzien berme eta kontsekratzeko bezala, buru emaiten zuten, bere pasione galduetan asmatu zuten Jainko faltso bat. Gauza bera orai ere ikus daiteke, Jesu-Kristoren Ebanjelio Sainduak eta egiazko Erlijioneak argitu ez dituen lekuetan.

Izan dire ere aski zoroak erraiteko, guziak Jainko direla; Jainko, gizon guziak, Jainko, munduan diren izaite guziak. Hori da erraitea, ez dela Jainkorik. Non laiteke orduan ongia, non gaizkia, ongi egilea eta gaizki egilea higual Jainko balire? Bainan, gu irakurtzen gaituztenak arima zuzen eta izpiritu erneak dire. Ez diotegu eginen laidoa uste izaiteko, den gutiena ere errokeria eta zorokeria horietan bara ditez-kela.

43 Ilhunbe hoikien guzien erdian, ez da deus bertzerik, baizen debrua, Egiazko Jainkoaren orde, bere burua adorarazi nahi duena, eta gizonak bere segidan herrestatu.

Luzifer eta haren lagun izan diren aingeru errebolatuek ez dute zeruan erreginatu ahal izan. Jainkoak, bere justizian, pulunpatu izan ditu bethikotz, ifernuko lezetan. Orduan, bere herran, gaztigatzen zituena Jainkoaren kontrako errabian, lurean nahi izan dute jarri, zeruan galdu zuten gloriatzeko eta ohorezko tronua. Hortakotz, laguntza galdegin dute gizonen pasione eta jaidura tzarrereri. Oihuz erran dute: Gu gare aberastasunak, gu atseginak, gu lohikeria; eta, gauza horietan, bere azken zoriona emaiten dutenak jarraiki izan zaizkote eta jainkotzat adoratu dituzte.

Horiek guziak jasan ditu Jainkoak, ikus ginezan zenbat dugun haren beharra. Bainan erran dezagun ere laster, Jainkoari ohore eta gloria bihurtzeko: ez da sekulan, Jainko egiazko eta bakarraren ezagutza galdu, lurraren gainean. Adan gure lehen aitatik hasirik, Patriarkek, Profetek, Israelgo populuak, eta hor hemenka bertze hainitzek begiratu izan dute artha handirekin. Ethorri da gero, Jainkoak eman orenean, Jesu-Kristo, egiazki Jainko eta egiazki Gizon dena, eta Jainkotasunaren gainean egia garbia erakutsi dauku.

Eta orai, Jesu-Kristoren Ebanjelioa lurraren bazter guzietan predikatua da. Leku guzietan distiatzen du Kurutze Salbagarriak. Egiazko Jainko bakarra ezagutua eta adoratua da. Eta Eliza eder eta handietan bezala, salbaia gaixoen zurezko et lastozko eliza erromesetan, berchun milliun baino gehiago bihotzek kantatzen dute: *Credo in unum Deum: Sinhesten dut Jainko bakar bat baitan!*

## SEI-GARREN KAPITULUA

### *Trinitate Saindua*

44 Trinitate Sainduaz mintzatzen hastearekin, umilia gaitezen, apha-  
gure adimendu ez deusa eta adora dezagun.

Zer diren mixterioak, badirela gure Erlijione Sainduan, jadan go-  
rago erran dugu luzeki, kapitulu berezi batean.

Erraiten ginduen: Mixterioez, erran nahi da, gure adimenduak kon-  
preni ahal ez detzakzen gauzez inguratuak bizi gare lur huntan berean.  
Ez detzakkegu bertzela erran gure begieri eta adimenduari uko egin  
gabe. Nola beraz ez dire izanen Jainko guziz handia baitan, hainitz  
gauza, harek bere argi izari gabekoekin konprenitzen dituenak, bainan  
gure argi flakoez gorago direnak? Horra zer den mixterioa.

Hemen aipatu behar duguna, eta esplikatu, gai garen bezain ba-  
tean, mixterioen mixterioa da, guzietan handiena, guzien artean erres-  
petagarriena.

Trinita Saindua! Jainko bakar bat; eta bizkitartean hirur presuna  
Jainkoa baitan; bat bertzea bezain handi, hirurak perfetak, eternalak,  
erran nahi du hirurak Jainko, eta hargatik bere batasun perfetean, Jain-  
ko bakar bat baizik ez egiten:

«Aita Jainko da, dio S. Athanasiok, Semea Jainko da, Izpiritu Sain-  
dua Jainko da; eta hargatik ez dire hirur Jainko, bainan Jainko bakar  
bat.»(1)

Errokeria laiteke, mixterio hartan sarthu nahi izaitea, gure izpiri-  
tuaren argi xoilekin. Jainkoaren hitzari behar gare beraz jarraiki; eta  
gero, Jainkoaren hitzaren ondotik, Eliza katolikoari, eta mende guzi-  
etan eman duen erakaspenari behar ditugu argiak galdegin.

---

(1) Ita Deus Pater, Deus Filius, Deus Spiritus Sanctus. Et tamen non tres  
dii, sed unus est Deus. (Symb. S. Athan.).

Entzun dezagun lehenik Jesu-Kristoren beraren erakaspena. Huna zer erran zioten bere Apostolueri: «Zohazte eta argi zatzue, lurreko jende guziak, bathaiatzen ditutzuelarik Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean.»(1) Ez du erraiten Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren *izenetan*, bainan bai *izenean*, erakustera emaiteko, badirela egiazki hirur presuna Jainkoa baitan, bainan izaite, naturaleza, eta Jainkotasun bakar bat xoilki.

Jesu bathaiatua izan zenean, eta bathaiako uretik ilkitzen zelarik, dio Ebanjelio Sainduak, zeruak ideki ziren, eta ikusi izan zen Izpiritu Saindua jausten uso baten itxuran, Jesusen buruaren gainerat. Denbora berean, entzuna izan zen boza bat, zeru goratik heldu zena eta boza harek zion: Hau da ene Seme maitea, zointan eman baititut ene bozkario guziak(2).

Ebanjelioko hitz lahur horietan, ikusten ditugu Trinitate Sainduko hirur presunak: Aita, mintzo dena, SEMEA zoinaren baitan Aitak eman baitu bere bozkarioa, eta IZPIRITU SAINDUA, Jainkoaren Izpiritua, uso baten itxuran zerutik jausten dena.

Huna zer dion oraino Jesu-Kristo, Berbo Dibino, gizoneri zeruko mixterioen erakustera ethorria zenak: «Noiz eta ere ethorriko baitzatzue nik ene Aitaren ganik egorriko dautzuetan Parakleta (edo Izpiritu Saindua) zoina baita egiaren Izpiritua Aitaganik ilkitzen dena, harek enetzat lekukotasun emanen du.»(3) Horra ongi klarki, Trinitate Sainduko hirur presunak. Nahi duzu oraino entzun Jesu-Kristoren bertze hitz bat? Huna zer dion: «Nik othoitz eginen dut ene Aitari, eta bertze IZPIRITU bat egorriko dautzue. *«Et ego rogabo Patrem, et alium Paraclitum dabit vobis* (Joan. XIV, 16) Hemen ere hirur presuna: EGO, Ni, edo Jesu-Kristo Semea mintzo dena; PATREM ene AITA; PARACLITUM, IZPIRITU SAINDUA.

Zer daiteke klaroagorik?

45 Berbera izan da Apostoluen erakaspena, eta ez zaiteken bertzela. Korinthiako dizipulueri izkribatzen zuen Jaun Doni Paulo Apostoluak: «Jesu-Kristo gure Jaunaren grazia, Jainkoaren amodioa, eta Iz-

---

(1) Euntēs ergo docete omnes gentes, baptizantes eos in nomine Patris et Filii et Spiritus Sancti (Math. XXVIII,19).

(2) ...Vidit Spiritum Dei descendentem sicut columbam, et venientem super se. Et ecce vox de coelis dicens: Hic est filius meus dilectus, in quo mihi complacui. (Math. III, 16-17).

(3) Cum venerit Paraclitus, quem ego mittam vobis a Patre; Spiritus veritatis qui a Patre procedit, ille testimonium perhibebit de me. (Joan. XV, 26).



piritu Sainduaren dohainak izan daitezela zuekin.»(1) Ederragoa da menturaz oraino Jaun Doni Joanesen hitz hau, osoki agerian emaiten duena Trinitate Sainduko mixterioa: «Hirur dire lekukotasun emaiten dutenak zeruan: Aita, BERBOA, eta IZPIRITU SAINDUA, eta hirurek bat egiten dute.»(2)

Hitz hautaz, mixterio miragarria agertzen zaiku bere egia eta edertasun guzian. Ez daiteke deus gehiago erran: Aita, Berboa eta Izpiritu Saindua, eta hirur presunak Jainko bakar bat, izaitte bakar bat: *et hi tres unum sunt.*

Nola daiteke hori? Ez dezagun bilha. Mixterio bat da, eta guzietan lehena eta handiena. Jesu-Kristo, Jainko Egia bera dena mintzatu zaiku bere ahoz, eta ere bere Apostoluen medioz; aski da; sinhets dezagun eta adora, eta apha! gaitzen Jainkoaren Izaite osoki handiaren aintzinean!

Erraiten badaut norbeitek, Jesu-Kristoren eta Apostoluen hitzak ez ditudala behar den bezala hartu, ihardetsiko diot, katoliko guzien Fedearen bermea eta argia denak, Elizak, bethi gisa hartan entzun dituela behar den bezala hartu, ihardetsiko diot, katoliko guzien Fedearen bermea eta argia denak, Elizak, bethi gisa hortaz entzun dituela hitz horiek. Memento guziz, bere othoitz eta ofizio guzietan, Trinitate Sainduaren orhoitzapena gogoan emaiten dauku.

Kurutzearen seinalea da, giristinoaren seinalea: hortan behar da beraz aurkitu, giristino erakaspén guzia, labur-laburzki. Hortarik ilkiko dire bertze guziak, erroetarik landariak eta landaretarik, loreak eta frutuak bezala. Bada huna Kurutzearen seinalearen hitzak: AITAREN ETA SEMEAREN ETA IZPIRITU SAINDUAREN IZENEAN. Sakramenduak ere, Jainkozko hirur izen horiekin emaiten dire. Elizaren othoitz gehienak hitz hautaz zerratzen eta akabatzen dire: GLORIA AITARI, GLORIA SEMEARI, GLORIA IZPIRITU SAINDUARI.

Theologo handi eta argituek esplikatu izan dute, nola, eternitate guzitik Trinitate Sainduko hirur presunak bat bertzearen ganik heldu diren, argiaren ithurriak argia emaiten duen bezala, amodioak amodiozko sentimenduak; hirurak eternalak, hirurak Jainkozko Izaite berekoak, hirur presuna hargatik berex bethi gelditzen direnak. Bainan ez dut nik liburu hau Theologo handi, jakintsun eta izpiritu zorrotzentzat iz-

---

(1) Gratia Domini nostri Jesu-Christi et caritas Dei et communicatio Sancti Spiritus sit cum omnibus vobis. (II ad Corinth. XIII, 13).

(2) Quoniam tres sunt qui testimonium dant in coelo: Pater, Verbum et Spiritus Sanctus; et hi tres unum sunt. (1 Joan. V, 7).

kribatzen. Izkribatzen dut ene herritar Eskualdun maite, ximenki Fe-dean argituak izan nahi dutenentzat.

46 Itxura edo iduri batzuek badire bizkitartean argi poxi bat bederen gure izpiritueta emaiten ahal dutenak, ezin konprenituzko mixterio horren gainean.

Hala nola. Iguzkian badire hirur gauza: iguzkia bera, argia, eta berotasuna. Gisa berean erranen dugu, badirela Jainko baitan: lehenik Jainko Aita, ithurria eta prinzipioa, iguzkia den bezala; Semea, aitaren ganik heldu dena, hala nola argia iguzkitik; eta azkenean, Izpiritu Saindua, Aitaren eta Semearen ganik amodioaz heldu dena, berotasuna, iguzkitik eta iguzkiaren arraiotarik heldu den bezala. Hirur gauza horiek, iguzkian, bat bertzea bezain zahar dire eta ez dute iguzki bat baizen egiten.

Ederragoa da oraino Trinitate Sainduak gizona baitan eman duen itxura eta iduria. Gizona egitera zohalarik, Jainkoak erran zuen: «Egin *dezagun* (eta ez egin *dezadan*), gizona *gure* idurirat (eta ez, *ene* idurirat). Bada, badire gizona baitan hirur puxantzia edo bothere, izaite berean: lehenik, arima bera; bi-garrenekorik, arimak bere izaiteaz duen ezagutza; eta hirur-garrenekorik beretzat duen amodioa. Beraz, arimaren *izaitea* bera, *ezagutza* eta *amodioa*: horiek hirurak arima berean, eta hargatik arima bakar bat.

Iduri eta itxura horiek argi flako bat emaiten daukute Trinitate Sainduaren gainean, bainan ez mixterio hori osoki konpreniarazten. Hori da ez daiteken gauza, gure izpiritu flakoentzat. Jainkoa da xoilki, osoki eta den bezala konpreni dezakena.

S. Agustin izan da Elizako Dotor aiphatuenetarik eta mende guzietako handi eta jakintsunetarik bat. Itsaso hegian zabilan egun batez, buru guzia unatua eta deboilatua, Trinitate Saindua nahiz konprenitu. Betbetan haur ttipi bat ikusten du, maxkur batekin, itsasoko ura hartzen zuela eta ixurtzen, ariñan egin zuen putxu xume batetarat. Erraiten dio: Zer egin gogo duzu, haurra?

Putxu huntan nahi dut eman itsasoko ur guzia. — Gizon handi eta jakintsunak hirri egin zuen haurkeria hortaz. — Bainan hori ez daitekena da; ez duzu bada ikusten itsasoa handiegia dela, eta zure putxua ttipiegia? — Ez duzu beraz uste, dio haurrak, eginen dudala egin nahi nukena? Bada, nik erraiten dautzut, errexkiago gauza hau eginen dudala, zuk konprenituko duzun baino, Trinitate Sainduko mixterioa. Hitz horiek erraitearekin, haurra suntsitzen da. Aingeru bat zen, haur ttipi haren itxura hartu zuena, S. Agustinori erakusteko mixterio horren konprenitzeko asmurik ere ez zuela izan behar gizonaren izpirituak.

## ZAZPI-GARREN KAPITULUA

47

*Jainko kreatzailea*

Orai arte kontsideratu dugu Jainkoa bere izaitean eta bere baitako perfezionetan. Badakigu klarki badela Jainko bat osoki perfeta, bere baitarik, bethi danik eta bethi izanen dena, nihor bera baino lehen eta gorago ezagutzen eta ikusten ez duena.

Bainan, ez da Jainkoa bere baitan egon. Nahi izan ditu bere amodioa eta botherea argitarat eman; eta horra nola, ez deusetarik egin dituen mundua eta munduan diren izaite guziak.

«Hastapenean, diote Liburu Sainduek, Jainkoak egin zituen zerua eta lurra.» Ez da beraz mundu hau Jainkoaren zathi bat, asko zoroek erran duten bezala. Jainkoa eternala eta bethi danik da; ez du hastapenik; mundu hunek badu hastapen bat. Jainkoa bere baitarik da, ez du egilerik, ez eta nihor bera baino lehen; mundu hunek badu egile bat: Jainkoak egin du. *In principio Deus creavit coelum et terram.*

Eta ikusiz egiazki mundu huntako izaiteen mudantzak eta baiak, errokeria handia laiteke erraitea, bethi danik dela eta Jainko dela.

Erran dezagun beraz, Liburu Sainduekin, Elizarekin eta ere gure adimendu zuzenarekin, Jainkoak ez deusetarik egin dituela zerua eta lurra.

Kreatzea: Hitz horrek erran nahi du ez deusetarik egitea. S. Justinek erraiten du, Kreatzailea eta lan-egilea, huntan direla desbardin: lehenak bere bothere xoilaz izaitea eman dezake ez duenari: bi-garrenak, aldiz, gaia behar du bere obraren egiteko(1).

---

(1) D. Justin. Exhortatio ad Graecos, II, n. XXII.

Gizonek egiten dituzte, erran behar ginduke hobeki, moldatzen, erran nahi da, arrimutan eta ordenan emaiten, asko gauza: nahi dut; ez da hori, hekien ahalaz gorago. Bai; bainan gaiak ez dire hek eginak; gaiak badire aintzinean. Hek egin dutena izan da, gai hekien antolatzea, ordenan emaita. Harginak behar du harria; zur lan egileari behar zaio zura.

Jainkoa da bakarra, kreatu ahal izan duena, erran nahi da, ez deusetarik, edo gaik gabe mundua egin duena.

Ez ditugu hemen erranen kreazioneko xehetasun guziak Liburu Sainduetan irakurtzen ditugun bezala.

Bainan kreatura guzien artean, badire bia, guzietarik berex eta gorago eman behar ditugunak: dire Aingerua eta gizona.

\* \* \*

48 Gaitezen lehenik mintza Aingeruez.

Jainkoaren obra guziek badute bere perfezione eta edertasuna. Bainan guzietan perfetenak eta ederrenak, Jainkoaren perfezionari gehienik hurbiltzen direnak dire Aingeruak, Izipiritu hutsak direlaketz, gorphutzak berekin dakartzken flakezak gabe(1).

Gehienez onhetsia da, Aingeruak kreatuak izan direla, hastapenean, mundu hau orai ikusten dugun ordenan, Jainkoaz emana izan baino lehenago.

Badirela Aingeruak, dudarik ez dezakegu izan. Bai lege Zaharrear, bai Berrian, eta ere Elizako aiten eta Elizako erakaspen guzietan no nai, Aingeruez aiphu egina zaiku.

Zer dire Aingeruak? Izipiritu huts batzuek, Jainkoak egin zituenak, justiziazko eta saindutasunezko estatu batean. Dohain ederrenak hekien baitan ziren. Ikusten eta ezagutzen zuten ongia; maite zuten bere kreatzailea eta bere Jainkoa. Deus ez zen, iduriz, eskas hekien zorionean.

Bainan Aingerueri utzi zioten Jainkoak bere libertatea. Nahi izan du, adimenduaz eta ezagutzaz dohatu dituen kreatura guziek, Aingeruek gizonak bezala, bere hautuz egin zezaten bere zorte bethi-erekoa. Aingeruak egin zituen saindu, bainan heki zagon, bethi estatu hortan egoitea.

---

(1) Erran gabe doha, ez garella hemen mintzo ez Jesu-Kristoren Gizontasun Sainduaz, ez Andredena Mariaz. Mintzo gare Aingeru izpiritu hutsez eta gizonaz jeneralean.

Bai, handiak, distiantak, ederrak, izpirituko dohain berezienez aberats ziren; bainan hetarik hainitz urguluak galdu zituen. Luzifer, guzietarik ederrena, eta bere perfezinez, gehienik Jainkoari hurbiltzen zena, bere edertasunaren konplazentzian eta urguluan sarthu zen. Bere zorokerian erran zuen: Altxatuko naiz oraino gorago, eta Jainkoaren iduriko izanen naiz»(1).

Nonbre gabe izan ziren Aingeruetan, Luziferrekin Jainkoaren kontra altxatu zirenak. Izan zen orduan, diote Liburu Sainduek, gudu handi bat zeruan(2). Eta gudu horren erdian, entzun izan zen, Mikael Arkanjeluaeren oihu hau, geroztik, Jainkoaren zerbitzari eta soldado leial eta jenerosen gerlako oihua bilhakatu izan dena: *Quis ut Deus?* Nor da Jainkoa bezalakorik? Aingeru erreboltatuak bentzutuak izan ziren, eta ez zen gehiago lekurik izan zeruan hekientzat(3). Jaun Doni Joanes Apostoluak dio oraino Apokalipzeko Liburu berean, boza bat entzun zela ziona:

«...Bozkaria zaitze, zeruak eta zeruetan zaretenak; bainan zorigaitz zueri, lurrian eta itsasoan zaretenak, zeren debrua jautsi baita zuen ganat, errabia handirekin.»(4)

Badire beraz Aingeru onak, Jainkoaren zerbitzari leial egon direnak, Mikael Arkanjeluaerekin. Badire Aingeru tzarrak, Jainkoaren kontra bere urguluan altxatu izan direnak, eta gaztigu justu batez, aurtikiak ifernuko lezetarat. Hek deitzen ditugu Debruak.

49 Gauza trixte eta bihotz-min emaiten duena da, aingeru tzarrez edo debruez mintzatzea. Eta bizkitartean, gure etsai gaxtoak direnaz geroz; gure galtzeko, Jainkoaren zerbitzutik urrunduz, bere ahal guziak egiten dituztenak, nola egon naiteke, hekien malezien eta amarruen kontra, arimak argitu eta hazkartu gabe?

Aingeru gaxto edo debruak, Jainkoaren kontra erreboltatu ziren mementotik, ifernurat kondenatuak izan ziren, barkamenduaren esperantzarik gabe. Hekien hutsa, dio S. Agustinek, hanbatenaz handiagoa zen, zenbatenaz naturaleza perfetagoa baitzuten.

Jainkoaren kontra, herran, gerlan, errabian dire. Ordutik hekien gutizia bakarra da, Jainkoak beretzat egin dituen gizonak eror-araztea bere saretarat, gero herrestatzeko ifernuko lezetarat.

---

(1) Similis ero Altissimo (Isaie, XIV, 14).

(2) Factum est praelium magnum in coelo. (Apoc. XII, 7).

(3) Neque locus inventus est eorum amplius in coelo. (Apoc. XII, 8).

(4) ... Laetamini coeli et qui habitatis in eis. Voe terrae et mari, quia descendit diabolus ad vos, habens iram magnam. (Apoc. XII, 12).

Berak zerutik kasatuak, errabiatzen dire pentsatuz, izan gaitzekela, gu, deithuak, hekientzat eginak ziren tronuen gainean jartzera, egun batez, zeruan.

Jakin dezagun beraz ongi, Debrua gure etsaia da; etsai bat, sekulan deusek eztituko edo ematuko ez duena. Indar handiak ditu, baina ez dezake deus gure galtzeko, baldin Jainkoaren baitan finkatzen bagare.

Izpiritu huts bat delakotz, naturalezaz, gu baino botheretsuagoa da: baina Jainkoa gurekin denean, nor daiteke aski botheretsu gure garaitzeko?

Ez dugu, hargatik loharkatu behar, ez; handiak eta hainitz giseta-koak dire debruaren amarruak gure galtzeko; bertzalde, gure jaidura tzarrak, mundua eta munduan ikusten ditugunak, horiek guziak debruaren lagun dire gure kontra.

Baina, Jainkoak permetitzen badu tentatuak izan gaitzen, ez du sekulan nahiko, tentatuak izan gaitzen, gure indarrez gehiago, haren graziaz laguntzen eta hazkartzen bagare. Eta graziak ez du sekulan eskas egiten, bihotz kharsu batekin galdegiten duenari.

Berme ditugu eta laguntzaile, gutarik bat bederak nahi duelarik, Jesu-Kristoren kurutzeta, odola, heriotzeta. Eta beraz, nahi bezain indartsu izan dadien debrua, garaitiaren segurantza osoarekin erraiten ahalko dugu: *Si Deus pro nobis, quis contra nos?* Jainkoa gure alde bada, nor izan daiteke gure kontra?

## ZORTZI-GARREN KAPITULUA

### *Aingeru onak*

50 Jainkoaren kontra altxatuz bekatu egin zuten pondutik, Aingeru tzarrak ifernuko lezetan pulunpatuak izan ziren, eta dio Liburu Sainduak, ez zen gehiago lekurik izan hekientzat zeruan(1).

Bainan nonbre gabe ere izan ziren Aingeruak Jainkoari leial egonez, justizian eta saindutasunean iraun zutenak. Hek, Jainkoak bethikotz finkatu ditu bere amodioan; eman diote saritzat bethi-ereko zoriona.

Zer hari dire Aingeru on eta saindu horiek? Ez da dudarik; krea-tura guziek egin behar duten bezala, hekien lehen egitekoa, eta, erranen dut, ofizioa da, Jainkoaren laudatzea eta adoratzea, Apokalipzeco Liburuak dion bezala. «Saindua, Saindua, Saindua da Jainko Jaun oso-ki botheretsua, bethitik izan dena, orai dena, eta bethi izanen dena.»(2) Horra zer duten, baratu gabe, errepikatzen.

Hekien bertze oficio bat da, Aingeruen izenak berak erraiten duen bezala, Jainkoaren *mandatariak* izaita, mundu hunen gobernuan, eta bereziki, gizonen Salbamenduari behatzen zaizkoten gauzetan.

Eta beraz, erresuma, leku zathi handi, hiri eta herri bakotxak badu bere Aingerua, hartaz Jainkoaren aintzinean, artha berezi bat hartzen duena. Apokalipzeco Liburuak erraiten dauku, Aingeruak bethi zerutik lurreat eta lurretik zerurat dabiltzala, Jainkoaren manuen gizonari ekhartzeko, eta manu hekien egiteko.

Hainitz ederki mintzatu izan dire Elizako Aitak gauza horren gainean. Bainan sobera luze joan laiteke kapitulu hau hekien hitzak erran nahi banitu.

---

(1) Neque locus inventus est eorum amplius in coelo. (Apoc. XII, 8).

(2) Apoc. IV, 8.

Gauza kontsolagarriagoa, eta hurbildik unkitzen gaituena, hau da: gutarik bakotxak badu bere Aingerua, Jainkoaren manuz, gutaz artha duena(1). Nor ez da orroitzen, Ebanjelio Sainduko hitz hautaz, zointan, Jesu-Kristok bere Apostolueri erraiten baitzioten, ez zetzaztela bere baitan mezpreza haur ttipiak, ezen, zion «hoikien Aingeruak bethi ene Aitaren aintzinean eta presentzian dire»(2).

Elizako aitek finkatzen dute erakaspén hori. Origene, S. Basilio, S. Ambrosio, S. Agustin, eta bertze guziak gisa berean mintzo zaizkigu. Aipha detzagun xoilki S. Anselmo eta S. Jerome. Huna zer dion S. Anselmok: «Arima bakotxa, gorphutzean ezarria denean, Aingeru baten komendioan emana da.»(3) Eta S. Jeromek: «Ohore handia da gure arimentzat, bakotxak baitu, lehen mementotik, Aingeru bat, haren gainean atzarria egoiteko egorria dena»(4).

Gauza kontsolagarria! Zer amodioa Jainkoarena, gutarik bakotxari, zeruko bere gortheke Printze bat emaita, gure zaintzaile eta begiratazaila! Jainkoaren manuz gutaz artha duten Aingeru horiek, deitzen ditugu Aingeru Begiraleak.

- 51 Nola erran, zer laguntza emaiten daukuten gorphutzeko behar eta lanjeretan beretan? Nor da gutartean, noiz edo noiz, bere buruari galdegin ahal izan ez diona: nola bada holako hurrisku edo lanjeretarik begiratuak izan garen? Ikus detzagun bereziki, bere buruez oraino artha hartzen ahal ez duten haur ttipi, gaixo eta maite horiek: nor begiratzen ditu, asmatzen ahal ez dituzten hoinbertze errekontru tzarretarik? Ez dezagun bertzerik bilha, baizen Aingeru Begiralea, zoinari eman baitio Jainkoak gure zaintzeko kargua: *Angelis suis Deus mandavit de te, ut custodiant te in omnibus viis tuis*(5).

Artha balinbadute gure gorphutzaren onaz, zenbat gehiago, gure arimaren salbamenduaz eta zorion eternalaz? Aingeru on eta tzarren artean, zeruan izan den gudua, ez da akabo ez akabaturen munduak iraunen dueño. Gure sahetsean ikusten duenean aingeru gaiztoa edo debrua, gure arimak iretzi nahiz, Aingeru Begiralea han da hura ere,

---

(1) *Angelis suis Deus mandavit de te, ut custodiant te in omnibus viis tuis.* (Ps. XC, 11).

(2) *Angeli eorum in coelis semper vident faciem Patris mei, qui in coelis est.* (Math. XVIII, 10).

(3) D. Ansel. Hom. 34. in Evang.

(4) D. Hieron. Com. in Math. XVIII.

(5) Ps. XC, 11.



gure argitzeko, hazkartzeko izpiritu tzarraren amarruen kontra. Gordezen gaitu amultsuki bere hegalen pean, laguntzen Jainkoaren indarraz gure etsaiaren bentzutzen.

Zenbat giristino tentazione handi batean aurkitzen zirelarik, menturaz lezearen hegian, bekaturat lerratzeko doidoiezko memento hartan, Jainkoaren graziaz eta indarraz, eskutik bezala atxikiak izan direnak; Aingeru Begiralea zen, zerutik jautsia hekien laguntzera. Zenbat aldiz entzuten dugun gure ariman boza ezti bat, zeruko haize ezti baten pare, bakean mintzo zaikuna ongiatz, bertuteaz eta zeruaz! Bertze aldi batzuetan, Jainkoaren ganik urruntzeko eta bekatuan erortzeko zorigaitza izan badugu, oiuhu samin eta garratz bat entzun izan dugu, gure arima atzarri duena, eta, bekatuaren ilhunbetarik deithu Jainkoaren amodiorat.

Gure Aingeru ona zen: Aingeru Begiralea, debrua gure etsaiarekin, bethi guduan dena; soldadu bethi atzarria; gauaz eta egunaz gure zaintzaile eta, behar orduan, abisatzaile; adixkide jenerosa eta amodio handikoa, gure gaizki eta esker gabetasunek unhatzen ez dutena.

Zer dire, gure aldetik, gure eginbideak, Aingeru Begiraleari buruz? S. Bernatek erakusten dauzkigu. Behar dugu Aingeruaren presentzia errespetatu; behar dugu maitatu; eta behar dugu haren baitan fidantzia izan (1).

1<sup>ik</sup> Munduko handi guziak baino gorago da Aingerua, bere naturalez eta saindutasunaz.

52 Ez dezagun beraz deus egin haren presentzian, munduan estimatzen eta errespetatzen dugun baten presentzian egin ez ginezakenik. «Orhoit zaizte, erraiten dauku S. Bernatek, zer errespetu eta modestiarekin behar zaizten egon Aingeruen aintzinean, hekien begien garbitasuna ez kolpatzeko. Non nahi izan gaitezen beraz, gauaz eta egunaz, argitan edo ilhunbetan, gure Aingerua han da, ikusten gaitu, errespeta dezagun» (2).

2<sup>ik</sup> Maita dezagun gure Aingeru Begiralea. Gure adixkidea da, adixkide hoberena eta segurena. Nahiz, bere naturalez, gutaz gorago den, amodioz bethea da guretzat.

---

(1) Reverentiam pro proesentiâ, devotionem pro benevolentia, fiduciam pro custodiâ. (D. Bern. Sermon. XI et XII. in Ps. 90).

(2) In quovis diversorio, in quovis angulo, Angelo tuo reverentiam habe. (D. Bern. in Ps. XC).

Gure biziaren lagun egiten da. Rafael Arkanjeluak, Tobias gaztea gidatu, lagundu eta lanjer guzietarik begiratu zuen bezala, igual, gure Aingeruak laguntzen, gidatzen eta argitzen gaitu. Urruntzen ditu gu ganik lanjer eta hurrisku tzarrak; gure sustengatzaile egiten da, gure lan eta gudu guzietan; gure beharren oihuak eta gure othoitzak eramaten ditu Jainkoaren tronuaren aintzinerat, eta handik, aldiz, ekartzen dauzkigu behar ditugun laguntzak eta graziak. Adixkide leial eta amultsu hori, nola ez dugu maitatuko?

3<sup>ik</sup> Izan dezagun fidantzia gure Aingeru Begiralean, eta har dezagun arartekotzat Jainkoaren aintzinean. Botheretsuak badire debruak gaizkiarentzat, botheretsuagoak dire oraino Aingeruak ongiarentzat, zeren ez baita hekien naturaleza flakatur izan bekatuaz; Jainkoaren adixkide gelditu dire eta Jainkoaren amodioaren eta urrikalmenduaren mandatarari. «Zerbeit pena handiz edo tentazione borthitzez bortxatuak zaretenean, dio S. Bernatek, galdegin zazue, zuen Aingeru Begiralearen laguntza»(1).

Bainan gure Aingeruaren laguntza merezitzeko eta izaiteko, hastia dezagun bekatua, ihes egin dezagun bekatuari. Bekatua zikin bat, us-teldura bat da, haren garbitasuna kolpatuz, gure ganik urruntaraz lezakena.

---

(1) D. Bern. in Ps. XC.

## BEDERATZI-GARREN KAPITULUA

### *Gizonaz*

53 Jainkoak egin duen kreatura perfetena eta ederrena Aingeruen ondotik, da gizona.

Mirestekoa da lur hau, bere landare, lore, frutu eta bertze edergailu guziekin. Zeruko izar distiantak, iguzkia, ilhargia, mintzo zaizkigu Jainkoaren bothere eta handitasun mugarri gabekoez. Bai, horiek guziak eder dire.

Bainan, zer dire Jainkoaren begietan, baizen egoitza, palazio bat munduaren erregearentzat paratu izan duena?

Errege hura, gizona da.

Gizona, izpiritu eta gorphutz, bainan biak juntatuak, presuna bakar bat egiteko gisan. Ez da gizona izpiritu huts bat Aingeruak diren bezala; ez da ere xoilki gorphutz, mundu huntan gure begiek ikusten dituzten asko kreatura bezala. Izpirituaz Aingeruen idurikoa eta hekien haurridea bezala; gorphutzaz aldiz, lur huntako bizian partalier.

S. Athanasek hitz hau erraiten dauku, bere *Sinhesten dut* ederrean: Arima, adimenduaz dohatua, eta gorphutza, gizon bakar bat dire(1).

Erran baino lehen, zer den gizona, eta zer dohain osoki ederrak diren hura baitan, erran dezagun nola Jainkoak egin zuen; aurkituko dugu hortan, Jainkoaren beraren lekukotasun bat bezala, gizonaren handitasuna frogatuko daukuna.

Jainkoak egin zituenean, hastapenean, argia, zeruak eta lurra, iguzkia, lur hunen gainean diren landareak eta bizi diren bestiak, hitz bat xoilki erran zuen: Izan daitezela: «*Fiat lux!... Producat terra animam*

---

(1) Anima rationalis et caro unus homo. (Sym. Ath.).

*viventem in genere suo...*» Eta berehala eginak izan ziren Jainkoaren hitzaren arabera: «*Et facta est lux... Factumque est ita.*»

Bainan, gizona egin behar du bai? Iduri du, Jainkoa bere baitan sartzen dela. Ez du hemen hitz xoil batez manatzen.

Bere zuhurtzia eternalari kontseilu galdegiten bezala dio. Iduri luke Trinitate Sainduko hirur presunak, elgarrekin mintzo direla, gauza miragarri baten egiteko: «Egin dezagun gizona, gure idurirat eta gure itxurarat».(1)

Jainkoak erraiten balu bezala: Bertze kreatura guzietan, agertzen dire ene botherea, handitasuna eta Jainkotasuna; bainan nahi dut izan dadien gizona ene itxura eta ene miraila; nahi dut haren arima egina izan dadien Trinitatearen idurirat.

Eta orduan beraz, dio Liburu Sainduak, hitz batez, bere edergailu guziekin zerua eta lurra egin zituen Jainkoak hartzen du lur poxi bat eta emaiten dio gizonaren gorphutzaren iduria. O! zoin ederra ahal ziteken Jainkoaren eskuez egin gorphutz hori! Bainan ez ditu oraino bere baitan arima eta bizia. Gorphutza egin duen Jainkoak emaiten dio haren arphegiari, bere Jainkozko hats edo haize bat bezala, eta ordu beretik, gorphutz hartan sarthu zen arima bat, eta arimarekin, bizia(2).

Zer da bada gizona, Jainkoak hainbertze artha eta amodioekin egiteko? Jadanik erran dugu eta badakigu; gizona da gorphutz bat, lur poxi batetik egina, hilkorra, eta lurrerat itzuli behar dena. Bainan, gorphutz hori, arima batez sustatua da; eta arima hori izpiritu xoil bat da; ez da hilkorra gorphutza den bezala.

- 54 Zoin diren handiak eta ederrak, Jainkoak gizonaren arimari eman diozkan dohainak! Gizona, bere ariman dohatua da adimenduaz, amodioaz eta nahiaz. Egia ezagutzen ahal du, ongia eta ona maita detzazke, eta, hekieri, bere hautuz eta libroki jarraitzen ahal da. Arimaren medioz, gizonak egia ezagun dezake, Jainkoaren eta bere buruaren gainean; eta ere zer behar duen egin Jainkoaren nahiaren bidetan egoiteko.

Horiek guziak dire gauza batzuek, gorputzen ahalez gorago direnak.

Jende guzien sinhestea da, ez duela gorphutzak bere baitarik, ez indarririk, ez mugitzeko ahalik, are gutiago oraino adimendua eta eza-gutza. Ene eskuak mugitzen badire; ene oinak, harat-hunat badohazi,

---

(1) *Faciamus hominem ad imaginem et similitudinem nostram.* (Genes, I, 26).

(2) *Inspiravit in faciem ejus spiraculum vitae, et factum est in animam viventem.* (Gen. II, 7).

zertako? Zeren aurkitzen baitut ni baitan, izaite eta nahi bat ene eskueri, ene oineri manatzen diotena. Izaite eta nahi hori, ez dire gorphutza bera; gorphutzaz goragoko zerbeit dire. Ikus dezagun harri bat edo zur puska bat; ez dohazi nihorat bere baitarik; ikus dezagun gizon hil baten gorphutza bera; ez da mugitzen. Zertako? Zeren, haren bizia egiten zuen arima ez baita gehiago hura baitan.

Gutiago oraino uste izan dezakegu, gorphutz xoil batek baduela pentsatzeko eta maitatzeko ahala. Nor da, erranen duenik ezagutza aurki daitekela zur peza batean, eta amodioa harri gogor batean? Bada, gure gorphutza, hil eta, erran nahi da, arimaz gabetua denean, ez da deus gehiago. Beraz, ariman, gorphutz ez den izaite, edo izpiritu huts batean dire, egiaren ezagutzeko, ongiaren maitatzeko eta egiteko ahala.

Diot berriz ere hori izan da jende guzien sinhestea. Izan dire aski itsuak bestien ohoratzeko eta adoratzeko; ez dire, hargatik, aski zoro eta erro izan erraiteko gizona bera adimendurik gabeko bestia bat dela(1).

Bai, gorphutzaz bertzalde, badugu arima bat; eta arima hura izpiritu hutsa da. Harek emaiten gaitu mundu huntako izaite guzietz gorago. Zer estimu eta errespetu izan behar dugun arima horrentzat! Nola, gure ahal guziak behar ginduzken egin, izan dadien bethi gorphutzaren nausi, argi eta gidari! Izan dadiela arima bethi nausi; gorphutza zerbitzari. Ariman dugu bereziki garraiatzen, gure handitasuna egiten duen Jainkoaren irudia eta itxura. Hari zaio debrua oldartzen ohoin eta ebaistaile bat bezala: «*Divinae imaginis proedo*» (Tertul.).

55 Untzi ttipi batean zohan egun batez gizon gazte bat. Balentria zitzai, sinhesterik gabekoa zela agertzea. Ez da gu baitan arimarik, zuen erraiten; gorphutz gare xoilki, hala nola bestiak. «Nor da, zion, zuen artean, arima ikusi duenik?» Baziren hitz horietaz, hirri egiten eta gizon gaztea laudatzen zutenak. Bainan, egia behar da erran, gaizki ikusten zuten gehienek. Hautarik hiruek erran ziozkaten bere pentsatzeko moldeak. Ez badugu arimarik, erran zion batek, ez gare beraz haragi puska bat baizen; bainan, nola izan dezake haragi puska batek, pentsatzeko, juiatzeko, maitatzeko, hastiatzeko ahala? Bigarren mintzatu zena izan zen, untziko gizonen buruzagia. Haizea ez zuen bere

---

(1) Arima ukatzen dutenek berek aitortzen dute adimenduaz dohatuak gara. Nola konpreni gauza hori?

alde, eta untzia ezin gidatuz, ez zen bere atsegin guzietan; bazuen lanik aski. Hartu zuen makila bat, eta jo, jo, bere ustez jakintsun zen gizonaren bizkarraren gainean, erraiten ziolarik: «Ergel txarra! erranen duk ez dela haizerik? Eta, ikusten duk haizea?» Hirugarrenak erran zuen: «Jaunak, gizontto hunek hainitz abilki frogatu dauku, ez dela bestia bat baizen, ez duenaz geroztik arimarik». Gure gizon gaztea ixil ixila gelditu zen. Nork egin zuen hirri? Ez harek; bainan bai bertze guziek.

Kapitulu hau akabatzearekin, erran dezagun, bertze askotan adiaraztera eman duguna: Arima ez da hilkor. Izpiritu huts bat denaz geroztik, ez dire harentzat eginak gorphutzentzat eginak diren legeak. Erran daiteke hori izan dela mende guzietan, jende guzien sinhestea.

Hori da giristinoen Fedea.

## HAMAR-GARREN KAPITULUA

### *Lehen gizona eta lehen emaztea — Adame eta Eba*

56 Jainkoak egin zuen lehen gizona, Adame, munduaren erregea zen. Kreatura guziak, bai iguzkia eta zeruetan argitzen duten izar distiantak, lur hunen gainean diren, bestia, landare, lore eta frutuak bezala, haren zerbitzuko eta haren atseginarentzat ziren. Lur huntako izaite guziak, bere oinetan aphauduak ikusten zituen, zerbitzari batzuek bere nausiaren aintzinean bezala.

Jainkoaren obra, ordutik, ederra zen; palazio miragarri bat; errege bat, dohain berezienez dohatua, palazio hortan bere egoitza egiten zuena. Adamek, izpiritu bat, adimendu bat bazuen, Jainko bere Egile soberanoaren ezagutzeko, bihotz bat haren maitatzeko.

Eta, horiek guzien gatik, Jainkoak ikusiz bere obra, aurkitu zuen ez zela oraino osoa eta perfeta, zerbeit eskas zuela. Eta erran zuen: «Ez da ongi, gizona bakarrik izan dadien; egin diozagun lagun bat bere idurikoa»(1).

«Iehovah Jainko handiak egorri zion beraz Adameri lo pisu bat, eta lo hartan zagoelarik, kendu zion sahets hezur bat eta haren orde eman haragia.

Eta Adameri hartu zuen sahets hezur hartarik, Jainkoak egin zuen emaztea: eta Adamen begien aintzinean eman zuen.

Hunek erran zuen orduan: Horra non den hemen orai, ene hezurren hezurra, eta ene haragiaren haragia...»(2)

«Hortakotz utziko ditu gizonak bere aita eta ama, estekatuko da bere esposari, eta bia izanen dire, gorphutz batean»(3).

---

(1) Non est bonum esse hominem solum: faciamus ei adjutorium simile sibi. (Gen. II, 18).

(2) Genes. II, 21-23.

(3) Ibid., 24.

Mirets eta preza dezagun, hemen, Jainkoaren zuhurtzia eta Probi-dentzia Ebaren edo amaztearen egiteko moldean. S. Thomasek era-kusten daukun bezala, amaztea egina da molde osoki berezi batean. Jainkoak ez du amaztea ateratzen gizonaren burutik, zeren, Jainkoaren xedetan, ez baita amaztea izan behar, izpirituz, gizonaren buruzagia; ez du ere hartzen oinetan, ez baitu izan behar gizonaren esklaboa. Jainkoak hartzen du Eba gizonaren bihotzari hurbil, erakustera emaita-ko, gizonak behar duela bere laguna maitatu, haren biziaren erdia edo zathi bat balitz bezala.

Horra lehen gizona eta lehen amaztea, Adame eta Eba! Biak, Jainkoaren eskuetarik ateratuak; biak, garbi eta saildu. Adameren eta Eba-ren batasun garbia! horra Jainkoak berak lurreko Parabisuan benedi-katu zuen lehen ezkontza saildua.

- 57 Nork erran, zer zaiteken, Jainkoak gure lehen burasoentzat egin zuen lurreko Parabisu hori, eta hango zoriona! Han, bethi, primadera ezti eta gozo bat; zerua bethi argi eta urdin; bestia hazkarrenak eta borthitzenak berak, gizonaren oinetan umilki aphauduak. Ez sofritze-aren, eritasunen, heriotzearen beldurrik. Gizona ez zen hiltzeko egina. Jainkoak, dio Liburu Sailduak, egin zuen gizona, bizitzeko. Bekatu ez balu egin, ez zen sekulan hilen.

Hargatik, inozentzia oso horren erdian, Adamek eta Ebak baza-gokaten bere libertatea. Hekieri zohakon, Jainkoari leial egonez, zorion hori, beretzat, eta bere haur eta ondokoentzat begiratzeta.

Ez zioten Jainkoak debeku handirik egin. Errexa zen hekien obe-dientzia.

Parabisuaren erdian, arbola bat eman zuen Jainkoak: *Ongiaren eta gaizkiaren jakitatearen arbola*. Zilhegi utzi zioten gure lehen burasoeri, bertze arboletako frutu guzietarik jatea. Hau xoilki zioten debekatu, erranez: «Begira zaizte frutu huntarik jatetik, ezen hortarik jaten du-zuen egunean, hilen zarete». (1) Manamendu ezta zen eta begiratzeko erreza. Ikusiko dugu segidako kapituluan, nola, Adamek eta Ebak obeditu zioten.

---

(1) In quocumque enim die comederis ex eo, morte morieris. (Genes. II, 17). Hitz hauk egiazki Adameri xoilki izan ziren lehenik erranak; orduan ez zen oraino Eba egina. Bainan, bai Eba, bai gu guziak Adameren baitan ginen or-dutik.



## HAMEKA-GARREN KAPITULUA

### *Gizonaren bekatuan erortzea*

58 Jainkoak zorionarentzat egin zuen gizona. Gehiago dena, Jainkoak kreatu zuen saindutasunezko eta inozentziazko estatu batean. Hori da Eliza katolikoaren sinhestea; sinheste hori finkatzen da, bai Liburu Sainduen, bai Elizako Aiten lekukotasunaren gainean. Testamentu zaharraren hastean irakurtzen ditugun hitz hautarik: «Jainkoak egin zuen gizona bere irudirat», (1) Elizako Aitek daukate, graziazko estatuan izan dela gizona kreatua. Huna zer oraino irakurtzen dugun: «Jainkoak egin du gizona, zuzena»(2) erran nahi baita, justua eta saindua. Gauza bera, Jaun Doni Paulok asko hitzez erakusten dauku.

Saindutasunarekin, Jainkoak eman ziozkan gizonari, arimako eta gorphutzeko dohain berezienak. Haren adimenduak Jainkoa eta egia ezagutzen zituen, ez hargatik osoki, Jainkoak bere burua ezagutzen duen bezala: ezen Adame, nahi bezain ederra, eta, gisa batean perfeta izan zadien, kreatura bat zen; haren bihotza ongirat eta Jainkoaren amodiorat ekharria zen. Gorputza bera, arimaren edertasun hortan partalier zen, eta ez zituen bere baitan, guk, bekatuaren ondorioz, gurekin garraiatzen ditugun jaidura tzarrak.

Lurreko errege eta aphez, Adameren kargua zen, kreatura guziak Jainkoa ganat altxatzea, adorazionean, amodioan eta esker-onezko sentimenduetan.

Bainan, oi zorigaitza! Bere erreboltaren segidan, zerutik kanpo emana izan zen. Aingeru gaizto edo debruak ez zuen jasan ahal izan gizonaren inozentzia eta zoriona, lurreko parabisuan. Gutiago oraino jasaiten zuen pentsamendua, Adame eta Eba eta hekietarik ilki behar zi-

---

(1) Et creavit Deus hominem ad imaginem suam: ad imaginem Dei creavit illum. (Genes., I, 27).

(2) ...Inveni quod fecerit Deus hominem rectum. (Ecclesias, VIII 30).

renak, jarriko zirela zeruan, berak eta haren lagunek galdu zituzten tronuen gainean.

Gure lehen burasoak tentatu zituen eta gaizkirat ler-arazi.

Huna nola dakarken Liburu Sainduak Adameren eta Ebaren errotze deithoragarriaren ixtorioa.

Sugea zen, Jainko Jaunak egin zituen animale guzietan amarrutsuena. Hartu zuen debruak sugearen itxura, agertu zen emazteari eta erranzion: Zertako debekatu dautzue Jainkoak, Parabisuan diren arbola guzien frutuatarik jatea? Ebak ihardetsi zion: jaten dugu Parabisuan diren arbolen frutuatarik; Parabisuaren erdian den arbolaren frutuaz den bezinbatean, Jainkoak debeku egin dauku, haren unkitzea eta hartarik jatea, beldurrez eta hil gaitezten. — Sugeak erranzion emazteari: Ez, ez zarete segurki hilen. Jainkoak badaki, hartarik janen duzuen egunean, zuen begiak idekiko direla; Jainko batzuen pareko izanen zarete, eta ongia eta gaizkia ezagutuko dituzte(1).

59 Erranzion behar dugu, urrunago joan gabe, izan direla gizon inpioak, Liburu Sainduko kondaira huntaz burlatu direnak, hala nola Voltaire, guzietan higuñena, zoinak baitzion: Nahi nuke sugeari mintzatu, bainan nahi nuke jakin zer zen haren mintzaira. Hitz hautan, inpio bezain arin eta ergel agertzen da Voltaire, bere izpiritu guziarekin.

Bertze kapitulu batean erranzion dugu gorago: Debruak, nahiz eroria, eta ifernurat kondenatua, Aingeruen naturaleza hargatik atxiki zuen; ongiarentzat izan behar zuen bezala, gaizkiko botheretsu gelditu zen; hainitz molde eta itxura hartzen ahal ditu gure tentatzeko. Mintzatu zen Ebari, suge baten ahoz, guri bertze asko moldetan mintzo zaikun bezala.

Egia othe da, ez duela sekulan Voltairek haren boza entzun, eta ez dela sobera ardura, haren zerbitzari arras umil izan? Voltaireren bi-ziari da, galde huni ihardestea. Nik, galdea xoilki egiten dut. Ezen, liburu hau guzia ez nuke aski, Voltairek suge tentatzailearen mintzairari jarraikiz, bere bizian egin dituen tzarkeria guziak erranzion behar banitu.

Tentazionea ethorri zenean, zer egin zuen Ebak? Beharko zukeien, dudarik gabe, ihesari eman, ikustearekin, suge tentatzailearen hitza Jainkoaren hitzaren kontra zohala. Bazakizkan Jainkoaren hitza eta mehatxua; han dago hargatik tentazionean, etsaiarekin hitzketan. Aithor- tzen du Jainkoak erranzion ziotela: Frutu hortarik jaten baduzue hilen

---

(1) Genes., III, 1-5.

zarete. Bainan, duda jadanik haren izpirituan sarthua da: «Beldurrez, *menturaz*, hil gaitezen: *Ne forte moriamur*». Dio hainitz ongi S. Bernatek: «Jainkoak segurutzen du, emazteak dudatzen, satanek ukatzen». (1) Ez, dio satanek, ez zarete hilen, bainan badaki Jainkoak frutu hortarik janen duzuen ordutik, idekiko direla zuen begiak eta Jainko batzuek bezala izanen zaretela.

Erakas-garri handi eta ongi pisatzekoa! Ikus dezagun hemen zer lanjer eta hirriskutan emaiten gaituen bilhatzen dugun, edo bederen urrundu nahi ez dugun tentazioneak. Ebak zer egiten du? Ihes egiteko orde, tentazionearekin jostatzen da; sugearekin, hitzketan dago. Zenbat Ebaren alaba, gisa berberean bere erorikoen edo hutsen has-tea aurkitu dutenak! Ebak, sinhesten ditu, erdi bederen, sugearen hitz eder eta gezurrezkoak; laster, frutu debekatuaren gutizia bere baitan sentitzen du... Behatzen dio... Ez, aintzineko beldur eta ikara sainduarekin... Debruak jadan bere lana eta bidea egin du. Ikusten du Ebak frutu hura ederra dela begietako eta ona behar dela izan gustuarentzat: tentazionea bethi hazkartuz doha. Azkenean Ebak frutua hartzen eta jaten du; Adamek hartzen du Ebaren eskuetarik, eta jaten du harek ere.

Bekatua egina da; gizonak Jainkoari, kreaturak kreatzaileari desobeditu dio. Jainkoaren madarizionea lurraren gainerat erortzera doha.

60 Hainitzek ez dute berehala ikusten, zer krima eta bekatu izan zaiteken, frutu batetarik jatea. Nahi dut, gauza bere baitan xoilki kontsideratuz; bainan bertzela agertzen zaiku Adameren bekatua, barnago eta hobeki bilhatzen badugu. S. Agustinek, hoben guziak, hoben handienak aurkitzen ditu Adameren eta Ebaren bekatuan, eta dio, hori izan dela aski erran ez daiteken bekatu bat: *Ruina ineffabilis, et ineffabiliter grande peccatum*.

Zenbat ongi, Jainkoaren ganik errezibitu zuten gure lehen burasoek! Nola eta zenbatetaraino izan ziren gaindituak! Bere ariman, bere gorphutzean, bizi huntako gauza, on, eder, zuzen guzietan, zer izan zezaketen gutiziatzeko?

Dohain eta on guziak bazituzten mundu huntan; eta bizi huntako zorionetik lekora, zeruan bethi-ereko zoriona. Zer eskergabetasuna, ongi egin horiek guziak ahanzte! Jainko ongi egile soberanoari, obediencia ekharri nahi ez izaitea!

---

(1) Deus affirmat, mulier dubitat, Satan negat. (S. Bern. De div. serm. XII, n. 3).

Hortik lehenik eskergabetasuneko krima.

Urguluaren krima ez da ttipiagoa. Ez zizaioten aski Adameri eta Ebari, Jainkoaren idurirat eginak izaitea; nahi izan zuten, berek Jainko batzuek bezala bilhakatu, sugearen hitz gezurtiaren arabera. Jainkoaren esku amultsutik izan dohain ederrak ez zizaizkoten aski, ez baziren Jainkoaren pareko egiten. Zer urgulu erro eta zoroa kreatura batean!

Bertze buru batetik oraino, zer laidoa, gure lehen burasoen bekatuan, Jainkoaren majestate eta handitasun soberanoaren kontra? Jainkoaren hitza bazterrerat emaiten dute, eta Aingeru gaiztoaren hitzari jarraitzen dire. Erran zioten Jainkoak: Frutu hortarik jaten baduzue, hilen zarete. Eta debruak erraiten diote: Jainkoak enganatu zaituzte; jan zazue frutu hortarik, eta ez zarete hilen. Eta debruaren hitza dute sinhesten.

Esker gabe, urguluz betheak, eta Jainkoaren alderat inpioak, horra zer izan ziren gure lehen burasoak.

Izan ziren ere bihotz gabe bere ondokoentzat; ezen, berek merezitu duten zorte deithoragarrirat herrestatu gaituzte guziak. Hokien krima delakotz, Jainkoaren madarizione justua gizon guzien buruaren gainean da.

Manamendua ezitia eta errexa zen; segidak ikaragarriak; gisa guzietan bekatua handia, nahiz materia ttipia, iduriz. Arrazoia du S. Agustinek dionean: ez daitekela erran zenbat handia izan den Adameren bekatua: *Ruina ineffabilis et ineffabiliter grande peccatum.*

## HAMABI-GARREN KAPITULUA

### *Lehen bekatuaren ondorioak*

61 Miñak eta deithoragarriak izan ziren lehen bekatuaren segidak.

Sentitu zituzten Adamek eta Ebak, frutu debekatutik jan zuten bezain laster. Ordu artino, graziaz eta inozentziaz beztituak ziren. Bekatu egin dute bai, ohartzen dire, biluziak direla; hegaldatu da hekien inozentzia ederra; aintzinean ez zuten deusez gorritzeko; hekien begiak, bihotzak bezala garbiak ziren; orai ahalkatzen dire. Ostoz estaltzen dituzte bere gorputzak, eta badohazi, oian pean bere ahalkearen gordetzera. Bainan nola gordeko dire Jainkoaren begi zorrotzari?

Huna justiziaren orena. Entzun dezagun, Moisek, Jainkoaren argiekin iskribatu duen Geneseko Liburua:

«Jainko Jaunak Adame deithu zuen eta erran zion: Non zare?

Ihardetsi zion Adamek: Entzun dut zure boza Parabisuan, eta beldurtu naiz, biluzia naizelakotz, eta gorde naiz.

Erran zion Jainkoak: Nola jakin duzu biluzia zarela, non ez duzun jan, nik debekatu frututik?

Adamek erran zion: Laguntzat eman dautazun emazteak eman daut frutu hortarik, eta jan dut.

Jainkoak erran zion emazteari: Zertako egin duzu gauza hori? Emazteak ihardetsi zuen: Sugeak enganatu nau, eta jan dut.

Eta orduan, Jainko Jaunak erran zuen sugeari; gauza hori egin dukalakit, madarikatua haiz, lurreko animale eta bestia guzien artean; herrestan ibiliko haiz sabelaren gainean, eta hire egun guzietan lurra izanen duk hire hazkurri eta janaria.

Etsaigua eta gerla emanen ditiat, hire eta emaztearen artean, hire arrazaren eta haren arrazaren artean; burua lehertuko dauk, haren oin zolak ausiki nahiko ditukan bitartean.

Erran zion ere emazteari; jasan gogorrek egorriko dauzkitzut haurrak zure sabelean garraiatzen ditutzularik; dolorean emanen diozute bizia, eta zure senharraren menean eta haren nausitasunaren pean izanen zare; harek manatuko dautzu.

Eta gero erran zion Adameri: Zeren zure emaztearen boza entzun duzun, eta jan duzun nik debekatu arbolaren frututik, lurra madarikatua izanen da, eta zure bizi guzian, lan hainitzen gustuz kenduko diozu zure bizitzekoa.

Arantzak eta elhorriak emanen dauzkitzu, eta lurreko belarra izanen da zure hazkurria.

Zure kopetako izerdiaren gustuz, janen duzu zure ogia denbora ethorri arteraino, zointan itzuliko baitzare lurrerat non hartua izan baitzare: Ezen herrauts zare, eta herrauts bilhakatuko zare.

. . . . .

Eta gero, Jainko Jaunak eman zuen Adame zorionezko Parabisutik kanporat, lanean har zadien hartua izan zen lur hartan. (Gen.)».

Horra gure lehen burasoen gaztigua, egia bera dakarken Moisen Liburuan errana den bezala.

- 62 Gauza guziak, ordutik, mudatuak dire. Bestiek eta animaliek ez dute gehiago, Adameren erregetasuna ezagutzen; zerua ez da hain argi ez hain ezti; lurra bere lore eta frutuetarik biluzia da, eta nigarrezko aran bat bilhakatua. Bazter guzietarik penak, jasan gogorrek, eritasunak, arimako eta gorphutzeko nahi gabeak, eta azken buruan heriotzea: horra handik aintzinat gizon bekatorosaren zortea. Jainkoak erran dio: «Herrauts poxi bat haiz, eta herrautserat behar haiz itzuli».(1)

Bainan dorpheagoa da oraino Adameren bekatuaren ondorioa. Gorphutzeko onak galdurikan ere, kontsolazione bilha zezaken arimako inozentziaren gozoan. Bainan ez; bekatu egitearekin, galdu zuen ere, kreatu zuenean Jainkoak eman zion saindutasuna eta bihotzeko garbitasuna. Horra nola, berehala egin zen Adameren eta Ebaren baitan, gaizkiaren ezagutza. Ordu-arte inozentziak beztitzen zituen; bekatu egin dute bai, ohartzen dire biluziak direla, eta ahalkez, oihan pean itzaltzen dire, Jainkoaren begieri ihes egiteko.

Frutu debekatuak ez zioten ongia, bainan bai gaizkia ezagutarazi.

Gisa hortan, hain nasaiki Jainkoak eman ziozkaten dohainez gabetuak izan ziren, edo bederen, dohain hek guziak kolpatuak eta fla-

---

(1) Quia pulvis es et in pulverem reverteris. (Genes. III, 19).

katuak izan ziren hekien baitan. Hekien izpirituak, egiaren argi garbien orde, ezagutu zituen gezurraren ilhunbeak; bihotza eta nahia, hain errexki ongia maite zutenak, eta ongirat zohazinak, aurkitu ziren gaizkirat ekharriak; gorphutzak ezagutu zituen haragiaren errebolta eta gudu ahalkegarriak.

Zorigaitz horiek guziak baino handiagoa! Bekatuaz galdu zituen gizonak, zerurateko zituen zuzen guziak. Gorphutzaren hiltzea, bethi-ereko heriotzearen itxura zen. Horiek guziak, Fedearen argian eman ditu eta erakutsi Trenteko konzilioak.

Horra zer izan den Adamek eta Ebak egin zuten bekatuaren gartzigu garratza, bainan zuzena eta justua. Segidako kapituluan ikusiko dugu, zer izan diren bekatu horren segidak, hekien ondorioarentzat, erran nahi da, gutarik bakotxarentzat.

## HAMAHIRUR-GARREN KAPITULUA

### *Lehen burasoen bekatuaren segidak bekien ondorioarentzat*

63 Fedezko artikulu bat da, Adameren bekatua haren ondorio guziaren gainerat hedatu dela, eta guziak, Salbo Birjina Maria dohatsua, bekatu orijinalaz hobendun kontzebituak garela.

Klarki erakusten dauku Jaun Doni Paulok hitz hautaz: «Bekatua munduan sarthu da, gizon bakar baten medioz, eta bekatuaz, heriotzea; eta horrela heriotzea ethorri da gizon guzietarat, gizon bakar hartaz, zointan guziek egin baitzuten bekatu.»(1) Apostoluaren hitz hoikien gainean finkatzen da Trenteko Konzilioa, erakaspen horren kontra dohazinen kondenatzeko(2).

Hitz horietarik ageri da, guziek gizon batean bekatu egin dugula, eta guziak hiltzerat kondenatuak garela, Adame gure lehen aitaren bekatuan sortzen garelakotz.

Argi handiagoan eta ederragoan oraino ezartzen du Apostoluak egia hori, Jesu-Kristo eta Adame bat bertzearen aldean emaiten dituelarik: «Hola nola, dio, gizon guziak izan baitire, baten bekatuaz heriotzerat kondenatuak; hala ere, baten justiziaz, izaiten dute gizon guziek bizia eta justifikazionea. Ezen, nola hainitz bilhakatu baitire bekatore, baten obedientzia eskasaz: hala hala, baten obedientziaz, hainitz justifikatuak izanen dire.»(3)

Gauza bera erakusten du, Korinthianoeri egiten zuen Epistolari: «Gizon batez ethorri zaikun bezala heriotzea, gizon batez ere ethorriko zaiku phiztea. Guziak hiltzen diren bezala, Adame baitan, guziak biziko dire berriz Jesu-Kristo baitan»(4). Zer izan daiteke ere Dabid Errege-

---

(1) Rom. V. 12.

(2) Concil. Trid. Sess. V, C. II.

(3) Rom. V. 12.

(4) I. Cor. XV, 21-22.



-Profetaren hitz hau baino argiago: «Bekatuan kontzebitua izan naiz, eta ene amak, bekatuarekin eman daut bizia: *Ecce enim in iniquitatibus conceptus sum et in peccatis concepit me mater mea*»(1). Entzun dezagun Job Patriarka: «Ez da nihor bekatuaren zikinetik garbi, ez eta ere egun bat xoilki bizi izan den haurra»(2). Lekukotasun horiek guziak baino handiagoa, huna Jesu-Kristoren lekukotasuna bera: «*Nisi quis renatus fuerit ex aqua et Spiritu Sancto, non potest introire in regnum Dei*»(3). «Nor eta ere ez baita berriz sortzen urean (erran nahi da bathaioan), eta Izpiritu Sainduan, ez daiteke sar Jainkoaren erresuman». Ez othe dauku Jesu-Kristok aski agerian erraiten hitz hautaz, guziak, bekatuaz hilak sortzen garela, badugunaz geroz, guziek, bizi berri baten beharra, Jainkoaren erresuman sartzeko?

Luzegi laiteke Elizako Aiten lekukotasunaren hemen emaita, gure Fedearen phondu horren gainean. Aipha detzagun xoilki bat edo bertze.

S. Athanasiok dio: «Legea hautsi duelakotz gizonen arrazaren Aitak, heriotzea jautsi da haren ondorio guzirat. Guziak bekatuan kontzebituak gare»(4).

«Jainko kreatzaile guziz on eta guziz justu baten botherearen pean, dio S. Agustinek, ez letzakke, bere idurirat egin duen gizonak, hoin pena handiak jasan bizi huntan, ez balitz bekatu orijinalik»(5). Beraz, S. Agustinen sentimenduan, bizi huntako jasan gogor guziak, bekatu orijinalaren ondorioak dire. Gauza bera dute erakusten S. Irenée, S. Hilario, S. Ciprien, S. Krisostomo, Origine, Tertuliano eta bertze guziek.

Bekatu orijinala, bere segidekin! hori da gure Erlijioneko mixterio handienetarik bat. Bainan, hori ukhatuz, zenbat bertze gauza, ilhunbetan geldi litezkenak, hala nola gizona, orai den bezalakoa, bere jaidura tzarrekin eta sofritzeekin, Inkarnazionea, Erospena, Eliza, Sakramenduak. Horiek guziak bekatu orijinalaren segidak edo sendagaia dire.

Kenduz bekatu orijinala, ez dugu deus konprenitzen ahal ez gure bizian, ez Erlijionean.

64 Izan dire erran dutenak ez ditezkelarik elgarrekin antola Jainkoaren justizia eta bekatu orijinala.

Ikusi dugu zer daukun Jainkoak erakutsi, bai Testamentu Zaharrean, bai Berrian, eta ere Elizaz eta Elizako Aitez. Bada ez dezake

---

(1) Ps. L. 7.

(2) Job. XV, 4.

(3) Joan. III, 5.

(4) S. Athan., t. II, pag. 31. Edit. des Bénéd.

(5) S. Agust. contr. Julian IV, C. I.

Jainkoak gezurra erakuts. Bertzalde, atrebentzia handia laiteke, Jainkoaren justizia soberanoa, gure justiziarekin neurtu eta pisatu nahi izaita.

Asko ilhunbe eta duda heldu dire gauzak ez ontsa konprenitzetik. Ez dezagun bekatu orijinalarekin bat egin, bekatu *aktuala*, edo, orai eta gure nahiz egiten duguna. Ez dire gauza berak; ez dire ere gisa berean gaztigatuak. Batek zeruko sariaz gabetzen gaitu, bertzeak gaztigua merezitzen. Ez gare bertze bizian, gaztigatuak izanen, Adameren bekatua delakotz, bainan bai, gure libertateaz gaizki zerbitzatzuz, gure nahiz egin ditugun bekatuentzat.

Gabetuak bagare, Jainkoak, Adameri, bere borondate xoilaz, eta batere bortxatua izan gabe, eman ziozkan dohain bereziez, hutsa ez da Jainkoarena, bainan bai Adamerena.

Emagun galtzen dituela aita batek bere on, aberastasun eta izaita guziak; utz ahal othe detzazke bere ondorioari? Ez; ez direnaz geroztik harenak.

Emagun oraino Prinze bat. Ez, justiziaz obligatua delakotz, bainan, bere amodio eta nahi on xoilaz, gañditzen du bere zerbitzari bat, ongi, aberastasun eta ohore guziez, erraiten diolarik: Deus ez dautzut zor; bainan niri leial egoiten bazare, horiek guziak, zuretzat bezala, zure haurrentzat izanen dire. Bainan, ene kontra altxatzen bazare, guziak aldiz galduak, zuretzat eta zure haurrentzat. Hori dakielarik, altxatzen da gizon hura bere Prinze eta ongi egilearen kontra; hunek kentzen badiozka bere ongi eginak, haurrentzat galduak badire denbora berean, nork erran dezake, Prinzea zuzen kontra dohala?

Horra nola, galduak izan diren guretzat, Adamek, Jainkoari leial egonez, haren debekuari obedituz, bere ondorioari uzten ahal zituen on eta dohain guziak.

Adameren baitan ginen guziak, lehen hazian aurkitzen diren bezala hartarik ilkiko diren landare, lore, frutu eta hazi guziak. Pozoindatua balinbada lehen hazia, nork ez du ikusiko, ondoko hazi guziak hartan pozoindatuak izanen direla? Guziek konprenitzen dute errexxi gauza hau; nihork ez dezake bertzeri eman, berak duena baizen.

Umilki aithortzen dugularik, ez dugula, bekatu orijinalaren mixterio hau osoki konprenitzen ahal, adora dezagun Jainkoaren justizia. Bainan, erran dezagun ere oraitik, guziz ona eta urrikalmendutsua izatu dela Jainkoa guretzat, bere Seme bakarra eman daukunean, bekatu orijinaletik gure garbitzeko.

**HIRUR-GARREN ZATHIA**

JESU-KRISTO MUNDUAREN SALBATZAILEAZ



## LEHEN KAPITULUA

### *Jainkoak agintzen du Salbatzaile bat*

65 Kongsolazione eta bozkario handirekin hasten dugu hemen sinhes-  
ten duten bi-garren zathia, liburu huntako hirur-garrena: ezen, lehen  
zathian, preparazio bat bezala egin dugu, mintzatuz Erlijioneaz eta Fe-  
deaz.

Eta orai, Jesu-Kristoz behar gare mintzatu. Jesu-Kristo, gizonaren  
zorigaitzaren eta desmasiaren erdian, gure esperantza, Jesu-Kristo gure  
Anaia, gure Salbatzailea, gure hazkurria, Elizaren Egilea eta Burua.

Ai! zer gauza eder eta miragarrien kontsideratzera gohazin! Jain-  
koak lagun gaitzala. Jesusek berak gida dezala, eskuetan dudan luma,  
ene amodioak galdegiten duen bezinbat; argi detzala ene irakurtzai-  
leen izpirituak, bero hekien bihotzak.

**O Jesus! Jesus gizon egin zarena, Jesus guretzat hil, eta gure  
hazkurri egin zarena, zu zare ene erakaspén eta ene amodio guzia!  
Egizu zutaz, ontsa eta amodioekin mintza nadien!**

Jainkoak, bere justizian, eman zituenian gure lehen burasoak, lu-  
rreko parabisutik kanpo, ez zituen hargatik esperantzarik gabe utzi.  
Hekien bihotz minaren gau ilhunean eman zuen argi bat. Hitz bat  
erran zioten: Salbatzaile eta Erostaile bat ethorriko zaitzue.

Jainkoa baitan, bethi, urrikalmendua justiziarekin doha; eta erran  
behar da, Jainkoa baitan xoilki, urrikalmendu handiena eta justizia osoa  
aurki ditezkeela, eta elgar besarka dezaketela, bat edo bertzea, kolpa-  
tua izan gabe; zeren, batasun osoan, perfezione guziak aurkitzen bai-  
tire Jainkoa baitan.

Orhoit gaiten, Jainkoak sugeari erran zion hitz huntaz: «Etsaigoak  
emanen ditiat, hire eta Emaztearen, hire eta haren arrazaren artean;  
lehertuko dauk burua, eta alferretan, haren zango zola nahiko duk

ausiki». Erran gabe doha, Jainkoak egiten zuen mehatxu hau ez zela sugearentzat, bainan, sugearen itxura hartuz, gezurrez Eba enganatu zuen debruarentzat.

Sugearen eta debruaren etsai botheretsu eta bentzutzaile agindua zen emaztea, MARIA da. Haren arrazatik ilkiko den haurra, debruari azken kolpea emanen diona: JESU-KRISTO.

Iduri du hemen Jainkoak altxaraziz bere urrikalmendua gure beka-tuez gorago, egiten duela gizonarentzat, bainan bertze molde batean, gezurrez sugeak Ebari eta Adameri agindu zuena: Ez zirela hilen, bainan Jainko batzuek bezala izanen zirela.

Debruak gezurrez agintzen zuen bethiereko bizi hura, gero egiazki emana izan zaiku. Biziaren egiazko arbolaren fruitua, Jesu-Kristo gure Jauna, gure anaia eta gure Salbatzailea bilhakatur, egin gare haren iduriko, erran nahi da, *Jainko batzuek bezala*.

Zoin den ederra hemen, S. Krisostomoren mintzaira: «Sugeak atxeman eta beretu zuen Eba: Mariak emanen du bere baimena, Gabriel Arkanjeluaeren mandatuari; Ebaren erorikoak eman dauku heriotzea; Mariaren baimenak sor-arazten du Salbatzailea. Ebak galdu duena, Mariar kobratua izanen da; Adame, bekatuaren gatiboa, Jesu-Kristoz eresia izanen da; Inkarnazioneak emanen dauku Satanek kendu zaukun esperantza»(1).

66 Nahiz ez zaikun guri Jainkoaren hitza osoki klaroa agertzen, Jesu-Kristoren Inkarnazionea ikusi aintzinean, ez da dudarik Adamek eta Ebak behar zen bezala hartu zutela. Ez da dudarik egiteko, Salbatzaile baten agintza, hitz horren orhoitzapen ezta, izan zirela hekien sustengua, esperantza eta bihotz altxagarria, bihotz-min eta nahi gabe dorphe guzien erdian.

Igurikitzen zuten Salbatzaile bat; eta bere baitan zakarketen esperantza hazkar hori, bere haurreri eta haurren haurreri utzi zioten. Erran daiteke, urrats bat ez daitekela egin Testamentu Zaharreko Liburuetan, Salbatzailearen edo Mesias aginduaren esperantza aurkitu gabe.

Ez du nahi izan Jainkoak bere agintza ahanztera utzi. Huna zer erraiten duen Abrahame Patriarkari, ikusten duenean fede handiko gizon Saindu hori, bere Seme bakar eta maitearen sakrifikatzaera ekharria dela, Jainkoaren manuari obeditzeko: «... Lurreko jendetze guziak benedikatuak izanen dire, zure arrazatik ethorriko denaren baitan, zeren

---

(1) S. Joan. Chrys. Hom. de Interd. arb.

ene bozari obeditu izan baituzu»(1). Agintza bera, eta hitz bertsetan egiten du Isaak Patriarkari: «Jendetze guziak benedikatuak izanen dire zure arrazatik ethorriko denaren baitan, zeren Abrahamek ene bozari obeditu izan baitu»(2). Gisa berean mintzo zaio Jakoberi. Hitz berak laitezke hemen erraiteko. Sekulan beraz, ez zuen Jainkoak Patriarka Zaharren arimetan ilhutzera utzi, Salbatzailearen orhoitzapena eta esperantza. Jainkoa bethi leial agertzen zaiku, hastapenean gizonari egin zion agintza kontsolagarrian; ez xoilki Juduen, bainan, Abrahameren fede eta sinheste hazkarra izanen duten guzien Saindutaile eta Salbatzaile.

Lehen denboretako Patriarken ondotik eta geroago, ez zen ilhundu Mesias aginduaren esperantza. Moise, Dabid, eta erranen dut, Profeta guziak hartaz mintzo zaizkigu, eta hain ardua non, erran baititake, ez zutela bertze egitekorik, Jainkoaren xedetan, baizen, haren orhoitzapena, Israelgo populuaren ezeztatzera ez uztea. Hanbat xehetasunekin, mintzatu izan dire Salbatzaile aginduaz, non haren bizia eta heriotzea aintzinetik erranak bezala baitziren. Erran zuten, Mesias Dabiden arrazatik sorthuko zela; Birjina bat izanen zuela amatzat eta Bethleeme izanen zela haren sor lekua.

67 Erran ere zuten aintzinetik, Ebanjelioa edo Jainkoaren berri ona gizonari predikatuko zuela; bere erakaspena mirakuiluez bermatuko; adixkide batez saldua izanen zela hogeit hamar diru pezentzat; bere dizipuluez utzia, akusatua, kondenatua eta bertze guziak, heriotzeraino.

Bai, ageri da hemen, Israelgo populuaren kargu berezia izan dela, Jainkoak Adameri egin zion Salbatzailearen agintza eta orhoitzapena arthoski atxikitzea, galtzera eta ilhutzera utzi gabe.

Populu hura bera da orai, Mesias agindua ethorri dela, ezagutu nahi ez duena, nahiz, jadan gertatuak diren, Profetez haren liburuetan aintzinetik erran gauza guziak.

Nola daiteke hori? Mixterioa! Othoitz egin dezagun ilhunbetan direnentzat.

Kapitulu hau arras osoa izaiteko, behar nuke erran, errex laitekeena, Israelgo populu bezala, bertze guziak ere, bazter guzietan Salbatzaile baten igurikean zagozila. Bainan iduri zait aski erran dudala Eskualdunen fedearen argitzeko eta hazkartzeko, eta huntan baratzen naiz.

---

(1) Genes. XXII, 18.

(2) Ibid., XXV, 4-5.

## BI-GARREN KAPITULUA

### *Salbatzaile edo Erostaile baten beharra*

68 Ikusi dugu gizona, bere inozentzian eta lurreko Parabisuko gozo ez-tian; ikusi dugu ondoan, bekatuan erortzen, eta bekatua delakotz, gorphutzeko eta arimako flakeza guzietarat sumetitua; gehiago eta dorpheago dena, zeruaren esperantzaz gabetua.

Eri handi bat da, lurraren gainean etzana, S. Agustinek dion bezala.

Bera sendatuko othe da? Aski hazkar izanen othe da bere ohetik altxatzeko? Edo, beharko othe da, heda dezon Jainkoak zeru goratik, bere esku urrikalmendutsua eta laguntzailea?

Ez; gizona ez daiteke bera bakarrik altxa bere eroriko dorphetik. Jainkoa gabe, ez daiteke senda bekatuak egin dion zauri izigarritik. Alferretan, nigar saminenak eta penitentzia garratzenak eginen ditu bere bekatuarentzat; ez da gai izanen, bera xoilki, bekatu horren borratzeko.

Zertako hori? Zeren zorra eta pagamendua, neurri eta izari berean izan behar baitire; hola du galdatzen justiziak; zeren, gizon kreatura ez deusak, Jainko guziz handiari egin zion laidoa mugarririk gabekoa izan baitzen.

Hanbatenaz da laidoa handiagoa, zenbatenaz laidoztatzailea apha-lagoa baita eta laidoztatua handiago eta altxatuagoa. Bada hemen, bekatuaz laidoztatua izan dena Jainkoa da, erran nahi da, izate bat osoki handi, saindu eta perfeta; laidoztatzailea aldiz, kreatura bat, deus ez dena bere baitarik, eta dituen guziak Jainko handi haren ganik dagozkanak.

Nola beraz, bethe dezake bekatoreak bere ahal eta indarrez, saindutasun osoa ganik berexten duen lezea?

Zer estatutan kreatu zuen Jainkoak gizona? Erran dugu jadanik: justizian, inozentzian, naturalezaz goragoko estatu batean. Ez zuen be-



rak merezitu ahal izan saindutasunezko estatu hori: Jainkoaren amodioaren dohaina zen. Are gutiago kobra zezaken bere indar xoilez, behin bekatuaz galdu zuen ondoan. S. Thomasek hainitz ongi erraiten du: «Hala nola ez baitzuen bere merezimenduez gizonak izan justizia orijinala, bainan bai Jainkoaren nahi on eta handitik, igual eta oraino hobeki erranen dut, ez zezakela, bekatu egin ondoan ez urrikiaz, ez beritze egintzez estatu hori merezi»(1).

Hitz batez erraiteko: Graziatzko estatua naturalezaz goragoko dohain bat da; ez daiteke beraz hartarat hel, naturaleza xoilaren indarrez. Are gutiago oraino galdu ondoan kobra daiteke, naturalezaren indarrak berak, kolpatuak eta flakatuak direnean bekatuaz.

Sekulakotz beraz eroria da eta galdua izanen da gizona?

Hala izanen zen egiazki ez balu Jainkoak hartaz urrikalmendu izan. Bainan gizona urrikaldu zitzaion.

69 Hemen, gure Erlijioneko mixterio ederrenaren, eta bereziki maitteenaren kontsideratzera gohazi.

Bai: dio Jainkoak bere baitan, gizona hobendun eta hobendun handia da, bainan oraino ene haurra da: eta, ez mendekuzko bainan bakezko pentsamendu eta asmuak ditut harentzat(2).

Berak egin duen gizona, Jainkoak nahiko du salbatu.

Eta nola bada?

Trinitate Sainduko bi-garren presuna gizon eginen da; hartuko ditu guriak bezalako gorphutz bat eta arima bat, gure iduriko bilhakatu da. Mixterio espantagarria, bainan, zoina gabe ez baitziteken gizona izan salbatua.

Bekatuak egin kaltea erreperatuko zuena, baitezpada, gizon behar zen izan. Gizona zelakotz bekatorea, haren arrazakoa behar zen ere erreparazionea eginen zuena. Gizona behar zen oraino, zeren gizonak xoilki, sofri, jasan eta paira baitezake, merezitzeko moldean(3). Bainan ere, Jainko behar zen denbora berean, mundua salba zezaketen sakrifizioa eta bitartekoa osoki sainduak eta garbiak behar zirelakotz: Jainko ere, erreparoa izan zadien mugarririk gabekoa, bekatuak laidoztatu duen Jainkoa bera den bezala.

---

(1) Ousc. II.

(2) ... Ego cogito super vos cogitationes pacis, et non afflictionis. (Jerem. XXIX, 11).

(3) Erran gabe doha, ez daitekela hemen mintza, aingeru gaxtoez edo debruez. Sofritzen dute bainan gatziguz, bortxaz, eta merezimendurik gabe.

Salbatzailea, Erostailea ez balitz Jainko izan, ez zuen haren sakrifizioak aski merezimendu eta balio izanzen; ez balitz gizon izan, ez zukeen sofri eta paira, ez eta ere Adameren bekatuaren karga har bere baitan.

Jainko eta gizon izan da Jesu-Kristo gure Jauna. Gizon zelakotz, guk bezala pairatu ahal izan du; eta Jainko bezala, bere satizfazioneari eman dio neurririk gabeko balio eta merezimendu bat. Horra zer zen gai, bakarrik, Jainkoaren justizia soberanoaren aphazegatzeko.

Bainan urtheak eta mendeak iraganen dire, Mesias, Salbatzaile agindua mundurat ethorri artino. Galduak othe ziren bada gizon guziak, iguripenezko denbora luze hortan? Ez dezagun horrelako asmurik izan. Ez du Jainkoak sekulan, bere kreatura ahantzi, eta denbora guzietan eman diozka salbatzeko bideak eta errextasun beharrak.

Mesias agindua lurrerat ethorri aintzinean, salbatu ahal izan dire, haren baitan sinhestea, fedea eta esperantza zuten guziak: bai eta ere, bere ahalean, eta nahi zuzen batekin, bethe izan dutenak Jainkoaren legea, ezagutzen zuten bezin batean. Jainkoa aita on eta juie ezti bat da; ez du, eman duen baino gehiago galdetzen.

Ez du nihork dudarik egiten Adameren eta Ebaren salbamenduarren gainean, zeren egin baitzuten penitentzia, eta arthoski atxiki bere baitan, Jainkoak agindu zioten salbatzailea baitako sinhestea eta esperantza.

Gauza bera erranen dut, Lege zaharreko hainbertze Patriarka eta Profeta sainduetz; Salbatzailearen igurikitzean bizi ziren, bere othoitz khartsuenez deitzen zutelarik.

Bainan, oi gu, giristino katolikoak! gure aintzinekoak baino mila aldiz dohatsuagoak! Guk ez dugu xoilki Mesiasen esperantza; Mesias ethorria da, eta hura da Jesu-Kristo, gurekin, gutartean bere egoitza egiten duena.

Eskerrak gure Jainko guziz onari; bainan ere, orhoit gaitezen, zen-batenaz grazia eta argi gehiago izan baitugu, han-batenaz ere kondu garratzagoa izanen dugula bihurtzeko.

## HIRUR-GARREN KAPITULUA

### *Zer zen mundua Jesu-Kristo ethorri aintzinean*

70 Ez zaiten gizona zalba bere baitaz eta bere indar xozilez.

Obra hartako, Jainko Gizon bat behar zen.

Bainan, Inkarnazionearen argi eder eta distiantetan sarthu baino lehen, ikus dezagun aphur bat, zer zen mundua, Jainko-Gizona gure ganat ethorri aintzinean.

Horrela, hobeki oraino agertuko zaiku Salbatzaile eta argitzaile baten beharra.

Lau mila urthe ja baziren iraganak, gure lehen burasoak bekatuan eroriz geroztik.

Zoin deithoragarriak izan ziren bekatuaren segidak! Zer ustelduran erori ziren gizonak! Beldur ninteke egiazki, sobera zikin ene luma eta ene irakurtzaileen izpirituak, erraiten banu zenbatetaraino zen aphaldu gizona, eta zenbat desegin zuen bere baitan Jainkoaren itxura.

On da, hargatik, zerbeit erran dezagun, ikusteko zer bilhakatzen den gizona, Jainkoaren ganik urrundua eta Jainkoaz gabetua denean.

Ikusiz, zoin ziren handiak eta higuingarriak, gizonak bere baitan zakartzken zauriak, hobeki prezatuko dugu Salbatzaile baten ethortzearen ona eta beharra.

Bi populu izan ziren bereziki, denbora hetan aipatuak; hek ziren Athenako eta Erromako populuak. Guzien artean argituenak bezala atxikiak dire.

Denbora, iduriz hain eder eta argitu hek ezagutzen dituztenez ez naiz segurki gezurtatua izanen, erraiten badut, pasione itsusienak, higuinenak eta zikinenak Jainkoztatuak bezala zirela. Jainkotzat adortatuak ziren, krima lohi, zikin eta tzar guzien egileak, eta, Erlijionekegun hautatu batzuetan, etsenplutzat emanak.

Nola espanti ordutik Jainkotzat hartzen eta ezagutzen zituztenen etsenplueri, populuak jarraitzen baziren? Erlijioea bera, bertuteari

eta ongiari buruz jendeak gidatzeko orde, gaizkiaren erakasle bilhaka-tua zen.

Ez, ez naiz xehetasunetan sarthu nahi. Erranen dut xoilki hitz ba-tez, lohikeria eta bertze hainitz krima ongi ikusiak eta ohoratuak zire-la. Ez xoilki S. Agustin eta Elizako bertze Aitak, bainan Paganoetarik asko, gauza horietaz, ahalkerekin mintzo zaizkigu.

Jainko egiazkoa hain guti ezagutua eta ohoratu zen denboran, zer es-timu izan zaiteken gizonaren biziarentzat eta arimarentzat?

71 Haurra ez deus batentzat idukia zen. Burasoek saltzen eta hiltzen zituzten bere haurrak. Legeak emaiten zion bothere hori aitari; eta, aski bihotz gabeak aurkitzen ziren, naturalezaren kontrako lege hartaz baliatzeko.

Errespetu gehiagoz inguratua othe zen bederen gizonaren bizia, po-pulu hekien begietan? Ez; eta ikus daiteke oraino orai, eta gure be-giez ikusi dugu, Erroman, Kolisea deitzen den leku bat, zointan, mi-laka hiltzen baitziren gizonak, bizioan usteldu populu baten jostaga-rrizat: hala nola orai jenden jostatzea gatik, hiltzen baitituzte zaldiaik eta zezenak, zezen kurridetan.

Gizon gehienak, esklabo, erran nahi da, osoki bere nausiaren me-neko ziren, adimenduaz gabetu bestia batzuek bezala: *non persona, sed res*; ez, presuna eta gizonak, bainan gauza batzuek, zoinetan bilha-tzen baizituzten nausiek, bere gustuaren arabera, ahal bezinbat atsegin edo probetxu. Auguste Enperadoreak sei mila esklabo hil arazi zituen egun batez. Enperadore berak jakin zuen haren esklabo batek, *kailla* deitzen dugun hegastin bat, hil eta jan zuela; manatu zuen izan zadien kurutzefikatua. Bedius Pollion deitzen zen gizon aberats batek, urerat aurtikarazi zuen esklabo bat, arrainez jana izaiteko, zeren uste gabean, baxera balios bat hautsi zion.

Hitz batez erraiteko: ez zen egiazko Jainkoa ezagutua; krima gu-ziak adoratuk ziren; gizonaren bizia eta arima ez deusentzat idukiak; bizioaren usteldura bazter guzietan. Horra zer zen mundua, Salbatzai-lea ethorri aintzinean; eta mintzo naiz hemen, populu aiphatuenez eta argituenez; zer zaiteken bertzetan, errexki asmatzen ahal dugu.

Zato beraz, zato! Oi Mesias agindua, hain kartsuki Patriarkez eta Profetez gutzizatua, zato! Ez gaitzke zu gabe salba! Ilhunbetan, gaiz-kian, lohian pulunpatua dago mundua! Zato, ilhunbe hoikien erdian, zeruko argiaren emaitera, eta zikin guzien garbitzera: *Rorate coeli desuper et nubes pluant justum; aperiatur terra, et germinet salva-toren!*

## LAUR-GARREN KAPITULUA

### *Jesu-Kristoren Inkarnazionea. — Anuntziazioea*

72 Lau mila urtheren ingurua iragan zen, gizona bekatuan eroriz geroztik. Badakigu Jainkoak Salbatzaile bat agindu zuela, eta Salbatzaile horren orhoitzapena ez zela sekulan ezeztatu Juduen sinhestetan, ez eta ere populu paganoen artean, nahiz hautan, ilhunbehe gehiagoekin.

Jainkoak sugeari erran zion: Etsaigoak emanen tiat hire eta emaztearen artean, eta burua lehertuko dauk. Bada ethorria da agintza horren obratzeko orena.

Nazareth deitzen zen herri ttipi batean bizi zen Birjina gazte bat, saildua eta garbia. Hirur urthe zituen doidoia, Jainkoari egin zionean, Jerusalemeko tenploan, bere Birjinitatearen botua. Esposatu zen geroago Josepe deitzen zen, eta Dabid Erregearen arrazako zur langile bati.

Birjina haren izena zen Maria.

Khartsuki othoitzean zagolarik egun batez, agertzen zaio Aingeru bat erraiten diona: «Agur, graziaz bethea, Jauna da zurekin; benedikatua zare emazte guzien artean. Hitz horiek entzutearekin, deboilatatu zen Maria, eta galdez zagoen bere baitan, zer bada agur horrek erran nahi zukeen. Ez dezazun beldurrik izan, zion erran Aingeruak, aurkitu duzu grazia Jainkoaren begien aintzinean. Huna non kontzebituko duzun eta Seme bat izanen, Jesus deituko duzuna. Handia izanen da, eta deitua Jainko guziz handi denaren Semea; eta emanen dio Jainko Jaunak, Dabid bere aitaren tronua: Erreginatuko du Jakoboen arrazaren gainean, eta haren erregekoak ez du akabantzarik izanen».

Mariak erran zion Aingeruari: «Nola deiteke gauza hori, ez dudana geroztik gizonik ezagutzen? Ihardetsi zion Aingeruak: Izpiritu Saindua ethorriko da zure baitarat, eta Jainko guziz handiaren bertu-

tea zure gainerat hedatuko da; horra zertako, zure ganik sorthuko den saildua, Jainkoaren Semea deitua izanen den... Erran zuen Mariak orduan: Huna Jainkoaren zerbitzaria; egina izan zaitala, zure hitzaren arabera. Eta Aingeruak utzi zuen». (1)

Birjina Mariak azken hitz hori erran zuen memento berean, obratu zen Inkarnazioneko mixterio adoragarria; Mariaren errai garbietan, gorphutz bat eta arima bat hartu zituen, bethi danik zen Jainkoaren Semeak. Hastetik, Jesu-Kristo baitan, gorphutza eta arima elgarri juntuak izan ziren, eta hekieri Jainkotasuna. Eta horrela, memento berean, Jesu-Kristo izan zen, JAINKO eta GIZON (2).

73 Mixteriozkoak dire hemen guziak. Ez dugu nahi behar izan konprenitu. Ixil gaitezen eta adora dezagun. Ezen, hemen, zenbat mixterio eder eta espantagarri! Trinitate Sainduko bi-garren presuna, Jainko gelditzen delarik, eternitate guzitik hala den bezala, gizon bilhakatzen da. Birjina Saindu eta garbi batek, Birjina gelditurik, bere erraitan kontzebitzen du, gizonik ezagutu gabe, Izipiritu Sainduaren mirakuilu espantagarri batez.

Horiek dire gure adimenduaz, eta gure asmu guzietz goragoko gauza batzuek. Erran dezagun Nizeeko konziliuarekin: «Jesu-Kristo jautsi da zeruetarik guretzat eta gu salbatzea gatik; hartu du gorphutz bat Birjina Mariaren sabelean, Izipiritu Sainduaren bertutez eta gizon egin da.» (Symb. Nic.) Erran dezagun ere Joanes Apostolu eta Ebanjelista-ekin: «Berbo Dibinoa gizon egin da eta gutartean egin du bere egoitza: *Et verbum caro factum est et habitavit in nobis*».

Nahiz Jainkoaren Semea, Trinitate Sainduko bi-garren presuna den bakarrik, gizon egin eta gure ganat jautsi dena, Trinitate Saindu guzia, hargatik, amodioaz, urrikalmenduaz eta gizonaren salbamenduaren nahiaz, agertzen zaiku mixterio adoragarri hortan.

Iduri zait, Nazaretheko etxe ttipian gertatu aintzinean, orai doioia erran duguna (3), Jainko hirur presunek hitz egin bezala zutela elgarrekin zeruan.

Ene Semea, dio Aita Eternalak Berbo Eternalari, gizona eroria, galdua da; bekatuan da, ez daiteke bera salba; zure aiduru dago. — Ene

(1) Luc. I. 26-38.

(2) Catech. C. Trid.

(3) Ene irakurtzailek konprenituko dute errexki, ez dela Jainkoarentzat, ez aintzineko, ez geroko denborarik; Jainkoa, bethitik da, bethi da eta bethi izanen da; haren bethi-ereko bizia ez da egunez eta urthez neurtzen gurea bezala. Bainen behar gare mintzatu, gure mintzairaren arabera.

Aita, dio Semeak, huna non naizen, lurrerat jaustera gizon eginez, aphaltze eta oinaze guzien jasaitera ekharria. Gizon hobendunak guri zor daukuna, nik pagatuko dut, gizon eginez. —Eta nik, dio Izpiritu Sainduak, eginen dut gauza miragarri hau, Birjina bat, Birjina gelditurik Salbatzailearen Ama izanen baita.

Hala egiten da. Jainko Aitak egortzen du Arkanjelu bat Mariari bere nahiaren erraitera; Izpiritu Sainduak egiten du Mariaren errai garbietan, gizonik gabeko konzepzionatearen mirakuilua, eta ordu berean Berbo Dibinoa gizon egiten da: *Et Verbum caro factum est.*

74 Zoin handi agertzen zaikun Maria mixterio hortan! Jainkoaren manuz, bertze orduz, lurrerat jausten zirenean Aingeruak, graziazen ekhartzera ethortzen ziren. Hemen ez da horrela. Aingerua bera da, errespeturekin aphaltzen dena. Ez du grazia ekhartzen, bainan berak egiten du agur, Maria graziaz betheari: *Ave gratia plena!*

Berrogoi mendez, lurrak iguriki izan du Birjina garbi, Salbatzailearen Ama izan behar zen hori; eta huna non orai, Trinitate Saindua bera, errespetu handirekin bezala haren ganat heldu den. Bere gorteko Printze distiantenatarik bat egortzen dio, agur eder hunen egitera: Agur graziaz bethea, Jauna da zurekin.

Gehiago dena; iduri du Trinitate Saindua Mariaren baimenari beha dagola; Aingeruak ez du deus manatzen; dago zer ihardetsiko duen Birjina garbiak. Eta noiz eta ere Mariak, mixterioa konprenitu ondoan, erraiten baitu hitz hau: *Huna Jaunaren zerbitzaria, egina izan dadiela zure hitzaren arabera*, Aingeruak ikusten du bere mandatua egina duela. Munduak badu bere Salbatzailea.

Agur egin dezagun guk ere hemen Maria Birjinari; Jainkoaren Ama da oraitik. Oraitik ere hasten da erreparatzen lehen emazteak egin zuen kaltea, eta suge gaxtoaren garaitzen. Hala nola, dio S. Irenek, mundua izan baitzen heriotzerat kondenatua, Birjina baten hutsaz, izanen da Salbatua bertze Birjina baten bertuteaz: *Quemadmodum morte adstrictum est genus humanum per Virginem, salvatur per Virginem*. Gauza bera dio S. Agustinek: Emazte batek ekharri dauku heriotzea, Emazte batek emaiten dauku bizia; Ebak galdu gintuen, Mariak salbatzen gaitu: *Per foeminam mors, et per foeminam vita; per Evam interitus, per Mariam salus.*

Ebaren obedientzia eskasak galdu zuen mundua; Mariaren obedientzia osoak munduari Salbatzailea emanen dio: *Huna Jaunaren zerbitzaria, egina izan bedi zure hitzaren arabera*. Obedientziazko hitz hori izan da Salbatzailea Mariaren sabelerat jautsarazteko seinalea.

## BORTZ-GARREN KAPITULUA

### *Maria bekaturik gabe kontzebitua*

75 Ez gaitezen joan urrunago, Salbatzailearen Ama izaiteko, emazte guzien artean hautatua izan zen Birjina osoki garbiaren pribilejio berezi batez hitz bat erran gabe.

Zoin garbia, zoin Saindua behar zen izan, Jainko-Gizonaren amatasunarentzat berexia izaiteko! Bai, eta hemen agertzen zaiku, Mariak xoilki, gizon guzien artean izan duen pribilejio eta fagore berezia.

Hori da, Maria izan baita bekaturik gabe kontzebitua.

Erran dugu gorago, guziek Adameren baitan bekatu egin dugula, eta guziak bekatu orijinalaz hobendun sortzen garela.

Lege dorphe hori guzientzat egina da, salbo batentzat, eta bakar hura da, Maria Salbatzailearen Ama izan behar dena. Nork ez du erreki ikusiko Jesusek, bethi danik bere Ama izaiteko hautu zuena, nahi izan duela, aintzinetik, bertute, edertasun, pribilejio guziez aphaindu?

Ez da beraz guzientzat errana izan Jaun Doni Paulo Apostoluaren hitz hau: Lehen gizona baitan guziek bekatu egin zutela: *In quo omnes peccaverunt* (Ad. Rom. V, 12) Bertze guzientzat bai; baina ez Mariarentzat.

Bazen bertze orduz, Asiako populuetan, lege ikharagarri bat, heriotzerat kondenatzen zuena, Errege egoiten zen tokirat joaiten zena, hartaz deithua izan gabe. Bada, Esther Erregiña, Israelgo populuko alaba zen. Ikusiz bere jendeki eta populuaren gainerat jaustera zohan zorigaitza, ausartzia izan zuen, Asuerus Errege eta bere senharraren aintzinean agertzekoa, hartaz deithua izan gabe. Ikustearekin ordean Erregea, bere majestate guziaz inguratua, urrezko alki baten gainean jarria, bihotza ttipitu zitzaion eta erorizen flakatua erregeren oinetan.

Hori ikustearekin Errege altxatu zen, joan zen bere espos maitearen ganat, bere besoetan sustengatu zuen eztiki, erraiten ziolarik: «Zerta-



ko beldur izan? Ez zare hilen; heriotzeko lege hori bertze guzientzat egina da, baina ez zuretzat. *Non morieris; non enim pro te, sed pro omnibus, haec lex constituta est.*»

Mariaren itxura zen Esther Erregina. Mariak ere, bizian sartze-arekin entzun du zeruko boza bat erraiten ziona: Ez, ez; bekatuaren legea ez da zuretzat egina, baina bai, bertze guzientzat. Ez dezazun beraz beldur izan, oi! haur benedikatua. Ezen grazia aurkitu duzu Jainkoaren begien aintzinean: *Ne timeas, Maria, invenisti enim gratiam ante Dominum.* Bertze guziak bekatuaz goibelduak diren denboran, zu, osoki ederra eta garbia zare: *Tota pulchra es, et macula non est in te.*

Esther Erregina bertzalde, Maria bekatu gabe kontzebituaren bertze asko itxura aurkitzen dire, Lege Zaharrean. Noeren arka, mundu guzia uhaldean pulunpatua zen denboran, salbo bakarrik egon zena; Moisek su pean ikusi zuen sasia eta hargatik ez erretzen, ez sunsitzen; baratze ontsa hetsi hura, «*bortus conclusus*» zointan ez baititake nihor sar gaizki egilerik, eta zenbat bertze itxura, Mariaren Saindutasun perfetaz mintzo zaizkigunak!

76 Nola zaiteken bertzela? Nola jasan zezaken, Jainko Seme, Gizon egin behar zenak, bere Amatzat hautatu zuena, memento bat ere izan zadien debruaren gatibotasunean?

Gure bihotzeko sentimendu guziak gauza horren kontra dohazi; eta ez dezakegu onhets den mendrena, eta memento batentzat ere, Maria bekatuaz zikindua izan zaitekela.

Jesu-Kristoren odolak behar zuen mundua erosi eta salbatu; baina odol hura, Mariaren bihotz garbian behar zuen hartu. Zer egin du Jesu-Kristok? Bere Jainkozko bertutea altxarazi du odol harren ithurritat, saildu eta garbi haren begiratzeko, debruaren pozoin guzietarik. Hori zor zion bere saindutasunari, zor zion ere, ordutik bere amari ekhartzen zion amodioari.

Ez gaitezen beraz hemen mintza bertze guzientzat egina den legeaz; egia da Maria Adameren haurra zela, bertze guziak bezala; hartu du bekatu orijinalaren zorra, baina, Jainkoaren nahi batez, ez du hartu bekatuaren pozoina.

Jesusen Ama izan behar zen, Jainko gizon bati zohakon bezalakoa, osoki Saindua, osoki garbia. Ez gaitezen beraz beldur izan erraiteko: Jesusek gauza hori egin ahal eta nahi izan badu, Maria garbia izan da bere konzeptionean. Ahal izan duela, nork duda izan dezake, haren Jainkozko bothereaz gaizki pentsatu gabe? Eta nahi izan duela, nork

orobat duda izan dezake, bere amarentzat izan behar zuen amodioa laidozki ukhatu gabe?

Eliza katolikoaren sinheste hori, aurkitzen dugu klarki, lurreko parabisuan Jainkoak sugeari erran ziozkan hitz hautan: «Etsaigoak emanen ditiat, hire eta emaztearen artean; harek lehertuko dauk burua, eta hik, alferretan nahiko duk haren zango zola ausiki».

Erraiten ahal balitz, Maria bekatu orijinalean kontzebitua izan dela, balaiteke beraz denbora bat, zointan, Maria debruaz bentzutua eta sugiaz ausikia izan baita. Satanek luke orduan erraiteko, Mariaren nautsi izan dela, eta, Adameren bertze haur guziak bezala, bekatuaren ibai pozoindatuetan pulunpatu duela.

Bainan, zer laiteke orduan Jainkoaren hitz hau: Harek lehertuko dauk burua: *Ipsa conteret caput tuum?* Emazte baten medioz debruak lehen gizona tentatu zuen bezala, nahi izan du Jainkoak, debrua bera ere, emazte batez bentzutua izan zadien: *Ut qui vicerat per foeminam, vinceretur per ipsam.* (S. Bernard).

- 77 Asko eretikoek erran nahi izan dute, ez zuela nihork, hamabortzgarren mendea artino, gauza hortan sinhesterik izan. Errex litzaiket begietarat emaita, S. Bonabentura hamahirur-garren mendean, hamekagarrenean S. Anselmo eta bertze hainitz. Gohazen oraino beherago. S. Ildefonsok dio, zazpi-garren mendean: «Birjina Saindua, bekatu orijinaletik salbo izan da»(1). Oraino lehenago, S. Jeromek dio: «Gizonen pozoinetik ez du deus izan Mariak»(2). S. Agustinek, erran ondoan, gizon guziak Adameren bekatuarekin sortzen direla, ez du nahi aiphatua ere izan dadien Maria, bekatuaz den bezinbategan(3). S. Anbrosiok dio: «Bekatu guzietarik garbi izan da Maria»(4).

Bertzalde, hori da Fedezko artikulua eta egia bat, Eliza katoliko guziaren baimenarekin eta bozkario handitan, Pio IX<sup>en</sup> Aita Saindu eztiak Eliza guziari adiarazi diona. Ederki beraz akabatuko dugu kapitulu hau, Pio IX<sup>en</sup> Buldan hartzen ditudan hitz hautaz: «Jainkoaren beraren ganik heldu dela erakaspena, erraiten daukuna: Birjina Maria guziz dohatsua, bere konzepzioneko lehen mementotik, Jainko guziz botheretsuaren grazia eta pribilejio berezi batez; Jesu-Kristo munduaren Salbatzaileak izan behar zituen merezimenduen bertutez, izan dela be-

---

(1) Ildeph. De Virg. Mar.

(2) D. Hieron. in Ps. LXXVII.

(3) S. Agust. L. de Nat. et Grat. CXXXVI

(4) D. Ambr. In Ps. CXVIII.

katu orijinaletik osoki begiratua; hori dela sinhestea, girstino katolicoek fede fermu eta hazkar batekin bethi atxiki behar dutena»(1).

Horra Aita Sainduaren hitzak. Aita Saindua ez daiteke errebelatzen, ez gezurrerat lerra, Erlijioneko gauzez Elikatzaile Katolikoari mintzo denean.

Gauza bat dugu beraz xoilki egiteko: fede bizi batekin sinhestea, jadan, gure bihotzak amodio handirekin onhesten zuen egia hau: Maria bekaturik gabe kontzebitua izan da.

---

(1) Pius IX. Bull. Ineffabilis Deus.

## SEI-GARREN KAPITULUA

### *Jesusen sortzea*

78 Erran dugu nola obratu zen, Nazaretheko etxe xumean, Inkarnazioneko mixterio adoragarria.

Gabriel Arkanjelua ethorri zen Maria Birjina gaztearen ganat, Trinitate Sainduaren nahien mandatari. Jakin zuenean Mariak, Salbatzaille aginduaren Ama bilhakatuz, Birjina geldituren zela, eman zuen bere baimena. Ordu berean, Berbo Dibinoa, Trinitate Sainduko bi-garren presuna, egiazki gizon egin zen, erran nahi da, Birjina Mariaren sabelean hartu zituela, guriak bezalako gorphutz bat eta arima bat, Izpiritu Sainduaren obraz eta bertutez.

S. Anselmek erraiten du hitz eder hau: Jainkoa gizon egin da, gizona Jainkoaren herrunkarat altxatzeko: *Deus tuus factus est homo ut homo fieret Deus*. Gizon egin da, Jainko gelditzen zelarik; ez zaiteken bertzela, ez baita mudantzarik izaiten ahal Jainkoa baitan. Bainan, Jainko gelditzen zelarik, gizonaren naturaleza hain hertziki hartu du bere ganat, non, bi naturaleza horiek, Jainkoarenak eta gizonarenak ez baitute presuna bakar bat baizen egiten. Theologalen erakaspenak eman nahi baginitu hemen, hainitz luze laiteke; eta bertzalde, Jesusen bizia, mirakuiluak, erakaspenak, heriotzea, phiztea ikusiz, den gutienerako dudarik gabe agertuko zaiku, Jainko eta gizon dela denbora berean.

Bederatzi ilhabete iragan ziren Inkarnazioneko mixterioa zeruaren eta Mariaren artean obratuz geroz, Nazaretheko etxe gordearen sekretuan. Orena ethorria da. Lau mila urthe hetan munduak igurikitzen zuena, Patriarkek eta Profetek hain othoitz kartsuekin galdegiten zutena, Jesus, Mariaren errai garbietarik ilkitzera doha, lili xuri eta eder bat bere landaretik ilkitzen den bezala.

Aspalditik erran zuen Profeta batek Jesus Bethleemen sorthuko zela. Bethleeme zen Judeako herri ttipi bat; eta Mariak Nazarethen zuen bere egoitza.

Bainan zer da Jainkoak egin ez dezakenik? Hala behar bada, bere hitzean xuxen aurkitzeko, mundu guzia mugituko du. Eta Erromako Enperadore pagano bat izanen da, berak ez dakielarik, Jainkoaren xede soberanoen zerbitzaria.

Denbore hartan, dio S. Luke Ebanjelistak, Auguste Erromako Enperadoreaz manua emana izan zen, haren botherearen pean ziren guziak kondatuak izan zitezten. Hartarakotz, joan behar zuen bakotxak bere familiaren edo arrazaren sor lekurat bere izenaren emaitera. Utzi zuten beraz Mariak eta Josepek, Nazarethen zuten egoitza, eta bideari eman ziren, Bethleeme deitzen zen Dabiden herrirat joaiteko; ezen, Dabide Erregearen odolekoak ziren.

Han zirelarik ethorri zen Salbatzailearen sortzeko oren Saindua. Jainkozko sortze bat izan zen. Hala nola baitire iguzkitik ilkitzen iguzkiaren arraiok, eta berina garbi bat barna joaiten, berina hura den gutiena goibeldu gabe, kontrarat distiadura berezi bat emaiten diotelarik, hala sorthu zen Jesus Maria ganik. Garbi bere konzeptionean, garbi, Jainko Semeak gizon bizia haren sabelean hartu zuenean, garbi eta bethi Birjina gelditu zen Maria, Jesus sorthu zenean.

79 Non sortzen da bada munduaren egilea eta nausia? Heia txar batean. Hiriko etxe eta ostatuetan, ez zen izan lekurik eta aterberik Maria eta Josepentzat(1). Bortxatuak izan ziren, hiri inguruetan leihor baten bilhatzera. Horra zerk erran arazten dion gisa batean bederen, Jaun Doni Joanes Ebanjelistari: «Ethorri da bere etxerat, eta bereek ez dute errezibitu»(2).

Horra beraz, O Jainko guziz handia, zeruaren eta lurraren Egilea, gizon eta kreatura guzieren Nausia! Horra zure palazioa eta gaztelua! Etxola txar bat leihortzat, lasto poxi bat ohetzat!

Bainan Jainkoak ez du deus bere zuhurtziaren xede bat gabe egiten. Horren egintza guzietan bada erakaspén bat.

Jautsi zen Jesus lurrerat bekatuaren borrazeko, bekatuak egin zaukun eta egiten daukun kaltearen erreparatzeko eta sendatzeko. Bada, urgulua, plazeren, atzeginen eta mundu huntako gauzen amodioa, horra zer diren bekatuen ithurri berezienak: Adame lehenaren urguluak galdu zuen mundua: Adame berriaren umiltasunaz izanen da salbatua. Iduritu zitzaion Ebari frutu debekatua ederra eta gustu onekoa zela;

---

(1) Quia non erat eis locus in diversorio. (S. Luc. II, 7).

(2) In propria venit, et sui eum non receperunt. (Joan I, 11).

jan zuen, eta eman Adameri jatera(1). Jesus, gauza beharrenez berez gabetua agertzen zaiku, Ebak atseginarentzat zuen gutiziaren borratzeko.

80 Salbatzailea sortzen da beraz aphaltasun handiengan, pobrezian, guzietz ahantzia. Ez ditutzue entzunen, haren sehaskaren inguruetan, lurreko haurren sortzean entzuten diren bozkariozko kantu eta oihuak. Beha zazue, eta erran, eian izan daiteken aphaltze osoagorik. Ez ditu xoilki bere Jainkozko majestatea eta handitasuna itzaltzen, baina oraino gizontasuna bera ezartzen, daiteken beheena.

Nola, bere pobrezia eta mortifikatze osoan, kondenatzen duen plazerentzat eta lurreko gauzentzat dugun amodioa! Zerua eta lurra egin dituenak, etxola txar bat du palaziotzat; urrea eta zilharra hitz batez lurraren erraietan eman dituenak, lasto poxi bat ohetzat, xatar errores batzuek jauntzizat.

Gauza beharrenez gabetua, hotzak dago, nigarretan dago.

Bai nigarretan dago, Jesus gure Salbatzaile amultsu eta adoragarria. Baina detzagun altxa gure bihotzak. Erraiten dauku S. Bernatek, nigar egiten duela Jesusek, baina ez, bertze haurrek bezala, edo gauza berarentzat: «*Plorat quippe Christus, sed non ut coeteri, aut certè non quarè coeteri*». Bertze haurrek egiten dute nigar flakezaz; hunek egiten du nigar arrazoiez, amodioz eta urrikalmenduz; bertzek egiten dute nigar bere miseriaren gainean; hunek, gure bekatuen gainean; bertzek nigar egiten dute, zeren berekin garraiatzen baitute bekatuaren pena; hunek, zeren heldu baita, bere nigarrez bekatuaren ezeztatzera eta bekatutik gure garbitzera.

---

(1) Vidit igitur mulier quod bonum erat lignum ad vescendum et pulchrum oculis, aspectuque delectabile; et tulit de fructu illius et comedit: deditque viro suo, qui comedit. (Genes. Cap. III, 6).

## ZAZPI-GARREN KAPITULUA

### *Jesusen sortzea — (segida)*

81 Jesus Jainko Semearen sortze aphas eta umilha izan daiteken gauza espantagarrienerarik bat da, gure adimenduarentzat. Bainan orhoit gaitzen naturalezaz goragoko bizi batean garela hemen; eta hastapenean gare oraino; hobeki emana izanen zaiku, geroxago, ezagutzea eta adoratzea Jesusen ekharritasun Jainkozkoa gure alderat.

Jadan ikusi dugu. Izan zaiteken pobrezia handienez sorthu izan zen Jesus gure salbatzailea. Nahiz zerbeit erran dugun aintzineko kapitulan, behar gare barnago oraino sarthu mixterio hortan.

Nahi zuen Jesusek guzien gaintetik, izan gu guzien anaia. Hartzen du hortarakotz gizon naturaleza, bere miseria guziekin, herbailenen eta errumesenen iduriko izaiteko. Gure konfientzia eta amodioa nahi zituen irabazi: hortarakotz ttipi eta flako egiten da. Gordetzen du bere Jainkotasuna, itzaltzen bere majestatea; haur ttipi haren baitan, ez da amultsutasuna eta amodioa baizen ageri: *apparuit benignitas*.

Isaias Profeta, Jainkoa ikusi ondoan bere gloriaren erdian, oihuz zagoen ikhararekin: «*Voe mihi... Regem Dominum exercituum vidi oculis meis: zorigaitz niri, zeren ikusi baitut ene begiez Jainko harmaden Erregea*». Bainan guk zer beldur dugu izaiteko? Jesus agertzen zaiku amodioz eta graziaz beztitua, flako, nigarretan, eta gisa hortako itxurarekin non, beldurra baino hobeki, urrikalmendua baitu gu baitan sor-arazten.

S. Bernaten bihotza ezin zagoen gozoz eta amodioz, mixterio ezti hortaz orhoitzen zenean. Erraiten zuen: Jainkoa, bere majestatean eta handitasunean agertzen zaitanean, miresten eta laudatzen dut: *Magnus Dominus et laudabilis nimis*; bainan, zoin den Jainkoa maitagarri haur ttipi baten itxuran: *Parvulus Dominus et amabilis nimis*.

Bainan, aphaltzen bada Jainkoaren Semea, Inkarnazioneko mixterio adoragarri hortan, nola aldiz, gu, altxatzen gaituen! Gure anaia nahi izan da bilhakatu: *Deus tuus factus est frater tuus: zure Jainkoa egin da zure anaia*. Gizon eginez, gure iduriko egin da osoki, salbo bekatua, eta gure ganat aphalduz, bere ganat altxatu gaitu.

Ikus dezagun, zer eginbide dauzkigun emaiten, Jesu-Kristo Jainko-Gizonaren gure ganako ekharritasun horrek. Gurekin gizon egin nahi izan denaz geroztik bilhakatu behar gare harekin, Jainko batzuek bezala.

82 Hori nahi du. Jainkoa, dio S. Agustinek, gizon egin da, gure Jainkoztatzeko: *Deus homo factus est, ut homo fieret Deus*. S. Krisostomok gauza bera dio: Jainkoaren Seme maitea egin da gizon, gizonen haurrak Jainkoaren seme egitea gatik.

Har detzagun beraz, Jainkozko sentimenduak! Jesu-Kristoren anaiak gare, Jainkoaren haurrak eta zeruko erresumako premuak!

Zor zoriona! Bekatuaz ezinduak ginen, debruaz bentzutuak; ez zaiteken guretzat salbamendurik; ez ginduen Jainkoaren justizia garratza baizen igurikitzeke. Ethorri da gure ganat, Bethleemeko Haur ezitia, bihotza amodioz eta urrikalmenduz bethea. Hilak ginen, Adameren bekatuaz, eternitateko biziarentzat, eta erran dauku: Heldu nitzaitzue, ni, biziaren emaitera; bizi zaizte ene biziaz, ezen zuen anaia naiz. Ikus zazue zuen iduriko egin naizela, zuek ene iduriko egitea gatik.

Oi! har dezagun esker onekin, Jainko Gizon eginak hedatzen daukun esku Salbatzailea. Handi egin gare, Jainko-Semearen Inkarnazionez; preza dezagun gure handitasuna, Elizako Aita batek erraiten daukun bezala: *O homo! agnosce dignitatem tuam*.

Jesu-Kristoren anaiak garenaz geroz Inkarnazionez, gure pentsamendu, sentimendu, hitz eta egintzetan, errespeta dezagun ahaidetasun saindu hori. Orduan, Jainkoa guretzat amodioz gizon egin den bezala, gu ere harekin, Jainko batzuek bezala egingen gare: *Deus tuus factus est homo ut homo fieret Deus*.



## ZORTZI-GARREN KAPITULUA

*Jesus Bethleemeko etxolan — Maria eta Josepe — Artzainen  
adorazionea — Errege Magoen adorazionea*

83 Jesusen lehen adoratzaileak eta ere perfetenak izan ziren Maria eta Josepe. Nork erran dezake, zenbat amodio eta errespeturekin, Mariak bereziki adoratu zuen bere Jainko eta Semea, sehaskan lasto poxi baten gainean etzan zuenean! Zenbat amodio eta errespeturekin unkitu zituen bere ezpain garbiez, Jainko-Gizonaren eskuak!

O Maria! emana balitzaiku ahala, zure bihotzean irakurtzekoa! Ikusten ahal bagintu zure sentimenduak, zure amodioa! Zer amodioa! Zer bozkarioa! Bainan zer errespetua denbora berean! O Maria! sehaskan eman duzun haur ttipi hori, zure Semea da, eta denbora berean zure Jainkoa! Eta badakizu!!! O Maria egiazko amodioaren Ama eta mirail osoki perfeta, zure sahetsean ahuspez emaiten naiz; zurekin adoratzen dut zure Semea, ene Jainko eta Salbatzailea! Bainan irakuts diezadazu haren maitatzen, zuk maite zinuen bezala.

Eta S. Josepe! Mariaren Espos saildu eta garbia! Hura ere Jesusen sehaskaren oinetan zagoen, Mariaren aldean. Haren izpiritua deboilatatu zuten duda guziak, aspaldion suntsituak dire. Badaki haren Esposa nahiz ama bilhakatu den, bethi garbi eta bethi Birjina egon dela. Eta Mariarekin adoratzen du mixterio ezin erranezkoa, bere umiltasunean espantitzen delarik hoin hurbildik mixterio horren lekuko izaiteko hautatu izaitez.

Ah bai! Etxola hura ttipia da eta errumesa; bainan, zoin den handia fedearen begietan, eta nola zeruko argiez distiatzen duen! Bethleemeko jendek, eta bazter herrietarik ethorri direnek ez dute asmatzen ahal han den gertakari Jainkozkoa.

Ez du nahiko, hargatik, Jainkoaren Semeak, luzeki gizoneri gordea egon dadien haren sortzea. Deithuko ditu laster Mariari eta Joseperi

juntatuko diren adoratzaileak. Ezen gizonez ezagutua izaiteko, eta he-  
kien salbatzeko ethorri da lurrerat.

Baziren tenore berean, Bethleemeko inguruetan, artzain batzuek  
bere artaldean zain zagozinak.

Bet-betan Aingeru bat agertu zitzaionten; zeruko argi batek ingura-  
tu zituen eta eman ziren beldur handi batean.

«Eta Aingeruak erran zioten: Ez dezazuela beldur izan; huna non  
ekhartzen dautzuetan berri on bat, populu guziarentzat bozkario han-  
dia izanen dena.

Sortu zaitzue, egun huntan, Dabiden hirian, Salbatzaile bat, Kris-  
to zuen Jauna.

Eta huna zertarik ezagutuko duzuen; haur bat aurkituko duzue,  
xatarrez inguratua eta sehaska batean etzana»(1).

Denbora berean, Aingeruari juntatu zen zeruetako izpirituen oste  
handi bat, Jainkoa laudatzen zutela, eta huna zer zioten bere kantuetan:  
«*Gloria in excelsis Deo et in terra pax hominibus bonae voluntatis*(2).  
Gloria Jainkoari zeru goretan, eta bakea, lurrean, nahikunde ona duten  
gizoneri».

Itzali zirenean Aingeruak, artzainek batek bertzeari erran zuten:  
Gohazen Bethleemerat eta ikus dezagun Jainkoak zer erran daukun,  
eta zer gertatu den.

- 84 Joan ziren beraz lehia handirekin; eta aurkitu zituzten Maria, Jo-  
sepe, eta HAURRA sehaskan emana. Jainkoak argitu zituen hekien ari-  
mak; haur ttipi hortan ezagutu zuten Mesias agindua, eta belhauniko  
aphaldurik, adonatu zuten. Bere pobrezian emaiten ahal zituzten dohain  
ttipiak, haren oinetan ezarri ondoan, joan ziren Jainkoaren miresgarrien  
bere laguneri erraitera.

Zoin ezti, eta ttipientzat amultsu zaikun hemen agertzen gure Jain-  
koa eta Salbatzailea!

Ezen zoineri da lehenik agertzen? Nori lehenik agintzen du zeruko  
kantuak, bihotz ona duten gizonen bakea? Artzain pobre eta errumes  
batzueri. Bainan naski, bihotz garbi eta xuxenak baitzituzten. Bere bi-  
zitze aphas eta gordean, ez zituzten ezagutu aberastasunak, atsegin eta  
errestasun lanjerezkoak. Ikus detzagun hemen Jainkoaren probidentzia-  
ren bideak. Judeako aberatsak eta handiak urguluz betheak eta han-  
tuak ziren. Heiek nahiko eta igurikitzen zuten, Errege botheretsu eta

---

(1) S. Luc. Cap. II, 10-11-12.

(2) Luc. II, 13-14.

gloriaz inguratua izanen zen *Mesias* edo Salbatzaile bat. Aingeruek eman baliozkate Salbatzailearen seinaleztat, etxola txar bat, lasto poxi bat, xatar errumes batzuek, hekien urgulua aphalduko othe zen? Ez naski. Geroago, ez zuten Jesus ezagutu nahi izan, mirakuilu handienez erakusteren eman zuenean bere Jainkotasuna. Nola beraz Mesias agindutzat eza gutuko zuten, ikustearekin aphaldua, eta mundu huntako ez deusenentz hurrunkan jarria? Zoin den bethi egia hitz hau: Jainkoak urgulutsueri kontra egiten du, humilak direneri aldiz emaiten du grazia. Gizonak deus ez dire; Jainkoari xoilki zaio zor ohore eta gloria: *Gloria in excelsis Deo*; gizonak bilhatu behar duena da bakea: *pax hominibus bonae voluntatis*; eta bake hori aurkitzen da bihotzeko umiltasunean eta garbitasunean.

85 Ez zen hargatik pobre eta ttipientzat xoilki ethorria Jesus, baina guzientzat. Pobre eta aberatsak, ttipi eta handiak, guziak nahi ditu bere ganatu eta salbatu. Eta horra non artzainen ondotik, Errege Magoak heldu diren haren adoratzera.

Maria eta Josepe Bethleemen zirelarik oraino HAURRAREKIN, ager-arazi zuen Jainkoak zeruetan, ordu arte ikusia izan ez zen izar bat. Errege Magoek ikusi zuten Balaam Profeta mintzatu izan zen izar hura: konprenitu zuten, Jainkoaren argi batez, zer erran nahi zuen izar harek, eta Mesias sorthu zela.

Hirur ziren Errege hek: Gaspard, Melxior eta Balthazar. Izarra ikusi zuten bai, hari jarraikiz eman ziren bideari, Judeari buruz. Deus ez zen gai izatu hekien fede khartsuaren bentzutzeko: bide luzea; lanjer eta hirriskuak; denboraren dorphetasunak, oro meziprezatzen dituzte. Bazituzten, ez da dudarik, adixkideak, familiako lokarri eztiak, bere erresumetako jendeen kargua; deusek ez ditu baratzen. Ikusten dute Jainkoa mintza zaiotela; eta Jainkoa mintzo denean, nor nahi izan dadien behar du ixildu, eta haren hitzari jarraiki.

Iguzkia sortzen den aldetik ethorri ziren beraz Errege Magoak, Jerusalemeko hirirat. Harat hurbiltzearekin, izarra itzali zitzaioten. Baina ez zen, hortako, hekien fedea ttipitu. Badohaz Herodes Erregearen ganat eta galdegiten dute: «Non da berritan sorthu den Juduen Erregea? Ikusi dugu haren izarra, iguzkia sortzen den aldean, eta ethorri gare haren adoratzera.

Hitz horiek entzutearekin, Herodes deboilatu zen eta harekin Jerusalemeko hiri guzia.

Bilarazi zituen Aphezen Aintzindariak eta populuaren Izkribak eta galdegien zioten, zoin lekutan Kristo behar zen sorthu.

Erran zioten: Bethleeme Judeakoan, ezen huna zer izkribatu duen Profetak: Eta hi, Bethleeme, ez haiz, Judeako hiri aiphatuen artean, ttipienetarik izanen; ezen, hitarik ilkiko duk Israelgo populua gidatu behar duen buruzagia.

Herodesek deithu zituen orduan ixilik Errege Magoak, eta galdegin zioten artha handirekin, noiz bada izarra agertu zitzaioten.

Bethleemerat egortzen zituelarik erran zioten: Zohazte, jakin zatzue ongi haurraren berriak; eta aurkitu duzuen ondoan, zatozte niri erraitera, ni ere joan nadien haren adoratzera.

Erregeren hitz horiek entzutearekin, eman ziren bideari; eta huna non beren aintzinean ikusten duten izarra; heldu zenean Haurra zen lekuaren gainerat baratu zen.

Izarra ikusi zutenean, bozkario handitan eman ziren.

Etxolan sartzearekin, ikusi zuten Haurra, Maria bere Amarekin, eta ahuspez emaiten zirelarik adoratu zuten. Agertu zituzten bere izan aberatsak, eta egin zioten urrearen, insentsuaren eta mirraren ofrenda.

Amets batean izan ondoan abisua, ez zitezen joan berriz Herodesen ganat, bertze bide batez itzuli ziren bere herrietarat.»

86 Uste izaiten ahal dugu geroago bere herrietan S. Thomasez bathaiatuak izan zirela.

Ohore handizat dagoka Koloñeko hiriak, hekien Erreliken jabe izaita.

Gutartean berean, Donibaneko herri eder eta giristinoak aspalditik badu debozione osoki berezi bat Trufaniako bestarentzat eta Errege Magoentzat.

Nondik ethorria den gauza hori, eta zer haste izan duen, ez dugu jakin ahal izan. Erran dezagun xoilki baduela jadan zenbeit urthe, Donibaneko eliza ederrean aurkitzen eta ohoratzen direla Errege Magoen erreliketarik zerbeit.

Zoin miresgarria agertzen zaikun Errege hoikien fedea eta obediencia osoa! Ikusi dute izarra Salbatzailearen sortzea irakusten diotena: jarraikiko zaizko. Bainan bide asko egin beharko dute, eta menturaz lanjer eta hirrisku hainitzen erdian. Zer dohakote? Jainkoak deitzen ditu: Jainkoaren deiari jarraikiko dire.

Bainan ere, Jesus aurkitzearekin, Jainko haur ttipi eginaren oinetan eman zirenean, zer sari ezti eta handia! Nola benedikatu zituen Jesusek, eta kontsolazionez gainditu hekien bihotzak!

Sari eta bozkario saindu berak dagozka bethi Jesusek, nahikunde khartsu batekin bilhatzen duten arima guzientzat.

Errege Magoek bezala, bilha dezagun Jesus, zer nahi gertakarien, dorpheenen beren erdian. Aurkituren dugu, eta Errege Magoak bezala, Jesusen oinetan, gozo eztienez eta handienez gaindituak izanen gare.

Ofri detzagun heiek bezala, urrea, erran nahi da, amodio bero bat; insentsua erran nahi da gure othoitz khartsuak, altxa ditezen usain on baten pare, Jainkoaren tronuaren oinetarat; mirraren ofrendak aldiz seinalatuko du gorphutzeko jaidura tzarren bentzutzea eta hil-araztea.

Magoen adorazionearen orhoitzapena Elizak ohoratzen du Trufaniako phestan. Horra zertako deithua den oraino egun hori, Erregeen eguna.

## BEDERATZI-GARREN KAPITULUA

### *Jesusen bizitze gordea Nazarethen*

87 Ez da gure xedea Jesusen bizia xeheki kondatzekoa.

Ebanjelioak haren lehenbiziko urtheren gainean erraiten dituen asko gauzez ixiltzen garelarik, sar gaitezen Nazaretheko etxean, eta ikus dezagun Jesusek, Mariak eta Josepek han zaramakaten lanezko bizitze gorde eta saindua.

Ebanjelioak ez dauzkigu bi hitz baizik erraiten Jesusen biziko denbora hortaz: *Et erat subditus illis* (S. Luc. C. II, 51): «Obeditzen zioten Mariari eta Joseperi».

Bainan, Nazaretheko etxe ttipi hortan sartzen bagare fedearen begiekin, zer erakaspén ederrak aurkituko ditugun! Jesus, obedientzian aphaudia, kreatura batzuen aintzinean! Zer miraila, zer etsenplua guzientzat, bainan bereziki haurrentzat! Zerk gibela zezaken Jesus bere Jainkozko zuzenez baliatzetik? Jainko zen, eta beraz, bere baitan zuen Jainkozko botherea, bere baitan zituen ere zuhurtziaren eta saindutasunaren aberastasun guziak. Jainko zen; hari zen beraz iduriz, ez obeditzea, bainan bai manatzea.

Bainan, gizon bezala, ethorria zen guri bertute guzien erakustera. Gizon bezala, obeditzen du beraz, ez xoilki bere Aita Eternalari, bainan ere Amatzat hautatu duen kreatura garbiari eta S. Joseperi.

Ikhas dezagun hemen, obedientziako bertutearen edertasuna. Zer da bekatua? Jainkoaren alderako obedientzia eskas bat. Adamek eta Ebak ez zuten nahi izan, Jainkoaren manuari obedientzia ekharri, eta horra nola galdu ziren eta guziak berekin galdu gintuzten. Jesus ethorria zen mundurat bekatuak makurtu zituen gauza guzien xuxentzera; hartarakotz, haren lehenbiziko lana izanen da obedientzia osoaren mirail perfeta izaitzea, obedientzia eskasaz mundua galdua izan zen bezala.

Bekatu guziak, Jainkoari zor zaion obedientzia zuzenaren, eta hainitz aldiz denbora berean, Jainkoaz emanak diren autoritateen alderateko obedientzia eskasetik heldu dire. Familietako nahasmendu hainitz ez othe dire, hek ere ithurri beretik heldu? Zenbat haur ikusten diren, Jainkoak burasueri eman dioten nausitasuna ezagutzeko orde, bere buruen nausi eta gida izan nahi dutenak! Hortik hainitz makur, hainitz desmasia, eta menturaz, hainitz zorigailtz eta nigar khirats familietan. Ikas dezatela haurrek, Jesusi behatuz, burasueri buruz, aphaltuak egoiten. Jesusek berak, nahiz Jainko zen, obedientzia praktikatu duenean Maria bere Amaren eta Joseperen alderat, nor izanen da aski atrebitua bertzela egin nahi izaiteko, Jainkoak egin duen, eta, naturalezak berak irakusten daukun lege bati, ez nahi izaiteko jarraiki?

88 Nazaretheko bizitze gordea bertze erakaspen bat zaiku oraino.

Erran dugu jadanik, pobreen, jende xehe eta langileen herrunkan nahi izan zuela Jesusek sorthu. Josepe, aita-ordetzat hautatu izan zuena, zur-gina edo zur lanetan hari zen gizon bat zen.

Lana da gizonaren bizi legea. Jainkoak gizona egin zuenean, eman zion lurreko Parabisuaren zaintzeko eta arthatzeko kargua. Geroago, Adameren bekatuaren segidan, lan dorphea, lan penatu eta nekatua eman zion gaztigutzat, erraiten ziolarik: «zure izerdiaren gostuz beharko duzu, egun bakotzeko zure ogia irabazi».

Jainko-Gizonak, nahiz saindutasuna bera zen, burua aphaltu zuen, Adameren bekatuaren kontra ekharria zen lege horren pean.

Guziak, Nazaretheko etxean, lanean bizi ziren. Maria, sukaldeko eta garbitasuneko lan xehetan; Josepe zur lanetan. Jesusek Maria eta Josepe laguntzen zituen.

Zer ikustate ederra zeruarentzat eta lurrarentzat! Oi langileak! Oi zuek, esku lanetik bizi zaretenak! Itzul zatzue begiak Nazaretheko etxe alderat. Ikus zazue Jesus bere esku lanean. Zuen Jainkoa da; bainan aphaltua, zuen iduriko egina, zuen anaia bilhakatu nahi arteraino: *Deus tuus factus est frater tuus*. Ez ahalke izan, ez, zuen langile estatuaz. Jainko batek, gizon egitearekin, beretzat hautatu duenean, nork izan dezake estatu hortaz ahalke?

Nazaretheko familia saindua agertzen zaiku ere, giristino familiaren mirail osoki perfeta bezala. Mundutik urrunduak, gordeak bezala bizi ziren Jesus, Maria eta Josepe, nahiz hargatik, bere hauzo laguneren alderat, arthoski ekharriak ziren karitatezko obra guzietan. Othoitzak, karitatezko obrek eta lanak zituzten beraz hekien egun guziak bethetzen.

Bainan bizitze apha! eta mundua gutizat zagokan hortan, zer zeruko bakea eta zer zoriona! Zer elgarrentzateko amodioa! Hirur bihotz osoki garbi horiek ez zuten bihotz bat baizen egiten. Batek nahi zuena, bertzek nahi zuten; zeren guzien nahikundeak bertuteaz eta ongiatz gidatuak baitziren.

Familia giristinoek, heki jarraikiz, eta hek gidatzat hartuz, izan lezakete mundu huntan daiteken zorion handiena: esposek elgar garbiki eta sailduki maitatuz; haurrak bere burasoeri Jainkoaren amodioan sumetituak egonez; burasoek, bere haurretan ikusiz Jainkoaren kreaturak, zerukotzat eginak, eta zenbeit urtherentzat xoilki hekien eskuetan emanak. Zer bakea eta zer batasun laiteken horrela elgarren artean! Ez laitezke orduan ikus familietan, hain bihotz-min egin-garri diren eskatima, hasarreko eta nahi gabeak: espos batek bere lagunaren ganik deus ezin jasan; haurrak, bere burasoen nausitasun zuzenezkoaren kontra altxatuak; hitz batez, bakearen eta amodioaren leku ezitia izan behar laitekena, ifernu bat bezala egina.

Familia giristinoak, nahi duzue zorionaz gozatu, mundu huntan izan daiteken bezin batean bederen? Har zazue etsenplu Nazaretheko familia sailduan.



## HAMAR-GARREN KAPITULUA

### *Jesusen bizi publikoa edo ageria — Jesusen erakaspena*

89 Bere biziko lehen hogoi eta hamar urtheak, eraman zituen Jesussek Nazaretheko etxean, bizitze gorde eta lanezko batean. Ethorri ziren denbora eta orena zoinetan hasi nahi izan baitzuen bere bizi ageria edo publikoa.

Bainan Ebanjelioaren predikatzeari eman zen baino lehen, Joanes Batistak lekukotasun bihurtu zion, egiazki Mesias agindua zela.

Denbora hortan berean, mortuan zagoen Jaun Doni Joanes Batista, Jordaneko ur hegian. Penitentzia gogorrenetan bizi zen bera, eta penitentzia bertzeri ere predikatzen zuen. Jerusalemetik eta Judeako bertze alde guzietarik heldu ziren jendeak haren ganat, eta Jordaneko uretan bathaiatzen zituen.

Nor zen bada bere Semearen aintzinean bezala, Jainkoak egorri zuen Joanes Batista hura?

Zakariasen eta Elizabethen haurra zen; Elizabeth zen aldiz, kusina hura, zoinaren ikustera eta laguntzera joan baitzen Maria. Bisita hortan, bere erraietan Mariak garraiatzen zuen Salbatzaileaz, Joanes Batista garbitua izan zen bekatutik, sorthu baino lehenago. Jainko Aitak bere Semearen deia eta mandatari bezala hautatu zuen: haur gazte zelarrik oraino, joan zen deserturat eta han penitentzia dorpheetan bizi izan zen. Haren saindutasun handiaren aiphua entzunik, jende osteak joan ziren laster haren ganat eta huna zer erran zioten: «Ethorriko zaitzue ni baino handiago bat, eta ez dut merezi haren aintzinean ahuspez emanik ere, haren oinetako lokarrien laxatzea. Nik urean bathaiatzen zaituztet; harek Izpiritu Sainduan bathaiatuko zaituzte»(1).

---

(1) Matth. III, 11.

Hitz horietaz jadanik, lekukotasun bihurtzen zuen Joanesek bere Jainko eta Nausiari.

Egun batez, Joanesen ganat joaiten zen jende oste baten artean aurkitu zen Jesus. Joanesek bathaiatu zuen; bainan huna non Jesus uretik ilkitzen zelarik, zeruak idekitzen diren eta argi handi bat agertzen den; uso baten itxuran jausten den Izpiritu Saindua eta pausatzen Jesus-Kristoren buruaren gainean; eta boza bat entzuten da diona: «Zu zare ene Seme maitea, zointan eman baitut ene amodioa»(1).

Jesusen bizitze publikoa hastera zohan. Joanes azken Profetak erakutsi zuen Mesias agindua bezala. Jainko Aitak aldiz, adiarazi zuen zeruko boza batez, haren Seme bakarra zela.

90 Joanezez bathaiatua izan ondoan, barur egin zuen Jesusek, berrogoi egunez eta berrogoi gauetz. Horrela zen othoitzean eta mortifikazionean paratzen, Ebanjelioaren predikatzerara eta erakusterara.

Laster hautatzen ditu hamabi gizon pobre eta jakin gabe, bere lehen dizipulutzat izanen dituenak. Heiek izanen dire Jesusen hamabi Apostoluak.

Nehork ez du segurki igurikitzen eman detzadan hemen xeheki, Jesu-Kristoren erakaspén eta Jainkozko obra guziak. Liburu berezi bat behar laiteke hortako. Bainan erran behar daguna da, ez zuela behin ere munduak entzun erakaspén bat hain garbi eta hain saindua. Paganonetan izan ziren, jakintsun izpiritu handikoak, Sokrate, Platon, Aristote, eta bertze zenbeit oraino, bainan guti, ilhunbe beltzen erdian, argi poxi bat egin zutenak; hortarakotz, lan hainitz hartu behar izan zuten, Jainkoak hastapenetik gizonari eman ziozkan erakaspénetarik zerbeit bederen biltzeko. Bainan zoin flakoak, eta erran dezagun, zoin ez deusak diren hekien erakaspén ederrenak, Jesusen erakaspénen aldean!

Haste hastetik, eta hau da guzien prinzipioa eta burua, erakusten dauku nola behar dugun othoitz egin, eta berak lehenik, bere ezpain Jainkozkoetz, erraiten du othoitz miragarri hau: *Pater noster... Gure Aita...* eta segidan heldu direnak, Apostoluez ardura errana ez da dudarik, eta mende guzietako giristinoek arthoski geroztik erraiten dutena. Gure Aita! Jainkoaren Semea behar zen hitz horien erraitera auzartatzeko eta gure ezpainetan emaiteko. Aintzineko mendeetan Jainkoa ezagutzen zutenek nausi batentzat zagokaten. Jesus da lehenik erraiten daukuna, Jainkoa ez dela xoilki gure Kreatzaile, Errege eta Nausia, dela ere, dela bereziki, gure Aita on eta amultsua.

---

(1) S. Marc. I, 11.

Erakusten dauku ere Jesusek ez daitekela hil gure arima eta zertako garen munduan. Filosofo batek izkribatu zuen lehenago: «Heriotzean, oro akabo». Ciceron, paganuen artean izan den gizon jakintsun eta argituenetarik batek erran zuen: «Zerbeit badaiteke jasaiteko hiltzean; bainan hil ondoan, ez da, ez pena ez bozkariorik». Juduen artean berean, bethi-ereko bizia baitako sinhestea ilhuntzen bezala hasia zen eta baziren, Sabduzeendarrak deitzen zirenak, gorphutzen phiztea ukhatzen zutenak.

- 91 Bainan aldiz, zoin den klaroa eta argia, Jesusen erakaspena, gero biziaren gainean! «Zer baliatuko zaio gizonari, erraiten dauku, mundua bereturik ere, arima galtzen badu?»(1). Eta oraino: «Ez izan beldur gorphutza hiltzen ahal dutenez, bainan ez arima; bainan izan zaitte hobeki, arima eta gorphutza ifernurat egortzen ahal dituenaren beldur»(2). Zenbat ere mintzo den, arima zuzen eta justuak zeruan igurikitzen dituen zorionaz!

Klarki ere bere Apostolueri eta dizipulueri erakusten du, berritz oraino ethorriko dela mundurat, hilak phiztuak izanen direla, eta bakotxa juiatua bere eginen arabera. Inkarnazioneko, Erospeneko, Trinitate Sainduko mixterioak, gizonaren adimendu flakoak asma ez zezakeenak bere erakaspén Jainkozkoetan gizonari agertzen ditu; eta azkenean, Eliza, Elizaren autoritatea eta nausitasuna munduaren gidatzeko, gizonen argitzeko egian eta zeruko bidean; eta oraino, bekatuen barkamendua, Apostolueri eta hekien ondoko aphezari emaiten zioten botherearen medioz.

Zer erakaspén miragarria eta zenbat den gizonen izpirituez gorago-koa! Jainko bat izan zaiteken xoilki, horrela erakus zezakena.

---

(1) Matth. XVI, 16.

(2) Matth. X, 28.

## HAMEKA-GARREN KAPITULUA

### *Jesusen erakaspena (segida)*

92 Erakustaile soberano eta Jainkozko agertzen zaiku Jesu-Kristo, Jainkoari, gure arimari, bethi-ereko biziari dohazkoten gauzen gainean. Bainan zoin ongi ere erakusten daukun Jainkoaren, gure lagunaren eta bertutearen amodioa!

Gure arima ez da xoilki izpiritu eta adimendu bat egiaren ezagutzeko gai dena; bihotz bat da ere, maitatzeko egina.

Bada, Jesusek egiaren argiak gure izpirituari emaiten dituen bezala, gure bihotzari adiarazten dio zer behar duen maitatu eta zer legeri jarraiki.

Eta lehenik, galdegiten dio gizonari, ordu artino, paganoek bereziki asmatu ere ez zuten gauza, ukho egin dezan bere buruari. Hitz espantagarria! Bainan beha dezagun hurbildik. Zer zen gizonen zauri eta eritasun handia, Jesu-Kristo gure sendatzera ethorri zenean? Bere buruaren amodio sobraniozkoa eta errebelatua. Gizonak ez zituen egiazki maite ez Jainkoa, ez bere laguna, bainan xoilki bere burua. Urgulua, bizi huntako atseginak, jaidura tzar eta gaxto guzien sasiatzea, horra zer ziren haren biziaren gidariak.

Bertzelakoa da Jesusen erakaspena, eta ageri da hortarik ez dela mundu huntakoa.

Entzun dezagun, bere bizi publikoa hastean mendi sainduaren gainean egin zuen predikua. Ez zuten behin ere holakorik gizonak entzun.

«Dahatsuak, dio izpirituz pobre direnak, zeren hekientzat baita zeruko erresuma.(1)

Dohatsuak ezti direnak, zeren lurra beretuko baitute.

Dohatsuak nigarretan direnak, zeren kontsolatuak izanen baitire.

---

(1) S. Matth. V, 3.

Dohatsuak, justiziaren eta zuzentasunaren gosea eta egarria dutenak, zeren hekien gosea eta egarria aphazegatuak izanen baitire.

Dohatsuak urrikalmendutsuak, zeren berek urrikalmendu ardietsiko baitute.

Dohatsuak bihotzez garbi direnak; zeren Jainkoa ikusiko baitute.

Dohatsuak, bakea maite dutenak, zeren Jainkoaren haurrak deituak izanen baitire.

Dohatsuak, justizia gatik persekuzioea pairatzen dutenak, zeren hekientzat baita zeruko erresuma.»

93 Zer erakaspén halto, saindu eta garbia! Izan othe daiteke ederragorik? Urgulua, atsegina, munduaren amodioa nausi ziren denboran, Jesusék erakusten du pobreziaren eta aphaltasunaren amodioa; mendekatu nahi dutenari, erraiten diote: Izan zaitze urrikalmendutsu; lohieri eta atsegin tzarrak bilhatzen dituzteneri: Izan bihotzez garbi, Jainkoa zeruan ikusteko.

Prediku miragarri hortan, mundu huntako gauzetarik gizonaren bihotza urrundu ondoan, emaiten dio Jesusék Jainkozko hazkurri bat. Zer nahi den, eta Jesus Jainko-Gizonak badaki, gure bihotzak hazkurri bat nahi du eta bilhatzen du. Horra zertako, amodiozko Jainko bat zelakotz, gure bihotzen beharrak ongi ezagutzen zituena, Jesusen lehen manamendua amodiozko manamendu bat izanen den: «Maitatuko duzue zuen Jainko Jauna, zuen bihotz guziaz, arima guziaz, izpiritu guziaz eta indar guziez»(1).

Eta manamendu ezti horren finkatzeko, erakusten dauku Jesusék, bere Apostolueri erakutsi zioten othoitzean, Jainkoa ez dela xoilki: Erregea, Nausia, Jauna, armaden Jainkoa, baina dela guzien gainetik: Gure AITA!... PATER NOSTER!...

Huna Jesusen amodiozko bi-garren manamendua: «Maitatuko duzue zure laguna, zure burua bezala»(2). Zer errespetua gure lagunarentzat, Jesusen bertze hitz hautan: «Ez zatzuela bertzeak jua, eta ez zarete juiatuak izanen; ez zatzuela kondena eta ez zarete kondenatuak izanen». Huna gehiago dena: «Barkha zazue bertzeri eta barkhatua izanen zaitzue; nola pisatuko baitituzte bertzeak, eta hala hala, pisatuak izanen zarete»(3).

---

(1) Matth. XXII, 37.

(2) Matth. XXII, 39.

(3) Luc. VI, 37-38.

94     Ardura eta arthoski manatzen du beharretan direnen soleitzea: «Eman zazue eta zueri ere emana izanen zaitzue: *Date et dabitur vobis*»(1). Zoin ederra oraino bertze hitz hau, eta zenbat, karitatezko obrak ohoratzen dituen: «Nork ere baso bat ur hotz emanen baitu beharretan direneri, ez du bere saria galduko».

Amodiozko erakaspén hori guzia emana da laburzki Jesusen hitz hautan: «Jainkoa, dio Jesusek, zeruko zuen Aita da, eta zuek guziak, elgarren anaiak»(2). Hitz hori bezik ez balu ere erran, behar ginduke belhauniko eman, Jesusen oinen arrastueri musu emateko. Ez da sekulan gizon bat horrela mintzatu izan. Manamendu eta lege guzia hitz horietan da: Jainkoa gure Aita; horra zertako behar dugun harentzat izan, haur egiazkoen amodio bero bat; gu guziak elgarren anaiak eta Jainko Aita beraren haurrak; hortik elgarrentzat izan behar dugun amodioa.

Ez gare gauza premiatsuen ez baizik mintzatu. Erran dugu aski hartatik, guzieren agerian emateko, Jesusen erakaspén gizonen erakaspén goragokoa dela. Nihork, Filosofoen eta jakintsunen artean, ez du holakorik asmatu ere ahal izan.

Jesusen erakaspén ez da lurrekoa; zerukoa da. Jesus Jainko dela frogatzen du.

---

(1) Luc. VI, 38.

(2) Matth. XXIII, 8.

## HAMABI-GARREN KAPITULUA

*Jesu-Kristoren mirakuiluak. Frogatzen dute Jainko dela*

95 Zer den mirakuilua, erran dugu jadanik liburu hunen hastapenean. Jainkoak badu, eta harek xoilki, mirakuiluen egiteko botherea eta indarra. Mirakuilua Jainkozko obra bat da, eta Jainkoaren zigilua bezala. Non eta ere beraz ikusten baitugu mirakuilua, erraiten ahal dugu: Jainkoaren eskua hemen da.

Eta erraiten badauku norbeitek: Jainkoaz egorria naiz; gehiago oraino: Ni, naizen bera, ni, zuen begiez ikusten nauzuen, Jainko naiz, Jainko Gizon egina: haren hitz eta erran bati munduko lege ezagutu guziek obeditzen badiote; eriak sendatzen baditu, mutu zirenak mintz-arazten,itsuak argitzen, hilak berak phizten, nork bada haren Jainkozko bothereaz duda izan dezake?

Horrelakoa izan zen Jesus. Konda ahal ez ditezken mirakuiluez, eta mirakuilu espantagarrienez, agertu izan zuen bere Jainkotasuna.

Entzun dezagun zer dion berak bere buruaz. Jaun Doni Joanes Batistak bere dizipuluak egorri zituenean, Jesusi galdegiterat, eian nor zen bada, eian Mesias agindua zen, zer ihardetsi zioten Jesusek? Hek berek ikusten zutelarik, egin zituen asko mirakuilu, eta ondoan erran zioten: «Zohazte orai, eta erran zazue Joanesi zer entzun eta zer ikusi duzuen: itsuek ikusten dute, mainku zirenak xuxen dabilta, leproaz estaliak zirenak sendatuak dire; gorrek, elkorrek entzuten dute, hilak phiztuak dire, eta pobreeri Ebanjelioa predikatua da»(1).

Judueri erraiten diote: «Joanesen lekukotasuna baino handiago bat badut zueri emaiteko... ezen, egiten ditudan obrek erakusten dute Ai-

---

(1) Luc. VII, 22.

taz egorria naizela»(1). Eta dio oraino: «Ez baduzue ene hitzetan sinhetsi nahi, sinhets zazue bederen ene obretan»(2).

Hitz horiek guzietarik ikusten ahal dugu, Jesusek egiten zituen mirakuiluak, berak emaiten dauzkigula, bere Jainkotasunaren ageri eta froga bezala. Ez zen bertzenaz horrela mintzatuko.

Jainkoak mundua kreatu zuenean, hitz bat xoilki erran zuen, eta kreatura guziak ez deusetarik eginak izan ziren: *Dixit et facta sunt: mandavit et creata sunt*. Gisa berean, manatzen du Jesusek, eta haren hitza obeditua da. Bere oinen ahalez gabetua den bat, nahi du bai sendatu? Erraiten dio: «Altxa zaite eta zabil». Eta hala egiten da. Nahi du bai hil bat phiztu, erraiten dio: Ilki zaite hobi hortarik: hila phizten da eta herioak uzten du bere bazka. Ez othe da hori Jainko gisa mintzatzea eta egitea? Nork, Jainkoak baizen, izan dezake biziari eta herioari manatzeko botherea?

- 96 Jesusek egin zituen hainbertze mirakuiluetarik, zenbeit bederen erran detzagun, hautatu gabe eta gogorat heldu zaizkigun bezala. Ikusiko dugu guzietan, haren Jainkozko indarra, eta haren ekharritasuna jasan-gogorretan ziren guzien alderat.

Guziez ezagutua da, Kana Galileako eztaietan egin zuen mirakuilua. Maria bere Amak othoizturik, ura ganbiatu zuen arnorat. Hori izan zen, bere bizi publikoa hastean, Jesusek egin zuen lehen mirakuilua: sinhetsi zuten ordutik dizipuluek hura baitan.

Egun batez, Jerusalemen zelarik bere dizipuluekin, buruz-buru egiten du bidean eskaile batekin. Eskaile hori itsua zen sortzetik. Galdegiten dute dizipuluek: «Nausia, nork egin du bekatu, hunek ala hunen burasoe, itsu hola izaiteko?

«... Jesusek ihardetsi zioten: Ez hunek ez hunen aita-amek, baina gauza hola gertatzen da, Jainkoaren botherea hunen baitan ager da-dientzat...

... Jesusek thu egin zuen orduan lurrerat, eta bere ago-gozoarekin basa edo lohi poxi bat nahasi ondoan, unkitu zituen hartaz itsuaren begiak eta erran zion: Zohaz Siloeko ithurrian garbitzera. Joan zen itsua, garbitu zen, eta ethorri berriz, bere begiez ungi ikusten zuela»(3).

---

(1) Joan. V, 36.

(2) Joan. X, 38.

(3) Joan. C. IX, 2-7.



Bertze egun batez, heldu zaio aita doloratu bat erraiten diolarik: «Zato, Jauna, ene semea hil baino lehen». Eta Jesusek, han berean dagoelarik, erraiten dio: «Zohaz, zure semea sendatua da». Fidantzia oso batez bethea, badoha aita bere etxerat, eta bidean aurkitzen ditu bere zerbitzariak erraiten diotenak semea sendatu zaiola. Eta jakin izan zuen, Jesus mintzatu zitzaion oren berean gertatu zela gauza hori.

97 Huna ere hemen Jaire izena zuen gizon bat, eta zen Sinagogako buruzagietarik. Emaiten da Jesusen oinetan ahuspez, othoizten duelarik sar dadien haren etxean, zeren baitzuen alaba bakar bat, hamabi urthetan zena, eta hiltzera zohan. S. Luke Ebanjelistak xeheki kondatzen du, etxe hartarat zohalarik Jesus, jende oste handi batez inguratua, hamabi urthe hartan eri zen emazte bat sendatua izan zela, haren soinekoak unkitzearekin. Jesusek emazte harri erraiten ziolarik: «Ene haurra, zure fedea sendatu zaitu, zohaz bakean», ethorri zen norbeit Sinagogako buruzagiari erraitera: Hil da zure haurra; utz zazu beraz Nausia bakean. Bainan entzun zuen Jesusek hitz hori, eta aitari erran zion: Ez izan beldur; izan zazu sinhestea, eta zure alaba sendatua izanen da.

Etxerat heltzearekin, ez zituen berekin sartzera utzi, baizen Piarres, Jakobe eta Joanes, eta nexka gaztearen aita eta ama. Nola, nigarrez bai-zagotzin guziak, haurraren hiltzea gatik, erran zioten: Ez egin nigar; ez da hila haurra, bainan lo dago. Burlatzen ziren, zakitelakotz hila zela. Bainan hartu zuen Jesusek haurraren eskua eta oihuz erran zuen: Haur gaztea, altxa zaite. Eta arima sartu zen berriz hilaren gorputzean: xutik eman zen haurra berehala, eta manatu zuen Jesusek jatera eman zezoten(1).

Ez da deus osatzeko. Edo zoroa, edo fede gaxtokoa behar laiteke izan, Jainkozko bothere bat hemen ez ikusi nahi izaiteko.

Ez gaitezen hargatik hortan bara. Mintza gaitezen oraino Jesu-Kristoren mirakuiluetarik zenbeitez. Geroago eta hobeki, argi distiant baten erdian bezala, ikusiko dugu, Jainkozko obra horietan, gure Salbatailearen Jainkotasuna. Denbora berean ere, agertuko zaizkigu, sofritzen zuten guzientzat zituen amodiozko eta urrikalmenduzko aberastan.

Nor ez da bihotzaren zolaraino unkitua izanen, ama alargun gaxo baten fagoretan egin zuen mirakuilu huntaz?

---

(1) Luc. VIII, 41-45.

Jesus bazohan, dio Luke Ebanjelistak(1), Naim deitzen zen hiri batetarat; eta dizipuluak jarraitzen zitzaizkon, jende oste handi batekin.

Hirirat hurbiltzearekin, huna non hil bat ikusten duen lurrerat zaramatela. Hura zen ama baten seme bakarra, eta ama hura alharguna zen. Eta hiriko jendetze handi bat bazohakon segi.

Jesus Jaunak ikusten du ama doloratu hura, eta haren penaz unkitua erraiten dio: «Ez zazula nigar egin». Hurbiltzen da, eta bere eskuetz hobia unkitzen du. Garraiatzaileak baratu ziren han berean.

Eta erran zuen Jesussek: Altxa zaitte, gizon gaztea, manatzen dautzut. Hila altxatu zen, mintzatzen eman zen eta Jesussek eman zion bere amari.

98 Baina Jesussek egin zituen mirakuilu guzietan handiena, edo hobeki erraiteko, begietarat gehienik dohana da Lazaroen phiztea(2).

Lazaro zen gizon aberats bat, Jesussez hainitz maitatua, Martharen eta Maria-Madalenaren anaia. Bethanian zuen bere egoitza Jerusalemetik lau lekuetan, eta Salbatzailea eta Apostoluak joaiten ziren ardura haren etxerat.

Lazaro bada hartu zuen eritasun handi batek, eta haren arrebek, ikusiz lanjer handitan zela, egorri zuten Jesusi erraitera: «Jauna, zuk maite duzuna eri da».

Jesusek ihardetsi zuen: Eritasun hori ez da hiltzekoa: baina geratu izan da, Jainkoaren Semeak gloria izan dezan hortarik.

Jesusek hainitz maite zituen Lazaro eta haren arrebak, eta hargatik bi egun oraino egon zen aurkitzen zen lekuan; bi egun hoikien buruan, bere dizipulueri erran zioten: Joan gaitezen Judearat; Lazaro gure adixkidea loharkatua da; behar dut atzarri.

Baina lo badago, sendatua da, zioten dizipuluek.

Eta Jesussek: Lazaro hila da, eta bozkariatzen naiz zuen gatik, zeren ez naizen han aurkitu, zuen sinhestea hazkar dadien amoreagatik.

Joan zen beraz Jesus, eta Bethaniarat heldu izan zenean, baziren lau egun Lazaro hila eta jadanik hobian ezarria.

Martha eta Maria jarririk zagozin bere etxean, penan eta nigarretan. Berekin zituzten ahaideak eta adixkideak kontsolatzera ethorriak.

Entzun zuenean Marthak Jesus hekien ganat bidean zela eta jadanik hurbildua, joan zen lehiarekin hari buruz eta erran zioen:

---

(1) Luc. VII, 41.

(2) Le récit de ce miracle est traduit à peu près textuellement de: JÉSUS-CHRIST, par M<sup>gr</sup> de Ségur.

— Jauna, hemen izan bazinen, ez zen hilen ene anaia.

— Jesusek ihardetsi zioen: phiztuko da zure anaia.

— Badakit, zuen erran Marthak, phiztuko dela azken egunean.

— Bainan Jesusek: Ni naiz phiztea eta bizia. Ni baitan sinhestea duena, biziko da hil ondoan ere, eta ez da bethikotz hilen. Sinhesten duzu gauza hori?

— Marthak ihardetsi zioen: Bai, Jauna, sinhesten dut zu zarela KRISTO Jainko Biziaren Semea mundu huntarat ethorria. Eta joan zen bere aizparen bilha.

99 Ethorri zen Maria eta Jesusen oinetan ahuspez emaiten zelarik: Oi Jauna, ene anaia ez zen hilen, hemen izan bazinen.

Bihotza unkitua, Maria eta harekin ziren Juduak nigarretan ikusiz, erran zioten Jesusek:

Nun ezarri duzue? — Ihardetsi zioten: Zato, Jauna, eta ikus za-zu. — Eta nigar egin zuen Jesusek.

Juduek erraiten zuten: Oi, zenbat maite zuen! Bertze batzuek zioten: sortzetik itsua zen bati begietako bixta bihurtu dio, zertako bada utzi du Lazaro hiltzera?

Joan zen Jesus Lazaro ehortzia zen tokirat; thonba harrian zilhatua zen, eta bertze harri batek hesten zion sartzea.

Aldera zazue harri hori, dio Jesusek. Bainan, Jauna, erraiten dio Marthak, usaintzen hasia da jadanik; huna orai lau egun hila dela.

Ez dautzut bada erran, dio Salbatzaileak, sinhesten baduzu, ikusiko duzula Jainkoaren gloria?

Harria eman zutenean sahetserat, Jesusek altxatu zituen begiak zerurat, eta erran zuen: «Ene Aita, eskerrak bihurtzen daukitzut, zeren bethi entzuten bai-nauzu; nik banakien; bainan erraiten dut populu hunentzat, sinhets dezan zutaz egorria naizela».

Eta oiuhu handi batekin: Lazaro, ilki zaite hobitik. — Eta hila ilki zen...

Nork izan dezake oraino dudarik Jesu-Kristoren Jainkotasunaren gainean? Gizon baten egintzak othe dire horiek guziak? Gizon batek, erran nahi dut, xoilki gizon den batek, mundu hau gobernatzen duten lege guzien kontra, hitz batez eriak sendatzen ahal othe ditu, eta hilak phizten?

Ez, ez; erran dezagun beraz berriz ere eta fede bizi batekin: Gauza horiek guziak mirakuiluzkoak dire, beraz, Jainkozko obrak. Jesu-Kristok egin ditu; beraz Jainko da Jesu-Kristo.

## HAMAHIRUR-GARREN KAPITULUA

### *Jesusen urrikalmendua bekatoreentzat*

100 Jainkoa amodioa da: *Deus caritas est*. Eta Jesu-Kristo da Jainkoa bera gizoneri agertu nahi izan dena. Ez dugu harritu behar amodioa eta karitatea balinbadire Jesu-Kristo baitan agertzen zaizkigun kalitate berezienak.

Amodioa, karitatea, horiek ziren egiazki Jesusen seinale ezin ukhatuzkoak. Ikusi dugu, nola laguntzen, sokorritzen, kontsolatzen zituen penan eta nigarretan zirenak, eriak sendatuz, itsuak argituz, elkorri aditza emanaz, ama desolatuen nigarrak xukatuz, hilak phiztuz.

Haren amodio miresgarria hobeki oraino agertu zaiku, bekatoreen alderat duen ekharritasunean. Hekientzat ditu bere amultsutasun ez-tienak. Eta egiazki, ez othe zen bekatoreentzat guziz, jautsi lurrerat?

Huna zer dion berak S. Marken Ebanjelioan: «Sendo direnek ez dute sendatzaile beharrik, bainan bai eri direnek; ethorri naiz, ez justuen, bainan bekatoreen deitzera»(1).

Gauza bera dio S. Luken bortz-garren kapituluan: «*Non veni vocare justos, sed peccatores*»(2).

Zoin samurra ere zaikun agertzen, ungiat itzuli bekatoreentzat duen amodioa, erraiten duenean: «Bozkario handia izanen da, Jainkoaren aingeruen artean, bekatore bat ungiat itzultzearekin»(3). Joanes Apostoluak, hain ungi Jesusen Bihotzeko sekretu amultsuak ezagutzen zituena, gauza bera dauku hitz eder hautaz erakusten: «Jainkoak ez du

---

(1) Marc. II, 17.

(2) Luc. V, 32.

(3) Gaudium erit coram angelis Dei, super uno peccatore paenitentiam agente. (Luc. XV, 10).

bere Semea egorri mundurat munduaren juiatzeko, bainan bai salbatzeko»(1).

Nola ez dugu hitz hautan guzietan ikusiko Jesusek bekatoreen gainean zituen amodiozko eta urrikalmenduzko xede miresgarriak! Zoin eztiki, zoin amultsuki mintzo zaioten! Ez da mundurat ethorri sendoentzat, bainan bai erientzat, ez justuentzat, bainan bekatoreentzat. Gure hitz guziak baino hobeki eta gorago mintzaturen dire hemen Jesusen erakaspak eta egintzak. Hainitzen artean hauta detzagun zenbeit Ebanjelio Sainduan.

101 Guziez ezagutua da haur errebelatuaren parabola edo alegia. Huna nola zaikun emana S. Luken Ebanjelioan, hamabortz-garren kapitulu-  
luan.(2)

Gizon batek, dio Jesu-Kristok, bazituen bi seme; eta gaztenak erran zion bere aitari: Aita, eman diezadazu, niri heldu zaitan ondo-riotasuna. Aitak eman zioten bakotxari berea.

Handik zenbeit egunen buruan, seme gaztena, bere izan guziak bildurik, gan zen urrun, arras urrun, eta han bizitze tzar bat eramanez, guziak xahutu zituen.

Gertatu zen orduan gosete handi bat parrapio hetan, eta halako behar eta miserietan aurkitu zen, non, eman behar izan baitzen herri hartako gizon baten muthil, eta egorri zuen nausiak bere lur batetarat, xerri zaintzaile. Bozik janen zituen xerriek uzten zituzten ondarrak, bainan nihork ez ziozkan emaiten.

Sartu zen azkenean bere baitan eta erran zuen: Zenbat sehi ene aitaren etxean ogia dutenak nasaiki, eta ni hemen gosez hiltzerat noha. Joanen naiz beraz ene aitaren ganat eta erranen diot: Ene aita, bekatu egin dut zeruaren eta zure kontra; ez dut gehiago merezi zure semea deitua izaitea; bainan beha nazazu zure zerbitzarietarik bat bezala.

Utzi zuen beraz leku hura, eta joan zen bere aita ganat. Urrun zelarik oraino, ikusi zuen aitak, eta urrikalmenduz bihotza unkitua, hartu zuen bere besoetan eta musu eman zion. Semeak erran zion orduan: Ene aita, bekatu egin dut zeruaren kontra eta zure kontra; ez dut merezi zure semea deitua izaitea. Bainan erran zioten aitak zerbitzariari: Ekhar zatzue berehala lehenago zituen jaunztekoak eta hetaz bezti zazue; emozue erreztuna errian, eta oinetakuak zanguetan. Hil

---

(1) Non enim misit Deus Filium suum in mundum ut iudicet mundum, sed ut salvetur mundus per ipsum. (Joan. III, 17).

(2) Luc. XV, 11.

zazue xahal gizena: jan dezagun eta phesta egin. Ezen ene seme hau hila zen eta phiztu da; galdua zen eta atzemaña dugu.

Zoin ungi, ixtorio edo parabola eder huntan agertzen zaikun Jesusen urrikalmendua, bekatoros errebelatu, haren ganat itzultzen denaren alderat! Izan othe daiteke Ebanjelioko haur hori baino hobendunagorik? Esker gabe bat da; uzten du aitetan den hoberena, eramaiten ditu berari darraizkon ontasun guziak; eta guziak jan eta xahutu dituen ondoan, miseria handienaz joa eta gosiaz bortxatua, orduan da bakarrik bere aitaz orhoitzen. Balinbadoha bere aita ganat barkamendu eskatze-  
ra, urrunduko othe du aitak bere ganik, haren eskergabetasunaz eta bizitze tzarraz orhoituz? Ez, ez; besoak zabaltzen diozka; atxikitzen du bere bihotzaren gainean, berak lehenik barkamenduzko musua emaiten dio. Etxe guzia phestan da, eta haur errebelatu hobendunak lehenago zuen ohorezko herrunka hartzen du, deus gertatu izan ez balitz beza-  
la. Oi Jesus! zoin zaren ezta eta ona bekatore zu ganat itzultzen de-  
narentzat!

102 Haur errebelatuaren ondotik, huna hutsean atzemaña izan den emazte ezkonduaren ixtorioa. Ez daiteke deus izan kontsolagarriagorik.

Eskribanuek eta Farisauiek herrestatu zuten emazte hobendun hura Jesusen oinetarat eta erran zuten Salbatzaileari: Nausia, emazte hau hutsean atzemaña dugu. Moisen Legeak erraiten du harrikatua izan behar dela, eta zuk, zer diozu? Jesusek ihardetsi zioten: Bekaturik gabe denak zuen artean aurdik diozola lehen harria. Eta zaharrenetarik hasirik, emeki emeki, bat bertzearen ondotik, guziak joan ziren. Jesus gelditu zen bakarrik emazte hobendunarekin. Erran zioen: Non dire zure akusatzaileak? Ez zaitu nihork ere kondenatu? — Nihork, Jau-  
na. — Ez zaitut bada nik ere kondenatuko; zohaz eta ez egin gehi-  
ago bekatu.

Zer erran Jesusen urrikalmenduaz Maria-Madalenaren alderat? Bekatoros handi bat zen, bere bizitze ahalkagarri eta desordenatuaz Bethania eta Jerusaleme eskandalisatu zituena. Iduri guzien arabera, eta erran daiteke, segurki ere, hura zen Lazaro geroago Jesusez phiztua izan zenaren eta Martharen arreba. Hura bera zen, Simon Farisauaren etxean, Salbatzailearen oinak bere nigarrez busti zituena, bere ileez xukatu eta usain onezko ur balios batez estali. Egun hartan berean, Jesus bere etxean zuen Simonek; espantitua zagoen gauza horiek ikusirik, eta zion bere baitan: Profeta bat baliz gizon hau, balakike nor den emazte hori, bekatoros bat dela. Jesusek ikusi zituen Simonen pentsuak eta mintzatu zitzaion. Ebanjelioan ikus daiteke ixtorio hori

bere xehetasun guziekin. Azken buruan, amodio eta urrikalmenduekin itzultzen zelarik emazte bekatoros, bainan urrikitan sartuaren alderat, erran zioen: «Zure bekatuak barkatuak zaizkitzu». Eta Maria Madalena bekatoros handi et sobera aiphatua, Jesusen oinetarik altxatu zen eta ilki Simonen etxetik, barkatua, eta Jesusen amodioa eta bakea bihotzean.

Ausartzen banintz, erran nezake, Maria bekatoros penitentarentzat, hain ona nahi izan dela agertu Salbatzailea, nola Maria bere ama osoki garbi eta sailduarentzat.

Zer gauza miresgarria ikusten duguna egiatzki, Kalbarioko mendiaren gainean! Jesus kurutzefikatua da. Haren oinetan da Maria, Ama eta Birjina doloratua; bainan haren oinetan da ere Maria-Madalena bekatoros konbertitua. Iduri du nahi dituela Jesussek bere begiak azken mementoan baratu, saildutasun konzepzionetik beretik kontserbatuaren, eta saildutasun penitentziaz kobratuaren gainean, bat eta bertzea gisa hortan bere amodioan besarkatzen dituelarik.

Maria Saildua eta Maria penitenta, biak Kurutzearen oinetan Jesus hiltzean! Zer erakaspena! Zer gozoa eta esperantza bekatoreentzat!

Bainan bada zerbeit oraino gehiago, eta iduri du nahi daukula Jesussek gisa guziz irakutsi, bekatoreentzat dela bereziki mundurat ethorria. Phiztu zenean eta ilki thonbatik, lehenik, eta bere Apostolu maiteeneri baino lehenago, Maria-Madalenari zaio agertu. Ez naiz mintzo Jesusen Ama Dibinoaz; nahiz ez daikun Ebanjelio Sailduak gauza hortaz deus erraiten, uste izan dezakegu bere Ama maitea nahi izan zuela lehenik kontsolatu. Zer nahi den, Maria-Madalena da lehenik aiphatua dena. Hortarik ikusten ahal dugu gorago jadanik erran duguna, zer amodio eta urrikalmendu, zer barkamendu errexa aurkituren duen Jesusen Bihotzean, urriki umil eta amultsu batekin haren ganat, Maria-Madalenak bezala, ihes egiten duen bekatoreak.

103 Barnago oraino bilhatzen badugu, ez othe dugu Jesusen egiteko moldean ikusiko haren Jainkotasunaren froga ageri bat! Nolakoa den mundua, nolakoak diren gizonak Maria-Madalenaren iduriko emazteentzat, aski badakigu. Ez dutela hekientzat estimurik. Konprenitzen dugu errecki; bainan ez dute ere urrikalmendurik; ikusi dugu jadanik Simon Farisauaren etsenpluaz. Hasarretua, erreboltatua zagoen, zeren gisa hartako emazte batek, haren etxean sartzeko, eta Jesusen oinetaraino ethortzeko ausartzia izan zuen. Jesusen sentimenduak aldiz, Je-

susen hitzak, amodiozko, barkamenduzko sentimenduak eta hitzak dire: Zohaz bakean, barkatuak zaizkitzu zure bekatuak(1).

Josepe zur-langilearen semetzat atxikia zena, haren laneko laguna izanen othe zen hitz horren erraitera ausartatuko zena? Nork uste izan dezake? Hirri eginen zuten guziek, ez balitz izan Jesusen hitzetan, Jainkozko urrikalmenduaren indar bat. Kontrarat espantitzen dire; ungi konprenitu gabe, badute hargatik suspitxa, badela hor, gizonaz goragoko zerbeit: «Nor da bada hau, diote, bekatuen barkatzeko?(2). Maria-Madalenak, ikusi zuen harek ungi. Entzutearekin Jesusen hitz hauk: «Zure fedea salbatu zaitu: zohaz bakean»(3), bakea eta barkatua zelako sinhestea jautsi ziren haren bihotzerat; hanbatetaraino non, ez baita herabe izanen Jesusi azken hatseraino jarraikitzeke.

Gutaz bezinbatean, erran dezagun kontsolazione handirekin: Bai, Jesus Jainko botheretsua da! Eman dauku ikustera bere mirakuiluez, bere Jainkozko egintza mireagarriez. Bainan ere sentiarazten dauku amodioekin, urrikalmenduaren Jainkoa dela, lurrerat ethorria bekato-reen deitzera eta galduak direnen Salbatzera: *Propter nostram salutem descendit de caelo... Salvum facere quod perierat.*

---

(1) Remittuntur tibi peccata. (Luc. VII, 48).

(2) Quis est hic, qui etiam peccata dimittit? (Luc. VII, 49).

(3) Fides tua te salvam fecit; vade in pace. (Luc. VII, 50).



## HAMALAU-GARREN KAPITULUA

### *Erospeneko mixterioa. — Jesusen Pasionea*

104 Fedearen eta ixtorioaren argi osoan ikusi dugu Inkarnazioneko mixterio adoragarria, erran nahi da Jainko bat, Trinitate Sainduko bigarren presuna, gizon egina. Gizon itxuran eta izaitean agertu zaiku Jesus, bere sortze apha eta umilian, lanezko bizitze pobrean, Mariaren eta Joseperen alderateko obedientzian. Gero betbetan, hogoi eta hamar urthez ixiltasunean gordea bizi izan zen gizon langile hura, agertu zaiku, bere ezpainetan zakarkela erakaspén bat osoki Jainkozkoa, filosofo handien eta argituen erakaspénak baino mila aldiz ederragoa eta garbiagoa. Ez aski mintzatzea, bere urrats bakotxean, mirakuiluak erain bezala zituen; hitz bat xoilki erraiten zuen, eta eriak sendatuak ziren; haren erranaren gainean, gorphutzeko balioaz gabetuak zirenak xutitzen ziren, eta bazohazin haren botherea eta bihotz ona laudatzen zutelarik: elkorrek aditzen zuten, itsuek ikusten, hilak phiztuak ziren; bekatore handientzat ezti eta urrikalmenduz bethea zen, eta haren oinetarik altxatzen ziren kontsolatuak, Jainkoak bar-katu ziotelako sentimendu gozoarekin.

Bai, nasaiki frogatu du Jesusek Inkarnazioneko mixterio adoragarria. Frogatu du Gizon eta Jainko dela denbora berean; Gizon agertu zaiku bere sortzean, aphaltasunetan, gorphutzeko flakeza eta sofritzeetan; Jainko aldiz, bere erakaspenean eta Jainkozko egintzetan.

Aintzinat joan behar gare orai Erlijionearen jakitatean, eta behar dugu ikusi nola eta zenbat pairatuz erosi gaituen Jesusek. Ezen bada-kigu; ez da xoilki Jesus ethorri gure argitzera, bainan ere bekatuaren zorra pagatuz, gizonen eroatera. Eros eta salba gintzazken den gutieneko aphaltze batez; haren obra eta egintza guziak Jainko-Gizon baten obrak eta egintzak zirelaketz, bazuten mugarririk gabeko balio eta merezimendu bat. Bainan nahi dauku bere amodio ezin erranezkoa ira-

kutsi, eta horra zertako, sofrikario gogorrenen gostuz nahiko gaituen erosi. Errespetu, amodio eta bihotz-min handirekin behar gare sartu Erospeneko mixterio doloragarri hortan.

Gorago ikusi ditugun hainbertze ungi eginen ondotik ikusten du Jesusek ethorria dela berak hautatu tenorea, azken esku kolpea munduaren Salbamenduaren obrari emaiteko. Berexiak ditu jadanik Apostoluak, predikatu duen zeruko erakaspena lurraren bazter guzietarat hedatzeko, eta menderen mende segitzeko, salbamenduzko lana, berek eta beren ondokoek; berexia ere, hekien buruzagi izaiteko, Petri Galileako arrantzalea.

105      Eta zer hari ziren Juduak denbora hortan? Zer ziren hekien go-goetak eta sentimenduak, hain nasaiki bere amodioaren frogak Jesusek emaiten ziozkaten orenean? Juduak, gehienak bederen, hotz eta itsumenduan zagozin. Alferretan erran zioten Jesusek: Ez baduzue sinhestarik ene hitzetan, izan zazue bederen ene egintzetan: erraiten dautzue Jainkoaz egorria eta Jainkoaren Semea naizela. Bakar batzuek salbo, begiak argiari hesten zituzten. Ez zuten nahi sinhetsi hura zaitekela Mesias agindua. Bertze itxura batekin zuten bere asmuetan igurikitzen, erran nahi da, aberastasunez, indarrez, lurreko bothereaz inguratua.

Bainan hoztasunean balinbazagozin gehienak, asko etsaien arima beltzetan, herra eta jelsia ez zagozin loharkatuak, eta Jesus zeletatzen zuten, non eta zertan hutsean atzemanen zuten. Guzien artean, Farisauek, Eskribuek eta Apehek bere botherea kordakaturik ikusten zuten Jesusen erakaspenez eta mirakuiluez: eta atsegabe handirekin jasaiten zuten. Lazaroren phiztearen mirakuiluak guzien gaintetik, espanitu zituen, eta ikusten zuten gero eta gehiago populua Jesusen baitan sinhestera eta hari jarraikitzen zohala. «Zer hari gare bada, zioten, huna non guziak jarraikitzen zaizkon»(1). Orduetik sartu zen hekien izpirituetan Jesusen galtzeko asmua. Kaiphas urthe hartan aphez handi zenak erran izan zuen hitz hau, ez bere baitarik, bainan Jainkoaren argi batez: «On eta abantailos da, gizon bat hil dadien populu guzia salbatzea gatik»(2). Egia handia zion, bainan ez berak uste zuen moldean.

---

(1) Pharisei ergo dixerunt ad semetipsos: Videtis quia nihil proficimus: ecce mundus totus post eum abiit. (Joan. XII, 49).

(2) Expedi vobis ut unus moriatur homo pro populo, et non tota gens pereat. (Joan. XI, 50).

Jainko zenaz geroz, bazakizkien Jesusek pentsu eta gogoeta horiek guziak. Horra nola erran izan zuen bere dizipulueri: Badakizue Phazko phesta izanen dela bi egunen buruan, eta gizonaren Semea saldua izanen da, kurutzean emana izaiteko. Eta egiazki orduan berean bilhatzen zuten Aphezen buruzagiek eta Eskribuek, nola hilaraz zezaketen. Aitzakia bat behar zen. Aurkitu zuten Erlijionearen amodioaren itxuran. Baitezpada hil behar du Jesusek, zuten erran, Legearen eta Moisen Erlijioneko praktikak gutartean atxikitzea eta begiratzea gatik. Sinhetsarazi zuten hori populuari; ungiaren itxurarekin enganatu zuten, eta krima izigarrienerat emeki emeki ler-arazi.

106 Huna non, bere herraren eta xede beltzen laguntzaile heldu zaioten traidore bat, Judas. Jesusen hamabi Apostoluetarik bat, Judasek ez zuen naski Jesusen heriotzea nahi: bainan diruari sobretan estekatua zen, eta Jesus salduz, diruzko probetxu bat bilhatzen zuen. Pasiene tzar baten segidak zoin diren deithoragarriak! Joan zen beraz Judas Aphezen buruzagien ganat eta erran zioten: «Zer nahi dautazue eman, eta nik zuen eskuetan ezarriko dut; arrimua egin zuten hogoi eta hamar diru pezentzat»(1).

Ethorri zenean eguna, zointan, Moisen legearen arabera, jan behar baitzen Phazkoko bildotxa, Petriri eta Joanesi erran zioten Jesusek: Zohazte Phazkoko aphairuaren arrimuen egitera, eta xehetasun guziekin erran zioten zer behar zuten egin. Joan zen bera, arrats-aldean, hamabi Apostoluekin, aphairua paratua izan zen etxerat. Nor, arimaren zolaraino mugitua izan gabe, orhoit daiteke, Jesusek bere Apostolu maiteekin iragan zuen azken arrats hortaz? Zer amodio ezin erranezkoa haren hitz guzietan! Zer othoitz khartsua bere Aita zerukoari, bai Apostoluentzat, bai gu guzientzat! «Oi ene Aita, zioen, ez zaitut xoilki haukientzat othoizten, bainan ere, ni baitan sinhestea izanen duten guzientzat»(2). Othoitz hori guzia laiteke irakurtzekoa eta arthoski meditatzekoa. Irakur daiteke Jaun Doni Joanesen Ebanjelioan hamazazpi-garren kapituluan. Jesusen Bihotz Jainkozkoaren amodioa, hor, klarki eta itzalik gabe ageri da bere aberastasun osoan.

Ez da aski; bere othoitzari eta hitz amultsueri zohakoten zigilua emaiteko, zerbeit gehiago oraino eginen du. «Ene Aita, zion, nahi dut

---

(1) Et ait illis: Quid vultis mihi dare, et ego vobis eum tradam. At illi constituerunt ei triginta argenteos (Matth. XXVI, 15).

(2) Non pro eis autem rogo tantum, sed et pro eis qui credituri sunt per verbum eorum in me. (Joan. XVII, 20).

hoikien baitan izan, zu, ni baitan zaren bezala»(3). Hortarakotz, bere eskuetan hartu zuen ogia, eta erran zuen: *Hau da ene gorphutza, har zazue eta jan zazue*. Hartu zuen gero arnoa eta erran: *Hau da ene odola, edan zazue; eta nik orai egiten dudana, zuek ere egin zazue ene orhoitzapenetan*. Hitz horietaz establitu zuen Jesusek Gorphutz Sainduko sakramendu adoragarria, egiazki obratzeko bere Bihotzaren gutizia khartsua, gurekin bat egitea, berak bere aitarekin bat egiten duen bezala(2).

107 Bere amodioaren seinale miresgarri horiek bere Apostolueri Jesusek emaiten ziozkaten denboran, han zen Judas traidorea, eta haren bihotza gogor egon zen. Salbatzaileak ez zuen gorde nahi izan bere bihotz-mina, horrelako gogortasuna eta esker gabetasuna ikusiz, eta erran zuen: Egiaz darotzuet, ni saldu behar nauena hemen da; mahain huntan jarria da. Badoha gizonaren Semea, bainan zorigaitz hura salduko duen gizonari. Hobe izanen zen harentzat, ez balitz sortu. Hitz horiek entzutearekin, asaldatu ziren Apostoluak, eta galdegiten zuten, zoin zen bada Nausia salduko zuena. Judasek hitz horiek entzun zituen bertzek bezala; bainan gogor egin zuen, ez zen Jainkoa ganat itzuli. Ez Jesusen hitz amodiozkoek, ez haren mehatxuek ez zuten unkitu ahal izan, abarizioak eta diruaren amodio sobraniozkoak beretua zuten bihotz hori. Gehiago dena, komunione tzarra egin zuen eta bere gogortasunean sorhaitutz gan zen. Eta izan zuen harek ere bekoki ausarta, galdegiteko bertze Apostoluek bezala: Ni othe naiz, Nausia, zu saldu behar zaituena? Eta ihardetsi zion Jesusek: Erran duzu: hala hala da: *Tu dixisti*. Erran zion oraino: *Egin gogo duzuna, egin zazu abalik lasterrena*(3).

Ilki zen Judas. Debrua sarthua zen haren ariman.  
Jesusen pasionea hastera zohan.

---

(1) Ego in eis et tu in me. (Joan. XVII, 23).

(2) Ez gare hemen luzekiago mintzatzen amodiozko sakramendu hortaz, ez dohalakotz kapitulu hau hortarat, eta bertzalde, gure gogo laitekelakotz, geroxago, bertze liburu bat sakramenduez egitekoa.

(3) Quod facis, fac citius. (Joan. XIII, 27).

## HAMABORTZ-GARREN KAPITULUA

### *Jesusen pasionea. — Olibetako baratzea*

108 Sartzera gohaz Jesusen pasioneko oren ilhunetan. Ai! bihotz-min-garri da dudarik gabe; bainan Jesusen pasionearen ixtorioa, ez othe da, giristino guzien gogoetan eta meditazioneen materia berezia izan behar? Ez gaitezen beldur izan, dio S. Bonabenturak, pentsatzea eta gogoan erabiltzea, gure Jainko Jaunak berak guretzat jasan nahi izan duena (1). Erran dezagun ere, ungi ekharriak, eta hortaratuak balinbaggare, hortan aurkituko dugula guziek, gure arimen ona: penetan direnek, kontsolazionea; desesperatuek, Jainkoa baitako fidantzia; bekatoreek, barkamenduaren esperantza; ephelek, arimako kharra; justuek, Jainkoarentzateko amodio handiago bat, eta denbora berean, iraupe-nezko graziak eta indarrak.

Elgarretarat bilduak ziren Jesus galdu nahi zutenak, ikusteko zoin zen hartarakotz hartuko zuten biderik segurena. Judas traidorea ere, bere aldetik, bere gizonen biltzen hari zen. Erran daiteke handien eta ttipien herrak eta jaidura tzar guziak, ifernuko haize batez, sutan debruak emaiten zituela.

Eta bitima justu eta adoragarria hekien biderat bezala doha.

Ardura egiten zuen bezala, joan zen Jesus hameka Apostoluekin, Olibetako mendirat. Hantxe zen baratze bat Judasez ungi ezagutua, maite zuelakotz Jesusek, han othoitz egitea. Baratzean sartzearekin, berex hartu zituen berekin, Piarres edo Petri, Jakobe eta Joanes eta erran zioten: Ai! ene arima trixtatua da hil arteraino; egon zaizte hemen atzarriak enekin (2).

---

(1) Non debet nos toedere cogitare, quod ipsum Dominum non toedit tolerare. (Med. vitae Christ.).

(2) Tristis est anima mea usque ad mortem; sustinete hic et vigilate mecum. (Matth. XXVI, 38).

Joan en Jesus bera urruntxago; ahuspez lurrerat emana, othoitzean zagoen bere Aitari: O ene Aita, ahal baditake, urrun dadiela jasaite gogor hau ni ganik; eta hargatik, egina izan dadiela zure nahia eta ez enea(1). Othoitzean zagoen suharki, bere gizon naturalezaren flakezian, eta dolorezko hagonia hori hain gogorra izan zen, non, odollezko izerdi bat jauzi baitziztaion gorputz guzitik.

109 Zoin ungi Jesus, hagoniako otohitz hortan, agertzen zaikun Gizon, Jainko eta Salbatzaile! Gizon: naturalezak heriotzeari ihes egiten dio: *Transeat a me calix iste*: urrun dadiela ni ganik sofrikario hori; baina Jainko-Gizon da, eta gizonen Salbatzaile behar da izan, eta gizonaren flakezak garaitzen ditu, obedientzia osoaren hitz hautan: hargatik, egina izan dadiela zure nahia eta ez enea. Arras ungi erraiten du S. Agustinek: Gizon bezala, urrundu nahi luke heriotzea, baina Jainko bezala, ez du ahanzten bekatuaren kontra ekharri izan duen sententzia lazgarria(2). Heriotzeari ihes egitera ekharria den nahiak, irakusten du Gizona, heriotzea onhartzen eta azkenekotz manatzen duenak irakusten du Jainko-Gizona. Olibetako baratzean, Jesus agertzen zaiku ere Salbatzaile; ezen, gizontasunak hura baitan onhartzen badu Jainkoaren nahia, zertako? Zeren, dio Bedek, orhoitzen baita zertako egorria izan den(3).

Ez othe dugu ere erraiten ahal, bere othoitzaren lehen hitzetan, Jesus mintzo zela Adame gure lehen aita bekatorearen izenean? Baina itzaltzen da laster Adame bekatorea, eta agertzen da Adame berria, Adame justu eta osoki Saindua, lehenbizikoaren hutsa erosten duena. Adame bekatorearen flakezazko oihuaren ondotik, Adame Erostailearen baimenezko eta erreparazionezko hitza eta othoitzza. Horra, munduaren salbamendukotzat hasten den sakrifizioa! Horra, ararteko soberanoa! Horra, Jainko-Gizon Salbatzailea: *Reminiscens propter quod missus est, clamat: Non sicut ego volo, sed sicut tu.*

Olibetako baratze hortan, Jesus gure irakustailea eta miraila da. Othoitzean oihuz dago, egia da, bere Aitari, baina nola ekharria, haren nahiaren egitera! Guk bederen, zerbeit balinbadugu jasaiteko, gure bekatuez merezitua dugu. Zor bat dugu pagatzen. Jesus guziz Sain-

---

(1) Pater mi! Si possibile est, transeat a me calix iste; verumtamen non sicut ego volo, sed sicut tu. (Matth. XXVI, 39).

(2) Quasi homo mortem recusans, quasi Deus sententiam suam servans. (August. In 22 Luc.).

(3) Reminiscens propter quod missus est, clamat; Non sicut ego volo, sed sicut tu. (In Marc. XIV).

dua, bekatu eta hobenik gabea zen; bainan, guk jasan beharrak berak jasanez, nahi izan dauku zeruko bidea irakutsi. Jesu-Kristo izan da, dio S. Agustinek, mediku urrikalmendutsu baten pare, zoinak, berak lehenik jasaiten baitu erremedio khiratsa, errexiago har dezan gero eriak (1).

110 Olibetako baratzean Jesu-Kristok jasan zuen hagonia hori, heriotzearen, eta heriotzea aintzinean jasan behar zituenen beldurretik xoilki, heldu othe zen?

Dabid Errege Profetak bertze arrazoin bat emaiten dauku, bere hogoi eta bederatzigarren Psalmoan: «Zer probetxu izanen du ene odolak? (2). Horra, horra zerk Jesu-Kristoren arima aurtikitzen duen trixtezia eta ilhundura handi hortan. Jasanen ditut, erraiten ahal zuen, jasan ditezken guziak; gaxtagin bat bezala izanen naiz juiatua, kondentua, azotatua, elhorritz khorotua, kurutze ahalkegarriaren gainean itzautua; horiek guziak, bai, nahi ditut; amodioekin onhartzen ditut; bainan zer probetxu izanen dute, nik erosi nahi ditudanentzat? *Quae utilitas in sanguine meo?*

S. Anbrosiok dio, gehienik Jesus sofri-arazi zuena, eta trixtezia ilhun hartan haren arima pulunpatu, hau zela: aintzinetik ikustea, harek zenbat nahi jasan gatik, salbatu nahi zituen gizonetarik, hainitz eta hainitz, galduak izanen zirela bere gaxtakeriaz (3).

Oi zoin doloragarria, eta kontsolazione gabea behar zen izan, Jesusen hagonia hori! Ethorri behar diren gizon eta jendeetan, ikusten du eskergabetasuna, haren amodioa meziprezatua, haren odola hainitzentzat alferretan ixuria, eta ifernua oraino zabal zabala idekia, haren pasioneaz baliatuko ez direnentzat; zeruko alderat itzultzen baditu begiak, han, bere Aita Eternala, bethi-danikako amodio batez maite duena, hartaz maitatua den bezala, eta orai juie garratz bat bilhakatua; bere ariman, gu guzien bekatuen karga jasan gogorra; arima osoki saindu, garbi eta amultsu hura, gizonen Erlijione eskas, inpiotasun, lohikeria, herra eta bertze krima eta zikinkeria guziez belztua eta hobendun egina, berak hala nahi duelakotz, guretzat Jainkoaren justizia soberanoa aphazegatzea gatik.

---

(1) Prior bibit medicus Jesus, ut bibere non dubitaret aegrotus. (August. Serm. 82, de Temp.).

(2) Quae utilitas in sanguine meo? (Ps. XXIX).

(3) Tristabatur quia nec malos perire volebat. (Ambros. in Luc.).

111 Bainan nola izan dezakegu atrebentzia, behar laiteken bezala, gauza horietaz mintzatzekoa? Jesus laiteke bakarrik gai, lan hortako, harek bakarrik, bere Saindutasun Jainkozkoan, konprenitu ahal izan duelakotz, zer den bekatua, zer laido dion egiten Jainkoaren majestateari, zer kalte izigarria gizonari.

Nahi izan gabe konprenitu, gure gogoeta eta asmu guzietz gorago dena, sar gaitezen gu baitan. Guziak, bere gogoan, eta bihotzean garraiatzen gintuen Jesusek, Olibetako baratzean ahuspez emana zagoelarik. Maite gintuen, ezin erranezko amodio batez, eta nahi gintuen salbatu. Zoin lazgarri laiteken, beldur izaitea, guretzat erran ahal izan duela trixteziak hitz hau: Zer probetxu izanen du hoikientzat ene odolak: *Quae utilitas in sanguine meo?*

Oi Salbatzaile amultsua! Oi, Jesus hagonian lurrerat eroria! Zure sahetsean ahuspez emaiten gare zurekin, gure bekatuez nigar egiteko; garbi zatzu gure arimak zure odolezko izerdian; salba gaitzatzu.



## HAMASEI-GARREN KAPITULUA

*Pasionearen segida. — Jesus Judasez etsaien eskuetan emana*

112 Mila aldiz hil beharko zuen Jesusek, Olibetako baratzeke hagian, ez balire bertzelakoak izan, bihotzean zituen amodiozko eta urrikalmenduzko xedeak.

Nahi zuen guretzat, gehiago eta azken bururaino pairatu, eta horra zertako, bere Jainkozko bothereaz bizirik dagoen oraino. «Bizi zaite beraz, Jesus maitea, dio Bossuet handiak; bizi zaite, baduzu bertze tormentarik oraino jasaiteko! Zerbeit oraino begira zazu zure bizitik, zuri buruz heldu diren Juduentzat, eta hekien buruzagi, Judas traiderentzat. Aski eman duzu ikustera bekatoreeri, gai izanen zela bekatua bera, zuri heriotzeko kolpearen emaiteko(1).

Gorago jadanik erran dugu, Judasen, Eskribanuen eta Farisauen artean egina izan zen tratu infamoa. Bere Nausia saldu zuen Judasek, hogoi eta hamar diru peza xumeentzat. Hori zen, esklaboen prezio ttipiena. «Ah! arima beltzeko gizona, dio S. Agustinek, zer egiten duk? Jesu-Kristo Jainko dena, ahalkerik gabe saltzen duk diru poxi zikin batentzat! Bere bizia hiretzat emaitera zohak, eta baduk, hik, ausartzia, ez deus batentzat haren emaiteko» (D. August.).

Atxiki zuen Judasek, Jesusen etsaieri eman zioten hitza. Huna nun, Jesus bere othoitzetik altxatzen zelarik, baratzearen bertze buruan agertzen den Apostolu traidorea. Ez zen bakarrik. Jesusen heriotzea bilhatzen zutenek eman ziozkaten lagunak. Berekin bazuen gizon multzo bat, batzuek ezpatak, bertzek makilak eskuetan. Erran zioten: Nor eta ere besarkatuko baitut, hura da hartu behar duzuen(2). Hurbildu zen Jesusen ganat, besarkatu zuen, erraiten ziolarik: Agur Nausia. — Ene

(1) Bossuet, 3<sup>e</sup> Sermon pour le Vendredi Saint.

(2) Quemcumque osculatus fuero, ipse est; tenete eum (S. Matth. XXVI, 48).

adixkidea, zion erran Jesusek, zertarat ethorri zare hunat? (1). O Judas, musu batez saltzen duzu gizonaren semea? (2). Hitz ezti horiek ez zuten unkitu ahal izan Judasen bihotza: Gogortua eta itsumenduan eroria zen.

- 113 Zer ikusgarria! Jesusek, azken oreneraino, amodioz eta urrikalmen-  
duz bihotza bethea, eta Judasek, Jesusen amodioari eta gonbidu eztieri  
bihotza hesten! Jesus, barkatzera ekharria, eta Judas, bere bekatuan  
gogortua egoiten! O Judas, Judas! Zer bada pentsatzen duk? Zer duk  
gogoan? Ez duk bada gehiago hi baitan, ez bihotzik, ez sentimendurik,  
eta amodioaren seinalea bera duk hartzen, heriotzeko kolpearen emai-  
teko? (3). Eta Jesusen hitz eztieri deus ez duk ihardesteko?

O bekatoreak! hel, hurbil zaizte; ikus zazue Jesus besarkatua Ju-  
dasez, bildotx inozenta otsoaz, saindutasuna bekatuaz, amodioa herraz.  
Oi! zenbat Judas menturaz gutartean! Bainan ere, Judasen krima hi-  
guinaren aldean, ikus dezagun Jesusen Bihotza bethi barkatzera eta be-  
katorearen ongi hartzera ekharria. Zer nahi gisetakoak izan ditezen be-  
raz gure flakezak, ez gaitu Jesusek, bere ganik urrunduko. Judasi bar-  
katzera ekharria zenak, ez dauku barkagorrena eginen.

Huna beraz Jesus gaxtagin bat bezala hartua. Jerusalemeko ka-  
rriketan herrestatua, eta populua ez da haren alde emaiten. Zenbat on-  
gi izan duen populu horrek haren ganik! Urrats bakotxean, erran be-  
har bada, aurkitzen du Jesusek eri bat sendatu duena, penetan zen  
bat, hartaz kontsolatua; bainan nor da, hetarik, orai orhoitzen dena,  
nork ungi egin dion? Hek berak dire menturaz, gehienik laidoztatzen  
dutenak. Zenbeit egun zuen doidoia, phesta eta bozkario handirekin  
errezibitu zuela Jerusalemeko hiriak. Deus ez zen orduan sobera hari  
ohore emaiteko. Haren oinen petan berduratzen zituzten erramu ada-  
rrak eta ostuak, eta bertze ferde-gailuak. Oihuz eta kantuz errepika-  
tzen zituzten, Dabiden Semearen eta Jainkoaz egorria zenaren laudo-  
rioak: *Hosannah Filio David!... Benedictus qui venit in nomine Do-  
mini*. Eta orai, ez dute nahi ezagutu, ukhatzen dute; jarraitzen zaiz-  
ko, bai, bainan haren heriotzea galdegiteko. Oi eskergabetasun beltza,  
eta zoin gogorki hasten den pasionea Jesusen Bihotz samurrarentzat!

- 114 Jesus inozenta herrestatua da ahalge eta laido guzien erdian, juie  
batzuetarik bertze juietara. Bainan nihoren baitan, ez du justiziaren  
iduririk ere aurkitzen.

---

(1) Dixitque illi Jesus: amice ad quid venisti, (S. Matth. XXVI, 50).

(2) Juda, osculo Filium hominis tradis (S. Luc. XXII, 48).

(3) Pacis argumento, mortem immitis? (S. Aug. Serm. 15 de Tempore).

Pilatus hargatik, Erromaren izenean Judean gobernadore zena, ez zen hain gizon tzarra. Entseiu zerbeit egin zuen Jesusen jalgitzeko etsaien aztaparretarik. Kostuma zen, Phazko phestetan, presondegietan kondenatuak zirenetarik bat libratzekoa. Populuak behar zuen zoin izanen zen hautatu. Bada, bazen orduan presondegietan gizon hiltzaile bat, heriotzerat kondenatua izan zena. Barrabas zuen bere izena. Ez zuen Pilatusek, hobenik aurkitzen Jesus baitan, eta gogor zitzaion kurutzeko heriotzerat haren kondenatzea, Jesusen etsaiek eta populuak galdegiten zuten bezala. Uste izan zuen bide bat gelditzen zitzaiola Jesusen salbatzeko. Itzultzen da beraz populuari buruz, eta galdegiten dio: Zoin nahi duzue libro egor dezadan, Barrabas edo Jesus, Kristo deitua dena? Eta oihuz dagozi guziak: Ez Jesus, bainan Barrabas! Ez du gehiago hekien errabiak neurririk, eta bethi aintzinat oihuz hari dire: Izan dadiela kurutzefikatua! Izan dadiela kurutzefikatua!

Ez da gure xedetan sartzen, pasioneko gau doloragarri hartan, Jesussek jasaiteko izan zituen guzien xeheki erraitea. Herrak errotzen zuen jendetze batez burlatua, thuz estalia, sehi batez arpegian joa, azotatua, elkorritz koroatua, hirri-garriko errege bat bezala erabilia, eta azkenean esklaboen suplizio ahalkagarriat, kurutzearen gainean hiltzera kondenatua.

Oi nola den aphaltua, ez deus batentzat atxikia, lurreko har baten pareko egina! Zoin garrazki borratzen duen bekatuan aurkitzen den urgulu madarikatua!

## HAMAZAZPI-GARREN KAPITULUA

### *Pasionearen segida. — Jesus Jaun Doni Petriz arnegatua*

115 Jesus bazterrerat utzia da guziez. Gehiago dena, populuak haren heriotzea galdegiten du. Alde guzietarik herra, errabia, nihondik ere, ez laguntza edo kontsolazionerik. Non dire bada dizipuluak eta Apostoluak? Jesus utzirik, guziak ihesari eman dire(1).

Bainan Jaun Doni Petri bederen, bere Elizaren buruzagi izaiteko hautatu zuena, Jaun Doni Petri, hain haltoki hitz eman ziona, bertze guziek uzten bazuten ere, ez zuela harek utziko, hura bederen leial egon zaio?

Ez dezagun hola uste izan. Jaun Doni Petri bera izanen da Jesusen Bihotzari zauri miñena eginen diona. Hura izanen da ere, hobekienik ikustera emanen duena, zoin sinheste guti behar den izan, gizon flakoen agintzen gainean, bereziki, sobera fidantzia dutenean bere baitan. Mugarri gabekoak ziren, iduriz, Apostolu horrek Jesusentzat zituen amodioa eta nahi ona. Bertze guziak, zuen erran, flako gertatzen badire ere zure alderat, ni ez. Dudarik ez da, Jaun Doni Petri orduan, lañoki, eta, bere ustez, egiaz mintzo zela. Huna zer ihardetsi zion Jesussek: «Egiazki, egiazki erraiten dautzut; gau huntan berean, oilharrak bi aldiz kantatuko duen baino lehen, hirur aldiz arnegatuko nauzu». Bainan Petrik bere hitza erredoblaturik erran zion: «Zurekin hil behar banaiz ere, ez zaitut arnegatuko»(2).

Bada, zer gertatu zen, hitz eta segurantza eder hoikien guzien ondotik? Joan zen Jaun Doni Petri Jesus herrestatua izan zen tokirat, eta han, hirur aldiz, galdegina izan zitzaion, eian ez zen hura ere, Je-

(1) Discipuli omnes, relicto eo, fugerunt. (Matth. XXVI, 56).

(2) Et si oportuerit me simul commori tibi, non te negabo (S. Marc. XIV, 31).

susen dizipuluetarik. Hirur aldiz ihardetsi zuen, ez zuela ezagutzen, eta juramentu eta arneguz gauza bera segurtatu zuen. Oilharrak kantatu zuen orduan bi-garren aldikotz, eta Jesusek behatze bat xoilki egorri zion Petriri. Bainan, zoin tristea, amultsua eta ere urrikalmenduz be-thea izan zen behatze hura! Bihotz-min handirekin orhoitu zen orduan zer erran zioen Jesusek; ilki zen kanporat, eta nigar egin zuen garrazki(1).

Zer erakaspena guzientzat Apostoluaren erortze deithoragarri hor-tan? Petriren erortzeak behar ditu justuak argitu, dio S. Agustinek(2). S. Krisostomek dionez, Petriren erortzeak irakusten dauku, zoin den flakoa gure naturaleza, Jainkoaz hazkartua ez denean(3).

116 Nola bada, erori izan da Apostolu handia hoin huts ahalkegar-rian? S. Thomasek emaiten du arrazoin bat. Dio Theologal, guzien gaintetik aiphatu, eta Dotor Saindu horrek: Jainkoak bere eskuetan da-gokan erremediatarik bat, gizonen sendatzeko bere baitan duten fi-dantzia sobraniozkotik, dela, heiek uztea bekatu dorpheenetan eror-tzera(4).

Theofilaktek emaiten dauku oraino, Petriren erortzearen bertze arrazoin bat: Erori zen Petri, zeren ez baitzen othoitzari jarraiki, Je-susek erran zioen bezala, eta ez baitzuen aski azartasun izan bere bu-ruaren gainean. Arima hotz, alfer eta ephelek ikas dezatela hemen, zer indar duten heien kontra, debruaren amarruek(5).

Nahiz izanak zituen Petrik bere Nausiaren abisuak, ez zuen othoi-tzean bilhatu, tentazionearen bentzutzeko indarra. Uste izan zuen, as-ki hazkar izanen zela bere baitarik, eta ausartzia zoro batekin, joan zen lanjeraren erdirat. Jesus Jainkoak utzi zuen orduan bere indar xoilekin ikus zezan, eta ongi froga, zoin ziren ez deusak(6).

Garrazki eta justuki kondenatzen dugu Petriren flakeza eta bihotz eskasa. Ez gaitezen hargatik gu baitan urgulutan eman. Hari gertatu

---

(1) Et egressus foras, flevit amare. (S. Matth. XXVI, 75).

(2) Error Petri doctrina justorum est. (S. August. Lib. 40. in Luc).

(3) Intelligite quam sit imbecilla humana natura, cum Deus deserit. (Ho-mil. 82, in Joan).

(4) Pro superbiae remedio permittit Deus ruere hominem in aliqua pecca-ta. (S. Thom. 22, quest. 162, art. 6).

(5) Horreamus considerantes quantum contra remissos valeant insidiae dia-boli. (Thoph. in Luc.).

(6) Sed desertum dereliquit ut suam ipse intelligat imbecillitatem. (S. Chrys. Homil. 71. in Joan).

zaiona, dio S. Bernatek gertatzen ahal zaitzu zuri ere, zeren gizon baitzare(1).

117 Ez othe dugu gu baitan frogatu S. Bernatek hemen erraiten daukuna? Jainkoaren graziaz, zorigaitz hortarik salbo izan bagare, ez othe dugu bederen gure inguruetan ikusten? Zenbat giristino, lehenik bertzez, bathaioko harrian, geroago, lehen komunioneke egunean, eta geroztik oraino, mila aldiz Jesusi erran diotenak: Ez zaitut sekulan arnegatuko, eta laster hitz eta egintza horiek ahantzi dituztenak! Jaun Doni Petri bekatuan erori zen, flakezaz, eta ere gizonen alderateko ahalkeaz. Neskato xoil baten aintzinean, ahalkatu zen Apostolu handia, Jesusen dizipulu izaitez! Izan zaiteken ohore handienaz gorritu zen, gauza tzar batez bezala.

Bada, fede epheleko, eta erran dezagun, fede hotzeko denbora huntan, ez othe da ardura, gauza bera gertatzen gure Eskual-Herri maitean berean? Gure Eskual-Herria bethitik aiphatua zen, Fedearentzat, Erlijionearentzat zuen amodio eta estakemendu suharrarentzat. Eta orai, gutartean ere, ez othe dute hainitzek, hitzez ez bada bethi, bederen obra onen eskasez, Jesu-Kristoren bandera beldurrez gordetzen eta itzaltzen? Hori da erraitea, ez dutela Jesus bere Nausi eta Erregetzat ezagutu nahi. Hori da, Jesus arnegatzea.

Bihotz eta kuraia eskasa! Huts handi eta ahalkegarria, eta asko denboretan, krima handia hala nola baita orai! Petriren hobena hanbatena handiagoa izan zen, zenbatena Jesus aphaltuagoa eta pertsekutatuagoa baitzen.

Gauza bera da orai ere. Bai, orai ere, Jesus aphaltua, pertsekutua, kurutzean emana da, Elizari, Aita Sainduari, Erlijioneari, Aphezari, Eskoletako Fraide eta Seroreri, Ospitaletan Bixintxo Paulokoaren alaba saindu eta miresgarrieri, hitz batez erraiteko, haurren, erien, sofritzen duten guzien arimeri egina den gerla inpioaz.

Guziak, Eliza gure ama onaren haurrak gare. Ama on horrek bere haur guzien amodioa galdegiten du. Maita eta zerbitza dezagun, gure bihotz guziarekin. Baldin, zorigaitzez, gertatzen bazaiku gure Nausi, gure Jesus maitea ahanzte eta arnegatzea, egin dezagun laster nigar eta penitentzia Jaun Doni Petriekin, eta harekin, ethorriko direnean bertze lanjer eta tentazioneak, erran dezagun: Hobe da, guzien gainetik, Jainkoari obeditzea, ezen ez, gizoneri.

---

(1) Quidquid illi accidit et tibi accidere potest; quia homo es. (Med. C. 3).

## HEMEZORTZI-GARREN KAPITULUA

### *Jesus kurutzefikatua*

118 Zoin den adoragarria eta unkiagarria, hemen kontsideratzera gohazin mixterioa!

Jainko-Gizon bat kurutzean itzatua, kurutzearen gainean, erran nahi da, esklabo infamotzat atxikiak zirenen heriotzeaz hiltzen! Jainko-Gizon bat, guziez trufatua eta burlatua, odola, haren zain guzietarik, kurutzea behera lurreraino joaiten! Eta hoikien guzien buruan, bera azken hatsa emaiten, amodiozko eta barkamenduzko hitz hau erraiten duelarik: Ene Aita! barka diozozute, zeren ez dakiten, zer hari diren!

Jesus hiltzarekin, Tenploko belo urratu zen erdiz-erdi, gainetik eta behekerat; lurra ikharatu zen; harrokak arraildu; hobiak ideki eta hil saildu batzuen gorphutzak phiztu. Bada, kurutzearen inguruan zagozin soldaduen aintzindariak, eta hekien soldaduak berak, gauza espantagarri horiek guziak ikustearekin, ikharetan eman ziren, erraiten zutelarik: «Egiazki hau Jainkoaren semea zen»(1).

Jesus hil da kurutzearen gainean! Hil da Berbo Inkarnatua, Jainko-Gizon egina, ez Jainko bezala, bainan Gizon bezala. Bainan sofrikario horiek guziak, heriotzeraino, baitezpada behar othe ziren munduaren salbamenduarentzat? Ez, mila aldiz, ez. Jainko-Gizon zenaz geroz Jesu-Kristo, haren othoitz, aphalze, obra guziek bazuten neurririk gabeko balio bat. Oihu bat gure fagoretan, bere Aitaren urrikalmen-duari, eta aski izanen zen gizonen salbatzeko.

Zertako beraz hoinbertze sofrikario? Zertako azote kolpeak, elhorrizko koroa buru fuinetan barna dohana, gorphutz guzia sarraskitan emana, kurutzeko heriotze ahalkagarria? Zertako horiek guziak? Ah! galdegin zazue Jesusen amodioari.

---

(1) Vere filius Dei erat iste. (Matth. XXVII, 54).

Jesusen Bihotzean behar ditugu bilhatu haren sofrikarioen arrazoinak. Amodioak du hil-arazi. Enetzat, ene gatik eman du bere burua, dio Apostoluak(1), enetzat nahi izan da eman bere etsaien eskuetan. Ez bagintu maite izan, maite gintuen bezala, ez zen hilen. Alferretan eta debalde, gizonen errabia eta indar guziek bat eginen zuten haren kontra; hitz bakar batez, nahi izan balu, guziak sunsitzen ahal zituen. Aski eman zuen ikustera, Olibetako baratzean, noiz eta ere, bere etsai guziak lurrerat aurtiki baitzituen hitz hautaz: Ni naiz, zuek bilhatzen duzuen Jesus Nazarethekoa.

Beraz, nahi izan badu Jesusek sofritu, nahi izan badu hil, guri bere amodio handiaren erakusteko sofritu du, eta hil nahi izan da.

Bainan, amodio izari gabeko hori irakutsiz, nahi zuen ere, ez da dudarik, gurea irabazi. Amodioa, amodioaz pagatzen da. Ez othe dugu, gurea, Jesusi emanen? Harrokak arrailtzen direnean, iguzkia ilhuntsen, Jesusen heriotzeaz dolhua hartu nahi balute bezala; gu hotz, gogor eta esker gabe egonen othe gare bada? Behar ginduke orduan, beldur izan, Jainkoaz madarikatuak garela, Jesusen heriotzea guretzat alfer egon litekenaz geroz, gure faltaz eta gure nahi eskasa delakotz.

119 Nahi izan dauku ere Jesusek irakutsi zoin gauza izigarria den bekatua. Kurutzean da ikusten, egiazki, bekatuaren itsuskeria. Bai; iduri du, Jesusen gorphutz sakratua estaltzen duten mila zaurietarik, oihu handi bat ilkitzen dela, erraiten daukuna: Bekatorea! ez othe duk bada orai ikusiko zer den, hain arinki, hain errexki egiten dukan bekatu hori? Hire gatik, hire hutsak direlakotz nagok, ene Aitaren madarizio-nearen pean lehertua(2). Zer da beraz bekatua!

Bainan, zer den ere gure arima! Zer den haren balioa Jainkoaren begietan, prezio hortaz erosia izaiteko!

Lur huntako gauza ez deusetan hondatuak bizi gare, eta ez daki-gu arimaren balioa preztzen. Bainan, zer argia heldu zaikun kurutzearen gainetik! Oi, ene arima! altxa zaite mundu huntako gauza, iduriz baliosenak direnak baino gorago; igan zaite Kalbariorat; kontsidera zazu Jainkoaren Semea, ikus haren odola kurutzea behera jautsiz, Kalbarioko lurra gorritzen: horra, horra zenbat balio duzun(3). Gu erosteko, gu beretzeko, ez du Jainko-Gizon batek uste izan sobera egin, bere burua hartaraino sakrifikatuz.

---

(1) Tradidit semetipsum pro me.

(2) Christus nos redemit de maledicto legis, factus pro nobis maledictum. (Ad Gal. III, 13).

(3) Erige te anima... tanti vales. (D. Aug. in Ps. 102, n.º 6).



Orhoit gaitezen beraz, ez garela gure buruen nausiak. Bi aldiz Jainkoarenak gare: hartaz kreatuak eta eginak, hartaz ere erosiak(1). Prezio handi bat pagatuak izan gare(2).

Beraz, Jesu-Kristoren gauzak, haren zerbitzariak gare, bere odolaz erosi gaituenaz geroztik. Bainan Jesu-Kristoren zerbitzari izaitzea ez da dorphe, eta ez da aphaltzea; errege izaitzea da, partialier zeruko haren primantzan.

120 Bertze erakaspen bat oraino badakarkate Jesu-Kristoren kurutzeak eta heriotzeak, eta hau da: pairatzean, penen jasaitean, bere buruaren bentzutzean direla, bertutea eta zeruko bidea.

Ez dugu ahantzi behar Adameren bekatuaz geroz, ez garela hastapenetik Jainkoak eman gintuen estatu berean aurkitzen. Adameren bekatuarekin, sarthu dire gure arrazan, arimako eta gorphutzeko gaitz guziak; izpirituko ilhunbeak, pasionen gudu trixteak, eta askotan, ahalkagarriak, horra arimarentzat; gorphutzarentzat aldiz, lan dorphe eta nekatua, pobrezia bere segidekin, eritasunak, sofrikarioak eta guzien gainetik, heriotzea.

Lurreko parabisuan, inozentzian, Jainkoaren amodioan, bihotzeko bake osoan, behar ginduen bilhatu eta ardietsi bethiereko zoriona. Bekatuaz geroz, guduan, gerlan eta penetan behar dugu nekerekin merezitu eta irabazi: *Violenti rapiunt illud*. Jesusen amodioaren seinale handienetarik bat izan da, berak nahi izan baidauku lehenik, bidea erakutsi, kurutze dorphea garraiatuz eta haren gainean hilez.

Gure naturaleza herbailak erraiten badauku, guti onhesten duela Jesu-Kristoren hitz hau: «Norbeit nahi bada niri jarraiki, ukho egin dezala bere buruari, har dezala bere kurutzea, eta niri segi dadiela»(3) ez othe da, hitz garratz hori erraiten daukuna bera, bere kurutzearekin, bera gure aintzinean eta gure gidari ibili izan nahi dena?

121 Sofritu gabe, ez daiteke bertuterik, ez daiteke merezimendurik. Errex zena, Adamek bekatu egin aintzinean, orai dorphe bilhakatu zai-ku. Gure jaidurak bekatuak itzuliak dire. Hekien kontra bortxatu behar gare, urean, gaiaren kontra igeriz dohan gizon batek bezala.

Eta bertzalde, osoki alferrak litezke gure entseiu eta harat hunatak, sofrikarioari ihes egin nahi bagindu ere; nahi edo ez, behar dugu,

---

(1) Non estis vestri. (S. Paul I, ad Corinth. VI, 19).

(2) Pretio empti estis. (S. Paul I, ad Cor. VII, 23).

(3) Si quis vult post me venire, abneget semetipsum et tollat crucem suam, et sequatur me. (S. Matth. XVI, 24).

eta beharko dugu bethi sofritu. Gure biziaren legea sofritzea eta gu-  
duan izaitea da(1). Bizitzeko ditugun beharrek; gorphutzeko errenku-  
ra eta eritasunek; bihotzeko nahi gabeek; familietako desgraziak; adix-  
kideen traidorekeriek; etsaien asperkondeek; hitz batez, mila eta mila  
gaitzek hersten eta inguratzen gaituzte, burdinazko presondegi batek  
bezala. Ez dugu zer egin, presondegi hortarik ilkitzeko. Alferretan  
gure indarrak higa gintzazke.

Zer egin beraz? Bihotz handi eta kuraiaz bethe batekin, itzul be-  
giak Kalbarioko bitima handia ganat; ahuspez eman kurutzearen oine-  
tan; ikus, Jesus gure Nausiak eta gidariak sofritu nahi izan duela, ze-  
ruko erresuman sarthu baino lehen.

Horrela eginez, eta bereziki Jesusen urratseri jarraikiz, ez bada  
amodioz, bederen pazientziarekin, bozkario eta fidantzia handirekin  
orhoituko gare Apostoluaren hitz huntaz: *Si compatimur et conglori-  
ficabimur*: Sofritzen badugu harekin, harekin ere izanen gare glorian.

---

(1) Militia est vita hominis super terram. (Job. VII, 1).

## HEMERETZI-GARREN KAPITULUA

*Maria Kurutzearen oinetan. Eba Berria, lehen Ebaren hutsa  
erreparatzen duena*

122 Jesusen pasioneaz, kurutzeaz eta heriotzeaz mintzatzean, nola ahantz dezakegu Maria, haren Ama Saindua? Maria hain hertxiki Jesusen pasionearekin bat egin duena, hain hertxiki ere eta handizki, partalier izan dena Jesusekin, munduaren salbamenduzko obra miresgarrian.

Lehen gizonak eta lehen emazteak, izan zituzten bakotzak bere hobenak gizonaren galtzean. Jainkoaren xedetan sartzen zen, gizona eta emaztea elgarrekin izan zitezten orobat, Salbamenduzko mixterioan. Noiz ete ere beraz ethorriko baita urrikalmenduzko eta Salbamenduzko ore-na, Jainkoak nahiko du, izan ditezen, Adame berri bat et Eba berri bat, gizonen salbatzeko eta lezetik kanporatzeko.

Zer egin duen hortarakotz, Jesu-Kristo, Adame berri eta sainduak, goraxago ikusi dugu. Dezagun orai erran, zer egin duen Eba berriak edo Mariak, lehen Ebaren hutsa erreparatzea gatik.

Mariaren partaliertasuna ez zen segurki baitezpada beharra, munduaren salbatzeko.

Bainan, nahi izan du Jainkoak, gizonaren erorikoan, bere parte deithoragarria emazteak izan zuen bezala, izan zezan halaber, gizonaren erostean, bere parte salbamenduzkoa, eta horrela, emaztea ere izan zadien Mariarekin altxatua, eta bere ohorezko herrunkan berriz ezarria.

Zoin diren ederrak eta miresgarriak Jainkoaren xede eta egintza guziak!

Haste hastetik, eta lurreko parabisuan berean, Jainkoak Maria agindu zaukun. Eta gero, ilhunbe beltzen erdian, mendez-mende, Mariaren

esperantza, izar ezti baten pare, distiarazi izan du, Israelgo populuaren eta bertze jendetzen bereen artean.

Ungi agertzen zaiku hemen Jainkoaren urrikalmendua. Heriotzearen legea bezain zaharra da salbamenduaren agintzazko hitza. Jainkoak kondenatu gaitu, egia da, justiziak horrela galdegiten zuelakotz. Baina, denbora berean ere, sugeari erran zioen: Emazte batek lehertuko dauk burua. Eta emazte edo Eba berri horren orhoitzapena ez da behinere ezeztatu ez ilhundu. Ardura, hartaz Profetak mintzo zaizkigu.

Israelgo populuaren ixtorio guzia, Mariaren orhoitzapenaz bethea da. Hemen, Debora eta Judith Jainkoaren populuaren etsaien bentzutzailleak; hortxe, Esther bere anaiak salbatzen dituena. Eta, bertze zenbat itxura ezti eta kontsolagarri, Mariaren orhoitzapena eta esperantza bethi bizirik atxikitzeko! Hura da, goizeko alba ezti, iguzkiaren aintzinean heldu dena; lore edo lili ederra, arantzen eta elhorrien artean distiatzen duena; hura, Dabiden Dorrea, etsaien harmada guzien kontrako ihets leku segura, eta bertze hainitz holako, Testamentu Zaharreko liburuetan, klarki, agerian, Maria aintzinetik itxuratzen eta agintzen dutenak!

123 Bainan, gohazen kurutzearen oinetarat. Han zaiku egiazki eta bereziki agertuko Mariaren biziko mixterio eder eta handi hori.

Lurreko lehen baratze dohatsuan, arbola bat bazen, ekhartzen zuena mundua galdu duen frutua; bada ere Kalbarioko mendian, arbola saildu bat, mundua salbatu behar duen frutua dakarkena: Jesu-Kristo kurutzeari itzatua. Lehen baratze dohatsuan, Ebak hartu zuen eta jan frutu galkorra, eta eman Adameri; Kalbarioan, Mariak Jainko Aitari ofreitzen dio, eta munduari emaiten, bere errailetan garraiatu duen frutu saildu eta salbagarria. Ebaz erortzea, Mariaz altxatzea; Ebaz bekatua, Mariaz eta haren Semeaz barkamendua; Adamez et Ebaz Jainkoaren justizia hasarretua, Jesusez eta Mariaz aphazegatua.

Zoin ederki mintzo zaizkigun Elizako Aitak, Erospeneko mixterio handian Mariak izan duen parteaz! Huna lehenik S. Krisostomo: «Ebak galdu zuena, Mariaz kobratua izan da»(1). S. Agustinek dio: «Bada hemen mixterio handi bat: hala nola, herioa sarthu baita munduan, emaztearen medioz, gisa berean ethorriko zaiku bizia, emazte baten medioz». Eta dio oraino Elizako Aita berak: «Emazte batez heriotzea, emazte batez bizia; Ebaz galduak, Mariaz salbatuak»(2). Entzun

(1) Restauratur per Mariam quod per Evam perierat. (S. Chrys.).

(2) Per faeminam mors, per faeminam vita; per Evam interitus, per Mariam salus. (S. Aug. De symb. ad Catech. Serm. III, C. 4).

dezagun ere S. Anselmo: «Gizon baten obedientzia eskasaz, heriotzea munduan sarthu zen bezala, behar zen, gizon baten obedientziaz, bizia ere sarthu; gure galtzearen lehen hastapena emazte bat izan zen bezala, emazte batetik behar zen ere sarthu salbamenduaren emaillea»(1).

124 Elizako Aiten erakaspen eder hori, Kalbarioko mendian zaiku bereziki bere egia osoan agertzen.

Bainan, norik erran dezake, zoin garratza eta doloragarria izan zen Mariarentzat, gure erospeneko obran, kurutzearen oinetan hartu zuen karga! Ez dezake nihork, urrundik ere asma Mariak zuen amodioa Jesusentzat. Maite zuen Jesus bere Jainko eta bere Seme bezala, erran nahi baita, bihotz osoki samur, garbi eta saildu hartan, aurkitzen zirela, denbora berean, eta elgar sustatzen zutelarik, izan ditezken bi amodio handienak: Ama hoberenaren amodioa Seme perfetenarentzat, eta bihotz sailduenaren eta perfetenaren amodioa bere Jainkoarentzat. Bada, maite dena gatik jasaiten diren sofrikarioak, amodioaren izari eta neurri berean dire. Zerbeit hortik juiatzen ahal dugu Mariaren sofrikarioen gainean, Jesus kurutzean hiltzen zelarik.

Eta hemen gehienik miretsi behar duguna, eta gure amodioa Mariaren alderat gehienik hazkartuko duena, hau da: Mariak ez duela martirio izigarri hori jasaiten, bortxaz eta bere gogoaren kontra, eta ezin bertzean. Ez, ez; gogo onez, amodioz egiten du bere Seme Dibinoaren biziaren sakrifizioa: hainbertze gaitu maite, eta hain ungi Jainkoak ikusterat emaiten dio, Jesusen heriotzeaz behar garela izan erosiak. S. Anselmek erraiten du gauza espantagarri hau: Jainkoaren xedekin eta nahiarekin, eta denbora berean, Semearen obedientzia osoarekin, hanbatetaraino bat egiten zuela Mariak, non, haren eskuen laguntza behar izan bazen, gu salbatzea gatik, Jesusen hiltzeko, laguntza hura emanen baitzuen.

Santa Mextildek erraiten du, Mariak bere Semearen sakrifizioa ofreitu duela ez xoilki kuraiarekin, Abrahamek bere semea ofreitzera zohan bezala, bainan oraino bozkario batekin bezala, gu salbatzea gatik(2).

---

(1) Oportebat, ut quedmadmodum, quod fuit causa nostrae damnationis, initium habuit a faemina, sic nostrae justitiae et salutis auctor nasceretur de faemina. (S. Ans. Cur Deus homo, C. III).

(2) Gaudens Filium suum pro mundi salute voluit immolari. (S. Mextild.).

Oi! nola beraz maite izan gaituen Mariak kurutzearen oinetan!  
Ama zen, Seme maitagarrienaren Ama, eta guretzat eman izan du.

Errana da ama bat ez zaitekela kontsola bere semea galdurik. Haren penak eztitu nahiz, kondatu zion norbeitek, Abrahameri Jainkoak manatu ziola Isaak bere seme bakarra sakrifika zezon. Ai! ihardetsi zuen ama harek, ez zuen sekulan Jainkoak ama bati gauza hori galdeginen.

Bada, gauza hori, Jainkoak galdegin du Maria Jesusen Amari, eta Mariak onhartu du.

## HOGOI-GARREN KAPITULUA

### *Maria Kurutzearen oinetan. — Gure Ama*

125 Trinitate Sainduko bi-garren presuna gizon egin zen, eta, gizon bezala, kurutzearen gainean hil izan da, naturalezaz goragoko bizi bat gizonari emaiteko.

Bada, izanen du Mariak, mixterio huntan ere, bere obra ederra egiteko. Jesu-Kristo, Adame berria denak emaiten dauku, zeruko primantza berekin dakarken bizi berri hori, Adame lehenetik gorphutzeko bizia dugun bezala.

Kreazione eta sortze berri hortan, Maria gure Ama izanen da, kurutzearen oinetan. Ikusi dugu jadanik, zer bihotz on eta jenerosarekin partalier izan den Jesusen martirioan. Bada, martirio bat balinbada amatasuna, nor da, buru hortarik, Maria bezinbat ama izan denik? Bere ariman, bere bihotzean jasan izan ditu bere Seme Dibinoaren oinaze guziak; ez da Jesusen oinazetarik bat, Mariaren bihotzean bere oiarztzun doloragarria izan ez duenik.

Bai, Mariak sofritzen zuen guretzat Jesusekin; eta, Jainkoaren begiez xoilki neurtua izan ahal ziteken martirio hortan, Jesusekin bizi berri bat eman zaukun(1).

Bazuen Adamek lagun bat, arimako heriotzea eman daukun bekatuzko mixterioan; badu ere Jesu-Kristok lagun bat, graziaren bizia emaiten daukun mixterioan. Populu berri bat, populu saindu bat sortzen da, ez xoilki Aitaren amodiotik eta Semearen sofrikarioetarik, baina ere Amaren amodiotik eta sofrikarioetarik. Populu dohatsu horrek badu, Maria baitan, egiazko Ama bat, baina biziarentzat; aintzineko populuak, Adameren obedientzia eskasetik eta Ebaren urgulutik sorthu izan zenak, izan zuen bezala Ama bat Eba baitan, baina

---

(1) Erat magno dolore parturiens.

Ama bat heriotzearentzat (*Ventura*). Jesusen ondotik, Mariari esker dugu beraz izaiten gure bizi berria, naturalezaz goragoko bizia. Kalbarioko mendian, Jesussek bere thonba aurkitzen duen tokian, guk aurkitu dugu bizia; hura hiltzen da, gu egiazki sortzen gare.

Zoin ezta eta kontsolagarria den gure arimentzat amodiozko mixterio hori! Zer fidantzia behar daukun eman Maria baitan! Bainan ez da aski. Dudarik gelditzen balitz oraino gure izpirituetan, gorago erakatsi dugun dotrinaren gainean, Jesusen hitzak osoki kenduko dauz-kigu.

Jesus kurutzeari itzatua da. Egin dio bere Aitari biziaren ofrenda, Adameren bekatuaren erreparazionetan, eta munduaren salbamendu-kotzat.

Jesusen kurutzearen oinetan da Maria, haren Ama osoki saildua, xutik, STABAT. Harek ere, bere bihotz doloratuan, Semearen ofrenda bera egiten du Jainkoaren justiziari. Han da ere Mariaren aldean, Jaun Doni Joanes Apostolua.

Azken hatsa aurtiki aintzinean, Mariaren alderat itzultzen ditu Jesussek begiak, eta erraiten dio Joanesez mintzo delarik: «Emaztea, horra zure semea»(1). Erraiten du gero dizipuluari: «Horra zure ama. Eta ordu beretik hartu zuen dizipuluak Maria bere amatzat»(2).

- 126      EMAZTEA, dio erraiten Jesussek Mariari; ez du gehiago bere AMA deitzen. Iduri du itzaltzen den dela bera, oren hartan, Mariaren Seme bezala; iduri du, nahi duela, ahantz dezan Mariak haren Seme osoki maitea dela, eta garraia dezan gu guzien gainerat, harentzat duen amodio guzia. Erraiten balio bezala: Oi Emaztea! enetzat duzun amodioak jasan-arazten dautzu ezin erranezko dolore bat; enetzat duzun amodio handi, soberano hori, zure bihotz guzia, zure arima guzia bethetzen duen amodio hori, nahi dut eta galdegiten dautzut, garraia dezazun ene Elizaren eta niri jarraikiko direnen gainerat. Hemen dire guziak Joanesen presunan. Ene orde emaiten dauzkitzut guziak; maita zatzu ni maite nauzun amodio beraz.

Oi! hitz eztiak guretzat! Oi amodiozko testamentu adoragarria! Maria Amatzat emaiten zaukuten hitz horiek erraitearekin, ideki zuen Salbatzaileak bere Bihotz amodioz suhartua; handik amodioaren su bat bezala ilki zen, eta jautsi Mariaren gainerat; inguratu bezala zuen,

---

(1) ... Dicit matri suae: Mulier, ecce filius tuus. (Joan. C. XIX, 26).

(2) Deinde dicit discipulo: Ecce mater tua. Et ex illa hora accepit eam discipulus in sua. (Joan. C. XIX, 27).



eta hobeki erraiteko, ezin erranezko indar batekin sarthu zen Mariaren bihotzean, ariman eta izaite guzian. Ordutik, bere amodioan, ez da gutaz bezik ohartzen; berritz ere eta mila aldiz jeneroskiago, egiten du guretzat bere Seme Dibinoaren biziaren ofrenda. Ikusiz, Jesusen heriotzeaz behar garela izan salbatuak, bere dolorea zehatzen du, eta nahi luke hil Jesusekin, bere haurtzat onhartu dituenen Salbamentuarentzat (1).

O Jesus! eskerrak daukitzugu dohain berezi eta miresgarri horrentzat. Gure Ama zen jadanik Maria, guretzat kurutzearen oinetan jasan zituen sofrikarioez. Bainan oraitik doblezka da gure ama, zure nahiaz eta zure manuz.

Hortan da, Maria baitan izan behar dugun fidantzia handiaren zimendua.

Jesusen Ama delakotz, Mariak badu bere Semearen bihotzean murririk gabeko bothere bat. Ez daiteke bertzela. Mariaren nahi guziak manuak dire Jesusentzat. Seme on batek entzuten eta ohartzen ditu bere amaren galde zuzen guziak. Bada, ez dezake Mariak deus bilha, baizen Jainkoaren gloria eta gure arimen ona. Horra zertako, Elizako Aitek erraiten duten, Mariak egin dezakela bere othoitzaren bothereaz, Jainkoak bere Jainkozko bothereaz egiten ahal duen guzia (2).

127     Eta bothere izari gabeko hori, guretzat eta gure onarentzat dago-  
ka. Ezen gure Ama da, eta ama guzietan hoberena eta amultsuena. Aski  
garrazki erosi du kurutzearen oinetan gure Ama izaitea.

Gure Ama da Maria! oi pentsamendu ezti eta gure bihotza gozo eta bake handi batean eman behar duena! Gure Ama da! Eta guretzat egin duenaz geroz bere Seme bakarraren sakrifizioa, zer ez du egin nahiko, hainbertze gusta zaizkon haurren salbamentuarentzat?

Eta orai, ez da gehiago kurutzearen oinetan. Akabatuak dire haren penak. Ez zaio gelditzen bere penetarik, gure alderat hartu duen amatasunaren orhoitzapena baizen.

Erran dezagun kapitulu hau akabatzean. Jesus, gure Salbatzailea kurutzean hil da guretzat; Maria, kurutzearen oinetan egin da gure ama eta gure arartekoa. Zer bozkario eta zer fidantzia gure arimentzat!

«O gizona, dut erranen S. Bernatekin, beldur hintzen Jainko Aita ganat hurbiltzeko? Haren boza entzutearekin, ikharaz joa, oihanean es-

---

(1) Flagrabat beata virgo charitate, ut cum prole pro humani generis salute vitam profunderet.

(2) Quod Deus imperio, tu, Virgo, prece potes.

tali hintzen: Jesus eman dauk arartekotzat. Horrelako Aita baten aintzinean, zoin indartsua den horrelako Seme bat! Beldur izanen othe haiz ere haren ganat joiteko? Hire anaia duk, hire idurikoa, hire flakeza guziak jasan nahi izan dituen, salbo bekatua... Bainan menturaz, anaia horren aintzinean ere beldurtzen haiz, zeren nahiz gizon den, Jainko baita ere. Nahi duk ararteko bat haren aintzinean? Hoa Mariaren ganat... Semeak onhartuko dik Amaren othoitz, eta Aitak Semearena» (1).

---

(1) S. Bern. in Nativ. B.M.V.

## HOGOI ETA BAT-GARREN KAPITULUA

### *Jesusen Phiztea*

128 Jesu-Kristo, ez gizonen bothereaz, bainan berak hala nahi zuela-kotz, hil zen kurutzearen gainean, erran nahi da, haren arima gorphutzetik berexi zela. Jainko bezala ez zaiteken hil; hil zen xoilki gizon bezala. Jainkotasuna, hargatik, heriotzea ondoan ere, bethi izan zen bai Jesu-Kristoren arimarekin, bai haren gorphutzarekin.

Ebanjelio Sainduan irakurtzen dugu, Josepe Arimathekoa, aberatsa eta aiphatua Juduen artean, gizon zuzena eta justua, joan zela Pilatusen ganat; eta Pilatusen baiarekin, eman zuen Jesusen gorphutza, balsamatu ondoan, nihor oraino ehortzia izan ez zen harrizko thonba batean.

Jautsi zen haren arima Saindua ifernuetarat; ez, aingeru gaixtoen eta arima damnatuen ifernurat, bainan *linboetarat*. Han ziren, Jesus lurrerat ethorri, eta kurutzearen gainean mundua salbatu aintzinean hil ziren justuen arimak. Adameren bekatuaz geroz, ez ziteken nihor sar zeruan. Salbatzaleari zitzaion, zeruko athearen idekitzea, eta bera han lehenik sartzea. Ethorri aintzinean Erospeneko orena, justuen arimek Jesusen arima igurikitzen zuten linboetan; ez zeruan, Jainkoa ikusiz eta hartaz gozatuz; bainan bakean, oinazerik gabe, eta Salbatzailearen esperantzak emaiten zioten gozo ezti batean.

Zer bozkarioa Adame eta Ebarentzat, eta Abrahame, Isaak, Jakobe, Dabide, eta bertze hainbertzeentzat Jesusen arima leku hetarat jautsi zenean! Ordutik, linboak, Parabisu bat bezala bilhakatu ziren; ezen, dio S. Krisostomek, non eta ere baita Jesu-Kristo, han da zerua(1).

Eta, denbora hartan, zer hari ziren Jesusen etsaiak? Dударik gabe bere bitoria madarikatuz gozatzen? Ez; Jesusen orhoitzapenak berak

---

(1) Nam ubi Christus, ibi coelum. (D. Chrys. Serm. 2 n. 32).

ikharatzen zituen oraino. Badohazi Pilatusen ganat eta erraiten diote: Jauna, orhoitzen gare, bizi zelarik oraino, gizon gezurti horrek erran duela: Phiztuko naiz, hil eta hirur garren egunean. Mana zazu beraz haren thonba zaindua izan dadien hirur-garren eguneraino, ez dezaten dizipuluek, gorphutza handik altxa, eta gero erran populuari: Phiztu da hilen artetik. Erran zioten Pilatusek: Baditutzue begiratzailleak; zohazte eta egin zazue, zaitzuen bezala. Joan ziren beraz; thonba estaltzen zuen harrian eman zuten zigilua, eta soldadu begiratzailleak ezarri haren inguruan.

Bainan, bere herrak eta beldurrak egin arazten diozkaten urrats horiek guziak, alfer eta debalde izanen dire. Hobeki erraiteko, argi handiangoan emanen dute, Jesusen phiztearen mirakuilu gloriosa eta Jainkozkoa.

129 Soldadu Erromanoak ezarriak izan ziren beraz Jesusen thonbaren zaintzeko.

Bainan, huna non lur ikhara bat gertatzen den hirur-garren egunean; Jainkoaren Aingeru bat jausten da zerutik; bazterrerat emaiten du thonba hesten duen harria, eta jartzen da haren gainean. Haren arphegiak, dio Ebanjelistak, ximistaren pare distiatzen du, eta haren jauntziak elhurra bezin xuri dire. Hura ikustearekin, soldadu zaintzailleak hainbertzetarainoko ikharan eman ziren, non, hilak bezala erori baitziren ahuspez lurrerat. Jesus phiztua zen.

Bere indar xoilez, Jesus hiletarik phiztea da, gure sinhestearen eta Erlijionearen zimendu hazkarrena. «Ez bada Jesu-Kristo phiztu, zioen Jaun Doni Paulo Apostoluak Korinthianoeri, alferrak dire gure predikuak, eta ez deusa da zuen fedea»(1). Hortakotz erraiten zuen S. Agustinek: «Ez da gauza handi bat, Jesu-Kristo hil izan dela sinhestea; Juduek, Paganoek, bekatoreek, guziek orobat sinhesten dute hil izan dela. Bainan, giristinoen sinhestea da, Jesu-Kristo phiztu izan dela. Eta hori da gauza handia, gure begietan»(2).

Erlijione Sainduaren etsaiek nahi izan dute mixterio espantagarri hori ukhatu; konprenitzen dugu errexki.

Bere indar xoilez hiletarik phiztea, hori da, dudarik gabe, Jainkozko obra bat: eta beraz, Jesu-Kristo phiztu bada, egiazki Jainko da.

---

(1) Si autem Christus non resurrexit, inanis est ego praedicatio nostra, inanis est et fides vestra. (Prima Paul. ad Corint., XV, 14).

(2) S. August. in Ps. CXX.

Jainko bada, harek establitu dituen Erljionea eta Eliza Jainkozkoak dire. Hor ez da duda biderik.

Froga dezagun beraz, egiazki Jesus phiztu dela.

130 Hil baino hainitz egun aintzinetik, eta behin baino gehiagotan, Jesus mintzatu izan zen bere phizteaz, bai bere adixkideri, bai etsaieri.

Erran zioten bere dizipulueri: «Bagohaz Jerusalemerat, eta han izanen naiz azotatua eta kurutzean emana, eta gero, hirur-garren egunean, phiztuko naiz» (1).

Bertze egun batean, nola Eskribanoek eta Farisauek mirakuilu bat galdegiten baitzioten, ihardetsi zuen: Izanen duzue Jonasen mirakuilua; hura bezala, Gizonaren Semea egonen da lurraren pean hirur egunez eta hirur gauez (2). Abisatuak ziren beraz aintzinetik, bai adixki-deak, bai eta ere etsaiak.

Jainko bada egiazki Jesu-Kristo, ez bada enganatzaile bat, phiztu behar da. Hori zor dio hoin klarki eman duen hitzari. Bainan hori izanen da ere haren mirakuiluetarik handiena, eta haren Jainkotasunari azken zigilua emanen dioena.

Dezagun beraz ikus. Juduek, erran dugun bezala, eman zituzten artha handirekin soldaduak Jesu-Kristoren thonbaren inguruetan, haren zaintzeko. Horiek guziak gatik, hirur-garren egunean, ez da gehiago Jesus thonban aurkitzen. Eta harat joan zirenean emazte Sainduak, Aingeru batek erran zioten: «Ez zaiztela beldur izan; Jesus Nazarethekoa bilhatzen duzue? Ez da hemen... Phiztu da, berak erran zuen bezala. Zohazte berri horren emaiterat Petriri eta dizipulueri».

Jesus thonban emana izan zela, ez da hortan dudarik; guziek bazakiten. Soldadu Erromanoak han ziren. Hirur-garren egunean, ez da gehiago Jesus Thonban. Zer erran gauza ageri hoikieri kontra egiteko?

Erranen daukute, Jesusen gorphutza, gauaz Apostoluek ilki zutela thonbatik, eta berekin eraman, nihor ohartu izan gabe. Zer zorokeria! Zer! Apostolu hek, hain beldurtiak non, Jesusen Pasioneko orenean, guziak ihesari eman baiziren; Apostolu hek, zoinen artean iduriz guzietarik kuraiosenak, Jaun Doni Petrik, Jesus arnegatu baitzuen, aski kuraia izan dutela, soldaduen gathea zilhaturik, Jesusen gorphutza altxatzeko? Ez zen hori lan ttipia; denbora hainitz galdeginen zuen; ezen, thonba harri bizian egina zen; estaltzen zuen gaineko harria dor-

---

(1) Matth. XX; Marc; Luc.

(2) Sicut enim fuit Jonas in ventre ceti tribus diebus et tribus noctibus: sic erit Filius hominis in corde terrae, tribus diebus et tribus noctibus. (Matth. XII, 40).

pha zen eta zigilatua. Apostoluek egin dutela lan hori, eta ez direla soldaduak batere ohartu eta ez nihorat mugitu? Nork hori sinhets dezake?

- 131 Gehiago dena; irakurtzen dugu S. Mattheoren Ebanjelioan, Jesus thonbatik ilki zen ondoan «han zagozin soldaduetarik zoinbeit joan zirela hirirat, eta erran ziotela Aphezen Buruzagieri zer gertatu zen». Bildu ziren Aphezen Buruzagiak elgar ganat, populuko Zaharrekin, eta kontseilu baltsan atxiki ondoan, soldadueri eman zioten dirua ausarki emaiten ziotelarik: kondatuko duzue, Jesusen dizipuluak ethorri direla gauaz, zuek lo zinetelarik, eta haren gorphutza eraman dutela(1). Eta hola hola egin zuten. Hartu zuten dirua soldaduek, eta erran zuten irakutsia izan zitzaioten bezala. Bainan gezurra, bere saretan hartua ardura gertatzen ohi da.

Soldaduak! lo bazinezten, nondik bada jakin ahal duzue, dizipuluek Jesusen gorphutza eraman dutela? Eta, ez bazineten loharkatuak, nola ez ditutzue dizipulu flako eta kuraia gabeko hek ihesari eman, edo hobeki, eskuetan atxiki, zuen atzartasunaren lekuko izan zitezen?

Bainan zertako bara holako zorokerietan?

Jesusen phiztearen bertze ageri bat oraino badugu. Jesus agertu zen bere dizipulueri; mintzatu zitzaioten; jan ere zuen heiekin. Erranen othe du norbeitek, Apostoluak amets batez enganatuak izan zirela, edo gu enganatu izan gaituztela?

Bi gauza horietarik, ez bat ez bertzea ez dago xutik.

Hain zen flakoa oraino Apostoluen fedea, non ez baitzuten Jesus phiztu zela sinhetsi nahi izan, berek bere begiez ikusi arteraino. Nork ez daki Thomas Apostoluaren ixtorioa? Alferretan, hamar Apostoluek eta Emazte Sainduak erraiten diote Jesus phiztu dela, bere begiez ikusi dutela; bere dudan oraino tematzen da. «Non ez dudan neronek ikusten, eta haren zauriak ene eskuez unkitzen, ez dut sinhetsiko.» Horra nola mintzo den. Bainan, hastapenean Thomasek izan zuen sinheste eskasa bera gure alde doha. Jesus ikusi zuen. Haren zauriak unkitu zituen, eta Jesusen oinetan emaiten zelarik erran zion: «Oi ene Jauna eta ene Jainkoa! *Dominus meus et Deus meus*(2).

- 132 Ez dire Apostoluak enganatuak ahal izan, hori gauza segura da. Jesus phiztua ikusi zuten, harekin jan, eta bere eskuez unkitu.

---

(1) Matth. XXVIII, 11-14.

(2) S. Joan XX, 28.

Bainan, Jesusen phiztea erakustean, gu enganatu othe gaituzte bada Apostoluek?

Bainan zertako eta zer irabazientzat?

Izpiritu Saindua hekietarat Mendekoste egunean ethorri zenetik, Judueri erraiten hari ziren, zuzen guzien kontra Jesus hil zutela, phiztu zela, eta horrela irakustera eman zuela bere Jainkotasuna. Gezurra bazioten, zer irabazi izan zezaketen? Deus ere; ez Jainkoaren, ez gizonen ganik. Jainkoaren aintzinean, hobendun izanen ziren, gezurti gisa, eta oraino hobendunago, gizon bat Jainkotzat adorarazi nahiz. Ez zuten ere gizonen ganik gaitzik bezik igurikitzen ahal.

Eta zer gertatu zen ere? Apostoluak presondegietarat aurtikiak izan ziren, pertsekutatuak, oinaze guzietan emanak, azkenean ixuri zuten bere odola, munduko botheretsu guzien kontra egia hau sustengatzeko: Jesu-Kristo Jainko da; Juduek hil dute, berak hala nahi zuelarik gu salbatzea gatik; bainan hilen artetik phiztu da, bere Jainkotasunaren ageria emaiteko. Gure begiez ikusi dugu, eta gure eskuek unkitu dute phiztu den ondoan.

Non dire, non litezke gizonak bere bizia emaiten dutenak edo eman lezaketenak, gezurraren finkatzeko? Egiarentzat, bai, nahi dut; bainan gezurrarentzat? Errokerietan handiena liteke.

Beraz, lekukotasun segurenak badire, Jesu-Kristo phiztu dela. Beraz Jainko da; eta beraz, haren Erlijionea Jainkozkoa da.

## HOGOI ETA BI-GARREN KAPITULUA

### *Jesusen zerurat Igaitea*

133 Nasaiki bethe eta konplitu du Jesusek munduaren Erospeneko obra handia. Ordu da beraz eman dezon bere Gizontasun sainduari, hainbertze oinaze eta aphaltzeez merezitu duen gloria. «Zuzen da haren izena altxatua, ohoratua izan dadien, izen guziez gorago» (1).

Phiztu zen ondoan, Jesus lurraren gainean egon zen oraino berrogoi egunez. Ardura agertu zen bere Apostolueri; heiekin jan zuen. Nahi zituen gisa hortan ezeztatu, haren phiztearen eta Jainkotasunaren gainean oraino izan zitezken azken dudak. Nahi zituen ere gero eta gehiago argitu bere erakaspén Jainkozkoan. Establitua zuen bere Eliza, eta Jaun Doni Petriri eman zioen haren aintzindarikoa; eta azkenean erran zioten, joan zitezen munduaren bazter guzietarat haren Ebanjelioa predikatzerá: «Zohazte, eta predika zazue ene Ebanjelioa gizon guzieri eta bathaia zatzue». Agindu zioten Izpiritu Saindua egoerriko ziotela, eta hekiekin eta hekien ondokoekin izanen zela munduaren akabantzaraino. Eraman zituen gero berekin Bethaniarat eta Olibetako mendiaren gainerat.

Azken aldikotz altxatu zituen eskuak hekien buruen gainean, benedikatzen zituelarik, eta dizipuluek ikusi zuten altxatzen zela lurretik, eta airetan joáiten zeruetarat. Laster sarthu zen hedoi distiant batean, eta hekien begieri gorde. Zeruko alderat itzuliak zagozkaten oraino begiak, noiz eta ere bi Aingeru agertu bai zitzaizkoten, xuriz aphainduak, erran ziotenak: «Galileako gizonak, zer gatik zagozte horrela zeruari beha? Zeruetarat igaiten ikusi duzuen Jesus hori bera handik berritz jautsiko da» (2).

---

(1) Deus exaltavit illum et donavit illi nomen quod est super omne nomen. (B. Paul ad Philipp. II, 9).

(2) Quumque intuerentur in coelum eumten illum, ecce duo viri adstiterunt juxta illos, in vestibus albis, qui et dixerunt: Viri Galilaei, quid statis adspicientes in coelum? Hic Jesus qui assumptus est a vobis in coelum sic veniet quemadmodum vidistis eum euntem in coelum. (Act. Apost. C. I, 10-11).



Jesus igan zen zeruetarat gizon bezala, gorphutz eta arima, bainan ez daiteke erran Jainko bezala igan zela zeruetarat, nahiz Jesu-Kristo baitan, Jainkotasuna bethi Gizontasunarekin juntatua zagoen. Jainkotasunaz, ez zuen zerurat igaiteirik, ez zuenaz gerotik behin ere zerua utzi. Hargatik Jainkotasunaren botherea agertu zuen zerurat igaiteko mixterioan.

134 Mendi saindutik jaustearekin, joan ziren Apostoluak Jerusalemeko hirirat, alde batetik bihotza ilhun bere Nausi Dibinoa galdurik, bainan ere, bertze alde batetik bozkarioz gaindituak. Sarthu ziren, azken afarria Jesusekin egin zuten etxe berean, han othoitzean eta mundutik urrunduak igurikitzeke, Jesusek zerurat igaitean agindu zioten Izpiritu Saindua.

Asko erakaspén salbagarri baditugu hartzeko Jesusen zerurat igaiteko mixterioan. Eta lehenik nahi izan dauku Jesusek eman mixterio hortan, bere Jainkotasunaren froga berri bat.

Phiztea bezala, zerurat bere bothere xoilaz igaitea, Jainkoak bakarririk egin dezaken gauza bat da.

Flakoa eta ephela zen oraino Apostoluen fedea, eta handizki kordokatua izan zen, Pasioneko oren ilhunetan. Ikusi zuten bere Nausia etsaien eskuetarat eroria; burlatua, aphaldua ezin gehiago, lurreko har baten iduriko bilhakatua. Egia da, geroago haren phiztea jakin izan zutela; bainan ez ziren, bere begiez, heriotzearen gainean eraman zuen garaitiaren lekuko izan.

Ikustearekin, Jesus bere bothere xoilaz, eta berak lekuko zirelarik, lurretik zerurat igaitean zela, zer itzal edo duda geldi zaiteken oraino hekien izpirituetan? «Bai, dio S. Agustinek: zerurat igaitean Jesusek irakutsi du egiazki Jainko dela»(1).

Bertzalde, zer zen zuzenago, hanbat aphaldua izan ondoan, gizon bezala, izan zadien ere orobat gizon bezala, guziez gorago altxatua? Hanbat sofritu zuen gorphutz hura izan zadien glorifikatua? Aphaldu da, dio Apostoluak, eta horra zertako Jainkoak altxatu duen(2).

Bainan huna zerk behar dituen gure bihotzak goiti altxatu, bozkarioz eta kontsolazionez bethe. Jesus zerurat badoha, han guri toki baten egiteko. Beraren hitza da(3). On da zuentzat, Apostolueri zioten

---

(1) In Ascensione vere se esse Deum testatus est. (S. August. Serm. 6 de Ascens.).

(2) Propter quod et Deus exaltavit illum. (Philipp. II, 9).

(3) Vado vobis parare locum. (Joan. XIV, 28).

erran, bai, egiazki on da, joan nadien. (1) Agindu duen bezala, zerutik egorriko du Izpiritu Saindua, mundua erreberrituko duen Izpiritua. Zeruan, bethi izanen da ere gure ararteko bere Aitaren aintzinean (2).

Eta zoin indartsua eta botheretsua haren arartekotasuna! Zenbat nahi handia eta garratza izan dadien Aitaren justizia, zer galde dezake gehiago, Jesus bere aintzinean emaiten zaionean, Kurutzea eskuan, bere oin eta esku zilhatuekin, burua arantzez koroatua, eta gorphutz guzia guretzat sarraskitan emana?

Hargatik ez dezagun utz gure bihotza esperantza faltso batez hanpatzera. Guri tokiaren egitera joan bada Jesus zerurat, gure arartekoa balinbada, orhoit gaitezen ere, ez garela harekin altxatuak izanen, non ez garen lehenik harekin aphaltzen, non ez dugun harekin sofritzen: *Si compatimur et conglorificabimur.*

Jesusek behar izan du aphaldu, pairatu, zeruko glorian sartzeko (3).

Bide bat bezik ez da zerurat heltzeko. Hura da Jesusek irakutsi daukuna: umiltasuna, obedientzia, bere buruaren zapatzea: hitz batez, Jesusen segidan kurutzea garraiatzea.

---

(1) Expedi vobis ut ego vadam. (Joan. XVI, 7).

(2) Semper vivens ad interpellandum pro nobis. (S. Pauli ad Hebr. VII, 25).

(3) Nonne haec oportuit pati Christum, et ita intrare in gloriam suam? (Luc. XXIV, 26).

## HOGOI ETA HIRUR-GARREN KAPITULUA

*Zertako sinhesten ditugun azkeneko kapituluetan erakutsiak diren egiak. — Arima errebelatu, bainan zuzen baten ixtorioa, ardura gertatzen dena.*

135 Liburu hunen egiten hari nintzen; doi-doia akabatuak nintuen Jesusen sortzeaz, heriotzeaz, phizteaz, zerurat igaiteaz mintzo diren kapituluak, ikustera ethorri zitzaiteanean aspaldiko adixkide zahar bat.

Giristino legean altxatua izana zen. Haur-haurretik bere aita-ama onekin ikasi zuen, gizon guzien eginbide handi, erran daiteke bakarra, bertze guziak hortan sartzen direlakotz, hauxe dela: Jainkoa ezagutuz, maitatuz eta zerbitzatuz, bethi-ereko bizia ardiestea.

Bainan, harat hunat asko ibili zituen geroztik. Ez zuen Jainkoaren baitako sinhestea osoki galdu; ez zituen bere haurtasuneko eta lehen gaztetasuneko erakaspenak osoki arbuiatu eta ahantzi, ez; bainan zenbat zen haren fedea flakaturia eta ilhundua! Duda tzar hainitz, Erlijioneko gauzen gainean, sarthu ziren haren izpirituan; Erlijioneaz burlatzen ziren asko liburu eta *gazeta* tzar irakurri zituen aspaldiko urthetan.

Atsegin eta amodio handirekin ikusi ginduen elgar; gure bihotzek ez zuten elgar behinere ahantzi. Haren harat hunatak, bozkariozkoak trixteziakoak bezala entzun ondoan, ezen gizon guzien bizia horietaz egina da, erran nion ni ere ene aldetik zer hari nintzen, ene ustez Jainkoaren gloriarentzat eta arimen onarentzat; irakurri nihozkan, zuek Eskualdun maiteak, irakurri dituzuen azkeneko kapitulu hauk.

Sumindu zitzaidan; nik, ene aldetik ez nuen amor eman nahi, Erlijioneko egien gainean, eta huna nola bat eta bertzea mintzatu izan ginen:

Harek

Bainan, ene adixkide zahar eta jaun maitea, gauza espantagarriak kondatzen ditutzu zure liburu hortan. Hoikien sinhesteko, gure adimenduari ukho egin behar ginduke. Hil bat, bere indar xoilez, thon-batik ilki dela, eta gero, zeruetarat altxatu; Izpiritu Saindua, geroago erran gogo duzun bezala, suzko mihi batzuen itxuran, Apostoluetarat jautsi dela, nork gauza horiek sinhtes detzazke? Ez duzu zeren hori ni ganik iguriki.

Nik

136 Horietan guzietan ez da deus Jainkoaren bothereaz gorago denik, eta beraz, gure adimenduaz onhetsia izan ez daitekenik.

Zerua eta lurra egin dituenak, gizonari bizia eman dionak, ez da dudarik, gorphutz hil bati berriz ere bizia eman dezakela, eta gorphutz hura zeruetarat altxaraz. Bada, horiek gertatu dire Jesu-Kristo Jainko-Gizona baitan. Jesu-Kristo ez da xoilki gizon bat, bainan Jainkotzat ere dagokagu.

Harek

Egiazki Jesu-Kristo Jainko bada, ez dut deus erraiteko. Bainan, Jainko dela, nola frogatzen ahal duzu?

Nik

Frogatzen dautzut, bertze deus bilhatu gabe, zuk dudan emaiten ditutzun gauza horietaz berez; Jesu-Kristok egin dituen mirakuiluez, eta guzien gainetik, haren phizteaz eta zerurat igaiteaz. Aithortuko duzu horiek direla gauza batzuek, Jainko batek bakarrik egin detzaz-kenak.

Harek

Ez da hori ihardestea eta duda ber-beretan uzten nauzu. Gauza horiek gertatu balire egiazki, sinhets nezake, Jesus Jainko dela. Bainan gertatu direla, nork eta zerk emaiten daut segurantza?

Nik

Nork eta zerk? Bainan, Apostoluek eta hekien lekukotasunak.

Harek

Apostoluek? Nola nahi duzu hekien lekukotasuna onhar dezadan, bere fagoretan mintzo direnaz geroz?

Nik

Bere fagoretan mintzo direla, hori erraitea errexago da frogatzea baino. Zer nahi den, eta ez da hau gauza ttipia, Apostoluek heriotzea jasan izan dute, bere hitza sustengatzea gatik.

Zer abantail eta irabazi eder aurkitzen duzu gauza hortan?

Bainan gohazen emeki eta urratsez urrats. Apostoluak lekuko batzuek dire. Bada Apostoluen lekukotasuna gaitzesteko edo ukhatzeko erran behar laiteke, edo apostoluak berak enganatu izan direla, edo, nahi izan gaitzuztela enganatu.

Segitzen nauzu ene arrazoinamenduan? Ez othe da hola, bat edo bertzea?

Harek

137 Ungi segitzen zaitut, eta orai arte zure arrazoinamendua zuzena da.

Nik

Ungi da; uste dut ikustera eman, ezin ukhatuzko moldean: lehenik, Apostoluak ez direla berak enganatu, erraiten gaituzten gauzen gainean; bi-garrenekorik, ez gaituztela nahi izan enganatu; hirur-garrenekorik, nahi izan balute ere, ez zirela hortarat heldu ahalko.

Harek

Ikusten dut, hurbildik herxatzen nauzula; eta hirur gauza horiek agerian emaiten balinbadituztu, ez dut deus gehiago izanen erraiteko.

Nik

Gohazen beraz. Diot lehenik ez direla Apostoluak berak enganatu. Emazu nahi bezain izpiritu ttipiak eta laburrak zituztela; bainan, erraiten dauzkiguten gauza handi hoikien gainean, ez zaitezken errebelatzen; ez zezaketen uste izan ikusten zutela, ikusten ez zutena.

Gauza horietaz segurtatzeko, ez da, ez jakitate ez izpiritu handi beharrik. Begiak aski dire.

Egun batez, zenbeit ogi eta arrain bakar batzuekin, emaiten diote Jesusek jatera hirur mila gizoneri; bertze aldi batez eta mirakuilu be-

raz, bortz mileri. Hirur urthez Jesusekin bizi dire Apostoluak, eta egun bakotxean, erran behar bada, bere begiez ikusten dituzte sortzetik itsu zirenak, mutuak, elkorrak, hitz batez, eri suerte guzietakoak, haren ganat joaiten eta haren hitz baten ondoan sendatuak itzultzen.

Ez othe du Jesusek, Naimeko emazte alhargunaren semea, lurrerat hobian zaramakatarik, hitz bakar batez phizturik, eman bere amaren besoetan?

Eta Lazaro beraz? Bazuen jadanik laur egun hila eta thonban emana zela, eta jadan usteltzen hasia zen. Bainan, bere Apostoluak han zituelarik berekin, ez othe dio Jesusek erran: Lazaro! ilki zaite thonbatik! Eta Lazaro altxatu zen eta ilki thonbatik. Horra, bertze hainitzen artean, zer dioten Ebanjelistek, zer segurutzen duten, bere begiez ikusiak bezala.

Zer? Ez othe zituzten bada begiak Apostoluek, bertzek bezala, gauzen ikusteko? Eta, laur egun hartan hila zen bat, Jesusen hitz baten gainean, thonbatik ilkitzen bada bizirik, bere begiek enganutzen othe dituzte?

Horra zer egin duen Jesusek hirur urthez, Apostoluek ikusten zutelarik. Engana zitezkeela Apostoluak, gauza hoikien gainean, nor ausartuko da erraitera? Ez, ez; horiek dire gauza batzuek guzien begietarat dohazinak.

138 Zerbeit errenkura izanen duzu menturaz, Jesusen phizteaz. Bainan zertako? Ez zuten egiazki Apostoluek Jesus ikusi thombatik ilkitzean berean; bainan ikusi zuten geroago. Gauzen zolarat ganez, zer munta da horrek?

Ikusi zuten Apostoluek Jesus bere etsaien eskuetan, heriotzerat kondenatua, kurutzefikatua, eta azkenean, thonban emana.

Egia zen bezala, hekien ustean, Jesus egiazki hila zen.

Eta huna non agertzen zaioten hirurgarren egunean, erraiten diotelarik phiztu dela hilen artetik. Hekiekin hizkatzen da eta hekiekin jaten ere du. Berrogoi egunez badago hekien artean, eta Thomasek ez badu nahi izan sinhetsi bere lagunen errana, Jesusek uzten du bere eskuetako eta oinetako zaurien unkitzera. Gauza bera erranen dut Jesusen zerurat igaiteaz, Apostoluek eta bertze bortz ehun lekukoek ikusten zutelarik.

Nork erran dezake gisa hortako gauzen gainean enganatu direla, eta ez dutela ikusi bere ustez ikusten zutena?

Harek

Aithortzen dut horiek guziak direla begietarat dohazin gauza batzuek. Aithortzen dut, izpiritu den ttipiena dena ere ez daitekela gauza hoikien gainean enganatua izan.

Bainan, ez othe dire apostoluak gizon amarrutsu batzuek, bere onetan eta abantailetan gu enganatzea bilhatu izan dutenak? Ez othe dire horiek guziak hekien asmuak? Duda hori gelditzen zait oraino izpirituan.

Nik

Ikusiko dugu errexki ez dela horrela. Bainan gaua heldu da. Ez ba-zare egiaren beldur, ethorriko zare bihar tenore berean.

Horrela joan ginen baxotxa gure alde.

## HOGOI ETA LAUR-GARREN KAPITULUA

### *Gauza beraren segida.*

139 Ez zuen huts egin ene adixkideak. Egia lañoki bilhatzen zuen, eta biharamunean, etxerat ethorri zitzaitan erran tenorean. Nik, ene alde-tik, atsegin handirekin berriz ikusi nuen; ezen, bezperan, elgarren ganik urruntzean, iduritu zitzaitan haren izpiritua jadanik egia ganat itzultzen hari zela.

Ez zautan deusen erraiteko astirik ere utzi, eta huna nola berehala bera mintzatu zitzaitan: Gogoan erabili ditut, zuk atzo erran hitzak. Ontsa ikusi dut Apostoluek erran dituzten gauzak, guziez errexki ikusiak ahal izan zitezkeela. Ez daiteke beraz erran, zoroa edo fede tzarrekoa izan gabe, enganatuak izan direla. Eri baten sendatzea, hil baten phiztea, horiek dire gauza batzuek itsu ez direnek ikusten ahal dituztenak.

Ez dut beraz erranen, Apostoluak berak gauza hoikien gainean enganatu ahal izan direla. Bainan, hainitz pentsaketa izpirituan ibili dut gau huntan. Izpirituko hainitz borroken ondoan, galdegin diot ene buruari, eian, bere abantail edo irabazi zerbeiten bilhazeko, ez othe gaituzten gu, Apostoluek enganatu.

Nik

Bainan, plazer ba-duzu, zer irabazi izan zezaketen Apostoluek? Erran zioten Jesusek: Predika zazue ene Ebanjelioa. Bainan ere erran zioten: dizipuluak ez dire nausia baino gorago; ni, gaizki bilhatu nautte, eta zuek ere gaizki bilhatuko zaituzte.

Eta hargatik, horren jakinean, Jesusen Ebanjelioa predikatzen dute. Izpiritu Sainduaz bethea izan den bezin laster, Jaun Doni Petri mintzo da populuari. Haltoki eta beldurrik gabe, Jerusalemeko jenderi erraiten diote zer krima izigarria egin duten, Jesus Nazarethekoa, Jain-



koaren Semea hil dutenean. Ez diote egia itzaltzen: «Gaixtaginen eskuez hil duzue»(1). «Bainan phiztu du Jainkoak»(2).

Ez da hortan baratuko Apostoluen lekukotasuna. Jesu-Kristo predikatuko dute lanjer guzien erdian. Presondegiak, azote kolpeak, ez-patak, kurutzeak, guziak ezti izanen zaizkote Jesusen lekuko izaiteko.

Galdegiten dautzut orai: zerbeit irabazi othe dute Apostoluek gauza horietan? Ai! gizonak naturalki bizia maite du! Oinazeari eta heriotzeari ihes egiten du bere ahal guziez. Beraz, Jesusen mirakuiluak, haren phiztea, zerurat igaitea gezurrak izan baziren, zertako eta zertzat ixuriko zuten Apostoluek bere odola? Zertako emanen zuten bere bizia gezur horiek sustengatzea gatik? Zer zen bada hortan hekien irabazia? Mundu huntan, biziaren galtzea, heriotzea; eta gezurrez hari baziren, bertze munduan, gisa hartako gezurtieri zor zaioten bethiereko zorigaitza. Ezen krima handienetarik izanen zen, Jesus gizon xoil bat izan bazen, Jainko bezala adorarazi nahi izaita.

Zer erranen duzu, iguzkia bezain agerian diren egia horien kontra?

Harek

140 Ikusten dut, egiazki fede onean behar zirela izan Apostoluak, eta ez gaituztela nahi izan enganatu, bere biziaren gostuz. Nihork ez du, bere nahiz, gezurarentzat bizia emaiten, deus irabazirik gabe, ez mundu huntan, ez bertzean.

Bainan horiek guzietarik, ez zait oraino gauza bat baizen agertzen; Apostoluak erroak eta zentzu gabeak zirela.

Nik

Zer? Apostoluak erroak eta zentzu gabeak zirela? Ah! egizu kondu! Erro hek beraz konbertitu ahal izan dute mundua; erro hek herautsetan eman dituzte Jainko faltsoak: erro hek munduko jakintsun handienen erakaspentak kordokatu dituzte; erro hek irakutsi izan dute izan daiteken dotrina ederrena eta garbiena; pasione tzarrak eta atsegin lizunak nausi ziren tokitan, eman dute garbitasuna; urguiluaren orde, umiltasuna; lur huntako gauzen amodioaren orde, ikusten ahal ez diren bertze biziko gauzen amodioa eta esperantza. Ez, ez; erroek eta zentzu gabeek ez dezakete holako gauzarik asma ere, eta are gutiago egin. Eta bizkitartean, Apostoluek egin dituzte. Gauza miresgarri

---

(1) Per manus iniquorum affligentes interemistis. (Act. Apost. Cap. II; 23).

(2) Quem Deus suscitavit. (Ibid. Cap. II, 24).

hori ez daiteke hitz huntaz baizen konpreni: Apostoluak egiazki, Jesu-Kristoren lekuko zinak ziren, Izpiritu sainduaz argituak eta gidatuak.

### Harek

Ez dakit egiazki orai zer erran. Ikusten dut gu enganatuz, ez zekaketela deus irabazirik izan Apostoluek. Jesusen lekuko izaiteko bizia emanez, bere fede ona frogatu izan dute. Ez daiteke izan bere bizia emaita baino lekukotasun handiagorik. Ez zirela ere erroak, ikusten dut orai. Hala izan balire, ez zituzten Jerusalemeko gizon argituek entzun nahiko, are gutiago Erromakoek. Jadan beraz ekharria naiz zurekin, Apostoluen lekukotasunaren onhartzera.

### Nik

141 Ez dut bizkitartean oraino akabo. Erran behar dauzut, nahi izan bazintuzten ere Apostoluek bere denborako gizonak enganatu, ez zutela egin ahalko.

Apostoluek erraiten zituzten gauzak, Jesusen mirakuiluak, phiztea, zerurat igaitea, guziek edo hainitzek bederen ikus zetzazketen gauzak ziren. Hain ziren ere gertakari espantagarriak, non behar baitzituzten guzien begiak atzari eta ernatu. Horra zer duen Jaun Doni Petrik predikatzen. Zer? Ez othe dire bada guziak haren erranen kontra altxatuko? Ez othe du Jerusalemeko populuak haltoki Apostolua gezurtatuko erraiten diolarik: Zer diozu, eta zertaz mintzo zare? Gutartean gauza horiek gertatu direla diozu? Gu ere hemen ginen, eta ez dugu deus holakorik ikusi.

Bainan, bertzela dohazi gauzak? Lehen predikuan, hirur mila presuna Jesusen Erlijioneari irabazten ditu Jaun Doni Petrik; bigarreanean, bortz mila.

Bainan, erroak eta zoroak doi-doia deitzen zintuen gizon horiek, nola gisa hartako gauza espantagarriak sinhets-araziko zituzten ez balire egiak izan? Nola sinhetsaraz, hainitzek aspaldiko urtheetan, eri ikusi duten gizon bat sendatua dela; hobian emaiten ikusi duten hil bat, phiztu dela, ez balinba-dire horiek hola? Gisa hortako gauzak ez ditu nihork nahi sinhetsi, eta arrazoin handirekin, froga handi eta dudan ezin emanezkorik gabe. Hortakotz diot, Apostoluek nahi izan bilituzte ere bere denborako eta tokietako gizonak enganatu, ez zutela ahal izanen. Ikusiko duzu errexki.

Apostoluek predikatzen zituzten gauzak, ziren bere baitarik miresgarriak eta espantagarriak. Bertzalde, populu guziaren begien aintzinean

eginak bezala emanak ziren. Gezurrak ba-ziren, arras errex izanen zen beraz hekien kontrako frogaren egitea.

Froga horren egitea abantail handia izanen zen Juduentzat. Ezen, egiak balinbaziren Jesusen mirakuiluak; berek kurutzean eman zuten Jesus hura, bere indar xoilez thonbatik ilki balinbazen, gero igan zeruetarat, beraz Jesus Jainko zen, eta hek Jainko-Gizon baten hiltzaleak ziren.

Bat edo bertzea: edo gezurra zioten Apostoluek, edo Juduak hobendun eta hobendun handienak ziren. Egia bazioten Apostoluek konprenitzen dut Juduek sinhetsi dituztela eta konbertitu direla. Bainan gezurrezkoak balinbaziren Apostoluen erranak, hekien prediku eta segurantzaz guziak alfer eta debalde izanen ziren.

142 Gauza hori hobeki oraino ikustea gatik, etsenplu bat emanen dugu. Emagun, zu bizi zaren herrian gizon bat hil dela, thonban eta lur pean emana izan dela. Ikusi duzu, badakizu, badakite guziek. Huna non hirur edo laur egunen buruan, heldu zaitzun norbeit erraitera: Hila ikusi duzun gizon hura phiztu da eta agertu da bere adixkideri, mintzatu zaiote, jan du heiekin. Zenbat nahi ausartzia eman dezan bere hitzetan, ez duzu sinhetsiko, non ez dituen froga edo ageri segurak emaiten. Egiaz mintzo bada, froga dezala beraz bere errana; ez dire gisa hortako gauzak hala hula sinhesten. Gezurrez aldiz hari bada, zer nahi erran dezan ere, ez zaio nihor jarraikiko. Erranen dut gisa berean: Nahi izan bagintuzte ere Apostoluek enganatu Jesusen mirakui-luen, biziaren, phiztearen, zeruetarat igaitearen gainean, ez ziren sinhetsiak izanen. Eta bizkitartean, Jerusalem berean, Juduetarik hainitz irabazi dituzte Jesusen Erlijioneari; mundu paganoa itzulikatu eta konbertitu dute. Nola bada daiteke hori? Arraintzaile pobre eta jakitaterik gabeko batzuez egiteko, hori, bertze mirakuilu guziak baino handiago bat litzaiket.

### Harek

Aithortzen dut; egiaz bntzutua naiz, ez nioten gauza hoikieri gisa hortan artharekin behatu, eta ez nuen ere izpiritua hoinbertzetaraino hedatu.

Orai arte asko dudetan nintzen; sinhesten dut orai. Zorion handia zait ene haurtasuneko eta lehen gaztetasuneko fedea kobratzea. Ene adixkide zahar eta maitea, zer tenoretan konfesatuko nauzu bihar goizean?



## **LAUR-GARREN ZATHIA**

IZPIRITU SAINDUAZ. — ELIZAZ. — SAINDUEN PARTA-  
LIERTASUNAZ. — BEKATUEN BARKAMENDUAZ. —  
HARAGIAREN PHIZTEAZ. — BETI-EREKO BIZIAZ



## LEHEN KAPITULUA

### *Izpiritu Sainduaz*

143 Ikusi ditugu orai arte Trinitate Sainduko hirur presunetarik bia, bere Jainkozko ageriak emaiten. Ikusi dugu Aita, bere bothereaz mundua ez deusetarik kreatu eta egin zuenean. Agertu zaiku geroago, Berbo Dibinoa, Trinitate Sainduko bigarren presuna; amodiorekin adortatu dugu Bethleemeko heian, Nazaretheko etxean, bere bizi lanezko eta gordean; entzun dugu bere Ebanjelioa predikatzen; haren mirakuiluetan ezagutu dugu haren Jainkozko botherea. Gero oraino ikusi dugu kurutzearen gainean guretzat hiltzen; hirur-garren egunean, hilen artetik phizten, berak erran zuen bezala; azkenean, berrogoi egunen buruan, zeruetarat igaiten.

Orai kontsideratu behar dugu Trinitate Sainduko hirur-garren presuna, Izpiritu Saindua, zerurat igan baino lehen, Salbatzaileak bere Apostolueri agindu ziotena, eta menderen mende, Elizaren argi eta gidari izanen dena.

Adora dezagun hemen Aingeruekin Trinitate Saindua, erraiten dugarik: SANCTUS, SANCTUS, SANCTUS... JAINKO bakar bat eta hirur presuna: AITA, SEMEA eta IZPIRITU SAINDUA, eta hirurak Jainko: *Deus Pater, Deus Filius, Deus Spiritus Sanctus*. Hirurak Jainkozko naturaleza berean partalier, eta hargatik Jainko bakar bat(1).

Mendekoste egunean bereziki, eta bothere handienarekin, agertu da Izpiritu Saindua munduari, Jesu-Kristo zeruetarat igan eta hamar-garren egunean.

Jesu-Kristok agindu zioten Apostolueri bere Izpiritu Saindu kontsolatzailea, erraiten ziotelarik zagozila othoitzean haren aiduru.

---

(1) Et tamen non tres Dii, sed unus est Deus. (Symb. S. Athan.).

Hala egin zuten Apostoluek. Elgarretarat bildu ziren Jerusalemeko etxe batean eta han othoitzean egon hamar egunez.

Eta huna non, Mendekoste goizean, zero goratik harrabots handi bat jausten den, haize borthitz baten pare, etxe guzia bethetzen duena. Orduan berean, ikusi zituzten Apostoluek suzko mihi batzuek bezala, heietarik bat bakotxaren gainean pausatu zirenak, eta ordu beretik Izpiritu Sainduaz eta haren dohainez betheak izan ziren.

- 144 Ez dezagun uste izan hargatik, hemen lehen aldikotz agertzen zaikula Liburu Sainduetan, Izpiritu Sainduaren baitako sinhestea. Hainitz aldiz, Izpiritu Sainduaz mintzo zaizkigu Liburu Sainduak.

Mintzo banintz hemen, jakintsun fede gabekoeri, atsegin nuke eta errex litzaiket gauza hori luzeki agerian emaita. Bainan mintzo naiz Eskualdun fedea duteneri, hekien gehiago argitzeko. Ez dut beraz hitz bakar bat baizen hartuko Liburu Sainduetan; bainan, hura, nihork ukha ez dezakena, Jesu-Kristoren hitza.

Huna zer zioten erran Jesu-Kristok bere Apostolueri, zeruetarat igaitean: Bathaia zatzue gizon guziak, Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean(1).

Jesu-Kristok, diote Elizako Aitek, hirur presuna aiphatzen ditu hitz hautan, eta hirurak herrunka berean. Jainko da beraz Izpiritu Saindua, Aita eta Semea Jainko diren bezala. Aitak eta Semeak dituzten bothere eta Jainkotasun beraz dohatua da. Horra zertako erraiten dugun: *Sinhesten dut Izpiritu Saindua baitan*, hala nola erraiten baitugu: *Sinhesten dut Jainko Aita baitan... .. Jesu-Kristo haren Seme bakarra baitan*; erran nahi da sinheste bera, konfientzia eta amodio bera dugula Trinitate Sainduko hirur presuna adoragarrien alderat.

Elizak sinheste hori ongi crakastera emaiten du, kantatzen edo bere aphezez erran arazten dituen Dabiden Psalmo guziak hitz hautaz akabatuz: GLORIA AITARI, GLORIA SEMEARI, GLORIA IZPIRITU SAINDUARI. Hirur aldiz ere erraiten du othoitz hau: KYRIE ELEISON: Jauna urrikal zakizkit. Hirur aldiz mezako sakrifizioan kantatzen du: SANCTUS, SANCTUS, SANCTUS: Saindua, Saindua, Saindua.

- 145 Izpiritu Sainduaren obra berezia gure arimen saindutzea da. Horra zertako den deitua, ez xoilki Izpiritu Saindua, bainan ere Izpiritu Saindutailea. Ez da dudarik Jainko Aitak eta Jainko Semeak saindutzen

---

(1) Baptizantes eos in nomine Patris et Filii et Spiritus Sancti. (S. Matth. XXVIII, 19).



gaituztela. Bainan Izpiritu Saindua delakotz Aitaren eta Semearen arteko amodioa, eta Saindutasuna Jainkoaren amodioa delakotz, molde berezi batez emana zaio Izpiritu Sainduari, amodiozko eta Saindutasunezko Jainkoaren izena. Argitzen eta berotzen du gure arima. Bekatoreari, ezagun arazten dio bere zorte deithoragarria, eta, denbora berean, bihotza eztiki mugitzen eta unkitzen diolarik, ungiat deitzen du. Flakoeri, tentatuak direneri, emaiten diote indarra; justuetan, gero eta gehiago handitzen eta sustatzen du Jainkozko eta zeruko gauzen amodio eta atsegin saindua.

Izpiritu Saindua da, lurrerat Jesu-Kristok ekharri duen su Jainkozko hura, zointaz berak erraiten baitu: «Lurrerat ethorri naiz sua ekhartzera eta ene gutizia eta nahia da phitz dadien arimetan»(1). Izpiritu Sainduaz ere, dio Jaun Doni Paulok, emaiten du gure bihotzetan Jainkoaren amodioa(2).

Zenbat Saindutasunezko mirakuilu egiten dituen amodiozko Izpiritu horrek! Saindutu zuen Jaun Doni Joanes-Batista bere amaren sa-belean; bekatu orijinaletik begiratu zuen Birjina Maria, izan zadien harren, Jainko Gizonaren egoitza osoki saindu eta garbia. Harek egin zuen Birjina Mariaren sabel garbian Jesus Salbatzailearen gorphutza. Harek, saindutu, argitu eta sustatu ditu Apostoluak, eta, gizon flako eta ez deus batzuetarik egin munduaren konbertitzaileak, mehatxuez eta heriotzeaz beraz ezin bentzutuzkoak.

Datorla, datorla, gu baitarat ere amodiozko eta saindutasunezko Izpiritu hori. Konpreniaraz gaitzala zoin diren ez deusak mundu huntako gauzak, eta eman gaitzala zeruko gauzen amodioa!

---

(1) *Ignem veni mittere in terram et quid volo nisi ut accendatur.* (Luc. XII, 49).

(2) *Caritas Dei diffusa est in cordibus nostris per Spiritum Sanctum qui datus est nobis.* (Ad Rom. V, 5).

## BI-GARREN KAPITULUA

*Elizaz. — Mundua konbertitua Jesusen Erlijionerat*

146 Zerurat igan zenean, eta bere Apostoluen begietarik hedoi batean itzali zenean, ez zituen Jesu-Kristok mundua eta gizona Adamen bekatuak egin zioten zortearen etsimenduan utzi.

Lurrerat ethorri izan zen gure salbatzeko. Hil zen kurutzearen gainean, eta horrela gaindizki satifatu zuen bere Aitaren justiziarri. Bainan ez da aski; mundu berri bat, mundu saildu bat egin nahi izan du, Adameren bekatuak pozoindatu izan zuen munduaren orde. Ekharri du lurrerat Jainkozko erakaspén bat, Lege zaharreko erakaspén baino ederragoa eta garbiagoa eta bereziki amultsuagoa. Establitu izan ditu Sakramenduak, bekatutik arimen garbitzeko, eta arimak gero eta gehiago saildutzeko.

Egin zuen beraz arimen *zoizetate* edo biltzarre bat, haren erakaspén bethi atxikiko zuena, eta zointan emanen baitzituen saildutasunerat heltzeko argi eta laguntza segurak.

Hori deitzen dugu Jesu-Kristoren Eliza; haren Jainkozko obra lurraren gainean segitzen duena, eta, munduaren akabantzaraino segituren duena.

Eliza hortaz behar gare mintzatu.

147 Zer da Eliza? Huna zer dioten Belarmine Kardinale eta Theologale handiak: Eliza da, mundu huntan bizi diren gizonen zoizetatea, bilkura edo biltzarrea, juntatuak elgarrekin fede beraren sinhesteaz eta sakramendu beren partaliertasunaz, bere artzain zuzeneri, eta bereziki, lurraren gainean Jesu-Kristoren Bikario eta orde den Aita Sailduaren gobernuari sumetituak.

Hitz bertsutan erraiten dauku, haurtasunetik ikasi dugun Baionako gure katiximak: «Eliza da fede dunen bilkuia, haren buruzagi diren Aita Sailduaz eta Aphezpikuez gobernatua».

Erran dezagun berriz ere, jadan erran duguna. Ez du Jainkoak sekulan gizona, bere ilhunbeetan utzi. Izan da denbora guzietan, Jainkoaren baitako fede egiazkoa eta sinhestea zuten arimen bilkuia, gure gorphutzeko begiez ezin ikusizkoa menturaz, bainan Jainkoak ikusten zuena. Bazen Patriarken denboran, eta oraino hobeki eta argi handiagoekin, Moisen legean.

Bainan zer ikustate ederra orai! Nola Jesu-Kristoren obra argi osoan agertzen zaikun! Norat nahi itzul detzagun begiak, bazter guzietan Eliza katolikoa ikusten dugu bere berrehun miliun fidelekin; denek sinheste bera; denek sakramendu berak errezebitzen; guziak juntatuak bere Aphezpikuen medioz, guzien buruzagi den Aita Saindu berari.

Bada hor egiazki gauza bat, Erlijione gabekoen beren begietarat dohana.

Bainan erranen dautet menturaz: Bai, ikusten dugu gaunza hori; ezin ukhatuzkoa da. Nola ordean froga, sinheste bera, sakramendu berak, buruzagi bera dituzten gizon hoikien bilkura, Jesu-Kristoren obra, Jainkozko obra bat dela?

Ikus dezagun gauza hori, izpiritu laño eta bihotz zuzen batekin.

Jesu-Kristok erran zioten bere Apostolueri: Zohazte eta mundu guzian predika zazue ene Ebanjelioa. Ebanjelioa predikatzen hasi ziren Apostoluak, Izpiritu Saindua Mendekoste egunean hekien arimatarat jautsi zen bezin laster.

Jerusalemeko hirian predikatu ondoan, aintzinat segitzen dute Jesusek eman bidea. Munduaren zathi bat hartzen du bakotxak bereztat; guziek hargatik Jaun Doni Petri Eliza guziaren buruzagitzat eza gutzen dutelarik, Jesusen manuaren arabera.

148 Bazter guzietan eta jendeki suerte guzieri predikatzen dute, Jesus gaixtagin bat bezala bere etsaiez hartua izan dela, heriotzerat kondenatua, kurutze baten gainean itzatua; eta hiri handietan basa herrietan bezala, oihu hau adiarazten dute: Jesus kurutzearen gainean hil izan den hori, zuen eta gure Jainkoa da. Hura baitan sinhesten eta haren bathaioa hartzen duena, salbatua izanen da; bertzeak kondenatuak izanen dire.

Eta, gauza espantagarria! Arrantzaile ez deus batzuen erranaren gainean, mila eta milaka dire, gizon argituenen beren artean, Jesusen Ebanjelioan sinhesten dutenak eta haren bathaioa errezibitzen.

Osteka, bai Juduek bai Paganoez Jesusen legea besarkatzen dute. Nola eman, Jainkoaz kanpo, gauza horren arrazoina?

Ah! izan baziren Apostoluak gizon aberats, jakintsun eta argitu baztuek; izan balituzte bere eskuetan, munduak maite eta errecki onhesten dituen indarra eta botherea! Orduan bai... konprenitzen dut bere predikuez zerbeit ardiets zezaketela. Bainan badakigu; Apostoluak arrantzaille pobre eta erromes batzuek dire; ez dute ez jakitaterik, ez aberastasunik, deus, hitz batez, munduak gora dagozkan gauzatarik. Eta hargatik mundua konbertitzen dute. Nola daiteke gauza hori, baizen Jainkoaren indarraz?

Bainan, menturaz, Apostoluen erakaspak gizonen flakeza eta jaidura tzarrak ferekatzen eta onhartzen baititu? Oi! zoin urrun garen hortarik!

Lohikerian, gorphutzeko atsegin tzar guzietan pulunpatuak bizi diren gizoneri, Apostoluek erraiten diote: Izan zaizte garbi; pratika zazue kastitatea; gerla egizue haragiaren jaidura apha eta ahalgegarrieri. Bentzu zazue zuen burua: ezen Nausiak erran du: nor ere nahi baitu ene segidan ethorri, har dezala eta garraia bere kurutzea eta niri jarraik dadiela.

Bere zoriona lur hunen gainean bilhatzen duteneri erraiten diote: bizi hau iragankorra da; zer dire mundu huntako on eta atsegin guziak? Osto baten eta itzal baten pare; deus ere. Gure egiazko onak bethi-ereko bizian dire. Bainan, zeruko biziaren ardiesteko behar da bere burua garaitu, bere buruari bortxa egin(1).

149     Eta, gizonen jaidura tzar guziak errotik gaitzesten dituen erakaspak gogor eta garratz hori onhesten du munduak. Naturalezaren kontra da, bortxa egiten dio, ez da dudarik; eta halarik ere, ezin kondatuzkoak dire, hari jarraikitzeo, munduko on guzieri ukho egiten diotenak.

Hainitzek bere izaite guziak baltsan emaiten dituzte, bere anaia pobreen fagoretan; bertze hainitzek mundu huntako atsegin guziak eza-gutu ondoan, bere gorphutza sofrikario eta penitentzia gogorreneri kondenatzen dute.

Zer? Erranen othe dautazue, munduko abantail guziez gabetuak ziren hamabi arrantzaille erromesek bere indar xoilez gauza hori egin ahal izan dutela? Hori laiteke gizonaren naturaleza guti ezagutzea.

Apostoluen erakaspakaren kontra ziren, gizonaren jaidura guziak eta ere jainko faltsoen erlijionea, hain errexa zena naturalezarentzat: erran dugu, liburu hunen hastean, krima itsusienak onhesten eta jainkozta-

---

(1) Regnum coelorum vim patitur, et violenti rapiunt illud. (Matth. XI, 12).

tzen bezala zituela. Apostoluen erakaspenaren kontra ere, Erromako Enperadore eta aintzindariak, hitz batez, indarra eta botherea bere eskuetan zituzten guziak. Hargatik, heriotze ahalgegarri batez kurutzearen gainean hil izan den Jesusen izena predikatuz, garaitia eraman dute Apostoluek. Girstinoak hiltzen dire bere fedea eta sinhestea sustengatzea gatik; ibaika hekien odola ixuria da; bainan hekien odoletik sortzen dire girstino berriak: *Sanguis martyrum, semen Christianorum*.

Ez; ez da hori gizonek egin dezaketen gauza bat, eta Jainkoaren eskua hemen da.

Erran dezagun S. Agustinekin: Edo mundua konbertitu izan da Jesus-Kristoren eta Apostoluen mirakuiluez, eta beraz, Eliza Jainkozkoa da.

Edo mundua konbertitu izan da mirakuilurik gabe, eta hori laiteke mirakuilu guzietan handiena.

## HIRUR-GARREN KAPITULUA

### *Martiren lekukotasuna*

150      Apostoluek, eta gero ondoan, hekien dizipulu eta segitzaileek mundua itzultzen hari zuten Jesusen sinhesteari. Aberatsek eta pobreek, handiek eta ttipiek, bihotz onez eta gogo onez besarkatzen zuten, ordu artean munduak entzun ez zuen salbamenduko erakaspen garratza.

Mundua, denbora hartan, egiatzko Jainkoaren ganik osoki urrundua zen. Erran daiteke ez zela Erlijijone bat baizen: jaidura tzar guzieren bere bazka emaita.

Ungia eta bertutea, garbitasuna, gazkirateko jaiduren orde emaita, jadan obra eta mirakuilu handia zen, eta Jesu-Kristok establitu zuen Erlijijonearen Jainkotasuna haltoki erakustera emaiten zuen.

Ez gare hortan baratu behar.

Huna bertze lekukotasun bat oraino, eta hunen indarra ez du nahi ni horko ukhatu nahiko. Hura da martiren, edo, Jesusen Erlijijonearentzat eta Elizarentzat bere odola eman dutenen lekukotasuna.

Gauza osoki ageria da, Apostoluek predikatzen zuten Erlijijone garbiak lurrerat nahi zituela eman, denbora hartan segituak ziren erlijijone tzar eta faltso guziak.

Erlijijone berri horrek asaldatu eta phiztu behar zuen ordutik, gorphutzen eta arimen nausi bere burua zagokatenean herra.

Hala hala ere gertatu zen.

Haste hastetik, Jesusen Erlijijonea Juduez pertsekutatua izan zen. Zer ez zuten egin, Erlijijone horren bere sehaskan berean ithotzeko?

Predikatzen hasi zirenean Apostoluak, erran ziotenean Judueri, kurutzean eman zuten Jesus hura Jainkoaren Seme Eternala zela eta bera Jainko, Aita Jainko den bezala, eman zituzten presondegietan. Nahiko zituzten ixil arazi. Bainan huna zer ihardesten zuten: Hobeago da Jainkoari ezen ez gizoneri obeditzea.

Elizaren lehen mendeko ixtorioak erraiten dauku nola bere bizia emanek eta bere odola ixuriz, Apostoluek Jesu-Kristori lekukotasun bihurtu zioten. Nork erran dezake, gero ondoan hirur ehun urthez, zer odol ibaiak ixuriak izan ziren eta zenbat mila eta miliun giristinoek heriotzea jasan zuten Jesu-Kristorentzat eta haren Eliza Sainduarentzat!

Aita Saindu, Aphezpiku eta Aphezek; aberatsek eta ethorki handikoek, hala nola jende arruntek eta pobreek, zaharrek eta gaztek, haurrek berek, hala nola Agnes birjinak, gogo onez, bozkario handirekin bere bizia emaiten zuten Jesu-Kristoren amodioa gatik.

151 Galdegiten zioten: Giristino zare? Bai, giristino naiz.

— Arnega zazu Erlijione berri hori; adora zatzu Erromak adoratzten dituen Jainkoak, eta bizia salbo izanen duzu.

— Giristino naiz, zuten erraiten, eta ez dut ezagutzen ez adoratzten Jainko bakar bat baizen, hirur presunetan. Aita, zeruaren eta lurrraren Egilea; Semea, gure erosteko eta salbatzeko Gizon egin ondoan, kurutzearen gainean hil dena; Izpiritu Saindua, bere graziez hazkartzen eta saildutzen gaituena.

Giristino naiz! Hori zen, Erromako Enperadoreek gobernatzen ziztuzten bazter guzietan entzuten zen hitz ederra.

Hitz hori heriotzea zen, herrak eta errabiak asma zetzazketen tormenta izigarrienen erdian, bainan ere zer lekukotasun ederra eta gloriosa Jesu-Kristori eta Jesu-Kristoren Erlijioneari!

Espantituak zagozin paganoak. Giristinoek aldiz bozkarioekin bere triunfa kantatzen zuten: Eman gaitzatzue zathitan, zioen Tertulianok, phorroska eta leher gaitzatzue; zenbatenaz gehiago gutarik hilen baititutzue, hanbatenaz gehiago izanen gare; martiren odola, giristinoen hazia da (1).

Eta hain zen handia, Jesu-Kristorentzat hiltzeko giristinoek zuten karra, non Dioklezien Enperadoreak erraiten baitzuen: Zer egin dezakegu gizon hoikien kontra? Gogo onez eta bozik dohazi heriotzerat: *illos libenter mori solere*.

Eta zertako horiek guziak? zertako persekuzioeak, juiamenduak, heriotzerat kondenatzeak, tormenta izigarriak? Legeen kontra giristinoek zerbeit egin zutelakotz? Ez; giristino ziren; ez zuten nahi Jesu-

---

(1) Cruciate, torquete, damnate, atterite nos; pluries efficimur, quoties metimur a vobis; semen est sanguis Christianorum. (Tertull.).

-Kristo bere Nausia, bere Salbatzailea eta Jainkoa arnegatu. Hori zen hekien krima guzia eta bakarra.

Hori othe da gauza bat naturala eta Jainkoaz kanpo konpreni daitekeena? Ez; ez da heriotzea hoin errexki jasaiten. Bada hemen zerbeit naturalezaz goragoko.

Orhoit gaiten Jesusek bere dizipulueri erran zioten hitz huntaz: Ene lekuko izanen zarete: *Eritis mihi testes*. Erran zioten oraino, izanen zirela, haren izena gatik azotatuak, presondegietan emanak, hitz batez, tormenta guzien hirrisku eta lanjeretan. Apostoluek badakite; eta hargatik bai hek, bai hekien dizipuluak leial eta hazkar dagozi bere Nausiari eta Jainkoari bihurtzen dioten lekukotasunean; eta mehatxueri hitz ederreri bezala, ez dute hitz hau baizen ihardesten: Jesu-Kristo kurutzean hil denaren dizipuluak gare: giristino gare: *Christianus ego sum*.

152     Eta hola hola hirur ehun urthez, eta oraino orai asko lekuetan. Bai, milaka izan dire, mende guzietan, giristinoak bere Erlijionearentzat hil izan direnak. Zertako? Galde diozozute bada.

Ez, hor hemenka bakar batzuek menturaz ikusi izan diren bezala, bere izpirituko arrazoinen eta asmuen sustengatzea gatik: hortan urguluak eta bere buruaren baitako fidantziak asko parte izan dezakete. Apostoluak hil izan dire, bere begiez ikusi dituzten gauzen segurtatzeko; Apostoluen ondokoak aldiz, haukien lekukoak izan dire menderen mende.

Gauza horiek ez badire egiak; Jesu-Kristok ez badu bere Jainkotasuna agerian eman mirakuilu espantagarrienez, nola konpreni hainbertze mila martiren sakrifizioa eta heriotzea? Errokerietan handiena izanen zen. Ez dezagun dudarik izan; Jainkoaren beraren eskua hemen da, Giristino Erlijionearen eta Elizaren Jainkotasuna martiren odolarekin izkribatzen duena: *Digitus Dei est hic*. Hori da lekukotasun eta froga bat, fede oneko gizon guziez onhetsia izanen dena. Ez du nihork hoin errexki, eta bereziki gezurrarentzat bere bizia emaiten. Gezurrarian balinbaziren zer zuten iguritzeko gisa hortan hil izan direnek? Mundu huntan deus ere, baizen sofrikarioa eta heriotzea; bertze munduan, deus ez saritzat, bainan gezurrari zor zaion gaztigua.

Ez balinbazuten deus igurikitzen ahal mundu huntan ez bertzean, erro guzietan lehenak izanen ziren heriotzerat gisa hartan joanez, phes-ta batetarat bezala. Erro bat edo bertze gerta daiteke. Bainan ez, hirur ehun urtez, giristino guzietan erraiteko moldean, heriotzearen khar eta amodio hori.



Egia da, gorago aditzera eman dudan bezala, Erlijione faltsuetan ere izan direla, hor hemenka, gizon banaka batzuek, bere asmueri ukho egin baino lehen, bere bizia eman dutenak; bainan hain gutiak dire, non errexki konda baititazke.

Eman dezagun bi hitzez kapitulu hunen erakaspen guzia. Hirur ehun urthez, Apostoluek eta hekien ondoko girstinoek bere odola ixuri izan dute, Jesu-Kristoren eta haren Erlijionearen lekuko izaiteko. Bada, ez daiteke izan, bere biziaren emaita baino lekukotasun handiagorik.

Zoin ederra eta bihotz altxagarria den, zeru goratik Martirek adiarazten daukuten oihu hau: Guk gure odolaz finkatu ditugun Eliza eta Erlijionea Jainkozkoak dire. Bertzela, erro batzuek izanen ginen. Eta ez; ez ginen erroak. Sofrikarioan eta heriotzean bilhatu dugun ona, orai aurkitu dugu eta hartaz gozatzen gare. Sofritu dugu Jesu-Kristorekin, harekin glorifikatuak izaiteko. Izan zaizte gure iduriko, gu Jesu-Kristoren iduriko izan garen bezala!

## LAUR-GARREN KAPITULUA

*Elizaren iraupena. — Eliza bethi bera da*

153 Laster mudatzen dire gizonen obrak. Batek nahi duena eta egin izan duena, bertze batek ardura ez du onhesten eta desegiten du. Eta non da gizona bera erran dezakena, egun nahi duena ez duela bihar arbuatuko?

Mudakorrak dire gizonen nahiak eta pentsamenduak.

Jainkoa da xoilki erran dezakena, Malakie Profetaren ahoz erraiten daukun hitz hau: «Ni naiz Nausia eta ez naiz mudatzen»(1).

Dezagun eman begi kolpe bat munduko kreazione miragarriari. Iguzkiak, ilhargiak, zeruko izarrek, Jainkoak hastapenetik eman diozkaten lege bera segitzen dituzte. Itsasoaren harat hunat iduriz nahasiek, lur-reko landare, arbola eta loreek, bethi Jainkoaren nahi soberanoari obeditzen diote, hastapenetik emanak izan diren legeen arabera: horiek guziak Jainkoaren eskuen obrak dire, eta Jainkoaren izaitearen itxura flako bat bere baitan garraiatzen dute.

Bada gauza hori bera, eta mila aldiz hobeki oraino, gertatzen da Jainkoaz emanak zaizkigun erakaspenetan. Zertako? Zeren Jainkoa egia bera baita: *Ego sum veritas*. Egia bera delakotz, ez dezake bere erakaspenetan deus ere izan mudatzeko.

Erran behar dugu hargatik, Jainkoaren erakaspenak bethi handituz eta osatuz joan direla. Moisek eta Profetek Patriarkek baino argi gehiago izan zuten; eta aldiz, Jesusek ekharri daukun erakaspena zenbat den Profetenaz goragokoa! Bainan ez da behinere izan erakaspen bat bertzearen kontra dohana, Jainko bera baita bethi argitzen gaituena, eta ez baita hura baitan ez mudantza ez ilhunberik; baizik eta, argi osoa,

---

(1) Ego Dominus et non mutor. (Malach. III, 6).

berak nahi duen bezala ikustera emaiten daukuna, berak nahi duen neurrian eta denboretan.

Gizonen pentsamenduez eta erakaspenez, gauza bera erran othe daiteke? Gauza beren gainean, zenbat sinheste, bat bertzearen kontra dohaziak eta zenbat guduka! Erraiten badu batek mundua Jainkoaz egina dela, bertze batek dio ez dela mundua nihortaz ere egina, baina bethitik dela. Batek erraiten badu, gure arima bethikotz egina dela, ez direla guziak heriotzean akabo, badela bertze bizitze bat, zorionezkoa onentzat, zorigaitzezkoa gaixtoentzat, huna bertze bat erranen daukuna, gorputza hiltzarekin, ez dela deus gehiago gelditzen; azken hatsa emaitzarekin, denak akabo, arima deitzen duguna ere, gorputzeko bizia bezala.

Hanbat dire gizonaren argiak, ilhunbez inguratuak; hanbat, haren izpiritua laburra, bere burua beizik nausitzat ezagutu nahi ez duenean!

154 Ikusten dugunean beraz, dotrina bat, erakaspén bat, gizonen zozietate baten sinhestea, gerla, gudu eta gertakari guzien erdian, bethi bera eta mudantzarik gabe egoiten, erraiten dugu: Erakaspén hau ez da gizonena, Jainkozkoa da!

Bertze gauza guziak mudatzen diren denboran; sinheste eta erakaspén bat bertze sinheste eta erakaspén baten kontra; batzuek bertzeekin gerlan; bat xoilki, hemezortzi ehun urthe hautan, bethi xutik, bethi bera, bethi buruzagi berekin, bethi hazkar eta mudantzarik ttipiena ere gabe, gudu eta gerla guzien erdian, ai! hori Jesu-Kristo Jainko Gizon eginaren obra da! Jesu-Kristoren eta haren Elizaren erakaspéna da!

Horra zer dugun ikusten Eliza Katolikoaren ixtorioan.

Apostoluek bere odolaren lekukotasuna eman zuten Jesu-Kristoren Ebanjelioaren hitz bat ere kanbiatzera utzi izan zuten baino lehen. Hirur ehun urthez Aita Sainduak, Aphezpikuek, martirek bere odola ixuriz erran zuten: Hori da gure sinhestea eta azken hatserraino atxikiko dugu, zeren Jainkozkoa baita.

Martiren eta odol ixurtzearen denbora akabo da. Paganoek bere errabia higatu dute, Elizaren erakaspén sailduari den gutieneko kolperik ekharri ahal izan gabe.

Ez dire hargatik oraino Elizaren guduak akabo; baina ez gaitzen lotsa. Eliza Jainkoaren obra da eta bethi bera egonen da, zeren Jainkoa bethi bera baitago eta ez baita kanbiatzen: *Ego Dominus et non mutor.*

Nork konda detzazke, Elizaren bi-garren mendetik lekora izan diren eresiak? Huna Gnostikak; gero Arius. Heldu dire ondotik Pelage

eta Donat, eta bertze hainitz oraino Elizaren erakaspena pondu batean edo bertzean mudatzea bilhatzen dutenak. S. Agustinek dio, bazirela haren denboran, laur hogoi eta zortzi *eresia* edo Erlijione katolikoaren kontrako erakaspen, eta aithortzen du ez dituela oraino guziak eza gutzen.

Eresia hoikien ixtorioa hemen eman gabe, xoilki erran dezagun, Elizaren erakaspenearen kontrako gezur baten ondotik bertze hamar sortzen zirela. Egia bethi bat eta bera da; bainan gezurrak hainitz alderdi ditu eta hainitz itxura hartzen ditu. Hori da gezurraren seinaletarik bat.

- 155 Eliza bere erakaspenean bethi bera dagon denboran, zertako eta nondik hoinbertze mudantza eretikoen erakaspenean? Zeren, Elizaren erakaspena Jesu-Kristoren hitzaren gainean hazkarki finkatua den denboran, eretikoen erakaspeneak gizonen asmu eta pentsuak baitire eta hainitz aldiz, gizonen pasionetan baitute bere hastea. Horra zertako diren hain mudakorrak, hala nola baitire, itsaso hegietan, harat eta hunat ur handiak ibiltzen dituen hare metak.

Zer ziren Photius, Luther, Kalbin, Henri VIII<sup>na</sup>, Ingletarreko erregea, eta bertze asko bere urguluaren edo pasione zikinen asetzeko Elizatik urrundu direnak? Hauk eta haukien idurikoek zer galdegiten zuten? Bi hitz hauk xoilki Elizak onhets zetzan: Elizak orai arte erakutsi duena ez da egia.— Elizak orai arte debekatu duen gauza hori zilhegi da.

Bi hitz horiek erran baino lehen, nahiago izan du Elizak Europaren erdia bere galtzarretik atheratzera utzi. Bainan, Jesu-Kristok erakutsi egia, bethi oso, bethi garbi begiratu du; eta azkenean, bitoria eta trionfa egiarentzat eta fede garbiarentzat dire(1).

Ez othe dauku horrek berak ikustera emaiten Eliza Jainkoaren obra dela? Gizonek ez dute ohi hola egitea. Zerbeit irabazi iragankor mundu huntan balinbadute, hartan baratzea laket zaiote, eta hala behar bada, bere sinhestea eta pentsamenduetan egun guziez mudatuko dire.

Bainan huna Jainkoaren egiazko lana. Badu hemezortzi ehun urthe eta gehiago, Jesu-Kristok erran ziotela Jaun Doni Petriri eta bertze Apostolueri: Zohazte eta bazter guzietan predika zazue ene Ebanjelioa; badu hemezortzi ehun urthe, bethi Ebanjelioa bera Aita Sainduek eta Aphezpikuek predikatzen dutela; hemezortzi ehun urthe,

---

(1) Haec est victoria quae vincit mundum fides nostra. (I Joan. V, 4).

*Credo* edo sinhesten dut bera munduko bazter eta leku guzietan kantatua dela!...

Bai erran dezagun berriz ere goraki: Hori Jainkozko obra da. Mudakorrak dire gizonen erakaspak, gizonak berak hala direlaketz. Jainkoarenak ez dire mudatzen, Jainkoa bethi bera eta egia bera delaketz: *Ego Dominus et non mutor.*

## BORTZ-GARREN KAPITULUA

### *Ez da egiazko Eliza bat baizen*

156 Jainkoa, bat da; behar dute beraz haren obra guziek bere baitan ekharri haren bakartasunaren seinalea; guzien gaintik seinale hori aurkitu behar dugu Jesu-Kristoren Elizan, zoina baita munduan egin dituen gauzetan miresgarriena.

Katiximan irakurtzen dugu: Ez da Jainko bat baizen eta ez daiteke izan gehiago. Gisa berean erranen dut: Ez da Eliza bat baizen.

Zertako bada hori? Zeren egiazko Eliza Jainkoaz xoilki establitua izan baititake, eta ez baitu Jesu-Kristok bat baizen establitu. Bertzalde ez daiteke Jainkoa bere buruarekin, edo egia egiarekin, gauza beraren gainean gerlan izan. Zoroa eta adimendu gabea laiteke beraz erran lezakena, badirela Erlijione, Eliza egiazko bat baino gehiago, baitzpada sinhetsi eta predikatu behar diren gauzen gainean, bat bertzearen kontra dohazinak.

Aintzineko kapituluetan erran dugu badela Eliza bat Jesu-Kristok berak establitu izan duena, zerurat igan baino lehen. Eliza hori Jainkozkoa dela frogatua izan da Apostoluen, Martiren eta bere iraupen mirakuiluzkoaren lekukotasunez. Eta ez da Eliza hori baizen.

Jesu-Kristoren hitza da: «Ez da izanen artalde eta artzain bat baizen».(1)

Nausi Dibinoaren ondotik, Jaun Doni Paulo Apostoluak erran du: «Ez da Jainko bat, fede bat, eta bathaio bat baizen»(2).

Erraiten dugu ere Jesu-Kristoren eta Apostoluaren segidan: Jesu-Kristoren Elizan ez da buruzagi bat baizik, fede edo sinheste bat baizik, eta sakramendu berak. Hirur gauza horiek horrela hartu nahi ez lituzkena, Eliza egiazkoaz kanpo laiteke.

---

(1) Fiet unum ovile et unus Pastor. (Joan. X, 16).

(2) Unus Dominus, una fides, unum baptisma. (Ephes. IV, 5).

1° Lehenik, Elizaren Buruzagia bakarra da, Aita Saindua, Jaun Doni Petriren ondoko zuzenezkoa, Jesu-Kristoz beraz lurraren gainean, bere Bikarriotzat ezarria. Itzul detzagun begiak leku eta bazter guzietarat; ikus detzagun Europa, Asia, Afrika, Amerika eta itsaso zabalaren erdian diren munduko bertze zathiak; Giristino Katoliko guziek Erromari buruz dituzte begiak eta bihotzak itzultzen. Han da hekien arimen Aita, Aphezen Apheza, Aphezpikuen Aphezpikua, Katoliko guzien buruzagia.

157 Aphezpiku guziek haren ganik dituzte bere podoreak; haren ganik Ebanjelioa predikatzeko kargua; haren ganik ere Aphezen egiteko botherea. Hura gabe deus ez daiteke Jesu-Kristoren Elizan. Jesu-Kristoren Bikarioa eta haren ordaina da lurraren gainean.

Zoin ederki ageri den hemen Jainkoaren eskua! Nork bada, baizen Eliza egin duenak berak, atxik detzazke gisa hortan bazter guzietako jende eta populuak esku eta nausitasun beraren pean? Ez balitz nausitasun hori Jainkoak establitua, hain indartsua eta hain ongi obeditua othe laiteke?

Eliza ganik berexi diren populuek badituzte Errege eta Enperadore bezinbat buru: horra zertako, baktxa bere alde dohan Erljioneko gauzetan; horra zertako, hoinbertze artalde eta hoinbertze artzain, Jesu-Kristok bat bakarra nahi izan duen denboran.

Eliza bakarra da; eta Eliza katolikoan xoilki aurkitzen da bakar-tasunaren eta batasunaren seinale hau: Ez du buruzagi bat baizen, Aita Saindua.

2° Eliza katoliko guziak eta haren menbro guziek fede eta sinheste bera dute. Egia, bat da. Ez ditezke bi egia izan gauza baten gainean, gisa eta alderdi berean kontsideratua denean. Gorphutz bat, zoin nahi, kontsideratzen dugunean bere koloreaz den bezinbatean, ez daiteke hartaz egiazki erran, dela xuria eta beltza, denbora berean eta zathi berean; da xuria edo beltza, edo menturaz, ez bat ez bertzea; baina xuria balinbada, ez da beltza, eta beltza balinbada ez da xuria.

Gisa berean Erljioneko egien gainean. Etsenplutzat: egia balinbada Jesu-Kristo hilen artetik phiztu dela, ez daiteke kontrarioa egia izan; egia balinbada, penitentziako sakramenduak barkatzen dituela bekatuak, kontrarioa gezurra da eta hola bertze guziez.

Jesu-Kristo lurrerat ethorri da, dudarik gabe bere heriotzeaz gure erosteko, baina ethorri da ere, egia eta zeruko bidea gizoneri erakusteko. Bethe ondoan berak lehenik, Jainkozko misione hori, eman diote horren kargua Apostolueri eta hekien ondokoeri, erranez: Zohazte

eta argi zatzue populu guziak: *Euntes docete omnes gentes*. Eta joan dire Apostoluak, Jesusen erranaren gainean, munduaren bazter guzietarat, bere Nausiaren Ebanjelio bera eta CREDO bera guziek erakusten zutela. Eta Elizaren menbro zenbeit edo buruzagietarik zenbeit errebelatzera heldu bazen, Jaun Doni Petrik eta haren ondoko Aita Sainduak errezibitu dute botherea Jesusen ganik, errebelatuen bide zuzenean emaitekoa eta fedean bere anaien hazkartzekoa(1). Eta horra zertako, hoinbertze mendeen buruan, bethi CREDO bera den oraino katoliko guzien gidaria eta Fedearen legea, munduko eliza guzietan, bethi hitz berekin kantatzen duguna.

158 Zer kontsolazionea katolikoentzat bere bizia eta eternitatea finkatzen ahal izaitea, sekulan mudatzen ez den sinheste eta fede beraren gainean!

Jainko bakar bat den bezala, eta buruzagi bakar bat dugun bezala, fede bakar bat ere: *Unus Dominus eta una fides*.

Gauza eder hori kontsideratu ondoan, zer erran Lutherez, Kalbinez eta mende guzietako bertze eretikoez? Berexi dire egia bethi garbi erakusten duen Elizatik, arbuiatu eta ukhatu dute Aita Sainduaren Nausitasun soberanoa; bakotxak nahi izan du Ebanjelioa esplikatu berari zitzaien bezala, eta orduan izan dire, hekien artean, gizon bezinbat sinheste. Ez da hori egiaren seinalea eta zigilua, bainan bai gezurrarena.

3º Eliza katolikoak mende eta leku guzietan sakramendu berak ditu bere haurren saindutzeko: zazpi sakramendu ezagutzen ditu, Jesu-Kristoz beraz establituak.

Ez dugu batasun bera aurkitzen Eretikoen erlijionetan, hala nola Protestanten artean. Batzuek gehiago, bertze gutiago sakramendu onhartzen dituzte. Nork du egia hekien artean? Eta nahasmendu horiek zer erraiten dute, baizen Jesu-Kristoren legetik ilki direla, eta bakotxa bere gogorat dohala? Dudatzeko da, guzietan lehena den sakramenduan berean, erran nahi dut bathaioan, sinheste bat eta bera othe duten Protestantek.

Errex da orai ikustea, Eliza katolikoan xoilki aurkitzen dela, Jesu-Kristok bere Elizari eman izan dioen batasuna, bere sinhestean, buruzagian eta sakramenduetan.

Horrek erran nahi othe du deus mudantzarik ez daitekela izan Eliza katolikoan? Bai; izan daitezke asko mudantza, bainan sekulan hirur

---

(1) Et tu aliquando conversus confirma fratres tuos. (Luc. XX, 32).



gauza hoikien gainean. Aita Saindu bakar bat izan da eta izanen da bethi Eliza guziaren buruzagi; bethi sakramendu berak, bethi erakaspen bera fedezko gauzen gainean; erakaspen hori hargatik gero eta gehiago argitan emanez doha. Bainan konpreni dezagun ongi ez duela Elizak egia berririk asmatzen; Jainkoak erakutsi diozkan egiak ditu xoilki, denborarekin, gero eta klarkiago erakusten eta deklaritzen.

159 Bertze asko gauzetan izan ditezke eta badire ere mudantzak. Gauza horrek behar du izan ongi konprenitua. Jesu-Kristok eman dio Elizari bere erakaspena: hori ez da mudatzen. Bainan goraxago erran dugun bezala, denborarekin hobeki argitan emanez doha, beharren arabera: hala nola, eretikoek egia bat ukhatzen dutenean, edo duda zerbeit izpirituetan sortzen denean. Establitu ditu zazpi sakramendu: bethi berak dire, ez bat gehiago, ez bat gutiago. Buruzagi bat eman dio Elizari, lehenik Jaun Doni Petri eta gero haren ondoko zuzenak, Aita Sainduak; bethi hola doha.

Bai; bainan gauza horietaz kanpo, badute Aita Sainduak Eliza gidatzeko kargua, denboren eta tokien beharren arabera. Horra nola Elizako asko lege kanbiatzen eta mudatzen diren, fidelen beharrek eta onak galdegiten duten bezala. Elizetako ofizioak, Aphezen, Fraiden, Seroren jauntziak eta erregelak, horiek guziak dire gauza batzuek Aita Sainduaren gomendiorat eta juiamendurat osoki utziak direnak. Hala nola ere, barur eta mehe egunak, barur eta mehe egiteko moldeak, denboreri, lekueri, eritasuneri, jenden pobrezari eta behareri behatuz kanbia ditezke; horiek ere dire gauzak, Elizako buruzagien zuhurtziari Jesu-Kristok utzi dituenak.

Horrela gertatzen da, Eliza Sainduak bertze orduz menturaz mantzen zuena, ez baitu orai manatzen. Aita Saindu batek bere autoritateaz manatu duena, bertze Aita Saindu batek, bothere beraz, kanbia, muda dezake, denboren edo lekuen beharrak ikusiz.

Bainan horiek dire giristino katolikoek gidatzeko erregela batzuek, Jesusen erakaspena eta sakramenduak bethi berak uzten dituztenak, eta Elizaren kalitate baitezpadakoeri unkitzen ez dutenak.

## SEI-GARREN KAPITULUA

### *Elizaz kanpo ez da salbamendurik*

160 Huna gauza bat hainitz premiatsua, ongi xehatu eta esplikatu behar duguna, ez dadien Elizaren erakaspena makur hartua izan, hainitzetan gertatzen den bezala.

Jesu-Kristo gizon egina, gu ganat jautsi da munduaren salbatzeko eta argitzeko. Zerurat bere gizontasunarekin igan baino lehen, Eliza bat establitu izan du, bainan bat xoilki, Egia bera zenari zohakon bezala. Ez da fede bat, eta bathaio bat baizen: *Una fides, unum baptisma* (1).

Jesu-Kristoren fedeaz eta Erlijioneaz kanpo, haren bathaioaz eta bertze sakramenduez bertzalde, nihork ez du zuzenik ez bothererik bertze erlijione baten erakusteko eta bertze sakramenduen establitzeko. Beraz, nork ere nahi baitu salbatu, behar ditu sinhetsi Jesu-Kristok erakutsi egia guziak, errezibitu haren bathaioa, eta egin harek manatzen dauzkigun bertze gaineratekoak.

Ordean, Eliza katolikoan eta hartan xoilki aurkitzen dire Jesu-Kristoren erakaspene eta lege guziak. Luzeki jadanik erran dugu gauza hori gorago.

Hortik egia hau: Elizaz kanpo ez dela salbamendurik, ez daitekenaz geroztik Jainkoaren zerbitzari izan, haren hitzari eta legeari jarraiki nahi ez dena: «Ez dezazuela uste izan, Jainkoa Aitatzat izanen duzuela, ez baduzue Eliza Amatzat». «Hala nola, dio S. Jeromek, urholdean hondatuak izan baitziren, Noeren untzian ez ziren guziak, gisa berean dire galtzen Eliza egiazkoan ez diren guziak». Gauza bera dio S. Krisostomok: «Jaun Doni Petriren eskuetan dire zeruko erre-

---

(1) Ephes. IV, 5.

sumako gakoak... haren fede bera duteneri, idekitzen diozkate zeruko atheak»...

Adimenduari berari bekhoz, zer da zuzenagorik? Zerurat behar gare heldu. Jainkoaren Semea ethorri da lurrerat, guri bidearen erakusteko; zerurat igaitean, bere Elizari utzi dio, gu bide hortan gidatzeko kargua. Nork izan dezake, portu hortarat kontrako bidez heltzeko asmu zoroa?

Soldadu batzuek gare guziak; Jesu-Kristo da gure aintzindaria. Nola, soldadu ona izan daiteke, bere aintzindariaren manuen kontra eta bere buruaren alde dabilana? Jesu-Kristo da gure Nausia; nola izan dezakegu zerbitzari leialaren saria, ez bagare gure Nausiari jarraikitzen?

161 Erranen daut norbeitek: Erakaspen hori gogorra eta dorphea da. Zer? Ez daitekela nihor salbatua izan Jesu-Kristoren Elizaz kanpo? Nola orduan erraiten ahal dugu Jainkoa Aita on bat dela? Zer? damnatuak, ifernurat joaitekoak direla, Eliza katolikoan sorthuak eta bathaiatuak ez diren guziak? Damnatuak ere Protestanten eta Xizmatikuen artean altxatuak izan ondoan, erakutsia izan zaioten Erlijioneari fede onean jarraiki izan direnak?

Bainan ez; ez du sekulan Elizak holakorik erakutsi. Hola mintzo direnak, gezurrez jazartzen zaizkigu, edo ez dute Elizaren erakaspena ezagutzen.

Hek zer nahi erranikan ere, guk dioguna da, Jainkoa justua bezin ona dela, eta ez dela nihor galdua izanen, non ez den bere faltaz. Huna zer dion Elizak: Nor eta ere baitago egiazko Elizaz kanpo, bere faltaz, dakielarik gezurrean dela, edo bederen funski dudatzen delarik; nor eta ere baitago, nagitasun eta lazakeria handizki hobendun den batez, egiaren bilhatzeko lehia eskasez, berak hala nahi duelakotz, Eliza katolikoaz kanpo, gauza premiatsu horren gainean argitua izan nahi gabe; hura ez daitekela izan salbatua. Hura egiazki hobendun eta handizki hobendun da, ez duelakotz nahi Jesu-Kristoren bidea segitu edo bederen bilhatu.

Deus gehiago erran gabe, bere zorteak Erlijione katolikoaz kanpo sor-arazi dituen Eretikoez, zenbat Eskualdun mentura huntan gerta ditezkenak! Hor hemenka ibili izan dire; leku hainitz ikusi dituzte; diru bilha zabiltzalarik, bere haurtasuneko erakaspen sainduak ahanzi; hainitz gauza tzar Erlijionearen kontra entzun eta menturaz irakurri. Fedea emeki emeki ttipituz joan da hekien baitan; duda zenbeit he-

kien izpirituatarat ethorri: urgulu suerte bat hartu, ustez bederen, lehenagoko lagunez gorago emaita zela, hekien fedeari ez jarraitzea!

Oi! Eskualdun maiteak! Zenbat holako, Ameriketan edo bertze nonbeit, diru pixka bat bildu dutenen artean! Zenbat, uste dutenak bere burua altxa, arbuatuz, ez bada bihotzez bederen kanpo eta iduriz, bere haurtasuneko sinheste saildu eta kontsolagarria! Urguluak xoilki gidatzen baditu, oi! zenbat hobendun litezken Jaionkoaren aintzinean! Zerbeit duda sartu othe da egiazki hekien izpirituatan, fedezko gauzen gainean? Hala bada, ez ditezke bake osoan izan. Bilha dezatela beraz lañoki, othoitzean, umiltasunean eta kontseilu onetan, bere haurtasuneko eta lehen komunionekeo fedea eta sinhestea. Ez daitezela ahalge izan bere Aphezen erakaspenen entzuteaz eta hekieri jarraitzeaz. Bere adixkide hoberenak dituzte.

Bertzela eginez, zer hirriskutan emaiten duten bere salbamendua! Hobeki erraiteko, zoin zoroki dohazin ifernurat, zeren ez baititazke, hek, fede on osoan izan!

- 162 Nola, asko denboretan eta bereziki azken denbora hautan, Eliza katolikoa gaizki bilhatua izan baita, hemen esplikatzen dugun erakaspenaren gainean, eman dezagun oraino zerbeit argi; ene iduriz, ez da alfer eta debalde izanen.

Salbatzailearen hitz garratz hauk irakurtzen ditugu Ebanjelio sainduan: «Zorigaitz hiri, Korozain, zorigaitz hiri, Bethzaide, zeren zuen artean eginak izan diren mirakuiluak, Tirreko eta Sidoneko hirietan eginak izan baziren, aspalditik egina izanen baitzuten penitentzia!... Erraiten dautzuet hortakotz, juiamenduko egunean, Tir eta Sidon ez dire zuek bezin garratzki juiatuak izanen»(1).

Jesu-Kristoren hitz hauk ongi ikustera emaiten daukute, gutarik bakotxa juiatua izanen dela, ez gure sor lekuaren eta gure burasoen Erlijionearen arabera, bainan bai, Jainkoaz emanak izan zaizkigun argi, grazia eta laguntzen arabera.

Huna oraino Jesu-Kristoren bertze hitz bat ongi erraiten daukuna haren urrikalmendua hedatzen dela fede ona eta bihotz zuzena duten guzien ganat. Soldaduen aintzindari baten fedez mintzo zen Salbatzailea, eta hura zen paganoa: «Egiaz erraiten dautzuet ez dudala hoin fede handirik aurkitu Israelen berean. Hortakotz erraiten dautzuet

---

(1) Vae tibi Corozain: vae tibi Bethsaida; quia si in Tyro et Sidone factae essent virtutes quae factae sunt in vobis, olim in cilicio et cinere poenitentiam egissent. Verumtamen dico vobis: Tyro et Sidoni remissius erit in die iudicii quam vobis. (Matth. XI, 21-22).

hainitzak ethorriko direla, iguzkia sortzen eta gordetzen den tokieta-rik, eta ungi ethorriak izanen direla zeruko erresuman, Abraham, Isaak eta Jakobekin; eta erresumako semeak, hek izanen direla kanpoko ilhunbetarat aurtikiak: han izanen dire nigarrak eta hortz karraskak»(1).

Hemen ere Jesusek erraiten dauku bakotxa juiatua, sariztatua edo gaztigatua izanen dela bere obren arabera.

163 Behar dire Elizan bi gauza kontsideratu: *gorphutza* eta *arima*. Elizaren gorphutzeko dire, bathaiatuak direlarik, Eliza egiazkoa ezagutzen eta haren fedea besarkatzen duten guziak. Hala nola gu guziak Eskual-Herrian, eta gutiz gehienak gure Frantzian.

Bainan horietaz bertzalde, izan ditezke eta egiazki hainitz eta hainitz badire, gu bezala agerian eta kanpoz Elizaren membro izan gabe, Eliza hori ezagutzen ez dutelakotz, hargatik Elizaren *ariman* direnak; erran nahi dut, fede onean eta bere ustez egian direlarik, bertze Erligione bat segitzen eta pratikatzen dutenak. Uste dute ongi egin; eta segurki katoliko egin litezke, balakite bide tzarrian dabiltzala.

Arima zuzen eta fede oneko horiek, ahal bezain ongi, eta emanak zaizkoten argien arabera, segitzen badute Jainkoaren legea eta nahia; ekharriak badire, Jainkoak hekien ganik galdegiten duenaren egitera ezagutzen duten bezin laster; ihes egiten badute gaizkiari, jarraikitzen ezagutzen duten ongiari, segurki salbatuak izan ditezke. Badute hek gutiziazko bathaioa; bihotzez, egiazki Jesu-Kristoren Elizan dire, nahiz ez diren hala iduriz eta kanpoz.

Bethi egia izanen da hargatik, ez dela Elizaz kanpo salbatzerik; ezen fede oneko arima horiek guziak Elizaren haurrak dire, berek ez dakitelarik. Bere nahiaz, bere gutiziaz, Jesu-Kristorenak dire, ekharriak direnaz geroztik Jainkoaren nahiaren egitera ezagutzen duten bezinbatean. Ez; ez dire galduak izanen, bere sortzearen ixtripu batek Elizaren *gorphutzaz* kanpo eman dituelakotz. Zer nahi erranik ere gure etsaiek, hori da Elizaren erakaspenna.

Gozo handi bat zaiku erraitea, iduriz gu ganik urrunduak direneta-rik asko, arimaz eta bihotzez gurekin direla, gure anaiak, berek ez dakitelarik, eta Jesu-Kristoren odol salbagarriaren probetxuak ageri den baino urrunago hedatzen direla.

---

(1) Amen dico vobis, non inveni tantam fidem in Israel. Dico autem vobis quod multi ab Oriente et Occidente venient, et recumbent cum Abraham et Isaac et Jacob in regno coelorum. Filii autem regni ejicientur in tenebras exteriores; ibi erit fletus, et stridor dentium. (Matth. VIII, 10-12).

Horiek esplikatu eta ongi xehatu ondoan, egia gelditzen da bethi kapitulu hunen hastapenean erran duguna: Ez da egiazko Elizaz kanpo salbamendurik; erran nahi da, ez daiteke izan salbatua, egiazko Eliza ezagutzen duelarik hartan sartu nahi ez dena, ez eta ere, bere Erlijione faltsoaren gainean duda funtsezkoak dituelarik, umilki, fedean, eta othoitzean, egia bilhatu nahi ez duena.

## ZAZPI-GARREN KAPITULUA

### *Aita Saindua, Elizaren buruzagia*

164 Bere Eliza establitu duenean Jesu-Kristok bilkura edo *zoizetate* bat nahi izan du egin; bilkura bat, zoizetate bat zoinaren menbro guziek gorphutz bat egiten baitute fede beraren sinhestean eta sakramendu beren partaliertasunean. Bainan, bilkura bat bada Eliza, behar zaio buruzagi bat; bilkura hortan, guziek fede, sinheste, dotrina bera dutenaz geroztik behar dute irakastaile bat, eta hura bakarra, Eliza bakarra delakotz, sekulan mudatzen ez dena bere erakaspenean.

Jesu-Kristo Jainko eta gizon den bezala, erran daiteke ere, lurrean establitu duen Eliza, Jainkoaren eta gizonen bilkura bat bezala dela. Jesu-Kristo da egiazki Elizaren lehen buruzagia. Hura da burua; gu guziak fede dunak, Elizaren gorphutza.

Bainan Jesu-Kristo bere gizontasun ageri zenarekin igan da zerurat. Utzi behar izan du beraz bere ordain bat Eliza katolikoaren buru izanen dena; buru bat ageri dena, zoinaren erakaspena izanen baita gure gidaria.

Hura da Jesu-Kristoren Bikarioa, AITA SAINDUA.

Aintzineko edo buruzagi hori gabe, desegina laiteke laster Elizaren batasuna. Bakotxa ber pentsueri jarraikiz, balitezke zalhu, buru eta gizon bezinbat sinheste eta Erlijjone. Hori gertatu izan da Protestanten artean, ez dutelakotz buruzagi bat Jesu-Kristok emana, bethi Fedezko sinheste bera, Jainkozko botere batez erakusten ahal duena.

Gauza hau agerian da. Gorphutz bat ez daiteke bizi, arima berekin izan gabe. Ez da ere gorphutz oso bat izaiten ahal buru bat gabe. Gisa berean Elizaz; lurraren gainean bizi diren gizonen bilkura edo zoizetateari baitezpada behar zaio buru bat, lurrean dena eta ageri dena.

Ederki erakusten dauku gauza hori, S. Thomas Dotor handiak: «Dударик ez da, Jesu-Kristok ditu guziak egiten Elizan; harek du ba-

thaiatzen, harek ditu bekatuak barkatzen; hura da egiazko Apheza kurutzeko aldarearen gainean sakrifikatua izan dena; haren bothereaz da, egun guzietz haren beraren gorphutza gure aldareen gainean kontsekratua. Eta nola ez baitzen hargatik fidelen artean egoitekoa bere gorphutz ageri zenarekin, hautatu ditu bere Aphezak, haukien medioz sakramenduak giristinoeri emanak izaiteko. Arrazoin handirekin beraz, bere gorphutz ageria Elizari gordetzearekin, gizon bati eman behar izan dio, Eliza guziaz artha hartzeko kargua, haren izenean eta haren Bikario bezala»(1). Ez daiteke ederkiago mintza.

Erran dezagun nola hautatu eta bere bothereaz dohatu zuen Jesu-Kristok Elizaren buruzagia.

Elizaren lehenbiziko buruzagia Jaun Doni Petri izan da.

165 Galdegiten zioten egun batez Jesu-Kristok bere Apostolueri, zer zen jenden ustea haren gainean, eta berek ere norentzat zagokaten: «*Vos autem quem me esse dicitis?*» Simon Petri, Izpiritu Sainduaz argitua, ez da dudarik, hurbildu zen Jesusen ganat, eta erran zion fedezko eta adorazionezko hitz eder hau: «*Zu zare Kristo Jainko Biziaren Semea*» (2). Amodioekin erran zion Jesusek: «Dohatsua zare, Simon Joanesen semea, zeren ez baidautzute haragiak eta odolak erakutsi egia hori, bainan bai ene Aita zerukoak. Eta nik erraiten dautzut: zu zarela Piarres edo Petri (erran nahi baita harria), eta harri horren gainean jarriko dudala ene Eliza, eta ifernuko indar guzietz ez dute deus egin ahalko haren kontra»(3).

Ez daiteke deus izan Jesusen hitz horiek baino ageriagorik.

Simon Piarres edo Petri hautatzen du Jesusek, zeren jadanik hautatua eta bertzetarik berexia baita Jainko Aitaz, hunek eman diozkan argi berezietz. Harek, harek lehenik, Apostolu guzietz artean, ezagutu eta adonatu izan du Jesu-Kristoren Jainkotasunaren mixterioa. Eta hortakotz, bertze guzietarik berexten eta guziak baino gorago emaiten duelarik, erraiten dio Jesusek: Eta nik zuri erraiten dautzut, zu zarela HARRIA, Elizaren zimendua eta sustengua.

Jesu-Kristok, ikusi dugun bezala, izen berri bat eman zion Simoni. Deitu zuen Petri edo *harria*. Izen berri horren balioa hobeki agertuko

---

(1) S. Thom. Sum. Contr. Gentil. Lib. IV, C. LXXXVI.

(2) Tu es Christus, Filius Dei vivi. (Matth. XVI, 16).

(3) Beatus es Simon Bar-Jona; quia caro et sanguis non revelavit tibi, sed Pater meus qui in coelis est. Et ego dico tibi quia tu es Petrus, et super hanc petram aedificabo ecclesiam meam, et portae inferi non praevalerunt adversus eam. (Matth. VI, 17-18).



zaiku, orhoitzen bagare, Jesu-Kristo bera, Profetez, *harría* edo *harroka* deitua izan dela. Ez othe dugu ikusiko hemen, Apostoluari izen bera emanez, bere orde osoki emaiten zuela? Bagintuzke hemen leku-ko Origene, Tertuliano, Jerome, Krisostomo eta bertze hainitz Elizako Aita.

«Zertako bada, dio ere Franziaiko izkribatzaile batek, emana zaio Simoni Petriren (harriaren) izena? Zeren hori baitzen Jesu-Kristoren beraren izena» (1).

166 Orditik, behar zion Jesusek bere Apostolu berexiari bothere osoa eman izpiritualeko gauzetan. Hola egin zuen: ezen huna nola mintzo zaion berehala: «Emanen dauzkitzut zeruko erresumako gakoak: zer eta ere estekatuko (edo kondenatuko) baituzu lurraren gainean, estekatua ere izanen da zeruan, eta zer eta ere barkatuko baituzu lurrean, barkatua izanen da zeruan» (2).

Iduri du, bere Jainkozko deretxo guziak ezartzen dituela Jesu-Kristok, Petriren eskuetan: zuk izanen ditutzu zeruko gakoak; zuk eginak ontzat atxikiko ditut; zuk barkatuak, barkatuko, eta zuk kondenatuak kondenatuko ditut.

Behin egin duena, ez du Jesusek guphidesten. Jaun Doni Petri bere ordain eman du, hala izanen da.

Nahi badugu oraino hobeki ikusi, dezagun idek Jaun Doni Joanesen Ebanjelioa, hogoi eta bat garren kapituluan. Jesu-Kristo phiztua zen ordukotz, eta dizipulueri agertu zen Tiberiadeko itsaso hegian. Bere Elizaren buruzagi izaiteko hautatu duenari galdegiten dio: Simon, Joanesen semea, maite nauzu bertze hau baino gehiago? — Bai, Jauna, dio Petrik, badakizu maite zaitudala. Eta Jesusek erraiten dio: Bazka zatzu ene bildotsak: *Pasce agnos meos*. — Galdegiten dio berritz ere: Simon, maite nauzu? — Bai, Jauna, badakizu maite zaitudala. — Eta Jesusek berritz ere: Bazka zatzu ene bildotsak. — Hirur-garren aldikotz galde bera egiten dio Jesusek: Simon, Joanesen semea, maite nauzu? Eta orduan Apostoluak: Ah! Jauna, zuk, guziak dakizkatzuna, badakizu maite zaitudala. — Eta huna Jesusek orduan erran zion hitza: Bazka zatzu ene ardiak: *Pasce oves meas* (3).

---

(1) *L'Infaillibilité* par M. de S. Bonnet.

(2) Et tibi dabo claves regni coelorum. Et quodcumque ligaveris super terram erit ligatum et in coelis; et quodcumque solveris super terram erit solutum et in coelis.

(3) Joan. Cap. XXI, 15-17.

Azken hitz horietaz, Jesu-Kristok ezartzen du Jaun Doni Petri Eliza guziaren buruzagi. Ezen, bildotsak dire giristino eta fede-dun guziak: Ardiak aldiz dire Apostoluak eta Aphezpikuak. Batzuen eta bertzen artzaina eta bazkatzailea egiaren erakaspenez, Jaun Doni Petri izanen da: *Pasce agnos meos... Pasce oves meas.*

Horra Elizaren lehenbiziko buruzagia, lehenbiziko Aita Saindua.

## ZORTZI-GARREN KAPITULUA

### *Aita Saindua ez daitekela errebela Erlijioneko gauzetan*

167 Ikusi dugu, Aita Saindua da Elizako fidel guzien gidari eta Nausi izpirituala, hain egiazki nola Jesu-Kristo bera; ezen haren Bikarioa da, haren kargua du lurraren gainean. Aita Sainduari zaio Eliza guziari matzea; erraitea, erakustea, zer behar den sinhetsi eta zer egin.

Aita Saindua Jesusen hitzaz, Elizaren zimendua denaz geroz, harek badu, fidelen eta Aphezpikuen egian argitzeko kargua, ez daiteke, bertze gizonak bezala, enganakor izan haren karguari baitezpada dohazin gauzetan. Zer bilhakatzen da etxe bat, zimendu faltsoa eta lerrakorra duenean? Laster, zimenduak eskastearekin, lurra behera joaiten da. Hala hala laiteke Elizaz, haren zimendua den Aita Saindua erorkorra eta enganakorra balitz Fedezko gauzetan.

Ez dezagun holako beldurrik izan. Fiador dugu Jesu-Kristoren beraren hitz hau: «Zu zare harria, eta harri horren gainean jarriko eta altxatuko dut ene Eliza, eta ifernuko indarrek ez dute garaituko»(1).

Huna oarino Jesu-Kristoren bertze hitz bat. Othoitz egin dut zuretzat, dio Jaun Doni Petriri, ez dadien ttipi eta flaka zure fedea, eta zuk, konbertitu zaren ondoan, finka eta hazkar zatzu zure anaiak fedean(2). Nork ez du ikusten, hitz hautaz oraino, Jaun Doni Petri dela bere anaien, erran nahi da, Apostoluen eta dizipuluen, fedean hazkartziaz kargatua: *Confirma fratres tuos*. Eta ez dadien bera fedean errebela, Jesu-Kristok othoitz egin du harentzat: *Ego rogavi pro te, ut non deficiat fides tua*. Uste izan othe dezakegu Jesusen othoitz indar gabe izan dela?

---

(1) Matt. XVI, 18.

(2) Ego rogavi pro te, ut non deficiat fides tua, et tu aliquando conversus, confirma fratres tuos. (Luc. XXII, 32).

Galdegiten dut orai, bai aintzineko kapituluan, bai huntan entzun ditugun Jesusen hitz hoikien ondotik: Aita Saindua, Fedezko gauzetan, eta gaizkiaren eta ungiaren erregelan, engana othe daiteke bera, edo engana othe gaitzakke? Ikusi dugu, Aita Saindua da Jesu-Kristoren ordaina eta Bikarioa munduan: *Verum Christi vicarium*. Eta harek, Jesu-Kristoren izenean eta haren autoritatez mintzo zaikularik, enganatzen eta gezurrezko bidetan gidatzen ahal gaituela? Erran behar ginduke orduan, Jesu-Kristok berak enganatu gaituela, Aita Saindua erakustaletzat eta gidaritzat eman daukunean; erran behar ginduke, Petrirentzat egin duen othoitza ez dela entzuna izan.

168 Jainkoaren nahia izan da, dio S. Agustinek, Jaun Doni Petri haren ordaina izan dadien Elizan. Jainko Aitak, bere Semea, Berbo Dibinoa egorri du lurrerat, izan zadien egiazko Erlijionearen iguzkia eta argia. Gisa berean, Jesu-Kristok, zerurat igaitean, lurrean utzi du Aita Saindua, egiazko Erlijionearen zimendu ageri dena, erakaspeneren ithurri garbia, Jainkoaren urrikalmentuaren minixtroa, sakramenduen emalea berak edo bertzez; hitz batez, Jainkoaren dohain guziak, Elizaren gidatzeko eta arimen salbatzeko eskuetan dituena.

Pio IX<sup>ak</sup> erraiten zuen, urthe berri egun batez, Frantses armadako aintzindariari: «Jainkoak hartu du Bikario bat lurrean, eta Bikario hura, ni naiz».

Egun batez, aphez saindu bat, mendian zabilarik, aurkitu zuen mutiko gazte bat eta galdegin zion: Badakizu zer den Aita Saindua? — Segurki, badakidala zer den Aita Saindua: Aita Saindua da Jesu-Kristo lurraren gainean.

Artzain gazte horrek Eliza katoliko guziaren sinhestea emaiten zuen hitz hortan. Bai, egia da: Aita Saindua, Jesu-Kristo bera da lurraren gainean; Aita Sainduarekin ez dena, ez daiteke Jesu-Kristorekin izan; Aita Saindua Eliza guziaren burua da: *Totius Ecclesiae caput*.

Nola, gure gorphutzean, burua baita zathi bereziena, nahiz ez den gorphutz guzia; gisa berean, Aita Saindua Elizan. Bera bakarrik ez da beraz Eliza guzia, bainan hura da burua. Haren ganik heldu dire guziak; erakaspenerak, sakramenduen minixtroak, Izpiritu Saindua, salbamendua; ez, bere baitarik zerbeit duelakotz, bainan, zeren Jesu-Kristoren ordaina eta Bikarioa baita. Hari erraiten ahal dugu, erran behar dugu, Jaun Doni Petrik Jesusi erran zioen hitz hau: «Noren ganat joanen gare? Zuk ditutzu bizitze eternaleko hitzak»(1).

---

(1) Ad quem ibimus? Verba vitae aeternae habes. (Joan. VI, 69).

Behar dugu hargatik hemen Elizaren erakaspena xehatu, eta ilhunberik utzi gabe, ungi esplikatu.

Dudarik ez dugu egiten, Erlijioneaz kanpoko gauzetan, Aita Saindua, bertze gizon guziak bezala, errebela daitekela; aithortuko dugu ere, gauza horietan, bertze hainitz gizon izan ditezkeela eta badirela ere, hura baino argituagoak.

169 Jesu-Kristok Aita Saindua eman izan duenean, Elizaren erakaspeneren erakustaile eta argi ezin ilhunduzkca, ez da gauza horietaz mintzatu nahi izan; hoikietan utzi du gizona, bere adimenduaren indarrez baliatzera, bere libertate osoan; nahiz bethi, bainan bertze molde batean, egia haren ganik heldu den; hura delakotz egiaren ithurria, eta mundua erregelatzen duten lege guziek haren baitan dutelakotz bere hastapena. Bainan, Eliza establitu duenean bilhatu duena, hau izan da: Elizaren ahoz gizoneri erakustea, zer behar duten sinhetsi eta zer behar duten egin, zerurat heltzeko. Guk xoilki dioguna, hau da beraz. Aita Saindua Eliza guziaren buruzagia da, fidelena bai eta ere Aphezena eta Aphezpikuena: *Bazka zatzu bildotsak... Bazka zatzu ardiak: Pasce agnos... pasce oves*. Harek du ere kargua, errebelatzen direnen bide zuzenean emaitekoa: *Confirma fratres tuos*.

Erlijioneko gauzetan beraz gidatzen gaituenean; zerbeit erakusten, ez, bertze gizon batek bezala, bainan Aita Saindu bezala; zerbeit matatzen daukunean, Elizaren buruzagi bezala, gure arimen onarentzat, Jainkoaren izenean mintzo delarik, orduan ez daiteke errebela, ez dezake gezurra edo gaizkia erakuts, ez gaitzazke engana. Bertzela, Jesu-Kristo bera laiteke gure enganatzailea eta errebelatzailea, hertxiki manatu daukunaz geroz Aita Sainduari jarraikitzea.

Bainan, erranen dautazue, hori da Aita Sainduarentzat fagore, pribilejio bat, handia eta handia. Bai: pribilejio bat miresgarria, bainan ez haren fagoretan; gure fagoretan.

Jainkoak, bere Izpirituaz laguntzen badu Aita Saindua, guretzat egiten du. Eta erranen dut, Jainkoak hori zor diola bere justiziar. Jesu-Kristoren manuz behar ditugu Aita Sainduaren erakaspentak sinhetsi, behar dugu haren legeri obeditu, hitz batez, behar ditugu gure adimenduak eta bihotzak haren autoritatearen aintzinean aphanatu.

Hola denaz geroztik, guri dauku zor Jesu-Kristok, berak eman daukun buruzagi eta gidariak ez gaitzan erabil gezurraren eta gaizkiaren bidetan.

Ez dugu beldurrik izaiten ahal. Jesu-Kristok othoitz egin du bere Bikarioarentzat, ez dadien sekulan ilhun haren fedea: *Ego rogavi pro te ut non deficiat fides tua...* Bethi gu bide onetan hazkartzeko kargua eman dio: *Confirma fratres tuos.*

Aita Sainduari jarraikiz, Jesu-Kristori berari gare jarraikitzen.

## BEDERATZI-GARREN KAPITULUA

### *Sainduen partaliertasuna*

170 Eliza familia bat da.

Ongi ordenatuak diren familia guziek bezala, badu bere buruzagia; zeruan, Jesu-Kristo, buruzagi ageri ez dena, bere odolaz Eliza establitu eta finkatu duena; lurrean, Aita Saindua, Jesu-Kristoren Bikarioa eta lurraren gainean haren ordaina. Hori ongi ikustera emana izan da aintzineko kapituluetan.

Bainan, familia batean, familia hartako menbro guziek bat egiten dute. Familiako onak eta aberastasunak guzienak dire. Gisa berean Elizan.

Hori deitzen dugu Sainduen partaliertasuna. «Hainitz gare, zion Jaun Doni Paulok, gorphutz bat egiten dugunak, Jesu-Kristo baitan, eta batzuek bertzeen menbroak»(1). Apostolu berak dio oraino: «Ez dadiela gerlarik izan gorphutz hortan, bainan menbro guziek elgar lagun dezatela»(2).

Aita bera dugu guziek, Salbatzaile bera, Izpiritu Saindu bera, argitzen eta saindutzen gaituena. Guziak, Jesu-Kristok establitu duen Eliza beraren haurrak gare. Beraz, Elizako on eta abantail guziak, guzienak dire. Othoitzek, obra onek, merezimenduek, horiek guziek tresor eta aberastasun bat egiten dute, eta Elizaren haur guziak hortaz baliatzen ahal dire.

Ikus dezagun zer dohan, eta zer gertatzen den gure gorphutzean.

Hainitz menbro badire gure gorphutzean, bainan ez dute gorphutz bat baizik egiten. Menbro bakotxa ez da xoilki bere onarentzat, bainan

---

(1) Multi unum corpus sumus in Christo, singuli autem alter alterius membra. (Rom. XII, 5).

(2) Ut non sit schisma in corpore, sed idipsum pro invicem sollicita sint membra. (Corinth. XII, 25).

gorphutz osoaren onarentzat. Begiek ez dute xoilki beretzat ikusten, baina eskuak eta oinak argitzen eta gidatzen dituzte; oinak gorphutz osoarentzat dabilta; gisa berean eskuez, belharriez eta bertzez.

Konparazione horrek ikustera emaiten dauku Elizan gertatzen dena. On guziak guzien probetxutan dire. Odol berak gorphutza biziarazten eta sustatzen duen bezala, gisa berean, Izpiritu eta bizi bera dabilta Elizaren membro guzietan.

Erran dugu, *sinhesten dutean* aurkitzen den, eta Elizak erakusten duen gauza hori deitzen dela Sainduen Partaliertasuna. Erran nahi othe du horrek, Elizaren membro eta haur guziak sailduak direla? Ai! ez; badire hainitz gutartean, zoinen bizia ez baita Ebanjelioaren arabera-koa, urrun da; hainitz badire bere giristino izena, bekatuan biziz, desohoratzen eta aphaltzen dutenak.

Hargatik, Elizaren sinhestean eta galtzarrean bizi direño, zilhegi zaiote, gehiago erranen dut, errex zaiote, nahi bezin bekatore handiak izan ditezten, Elizaren merezimenduetan partalier izaita. Bekatuan direrarik ere, bertzen othoitz eta obra sailduak ez dire alfer hekientzat, ez dituzteño hautsi eta trenkatu, Elizari estekatzen dituzten lokarriak.

171 Erranen dugu laburzki, zoin diren Elizaren merezimenduetan parte ez dutenak.

1<sup>ik</sup> Erran gabe doha, Elizaz kanpo direla, lehenik, bathaiatuak izan ez direnak, nola baitire Paganoak, Juduak, Mahometanoak. Hek ez dute, ez dezakete den gutieneko ariarik izan Elizarekin. Jesu-Kristoren Elizaren athea, bathaioa da.

2<sup>ik</sup> Elizaz kanpo dire ere giristino arnegatuak deitzen ditugunak, erran nahi da, Fede katolikoa ezagutu eta pratikatu ondoan, sahetserat utzi eta arbuiatu dutenak. Horiek, berak eman dire Elizaz kanpo, eta hekien gainerat erortzen da Jesusen hitz garratz hau: «Norbeitek ni arnegatzen balinbanau, nik hura argenatuko dut ene Aitaren aintzinean»(1).

3<sup>ik</sup> Elizaz kanpo dire ere Eretikoak. Hek dire giristino bathaiatuak, egia da; baina bere izpirituari eta sentimenduari jarraikiz, Fedezko egien artean hautatzen dutenak, batzuek onhetsiz eta bertzeak ez. Ez ditezke hek Elizaren haurrak izan, Fedezko egia guziak Jainkozko erakaspak beraren gainean finkatuak direnaz geroztik. Ez gare hargatik

---

(1) Qui autem negaverit me coram hominibus, negabo et ego eum coram Patre meo. (Matth. X, 33).



hemen mintzo, nahi tzarrekoetz baizen, eta ez, argi eta jakitate eska-sez, uste gabea eta fede onean errebelatzen direnez.

4<sup>ik</sup> Xismatikoak: Elizaren sinhestea, baitezpada arnegatu nahi izan gabe, Eliza Katolikoa bere Amatzat, eta Aita Saindua buruzagitzat eza-gutu nahi ez dutenak. Gure sinhestea, bere ustez bederen, atxiki nahi dutelarik, trenkatzen dute, Elizaren buruzagi den Aita Sainduarekin juntatzen gaituen esteka beharra eta baitezpadakoa. Burutik berexiak, ez ditezke Elizaren gorputzeko membro izan.

Ezti zaiku erraitea, urrikalmendu handiak izanen dituela Jainkoak bai Eretiko bai Xizmatiko fede onean bizi direnentzat. Horietarik hainitz onak izan ditezke. Ordutik, gorago erran dugun bezala, nahiz bere ethorkiak gezurrezko erlijione batean sorarazi dituen, bihotzez eta gutiziaz, Elizako arimaren membro izan ditezke.

5<sup>ik</sup> Eskomunikoz joak. Hek dire, zerbeit bekatu edo krima handien gatik, Elizak bere galtzarretik kanpo eman dituenak. Bekatu berean direino edo hobeki erraiteko, eskomunikazioneko pena Elizaz altxatua ez deino, hek, zerbeit huts handien gatik, etxetik kanporat emanak izan diren haur batzuen pare dire. Bainan errex zaiote Elizaren galtzarrean sartzea. Umilki, urrikiekin barkamendu eska dezatela; Eliza, Ama Saindu eta amultsuak bere besoetan errezibituko ditu, eta Jainkoak barkatuko diote.

Sainduen partaliertasun eder horrek, non othe ditu bere mugarriak? Non baratzen da? Gure eta zeruko Sainduen artean, ba othe da bata-sunik, eta guk, gure aldetik, deus egiten ahal othe dugu, othoitzez eta obra onez, purgatoriotako lezetan pairatzen duten arima gaxoentzat?

172 Ah! bai; Sainduen partaliertasunak besarkatzen ditu zerua, lurra eta purgatorioa. Guziek bat egiten dugu Jesu-Kristo baitan: guduan oraino lur hunen gainean garenek, purgatoriotan, bere hutsen azken zorrak pagatzen hari direnek, eta ere, zeruan jadanik bere sariaz eta zorionaz gozatzen direnek.

Pentsamendu eder eta kontsolagarria! Bai gure eta Eliza guziaren sinhestea da, zeruko sainduak gutaz orhoitzen direla, guretzat othoitz egiten dutela eta gutaz artha hartzen. Hori izan da, mende guzietako Elizako Aiten, eta katoliko guzien sinhestea. Horra zertako zeruko Sainduak bethi othoiztu izan diren Jainkoaren adixkide bezala.

Guk aldiz, laguntzen ahal ditugu gure anaia purgatoriotan direnak. «Pentsamendu saildu eta salbagarria da, dio Izpiritu Sailduak, hilen-tzat othoitz egitea, izan ditezen bere bekatuetarik libratuak» (1).

Horra nola, elgarren anaiak garen guziak Jesu-Kristo eta Eliza baitan. Familia berekoak guziak, Jainko Aita beraren eta Eliza Ama beraren haurrak. Zeruko anaiek eskua hedatzen daukute, othoitz egiten dute guretzat, eta guk, purgatoriotan pairatzen dutenentzat. Gure obra onak, gure merezimenduak baliatzen zaizkote.

Hirur Eliza hautako membro guziek, bat eginez elgarrekin eta Jesu-Kristorekin, baten laguntza galdegiten dugularik, eta bertzeari gurea emaiten, merezi dezagun, zeruko on eternalen partaliertasun oso eta perfeta, bethi-ereko batean eta zorionean.

---

(1) Sancta ergo et salubris est cogitatio pro defunctis exorare, ut a peccatis solvantur. (II Machab. XII, 46).

## HAMAR-GARREN KAPITULUA

### *Bekatuen barkamendua*

173      Gizona erorkor eta bekatoros da.

Gutarik bakotxak erran behar du Dabid Erregeak zioena: «*Ecce enim in iniquitatibus conceptus sum*». Huna non bekatuan kontzebitua izan naizen. Eta oraino, Errege Profeta berarekin: *Miserere mei Deus, secundum magnam misericordiam tuam*: Urrikal zakizkit, Jaina, zure urrikalmendu handiaren arabera.

Bekatuan kontzebituak izan gare guziak, salbo Andre dena Maria, Jainko-Gizonaren Ama Saindua. Bainan geroztik, gutarik gehienetan, adimendua ethorri zaikun ondoan, zenbat bertze bekatu, gure flakezaz eta gure nahiz eginak! Badakigu, bekatuak gizona Jainkoaren ganik urruntzen, eta haren etsai egiten duela. Ezen, bekatua Jainkoaren kontrako errebolta bat da.

Bainan gogor eta hasarre egonen othe da Jainkoa, urrikitan sartzen den bekatorearentzat? Ez othe da harentzat izanen barkamendurik, eta Jainkoarekin baketzerik?

Bai; Jainkoa ona da eta urrikalmenduz bethea: *Misericors et miserator Dominus*. Eta bekatore penitentzia egiten duteneri, barkamendua merezitu diote Jesu-Kristok bere heriotzeaz. Kurutzearen gainerat igan baino lehen, zoin eztiki, gure gogoak eta bihotzak preparatzen dituen! Zoin ungi, Ebanjelio Sainduan agertzen zaikun, amodioz eta urrikalmenduz bethea den Salbatzaile bat bezala! Horra Samaritanoa! horra Maria Madalena; horra bekatu itsusian aurkitua izan den emazte ahalkatu eta umiliatua: barkatuak, eta bere bekatuetarik garbituak altxatzen dire haren oinetarik.

Jainkoaren Semea gizon egin aintzinean, ez da nihor izan bekatuen barkatzeko botherea beretu nahi izan duenik. Hori da gauza bat Jainkoak xoilki egin dezakena. S. Agustinek erraiten du, inpio batetarik

justu bat egitea, gauza miragarriagoa dela, ezen ez, zerua eta lurra ez deusetarik ilkiaraztea.

Mundu huntan zelarik, bekatuak barkatzen zituenean Jesu-Kristok, Jainkozko eta osoki Jainkozko obra bat egiten zuen.

Bainan, ez zen Jesus bethi lurraren gainean egotekoa, eta zerurat igan baino lehen, nahi izan du Elizan utzi bekatuen barkatzeko botherea.

Huna zer erran zion Jaun Doni Petriri: «Emanen dauzkitzut zeruko gakoak... Lurrean barkatzen ditutzun guziak, zeruan ere barkatuak izanen dire»(1). Eta zerurat igan aintzinean, erran zioten oraino bere Apostolu guzietan, elgarrekin bilduak zirelarik: «Nik egortzen zaituztet, ene Aitak ni egorri nauen bezala; errezibi zazue Izpiritu Saindua; bekatuak barkatuak izanen dire, nori eta ere zuek barkatuko baitituztue, eta ez dire barkatuak izanen, nori eta ere ez baitituztue barkatuko»(2).

174 Erraiten baliote bezala: «Ni, ezarria izan naiz ene Aitaz, gizon guzietan juaie soberano; bada, nik egortzen zaituztet munduaren salbatzera eta juiatzera, ene Aitak ni egorri nauen bezala; ene Aitak eman dautan botherea, eta Jainko bezala ene baitarik dudana, emaiten dautzuet; ene urrikalmenduaren minixtroak egiten zaituztet; barka zatzue bekatuak: barkatuak izanen dire, zuek barkatzen dituztueneri.

Bothere handia eta mirestekoa! Ez, gizon batzuen urguluarentzat emana, jakin dezagun ungi, bainan bekatore guzietan onarentzat. Jainkoaren amodioaren eta urrikalmenduaren obra da. Eta ez da hemen izari, ez neurrik. Bekatu guziak, nahi bezin handiak, barkatuak izan dituzte. Jesusen hitzak, ez du nihor ez deus, kanpo uzten: «Bekatuak barkatuak izanen dire, zuek barkatzen dituztueneri».

Elizari utzi dio beraz Jesu-Kristok bekatuen barkatzeko botherea. Bainan, guk gure aldetik, ez othe dugu deus egiteko, nahi badugu barkamendua izan?

Egia da Jainkoa barkatzera ekharria dela. Bainan ere, bihotzeko asko dispoziogene galdegiten ditu; guzietan gainetik, bekatuaren herra, eta hartarik urruntzeko xede zina.

---

(1) Et tibi dabo claves regni coelorum. Et quodcumque ligaveris super terram erit ligatum et in coelis, et quodcumque solveris super terram erit solutum et in coelis. (Matth. XVI, 19).

(2) Quorum remiseritis peccata, remittuntur eis; et quorum retinueritis, retenta sunt. (Joan. XX, 23).

Bihotzak egin du bekatu; bihotza urrundu da Jainkoa ganik, kreaturari estekatzeko. Barkamenduaren izaiteko, bihotzak behar du beraz, kreaturen ganik urrunduz, berritz Jainkoa ganat itzuli. Bekatuaren herra, eta bekatuarentzateko urruntasun hori gabe ez daiteke izan barkamendurik.

Gauza hori agerian da. Nahi bezin ona eman dezagun eta izan dadien Jainkoa, ez dezake barkamendua eman eta bere adixkidantza bihur, bekatuan, eta beraz, debruaren zerbitzari egon nahi denari. Hori da ez daiteken gauza bat. Ez detzazke nihork bi nausi zerbitza, eta bereziki Jainkoa eta debrua: *Nemo potest duobus dominis servire*. Ona eta urrikalmendutsua da Jainkoa, bainan ere, zuzena eta justua. Haren amodioa berritz kobratu nahi duten bekatoreeri, galdegiten du bekatuaren herra. Justu eta zuzen da.

175 Bainan, zoin da, bekatuen barkamenduarentzat, Jesu-Kristok establitu duen moldea? Hura da penitentziako sakramendua.

Sakramendu horren minixtroak izan dire lehenik Apostoluak, eta hekien ondotik, Apezak. Hekieri errana izan zaiote: Bekatuak barkatuak izanen dire, zuek barkatu ditutzueneri, eta ez, barkatu ez ditutzueneri. Gauza hau finkatzen dute S. Ambrosiok eta S. Krisostomok erraiten dutenean, Apezak direla bekatuen barkatzeko botherea dutenak.

Sartu gabe hemen xehetasun handietan(1) erran dezagun, Penitentziako sakdamenduaren baitezpadako kondizione bat dela, bere bekatuen kofesioa edo aithorra. Jesu-Kristoren hitza dudan ezin emanezkoa da: «Errezibi zazue Izpiritu Saindua; bekatuak barkatuak izanen dire, zuek barkatzen ditutzueneri, eta ez dire barkatuak izanen zuek barkatzen ez ditutzueneri»(2).

Ageri da hitz horietarik, bai Apostoluak, bai hekien ondoko Apezak, arimen juie Jesu-Kristok egin dituela. Bada, behar du jakin juie batek, nork duen barkamendua merezi, eta nork ez. Behar du jakin zeren gainean behar duen ekharri bere juiamendua. Hortarik ageri da, behar duela bekatoreak bere bihotza aphezari ideki, eta bere bekatuaren aithorra egin. Hori gabe, itsua laiteke aphezaren juiamendua. Ez duke hori nahi izan Jesu-Kristok. Eta horra zertako, Penitentziako sakramenduan, Apezak juie eta bekatuen barkatzaile egiten dituelarik, galdegiten duen bekatoreeri bere bekatuen aithorra.

---

(1) Gure xedea da, bertze liburu bat egitea geroxago sakramenduez.

(2) Joan. XX, 23.

Kapitulu hunen hitz guzietarik ageri zaiku, ez duela Jainkoak bekatorea barkamenduaren esperantza gabe utzi. Urrikalmendutsua da Jainkoa, eta bekatore handiena bera nahi du salbatu.

Bekatoreak, zohazte beraz haren ganat; eta non aurkituko duzue segurki? Penitentziako sakramenduan; kofesio on eta laño batean.

## HAMEKA-GARREN KAPITULUA

### *Haragiaren phiztea*

176 Garen guziak hiltzeko sortzen gare. Adameren bekatuaz geroztik, guzientzat ekharria da lege dorphea: Guziek hil behar duzue: *Statutum est hominibus semel mori*.

Bainan ez gare osoki hiltzen. Gorphutzetik ilkitzearekin, arima sartzten da eternitatean. Arima ez da hiltzen.

Erran daiteke, heriotzea dela, gorphutzarentzat ere, denbora batetako lo bat bezala. Badoha lurrerat; lurlean hartua izan zen Jainkoaz hastapenean. Bainan ez doha lurrerat bethikotzat. Zenbat nahi zathitan barraiatua izan dadien, ilkiko da egun batez lurretik, eta, bere bizian laguntzat izan duen arimari juntatua izanen da. Hori da Elizaren sinhestea: *Credo in resurrectionem mortuorum*: sinhesten dut hilen phiztean.

Erlijione eta fede gabekoeri, garratz eta dorphe zaiote erakaspén hau. On litzaiokete, jaidura tzar guzien zerbitzari bizi ondoan, ez baltz bertze bizirik; gorphutza lurrari bihurtu ondoan, oro hortan akabo balire. Juiamenduak, bethi-ereko biziak, ikhara eta nahasmendu handitan emaiten ditu.

Bainan alferretan; hekien uste faltso eta nahi guziak, amets batzuek izanen dire. Arima ez da hiltzen, eta gorphutza bera, ez da denbora batentzat baizen izanen lurraren barnean.

Huna zer zion Jainkoak bere populuari Profeta baten ahoz: «Phiztuko dire zuen hilak»(1).

Nor ez da orhoitzen Job, gizon sainduaren ixtorioaz? Jainkoaren nahiaz, eta gizon saindu horren bertute eder eta handia agerian emaittea gatik, zilegi izan zen debruari, molde guziz haren tentatzea, gaiz-

---

(1) Vivent mortui tui, interfecti mei resurgent. (Isaias. XXVI, 19).

kirat lerarazteko. Garrazki joa izan zen bere izaite eta aberastasunetan, bere familian eta haurretan.

Gehiago dena, haren gorphutza zauri itsusi eta izigarri bat egina zen. Desmasia eta zorigaitz hoikien guzien erdian, huna zerk sustatzen zuen, eta altxatzen zioen bihotza: «Badakit, zioen, ene Salbatzailea eta Erostailea bizi dela, eta azken egunean, ni ere phiztuko naizela; beztitua izanen naiz berritz ere ene haragiaz eta begi haukiekin berekin, ikusiko dut ene Salbatzailea... sinheste eta esperantza hori ene bihotzean dakarzet»(1).

Zoin den argia Testamentu berriaren erakaspena, haragiaren phiztearen gainean!

Huna lehenik, zer dion Jesu-Kristok berak: «Heldu da orena, zointan, hobien zolan direnek entzunen baitute Jainkoaren Semearen boza, eta, ungia egin dutenak, altxatuko dire, bizirat phizteko, eta aldiz, gaizkia egin dutenak, juiatuak izaiteko»(2).

Gisa berean mintzo zaiku Jaun Doni Paulo: «Hilak phiztuko dire, gehiago ez hiltzeko».

177 Adimenduak berak erraiten dauku, zoin zuzen den, gorphutza berritz arimari juntatua izan dadien, elgarrekin saristatuak edo gaztigatuak izaiteko. Hainitz aldiz, arima gorphutzaz zerbitzatu izan da, ongiaren egiteko; justu eta zuzen da, gorphutza izan dadien arimarekin sariztatua. Hala nola ere, hainitz gaizki egiten baitu arimak gorphutzaren medioz, eta gorphutzeko jaidura tzarrak direlakotz, zuzen baita, parte izan dezan gorphutzak gaztigan, nola izan baitu bekatuan.

«Eta nahi baduzue eman dezadan arrazoin bat oraino handiagoa, eta Salbatzailearen majestateari hobeki dohakona, erranen dautzuet, Jainkoaren Semeak, arima bat bezin ungi, gorphutz bat hartu duela; gisa hortan, gizona, den bezala eta oso osoa, juntatu izan du bere Jainkozko presunari; zuzen zen beraz, haren botherea heda zadien gorphutzari, arimari bezala, eta gizona, den guzia, haren juiamenduari sumetitua izan zadien». Horra nola mintzo den Bossuet handia, azken juiamenduko predikuan..

Hori dohako egiazki, Jainkoaren justiziari.

---

(1) Scio enim quod Redemptor meus vivit, et in novissimo die de terra surrecturus sum: et rursum circumdabor pelle mea, et in carne mea videbo Deum meum... reposita est haec spes mea in sinu meo. (Job, XIX, 25-26-27).

(2) Venit hora in qua omnes qui in monumentis sunt, audient vocem Filii Dei. Et procedent qui bona fecerunt, in resurrectionem vitae; qui vero mala fecerunt, in resurrectionem iudicii. (Joan. V, 28-29).



Bainan, Jainkoaren justiziak gorphutzen phiztea galdegiten badu, erranen dut ere, gauza bera galdegiten duela haren amodioak.

Zer bada? Gorphutz hau, Jainkoak bere eskuez moldatu, eta bere hatsaz bizirat eman duena; gorphutz hau, bathaiako uraz eta konfirmazioneko olioaz kontsekratua; gehiago dena, Komunione Sainduan, Jesusen gorphutzaz eta odolaz hazia, ustelduraren bazka izanen dela bethikotz? Hori ez daiteke.

Beraz, phiztuko gare; Jainkoaren justiziak eta amodioak higual galdegiten dute.

Jainkoak, xoilki, ezagutzen dituen eguna eta orena ethorriko direnean, boza bat entzunen da, Jainko Semearen ahotik ilkitzen, erranen duena: Hezur ihartuak! Entzun zazue Jainkoaren hitza (1).

178 Hitz botheretsu hori entzunen denean, munduaren laur bazterretan, hilen hezur ihartuak, herrauts bilhakatuak, elgarretarat bilduko dire; lurraren erraiak, itsaso zabaleko lezeak, bizizko haize batez bezala mugituak izanen dire. Aspaldiko urthe eta mendeetan gordetzen zuten bazka, bihurtuko dute eta berritz argitan emanen: Jainkoaren izpirituak bilduko ditu gorphutz hilen ondarrak, eta bizitze berri bat emanen diote; arimak izanen dire lehen zituzten gorphutz bereri juntatuak: Adamen arraza guzia aurkituren da betbetan phiztua, eta juiamenduaren entzuteko bildua.

Inpioek, fede gabekoek erranen dautet: Nola daiteke, hainbertze mila eta mila zathitan, gure gorphutza barraiatua izan den ondoan, berritz gorphutz bera bilhaka dadien? Lurreko harren eta itsasoko arrainen bazka, landareen hazkurri, mila ganbiantza jasanak, nola, leheneko gorphutz bera molda daiteke?

«Zer diozu? dio Tertulianok, Jainkoaren bothereaz nahi zare dudu? Ez deusetarik gure gorphutzak egin dituenak, ez detzazkela, bere gai berarekin berritz molda?»

Hori da mirakuilu bat, nahi dut; bainan kreazioneko mirakuilua baino ttipiagoa. Eta bertzalde, nor da, Jainkoaren bothereari izariak eta mugarriak eman nahi lituzkena?

Nahi duzue ikusi, zuen inguruetan, zuen begien aintzinean, gure gorphutzen phiztearen itxura bat? Nola, heriotzetik ilkitzen den bizia? Kontsidera zatzue arbolak eta landareak; neguan, elhurpean, hilak dute iduri; ferdetzen dire berritz primaderan, ostoz eta lorez estaltzen. Hazi bat emaiten dugu lurraren barnean: han, zenbeit egunen buruan

---

(1) Ossa arida, audite verbum Domini. (Ezech. XXXVII, 4).

usteltzen da. Nork erran lezake, hazi usteldu hartarik ilkiko dela laster, landare xut, ferde eta lerden bat, lorez lehenik, eta laster frutuz kargatuko dena?

Erran dezagun, akabatzean, Job Patriarkarekin: Oi ene Jainkoaren botherea! Badakit, sinhesten dut, phiztuko nauzula! Badakit, sinhesten dut, berritz ere, azken egunean, ene arimak eta gorphutzak bat eginen dutela! Oi ene Jainkoa eta ene Salbatzailea! Ene begi hautaz, berritz ikusiko zaitut! Hori da ene sinhestea, eta hori da ene esperantza!

## HAMABI-GARREN KAPITULUA

### *Juiamendu jenerala*

179 Hilak phiztuko dire egun batez, Jainkoaren bothereaz. Arimak juntatuak izanen dire bere gorphutzeri. Ez da deus zuzenagorik. Arimak eta gorphutzak, ungia edo gaizkia, elgarrekin egin dutenaz geroztik, zuzen da, elgarrekin izan ditezen sariztatuak edo gaztigatuak.

Gizon guziak phiztu diren ondoan, izanen da juiamendu jenerala eta publikoa.

Jesu-Kristo agertuko da bere Jainkozko bothere eta majestatean. Kontzientziak, arimak agerian emanak izanen dire. Gizon guzien begietarat emana izanen da liburua, zointan baitire izkribatuak bakotxaren egite on eta tzarrak. Ez da izanen obra bat, hitz bat, pentsu bat gordea egonen denik.

Zertako bada juiamendu publiko hori, gizon bakotxa jadan, heriotzeko mementoan juiatua izan denaz geroztik, eta haren bethiereko zortea finkatua?

Jainkoaren Probidentziak eta justiziak berdin galdegiten dute juiamendu hori. Zoin ardura ikusten dugun mundu huntan, Jainkoaren Probidentzia blasfematua, eta haren justizia, iduriz bederen itzalia!

Ez othe da zuzen, ager ditezen egun batez, bere argi osoan, eta guzien begietan?

Zoin ardura ikusten den ere justua, aphaldua, meziprezatua, oinen pean emana, eta askotan, gaxtagintzat atxikia, Jesu-Kristo bera izan zen bezala! Zenbat obra on, Jainkoaz eta aingeruz xoilki ikusiak, saririk izan ez dutenak bizi huntan! Zenbat gaxtagin ere aski amarrutsu eta ausartak, bere gaxtakeriak gordez, ohoreak, karguak menturaz, eta bere lagunen estimua ebasten dutenak?

Jesusek bere bizia eraman zuen, ongia egiten zuelarik: *Pertransiit benefaciendo*, eta bi ohoinen erdian hiltzera kondenatua izan zen. Zen-

bat arima on eta justu, bere ongi egin guzientzat, laidoa eta mezpreezioa biltzen dutenak! Zuzen da, egun batez, guzien aintzinean, baktotxa ikusia izan dadien merezi duen bezala; justua ohoratua, gaxtoa aphaldua.

Bainan, bertze arrazoin handi eta eder bat ikusten dut oraino, juiamendu jeneralaren beharra esplikatzen daukuna. Jesu-Kristo, Jainkoaren Semea, Berbo Dibinoa, gizon egin da guretzat, guretzat aphaldu da. Kurutzean, gaxtagin bat bezala, bi ohoinen erdian emana izan da. Ez othe da zuzen, amodioz ez bada, bortxaz, errezibi dezan zor zaion ohorea eta adorazionea?

- 180 Lurrerat ethorriko denean, bi-garren aldi, gizonen juiatzera, behaun guziak orduan, haren aintzinean aphalduko dire, eta agertuko da egiazki dena. Gizon eta Jainko, zeru-lurren adorazione guziak merezi dituen.

Orduan izanen da hautsia, guzien begietan, Pilatusen juiamendu zuzen kontrakoa. Orduan, pasioneko oren ilhunetan ikusi izan zen arpegi desegin hura, agertuko da bere distadura guzian, eta Jainkozko edertasunean. Orduan egiazki, kurutze adoragarria, onen kontsolagarri, gaxtoen kondenazione izanen da; zeruak eta lurak kantatuko dute laudoriozko kantika: *Hosannah* gloriatzkoa, eternitate guzian, handik harat, ixilduko ez dena.

Gehienen ustea da, azken juiamendu hori mundu huntan berean egiten dela. Hola dio iduriz *Credo* edo sinhesten dutek: *Inde venturus est judicare vivos et mortuos*. Handik, erran nahi da, zerutik, ethorriko da bizien eta hilen juiatzera. Eta egiazki, ez du iduri, erreprobatuek eta damnatuek zerurat igan behar dutela, bere juiamenduaren entzutera; bertze buru batetik, ez othe da zuzen, sariek eta gaxtiguek bere has-tapena izan dezaten, non eta ere merezitu izan baitire, erran nahi da, lur hunen gainean? Erran dezagun ere, gure ustearen arabera, zuzen dela, Jesu-Kristo juiatzaile izan dadien, non eta ere bera juiatua izan baita: altxatua izan dadien, non izan baita aphaldua.

Uste izaiteko da beraz, Josafateko arana izanen dela, gizon guzien juiamenduaren lekua. Jerusalem eta Olibetako mendiaren artean da, Kalbarioko eta Jesus zerurat altxatu izan zen mendieri hurbil. Iduri luke egiazki, leku hori osoki hortakoa laitekela, justuak partalier sar ditezen, Jesusen pasionearen frutueta; eta ere, Jainko-Gizon egina, ohoratua eta Jainkotzat guziez ezagutua izan dadien, non eta ere izan baita umiliatua eta aphaldua.

Gure arimen onarentzat, entseia gaitezen ikustera, zer den gertaturen, juiamenduko egun handi hortan. Behar dugu guziek egun hortaz orhoitu, eta orhoitu arthoski.

Han izanen dire, juiamenduan, gizon guziak phiztuak eta elgarren ganat bilduak. Alde batetik, justuak, bere gorphutz distiaduraz eta gloriuz beztituekin; bertzetik, gaxtoak, bekatuak egin diozkaten gorphutz itsusi eta izigarriekin.

181 Huna non, betbetan, ikusten den Jainkoaren Semea, argiz egina eta inguratua den tronu baten gainean jarria, zeru goratik jausten, ezin erranezko gloria eta majestate batez beztitua. Haren aintzinean dathor Kurutze adoragarria, justuen kontsolazionea eta salbamendua, gaxtoen kondenaçione ikharagarria. Aingeru oste handi batek inguratzen dute, gorte egiteko haren Jainkotasunari, eta justuak sar-arazteko zeruan, arima eta gorphutz.

Han dire debruak Jainko-Gizonaren oinetan(1), bortxaz haren Jainkotasunaren ezagutzeko. Bainan ere, orenari beha dagozi, zointan, bere bazka ifernuko lezetarat herrestatuko baitute.

Ez da bilhatze luzen beharrik izanen. Betbetan, egintza eta pentsu guziak, urthez urthe, egunez egun, orenez oren, argitan emanak izanen dire. Gutarik batbederaren bizia izkribatua den liburua, idekia izanen da: *Liber scriptus proferetur, in quo totum continetur, unde mundus iudicetur*. Gauza gordeenak agerian emanak izanen dire: *Quidquid latet apparebit*; zer ahalkea orduan, bere bizitze galdua, hainbertze artharekin, gorde izan duten bekatoreentzat!

Mundu huntan bizi zirelarik, izan dire menturaz, bere itxura enganakorra zelakotz, ohoratuak, ongi ikusiak, eta horra non agertzen diren orai egiazki ziren bezala: hobi, kanpotik xurituak, eta barnean ustelduraz betheak: *Quidquid latet apparebit*.

Eta nihorat ez, ihes biderik. Jainkoaren argia sartuko da arimen zolaraino, guziak agerian emaiten dituela, onen kontsolazionearentzat eta gloriarentzat, tzarren ahalkearentzat. Eta entzunen da gero Jesu-Kristo Juie Soberanoaren boza: *Zatozte, erranen diote justueri, amodiozko arphegi ezti batekin, zatozte, ene Aitaren adixkide maiteak; zatozte, munduaren hastapenetik preparatua zaitzun erresumaz gozatzera*. Bihotz garbi eta zuzenak, huna non ethorria den zuentzat, ene justizia amultsuaren egun handia; segi nazazue, ene heriotzeaz ideki dautzue-

---

(1) Egredietur diabolus ante pedes ejus. (Habacuc, III, 5).

tan zorionezko Parabisurat. Ene gduetan izan zarete; izan zaitzela ene gloria eta trionfan.

182 Bainan ere, zoin ikharagarria izanen den Jesusen arpegia, bere justizia garratzian itzuliko denean erreprobatuen alderat, erraiten diotelarik: Zorigaitz zueri! ikus zazue Bihotz hau, zuen ihes leku izaiteko zilhatua izan zena; ikus zatzue oin eta esku hauk, zuentzat kurutzeari itzatuak! Bilhatu zaituztet, eta zenbat amodioekin, eta ene amodioari ihes ibili zarete. Ene gonbidu eztez, ene odolaz, ene heriotzeaz, zer egin duzue? Salbatu nahi zintuztedan; nahi izan duzue galdu. Zohazte beraz, zuek berek hautatu nahi izan duzuen bethi-ereko zorigaitzerat; zohazte ene begietarik urrun, madarikatuak, bethiko su lame-tarat: *Ite, maledicti, in ignem aeternum.*

Nor ez da ikharatua geldituren pentsamendu lazgarri hortan? Bekatoros trixteak, egin dezagun oihu, denbora deino, gure Salbatzaile amultsuari, Jesusen Bihotz urrikalmendutsuari.

O Jesus ezta! orhoit zaitte, enetzat ethorri zarela zerutik lurrerat; ez nazazula galtzera utz azken egunean:

*Recordare, Jesu Pie,  
Quod sum causa tuae viae,  
Ne me perdas illa die.*

Ez dute merezi ene othoitzek, zutaz entzunak izaitea; bainan ona zare. Izan zaitte ezti enetzat; ez nadiela erre, bethi-ereko suan:

*Preces meae non sunt dignae:  
Sed tu bonus, fac benigne,  
Ne perenni cremer igne.*

Azken egunean, o Jesus! entzun dezadala zure boza, zerurat justuekin deituko nauena:

*Voca me cum benedictis.*

## HAMAHIRUR-GARREN KAPITULUA

### *Bethi-ereko bizitzeaz*

183 Zer bilhakatuko da, juiamendu jenerala ondoan, gure arima berritz hartu duen gorphutzarekin? Joanen da, edo bethikotz zerurat, edo bethikotz ifernurat.

Adiarazi dugu jadanik; arima ez da hiltzen. Haren naturaleza eta izaitza, gorphutzaren naturalezatik osoki bertzerik dire. Gure gorphutza, hın batean, begiez ikusten ditugun bertze gorphutz guziak bezalako da: hala nola baitire animaliak, landareak eta lur hau bera. Horra zertako, galtzen duenean heriotzeaz, arimak emaiten dion bizia, usteldura bilhakatzen den, bertze gorphutz guziak bezala, eta, lurrarekin bat egiten duen.

Arimaren bizia, gorphutzaren bizitik osoki bertzelakoa da. Baditu bothere edo ahal batzuek, gorphutzak ez dituenak; arimak nahi du, pentsatzen du, arrazoinatzen du, eta ungia maite du. Ez da nihor uste izan dezakenik, horiek guziak, gorphutz xoil batean izan ditezke.

Izpiritu huts bat denaz geroz arima, ez daiteke bere naturalezaz, gorphutzaren zorte berari sumetitua izan.

Hortik, fedearekin eta gizon argitu guziekin, sinhesten dugu ez dela arima hiltzen. Uste dugu, eta fermuki sinhesten dugu, lur huntan, gorphutz hilkor hunekin daramakan biziaren ondotik, izanen dela akabantzarik izanen ez duen bertze bizitze bat; eta, haragiaren phiztearen ondoan, gorphutza bera, arimarekin partalier izanen dela bizitze hortan.

Nor da, bethi-ereko bizitze horren asmua, bere baitan aurkitzen ez duena?

Ezin bethezko leze bat bezala da gure arima, mundu huntan. Garraiatzen ditu berekin, nahikunde, gutizia, behar, pentsamendu, mundu hunek sasia eta aphezega ez detzazkenak.

Bertze kreaturak, lur huntan aurkitzen dute, bere behar eta gutizien bazka, eta kontentazeko errextasuna. Gizonak, ez. Zenbatenaz ere zorion baitu, eta hanbatenaz gehiago nahi du. Bere baitan dakarke, kreatzaileak berak eman dion sentimendu hau, zorion osoarentzat egin dela, eta ez du zorion oso hori aurkitzen mundu huntan. Bilhatzen baditu atseginak, laster asetzen dute; aberastasunetan igeri bada ere, ez diote aberastasun horiek bere bihotzeko hutsa bethetzen.

184 Zer erran nahi dute horiek? Baizen, Jainko gure egileak eman duela gu baitan, bethi-ereko zorion oso baten asmua eta gutizia? Beraz, edo enganatu gaitu Jainkoak, edo, zorion hori nonbeit aurki daiteke. Ez dugu mundu huntan aurkitzen; bainan, ez daiteke ere erran, Jainkoak enganatu gaituela. Bada beraz bertze bizitze bat, eta bizitze hartaz gozatzeko eginak gare. Heriotzea ez da gizontzat azken hitza, ez eta ere lurra, azken egoitza.

Bertze froga bat oraino. Garraiatzen dugu guziek gu baitan, ungiaren eta gaizkiaren, bai eta ere, bati eta bertzeari zor zaion justiziaren ezagutza. Ungia eta gaizkia ez direla bat, badakigu. Badakigu ere, eta errexki aithortzen dugu, ungiari saria zor zaiola, eta gaizkiak gaztigua merezi duela. Hori da kontzientziaren oihua, denbora guzietan, eta populu guzietan.

Jendetze guzieri, norik eman ahal izan du sentimendu hori, baizik ere Jainkoak berak?

Bada, zer dugu ikusten? Gauza guziak ordena onean othe dire? Ungia, bertutea, bethi sariztatuak, gaizkia bethi gaztigatua? Zoin urrun garen, bizitze huntan, justizia zuzen hortarik! Zenbat tzar eta gaxto, altxatuak eta ohoratuak; eta zenbat on, aphalduak eta pertsekutatuak! Zenbat bertute gorde eta itzali, sekulan, gizonen ezagutuak, asmatuak izanen ez direnak! Eta hekien aldean, hainitz arima beltz eta hobendun, gizonen begieri arthoski hetsiak daudenak.

Hortik, hainitz gaxtagin ontzat atxikiak; eta hainitz on, kontrarat, gaizki ikusiak, gaxtotzat atxikiak, gizonen maleziaz, edo hekien justizia, enganatua, errebelatua izan delakotz.

Jesus, Saindutasuna bera zena, izan da heriotzerat kondenatua. Nork erranen du hobendun zela, eta gizonen justizia ez dela makur ibili? Erromako Enperadore krudelak, Neron, Kaligula eta bertzeak, Martiren odola ibaika ixurtzen zutenak, justuak othe ziren bada, eta Martirak hobendunak?



Ez da mundu huntan justizia osorik; eta, gure kontzientziak goraki galdegiten du, enganatzen ez den justizia batez, gauza guziak ordenan emanak izan ditezen, bertze bizi batean.

Bada Jainko bat, osoki justua; bada ere beraz, bertze bizi bat.

Hori izan da populu, jendetze guzien sinhestea. Jainko on, bothe-retsuetan, zuzen eta zuhur bat ezagutu duten guziek, uste izan dute, onak eta gaxtoak, bere egintzen arabera juiatuko dituela, bertze bizi batetako.

Sinheste hori aurkitzen da, ezagutzen ditugun populu pagano guzietan: *Non omnis moriar*; ez naiz, naizen guzia hilen, zion Erromako izkribatzaile batek. Hori da guzien oihua.

Egia da, ez dutela Paganoei ungi jakin ahal izan, zer daiteken bertze bizi hori. Aurkitzen dire, hekien sinhesteetan, asko gauza, Erlijioak, eta ere adimendu zuzen eta argitu batek onhetsi behar ez dituenak. Bainan, guzien gatik, eta, hekien pentsu zoro guzien erdian, egia handi hau gelditzen da xutik: Bada bertze bizi bat; ez da gorphutzarekin, gizona osoki hiltzen.

Horren gainean, bertze gauzetan bezala, Jesu-Kristoz izan zaiku emana egia osoa.

185 Zerutik lurrerat ethorri denean, gizon egin denean, zer nahi izan du? Gizona, bethi-ereko heriotzetik libratu, zerua idekitzen diolarik. Haren Jainkozko erakaspen guzia, gero biziaren gainean jarria eta finkatua da.

«Ni naiz, dio Jesu-Kristok, phiztea eta bizia. Ni baitan sinhestea duena, nahiz hila den, biziko da. Ni baitan bizi dena eta sinhestea duena, ez da bethikotz hilen»(1). «Nahi baduzue sartu behi-ereko bizian, jarraik zaizte ene manamendueri»(2). «Ene hitza entzuten duenak badi bizi eternala: joanen da, heriotzetik bizirat. Hilek entzuten dutenean gizonaren Semearen boza, obra onak egin dituztenak, ilkiko dire bere hobietarik, bizirat phizteko. Obra tzarrak egin dituztenak, phiztuko dire bere kondenazionearentzat»(3). «Eta juiamendu jenera-

---

(1) Ego sum resurrectio, et vita; qui credit in me, etiamsi mortuus fuerit, vivet. Et omnis qui vivit et credit in me, non morietur in aeternum. (S. Joan. XI, 25-26).

(2) S. Matth.

(3) Et procedent qui bona fecerunt, in resurrectionem vitae; qui vero mala egerunt, in resurrectionem iudicii. (S. Joan. 29).

lean, erranen diote justueri: zatozte, ene Aitaz benedikatuak zaretenak; sar zaitezte, bethitik preparatua izan zaitzuen erresuman»(1).

Zertako joan urrunago? Gristino Erlijione guzia, bertze munduko bizitze eternalaz mintzo zaiku. Hemen ez da, ez duda, ez ilhunberik. Badela bertze bizitze bat, zorionezkoa edo zorigaitzezkoa; zer behar dugun egin, bati ihes egiteko, bertzearen ardiesteko; guri horren erakusteko, ethorri da Jesu-Kristo lurrerat. Hortako ere establitu izan du bere Eliza Saindua.

Ikusten dugu; gure arimen gutiziek, bethi-ereko bizitze zorionezko bat galdegiten dute. Gure kontzientziaren galdea eta oihua da, bertze bizitze batean, oneri eta tzarrereri bihurtua izan dadien bere egintzen arabera.

Populu guziek, paganoek berek, geroko bizitze horren baitako sinhestea izan dute.

Guziak baino ederrago agertu zaiku oraino, Jesusen beraren erakaspena.

Bai, bada bertze bizitze bat, eta ez du akabantzarik izanen. Hobeki oraino agertuko zaiku azken phondu hori, segidako kapituluetan.

---

(1) Venite, benedicti Petris mei; possidete paratum vobis regnum a constitutione mundi. (S. Matth. XXV, 34).

## HAMALAU-GARREN KAPITULUA

### *Ifernua*

186 Ifernua! Zer trixtezia, zorigaitzezko leku hortaz mintzatu behar izaita? Bainan behar dugu, zenbat nahi dorphe zaikun.

Onen eta gaxtoen bethi-ereko zortea, ez daiteke bera izan. Ez de-  
zake gauza hori onhets, Jainkoaren justizia soberanoak; errexki, gure  
adimenduak berak ikusten du, justuari saria zor zaiola, bainan ere, ho-  
bendunak gaztigua merezi duela.

Hala nola, geroago ikusiko dugun bezala, baita zorionezko leku bat,  
Jainkoaren amodioan hiltzen diren justuentzat, bada ere zorigaitzezko  
leku bat, azken oreneraino, Jainkoaren etsai egon nahi izan dire-  
nentzat.

Leku hura da, ifernua.

Egia horren gainean, ez dauku den gutieneko dudarik uzten fe-  
deak.

Lege Zaharrear, Berrian bezala, ardura erakutsia zaiku. Huna zer  
dion Isaias Profetak: «Damnatuen bihotza ausikiko duen harra ez da  
hilen, eta hek erreko dituen sua ez da itzaliko»(1). Judithen Liburuan  
irakurtzen dugu: «Su bat emanen diote Jainkoak, eta har bat, hekien  
haragia ausikiko duena, eta bethi pairatuko dute»(2).

Bainan bertze zer lekukotasun behar dugu, Egia bera denak, gu-  
zien juie soberanoa izan behar denak, hitz hau erraiten duenean dam-  
natueri: «Urrun zaizte ni ganik, madarikatuak, zohazte bethi-ereko

---

(1) Vermis eorum non moritur, et ignis eorum non extinguetur. (Isai. XXIV, 66).

(2) Dabit enim ignem, et vermis in carnes eorum ut urantur, et sentiant usque in sempiternum. (Judith, XVI, 21).

surat»(1). Eta bertze hitz hau oraino: «Joanen dire gaxtoak bethi-ereko sofrikariotarat»(2).

Ez da bertzela mintzo Jaun Doni Paulo: «Damnatuek jasunen dute bethi-ereko heriotzearen gaztigua»(3).

Bethi-ereko ifernua! horra gauza bat, gaxtoek jasan ez dezaketena. Aiphatzen entzutea bera, garratz eta gogor zaiote. Bainan zer da zuzenagorik eta justuagorik?

Zer? bizi huntan direino, meziprezatzen, eta oinen pean emaiten dute, Jainkoaren gu ganako onesgua eta amodioa. Badohaz bere bide tzarretan, Jainkoaren legea ostikaturik, haren gonbidu eztieri gor egonez. Eta horiek hola direlarik, ez duela Jainkoaren justiziak bere bide zuzena izanen?

Jainkoa ona da, diote; ez du nahiko, berak egin duen kreaturaren zorigaitza. Bai; dudarik gabe, Jainkoa ona dela. Bainan ona delakotz, ez othe da ere justua? Jainko ona eta urrikalmendutsua meziprezatua izan bada, azken oreneraino, ez othe du Jainko justuak agertu beharko? Nola onhar dezake, haren handitasun osoa eta Jainkozkoa, izan dadien ez deusentzat atxikia?

187      Ona dela Jainkoa diozu? Bai ona da. Eta ona delakotz, zer da egin ez duenik, gu, bide zuzenean atxikitzea gatik? Zenbat abisu, bai eztiak, bai garratzak, gure arimen irabazteko? Zenbat moldetarat erran daukun: «Egizu ungia, izan zaitte giristino on, eta ezin erranezko zorion batez sariztatua izanen zare; bainan, gaizkia egiten baduzu, ene justizia bortxatzen duzu, zure gaztigatzera. Jainkoaren hitz on eta mehatxuzkoak alfer izan badire, noren falta izanen da? Nori beharko zaio jazarri? Jainkoari, edo gure itsumenduari?

Gaztigurik ez balitz bertze munduan gaxtoentzat, bestia errabiatuak baino ariagoak gintezke. Pasiene tzarrek ez lukete gehiago zedarririk; laster ikus ginezake lurra, lohikeriaz, ohoinguez, gizon hiltzez estalia. Ez liteke justizia zuzenik. Gauza makur guzietan, hazkarrena nausi; hanbat gaxto flakoarentzat.

Jainko justu eta zuzen batek egin duen munduan, hori izan othe daiteke justiziaren azken hitza?

Nork onhats dezake, bere bizi guzia, Jainkoaren zerbitzuan, eta bere laguneri ungi egiten eraman dutenak, hala nola, San Bixintxo

---

(1) *Discedite a me, maledicti, in ignem aeternum.* (Matth. XXV, 41).

(2) *Ibunt hi in supplicium aeternum.* (Matth. XXV, 46).

(3) *Paenas dabunt in interitu aeternas.* (II. Thessal. I, 9).

Pauloko bat, Jainkoaz ikusiak izan ditezabela, bertze bizian, ibaika bere lagunen odola ixuri dutenak bezala?

Orduan behar ginduke erran egiazki, ez dela, ez ungi, ez gaizkirik; ez justiziarik, ez Jainkorik.

Bainan bai; bada Jainkozko justizia bat. Onentzat saria den bezala zeruan, gaxtoentzat ere bada gaztigua, eta gaztiguaren leku bat: ifernua.

Hain da gauza hori zuzena, non, paganoek berek onhetsi izan baitute. Guzien sinhestea izan da, leku bat badela, zointan, bizi huntarik lekora, onak izanen baitire sariztatuak, eta bertze leku bat, zointan gaxtoak izanen baitire gaztiguak.

Katoliko guzien sinhestearen arabera, gaztiguko leku hura, ifernua da.

188 Zer da ifernua? Zer dire ifernuko penak eta gaztiguak?

Lehena eta handiena, nahiz ez den orai gure izpirituetan ungi sarzen ahal, da Jainkoaz gabetuak izaita.

Gure arimak, gose eta egarri du zorionaz. Gutizia hori ez daiteke Jainkoaz beizik sosegatua izan ahal; zeren, Jainkoaz beraz gozatzeko, eginak baikare.

Mundu huntan gareino, lur behere huntako gauzek abusatzen eta lilluratzen gaituzte; hainitzetan ere, emaiten daukute, aphur bat bederen, zorionaren itxura enganakorra. Bainan heldu da oren bat; lur huntako gauzetan zoriona bilhatu duen arima, gorphutzetik berexi da; eta orduan, mundu huntako on guziak galdurik, haren baitan egiten da leze bat, Jainkoak xoilki bethe dezakena.

Bainan, ez da han Jainkoa, leze horren bethetzeko. Bekatoros damnatuaren arima, bethikotz Jainkoa ganik urrundua da, eta hartaz madarikatua. Hegaldata nahi luke, bere bake eta sosegua, hura baitan aurkitzeko. Bainan, bethi entzunen du hitz garratz hau: Hoa, ni ganik urrun, madarikatua! Eta hortan da harentzat ezin erranezko sofrikario bat.

Ai! orai badaki ungi, zoin den Jainkoa ederra, handia, maitagarria; badaki, zer zorion aurki zezaken hura baitan; eta, deus ez dezake gehiago. Badaki orai, galdu duela Jainkoa, Jainko guziz ona eta zorion soberanoa, eta hori, bere faltaz.

Desesperatzen du pentsamendu horrek. Zeruko erresuma bethikotz galdua izaita, hori da, dio S. Krisostomok, sofrikario bat, su guziak baino mila aldiz dorpheagoa. Jakiteko ungi, zer zorigaitz den zeruaren galtzean, behar laiteke jakin, zer zorionetan diren zeruaz gozaten direnak.

S. Piarres Krisologok, mintzo delarik Ebanjelioko aberats tzarraz, erraiten du: «Aberats tzarra, ifernuan gehiago tormentatua da, galdu duen zeruko zorionaren pentsamenduaz, ezen ez, jasaiten dituen sofrikarioez. Ifernuak baino gehiago oraino, zeruak erretzen du. Haren tormentetarik handiena da, zeruan ikustea, lurrean meziprezatu dituen pobreak».

Zorigaitzean, mundu huntan gareino, ez dugu konprenitzen eta pisatzen ahal, zoin den handia, bethikotz, eternitate guzikotz, Jainkoaz gabetua izaiteko sofrikario hori. Ez baitakigu, zoin den ona, ederra, maitagarria Jainkoa, eta zer zorion zaukan bere baitan, bere justu eta adixkideentzat. Bainan, ifernurat kondenatu bekatoreak, Jainkoa ikusi izan du juiamenduan, bere edertasun eta maitagarritasun osoan; bere faltaz, Jainko hura, bethikotz galdua izaitheak, eginen du, haren sofrikario handiena eta saminena.

189 Huna, ifernuko sofrikario bat, errexxiago konprenituko duguna: suaren sofrikarioa. Han da su bat bethi erretzen, eta bethi bizi uzten duena. Ez da su hura, mundu huntako suak bezalakoa, bainan su bat, Jainkoak bere justizian eta koleran phiztu eta buhatzen duena; gorphutzean eta ariman sartzen dena, gatza haragian, ustelduratik begiratze-ko sartzen den bezala. Jesu-Kristoren beraren hitza da(1).

Badakit zer erraiten duten, bethi-ereko su hortan sinhetsi nahi ez dutenek. Nola daiteke su bat, bethi erretzen duena, bere bazka suntsitu gabe? Ihardetsiko diotet: Zer bada? Arima eta gorphutza ez deusetarik egin dituen Jainko botheretsuak, ez othe diozakete, Jainkozko bothere beraz, suaren sofrikarioa jasan-araz, bizia kendu gabe? Bizia emaiten eta kentzen duenak, bere nahi xoilaz, ez othe dezake bizia begira, kreatura batean, berak nahi duen bezala? Biziaren eta heriotzearen legeak, nork egin ditu baizen Jainkoak?

Ez dezagun, mugarririk eman nahi izan, Jainkoaren bothereari. Auzartzia handia eta inpioa laiteke. Erranen othe dautet ere, Jesu-Kristok enganatu gaituela, hitz hau erran duenean: Zohazte bethi-ereko surat: *Ite in ignem aeternum*.

Eta, bere ustez argituxago direnek erraiten badautet, arimak ez dezakela suaren pena jasan, izpiritu delakotz, erranan diotet: Urruntxago hedatu bazindute zuen jakitatea, ikasiko zinduten, azken buruan, arimak dituela pena guziak jasaiten; arima baita biziaren prinzipioa. Arimatik berexia den gorphutz batek, ez dezake deus jasan; jasaiten du,

---

(1) Omnis enim igne salietur. (Marc. IX, 48).

sofritzen du, arimarekin juntatua delakotz. Gorphutzaren medioz arimak sofritzen duena, zertako ez dio, Jainko osoki botheretsuak sofri-araziko, gorphutza arteko izan gabe? Horra nola, juiamendu jenerala aintzinean ere, ifernuan diren arima xoilek, suaren pena jasaiten duten.

Badire beraz ifernuan, bi pena damnatuentzat. Bat, Jainkoaz gabetua izaitea, eta bertzea, suan erretzea. Eta, egia dorphea eta garratza, bainan egia, zoinaren pentsamenduak lazten baikaitu: Pena horiek bethi-erekoak izanen dire; ez dute sekulan akabantzarik izanen.

Origenistek, bere buruzagi Origeneri jarraikiz, erran izan dute, noiz edo noiz, ifernuko penak akabatuko direla. Hori da eresia, edo, fedearen kontrako erakaspén bat, bortz-garren konzilio jeneralean Elizak kondenatu izan duena. Liburu Sainduak, Elizako Aitek, eta, mende guzietako Elizaren erakaspénak ez daukute dudarik uzten ahal, gauza horren gainean. Bertze deus gabe, aski litzaikuke Jesu-Kristoren hitz hau: Zohazte BETHI-EREKO surat: *Ite in ignem aeternum*.

190 Osoki ez bada, guti bat bederen, adimenduak berak ikustera emaiten dauku, bethi-erekoak izanen direla ifernuko penak. Zer estatutan sartzen baita gure arima bertze bizian, bethikotz finkatua da estatu hartan. Zer baita gizona hiltzean, halakoa izanan da ere, hil ondoan. Bekatuan, eta Jainkoaren herran balinbada, bekatuarentzateko esteka, bethi, hura baitan dago; bethi beraz, Jainkoaren justiziaren eta kolera zuzenaren pean izanen da.

Ez daitekenaz beraz bekatorea konberti, ez duenaz geroztik gehiago graziarik izaiten ahal, ez dezake eskain, Jainkoaren justiziar dohakon satifazionerik. Bethi beraz, bekatore dago, bethi hobendun, bethi zordun Jainkoaren justiziaren alderat. Haren urrikia bera, ez daiteke Jainkoaren amodioaz sustatua den urriki bat izan; bainan, desesperazio-nezko eta errabiazko sentimendu bat.

Bai; nahi dut Jainkoa ona dela, eta haren ontasunak ez duela mugarririk. Bainan, ez dauzkigu, abisuak, gonbidu eztiak, mehatxuak, ez eta laguntza nasaienak guphidetsi. Eta haren amodioaz, haren nahikunde onaz, burlatu bada gizona, azken oreneraino, nori behar da jazarri, baizen bere buruari, bere itsumenduari eta bihotzeko gogortasunari. Amodioa eta urrikalmendua mezprezatu dituen ondoan, uste othe du, bere justizia soberanoa Jainkoak ixil-araziko duela? Bada, justizia horrek galdegiten du, bekatua, irauen dueño, izan dadien gatzigatua.

Zoin zuzenki dion S. Gregorio handiak: «Nahiko zuten gaxtoek, bethi bizi lurraren gainean, aintzinat bethi bekatu egiteko. Nola ez

baita izan mugarririk, bekatuentzat eta gutizia tzarrentzat zuten nahian, galdegiten du Jainkoaren justiziak, ez dadien ere akabantzarik izan hekien gaztigan»(1).

Oi! pentsamendu ikharagarria eta lazgarria! Bethi eta bethi, Jainko guziz on, eder, eta amultsuaren ganik urrunduak! Bethi, sekulan ttipitzen ez diren su lametan pulunpatuak! Hori dakigularik, nola egiten ahal dugu bekatu, eta nola, bekatuan egoiten ahal gare?

Ai! entzun dezagun eta ardura gogoan erabil Izpiritu Sainduaren abisu hau: Orhoit zaitte heriotzeaz, juiamenduaz, ifernuaz, zeruaz, eta ez duzu bekatu eginen: *Memorare novissima tua et in aeternum non peccabis.*

---

(1) D. Greg. M. Lib. XXXIV. Moral. cap. XIX.



## HAMABORTZ-GARREN KAPITULUA

### *Zerua*

191 Ifernuaz mintzatu ondoan, ordu da, pentsamendu gozoagoez deskantsa detzagun gure arimak. Ilki gaitezen suzko leze ikharagarri horietarik, zointan ez baitire entzuten, hortz karraska, madarizione eta errabiazko oihurik baizen. Ager dadiela gure begietarat, zeruko argi ezti eta kontsolagarria.

Zeruaz mintzatzen hastearekin, behar dugu berehala, gure ahal eskasa aithortu. Jaun Doni Paulo altxatua izan zen, Jainkoaren nahiaz, hirur-garren zeruraino. Ikusi zuen zeruko zorionaren itzal bat bezala, eta etzakien zer erran hartaz. «Begiak ez du ikusi, zion, beharriak ez du entzun, gizonaren bihotzak ez du sentitu, zer daukan Jainkoak preparatua, hura maite dutenentzat».(1)

Eta hargatik, arima khartsuen kontsolazionearentzat; ephelen sustatzeko; bekatuaz hilak direnetan, zeruaren gutizia phizteko, behar gare entseiatu, zeruko zorionaren asmu bat bederen emaitera.

Zer da bada zeru hura, zoinaren itzala bera ez baitugu aurkitzen ahal, mundu huntako gauza eztienetan eta ederrenetan, Jaun Doni Paulok dionez?

Zerua da leku bat, bizitze bat, zointan, denbora berean, ungi guziez gozatuko baikare(2). Hobeki oraino hitz batez erraiteko, zerua da, Jainkoa den bezala ikusia, bere perfezione guziekin, eta maitatua amodio suharrenaz eta sainduenaz; gehiago oraino, Jainkoa den guzia gu baitan da zeruan(3). «Jainkoa da, dio Bossuetek, justuen argia, hekien jauntzi gloriosa; Jainkoa da, arimak bozaten dituen bozkarioa;

---

(1) Oculus non vidit, nec auris audivit, nec in cor hominis ascendit, quae praeparavit Deus iis qui diligunt illum. (I. Cor. II, 9).

(2) Status omnium bonorum aggregatione perfectus. (Boece).

(3) Ut sit Deus omnia in omnibus.

Jainkoa, hekien bizia; hekien eternitatea, bethi-ereko zoriona deskan-tsu osoan finkatzen duena».

Hori bera da Abrahamere bere zerbitzariari Jainkoak erran zioena: Ni izanen naiz zure sari handia (1).

Lur huntan gareino, mirail batean edo bere itzalean bezala ikusten dugu Jainkoa; zeruan ikusiko dugu, bekoz-beko, den bezala, eta ezagutuko dugu, hartaz ezagutuak garen bezala (2).

192 Mundu huntan diren Jainkoaren obrak ikusirik, gizon egiazki argituak, espantituak izan dire. Huna zer zion Linne jakintsunak: «Jainkoaren urhatsen seinale zenbeit aurkitu ditut, kreazioneko obretan; den ttipienetan ere, iduriz ez deusak, zer botherea! Zer zuhurtzia!» Zer izanen da beraz, zer lilluramendua, zer, arima justuaren zoriona, Jainkoa ikusiko duenean, ez, munduan utzi dituen bere edertasunaren arrastuetan, bainan, bekoz-beko, den bezala, itzalik eta ilhunberik gabe (3)! Jainko Biziazen arpegia ikustea, dio S. Agustinek, hori da zorion soberanoa; hori da Saindu guzien eta Aingeru guzien bozkarioa; bizitze eternaleko saria, gure gloria, akabantzarik gabeko gozoa; hitz batez, hori da Jainkoaren Parabisua.

Jainkoa, den bezala ikusiz eta ezagutuz, maitatuko dugu, ezin erranezko amodio batez; ezen, nork ikus dezake on eta edertasun soberanoa, bere ahal guziez maitatu gabe? Gure bihotzak duen maitatzeko gutizia eta beharra, osoki sasiatua izanen da orduan. Deusek ez detzazke bethe mundu huntan, gure arimaren gutiziak. Jainkoaren edertasun eta ontasun soberanoarentzat egina den bihotza, ez daiteke kreatura flako eta erbailez sasiatua izan. Jainkoa da xoilki, gai dena, gure bihotzeko lezearen bethetzeko.

Gure zoriona osoa izanen da beraz zeruan. Gure izpirituak ikusiko du egia itzalik ez duena, eta gure bihotzak maitatuko edertasun goibelik gabekoa! Bethi eta bethi, Jainkoa ikustea eta ezagutzea den bezala, maitatzea, zorion hori galtzeko beldurrik gabe, horra zerua!

Arraina itsasoan, hegastina airean, arranoa iguzkiaren argian bezala, hala izanen gare Jainkoa baitan pulunpatuak. Jainkoa gu baitan, eta gu, hura baitan. Haren Bihotzeko aberastasunak gure bihotzetarat ixuriak: zer daiteke gehiago? Jaun Doni Paulo, hortaz orhoitzean, bozkarioz gauditua zen; S. Franses Xavier, zorion hortarik zerbeit sentitzearekin, oihuz zegoen Jainkoari: Aski, Jauna, aski!

(1) Ego... Merces tua magna nimis. (Gentes. XV, 1).

(2) Videbimus eum sicuti est. (I Joan. III, 2).

(3) Tunc autem cognoscam, sicut et cognitus sum. (I Cor. XIII, 12).

193 Gorphutza bera partalier izanen da, zorion garbi eta saindu hortan. Gizona arima eta gorphutz da; arima eta gorphutz izanen da zerruan, azken juiamendutik lekora. Ez da izanen gorphutz glorifikatua-  
rentzat, ez minik, ez pairatzerik, ez haragiaren flakezetarik deus. Orain dugun gorphutz hau bera izanen da, bainan glorifikatua, izpiritu bat bezala bilhakatua; beztitua izanen da hura ere, bere moldean, Jainkoa ganik arima ganat jautsi den argiaz.

Eta, zorion ezin erranezko horri bere gaintia emanen diona, hau izanen da: bethi-erekoa izanen baita, eta ez baitu izanen sekulan akabantzarik. «Eternitate guzian biziko dire justuak»(1). «Nik emaiten diotet bethi-ereko bizia, dugu irakurtzen Jaun Doni Joanesen Ebanjelioan»(2); eta oraino bertze hitz hau: «Joanen dire gaxtoak bethi-ereko penetarat, eta justuak bizitze eternalerat»(3).

Orhoit, oi! orhoit gaitezen, zerua dela gure egiazko egoitza, eta, zer nahi gostarik ere, harat behar garela heldu.

194 Gure pentsu, gutizia, esperantza guziak dohazila zerurat. Ez gaitzala deusek ere errebelatzen zeruko bidetik. Jarraik gaitezen Jesu-Kristori; gure Salbatzailea eta gure gidaria da. Sinhets detzagun fermuki, eta gure fedea deusez kordokatzen utzi gabe, Jesu-Kristoren erakaspen guziak. Sinhestea ez da aski; eman detzagun obretan.

Horrela egiten badugu, Jainkoa bera izanen da gure saria zeruan; Jainkoa ikustea, ezagutzea, maitatzea; bethi eta bethi, menderen mende, akabantzarik gabe, Jainkoa gozatzea, zer zoriona!

Izan dadiela gutarik bakotxarena! Halabiz!

---

(1) *Justi autem in perpetuum vivent.* (Sap. V, 16).

(2) *Ego vitam aeternam do eis.* (Joan. X, 28).

(3) *Et ibunt hi in supplicium aeternum, justi autem in vitam aeternam.* (Matth. XXV, 46).



## VOCABULARIO

Debemos advertir al lector que el presente Vocabulario se ha confeccionado a base de una recogida bastante minuciosa —aunque seguramente no exhaustiva—. Los números indican, no la página, sino los números marginales en que está dividido el texto en nuestra edición. Quieren, pues, decir que en tal sección o trozo se encuentra la palabra; pero, claro está, puede hallarse también en otros lugares no citados (o en la misma sección puede aparecer repetidas veces). Los significados que se dan han sido también escogidos en relación con los pasajes que se citan.

Con el fin de que el presente Vocabulario ofrezca al lector una imagen, lo más fiel posible, del léxico real empleado por el autor, no nos hemos limitado a consignar las palabras más o menos insólitas o poco conocidas que pueden aparecer en el libro. No se ha cerrado, pues, la puerta a ninguna clase de palabras.

Cuando se trata de una voz que aparece con mucha frecuencia lo indicamos con el término «passim».

## VOCABULAIRE

Nous devons avertir le lecteur que le présent Vocabulaire a été confectionné sur la base d'un recueil assez minutieux, mais pas complet. Les numéros dénotent, non pas la page, mais les numéros marginaux selon lesquels est divisé le texte de notre édition. Ils veulent, donc, dire que à la telle section ou morceau se trouve le mot; mais —cela va sans dire— le mot peut se trouver aussi dans d'autres endroits (ou dans la même section peut apparaître une, deux ou plusieurs fois). Les significations proposées ont été choisies en rapport avec les lieux cités.

Afin que le présent Vocabulaire puisse offrir au lecteur une image aussi fidèle que possible du lexique réel employé par l'auteur, nous ne sommes pas limités à consigner les mots plus ou moins rares ou peu connus. On n'a pas fermé la porte à aucun mot, quelque soit son origine, etc.

Lorsque la voix apparaît très souvent nous employons le mot «passim».

## ABREVIATURAS

Aurk.	= Aurkibidea, es decir, Índice (se refiere al Índice del libro).
baim.	= Baimena (se refiere a la Aprobación que precede al libro).
Adj.	= Adjetivo.
Adv.	= Adverbio.
Aux.	= Auxiliar.
Cf.	= Confer, o sea, Véase.
tit. de cap.	= título de capítulo (quiere decir que la palabra se halla en los títulos de capítulo).
Subst.	= Substantivo.
Plur.	= Plural.
Trans.	= Transitivo.
Intrans.	= Intransitivo.
Verb.	= Verbo.

## ABREVIATIONS

Aurk.	= Aurkibidea, c'est-à-dire, Índice (s'en rapporte à l'Indice du livre).
baim.	= Baimena (s'en rapporte à l'approbation qui précède le livre).
Adj.	= Adjectif.
Adv.	= Adverbe.
Aux.	= Auxiliaire.
Cf.	= Confer, c'est-à-dire, vois.
tit. de cap.	= titre de chapitre (ça veut dire que le mot se trouve dans le titre du chapitre).
Subst.	= Substantif.
Plur.	= Pluriel.
Trans.	= Transitif.
Intrans.	= Intransitif.
Verb.	= Verbe.

- ABANTAIL ventaja, *avantage*, 136, 149.
- ABANTAILOS provechoso, *avantageux*, 105.
- ABANDU avaricia, *avarice*, 107.
- ABENDU Diciembre, *Décembre*, 10.  
ABENDO, baim.
- ABERASTASUN riqueza, *richesse*, 4.
- ABERATS rico, *riche*, 11, 188.
- ABISATU avisar, *aviser*, 130.
- ABISU aviso, *avis*, 116, 187, 190.
- ABUSATU (con auxiliar transitivo, *avec auxiliaire transitif*) seducir (?), *séduire* (?), 188.
- ADAR rama, *branche*, 113.
- ADIARAZI hacer entender, *faire comprendre*, 148, 183.
- ADIMENDU entendimiento, *intelligence*, 4, 8, 22, (passim).
- ADITZERA EMAN dar a entender, *donner à entendre*, 8.
- ADIXKIDANTZA amistad, *amitié*, 174.
- ADIXKIDE compañero, *compagnon*, 6.
- ADIXKIDETASUN amistad, *amitié*, 26.
- ADORAGARRI adorable, *adorable* 144.
- ADORATU adorar, *adorer*, 8, 143.
- ADORATZAILE adorador, *adornateur*, 5.
- ADORAZIONE adoración, *adoration*. ADORAZIONEZKO, ESKER ONEZKO ETA AMODIOZKO EGINBIDEAK deberes de adoración, de acción de gracias y de amor, *devoirs d'adoration, de remerciement et d'amour*, 13.
- AFARI cena, *souper*, 134.
- AGERI manifiesto, visible, público, *manifeste, visible, public*, 20. AGERIZKO EGINTZA BATZUEK unos hechos visibles, *des faits visibles*, 21. AGERIAK pruebas, señales, manifestaciones, *preuves, signes, manifestations*, 143.
- AGERTU aparecer, *apparaître*, 15, 191.
- AGINDU prometer, *promettre*, 65, 66, 122.
- AGINTZA promesa, *promesse*, 66, 67, 115.
- AGO-GOZO saliva, *salive*, 96.
- AGORTU secar, *sécher*, 26.
- AGUR, saludo, *salut*, 72.
- AII! ah!, *ah!*, 4.
- AHAIDETASUN parentesco, *consanguinité*, 82.
- AHAL poder *puissance*, 22. AHAL BEZINBATEAN en cuanto se pueda, *à mesure qu'on pourra*, 3. BERE AHALEAN en la medida de su posibilidad, *selon sa possibilité*, 69. AHALKO, 141.
- AHALGE, AHALKE vergüenza, *honte*, 5, 117.
- AHALGEGARRI vergonzoso, *honteux*, 149.
- AHALKATU avergonzarse, *avoir honte*, 61, 117, 173.
- AHANTZI olvidar, *oublier*, 10, 24.  
AHANTZERA UTZI dejar olvidar, *laisser oublier*, 66.
- AHO boca, *bouche*, 39, 45, 59, 153.
- AHUSPEZ prosternado, *prosterné*, 89.
- AI! ¡ay!, *hélas!*, 35.
- AIDURU en espera, *en attente*, 143.
- AINGERU ángel, *ange*, 60, 192.
- AINTZINAT adelante, *en avant*, 24.
- AINTZINDARI jefe, dirigente, *chef, guide*, 149.
- AINTZINEAN (pospuesto a participio verbal, *placé après participe verbal*) antes de, *avant de*: ETHORRI AINTZI-

- NEAN antes de venir, *avant de venir*, 69; IKUSI AINTZINEAN antes de ver, *avant de voir*, 66.— Con la significación de anteriormente, *en signifiant antérieurement*, 20.
- AINTZINDARIKOA jefatura, *direction supérieure*, 133.
- AINTZINEKO caudillo, jefe *guide, chef*, 21.— Con la significación de anterior, primero, *en signifiant «antérieur»*, «*premier*», 8, 15.
- AIPHATU mencionar, mentar, *mentionner, faire mention*, 31, 128, 186.
- AIPHU renombre, *renommée*, 89.
- AIRE aire; medio ambiente, *air; milieu*, 10, 23, 30, 33, 37, 133. AIREKO HITZ BAT «*flatus vocis*», 33.
- AITA padre, *père*. ELIZAKO AITEK los Padres de la Iglesia, *les Pères de l'Eglise*, 144, 189.
- AITA-AMAK los padres, *les parents*, 12.
- AITHOR confesión, *confession*, 175.
- AITHORTU confesar, *confesser*, 191.
- AITU entendido, *intelligent, habile*, 17.
- AITZAKIA pretexto, *prétexte*, 105.
- AIZPA hermana, *soeur*, 98.
- AKABANTZA fin, término, *fin, terme*, 6, 12, 27, 146, 190, 194.
- AKABATU concluir, terminar, *conclure, achever*, 127, 144.
- AKABO GUZIAK locución que significa: todo ha concluido, *locution signifiant: tout est fini*, 6, 7, 27, 153, 154.
- AKITU fatigado, extenuado, *fatigué, extenué*, 10.
- ALA o, *ou*, 96.
- ALABA hija, *fille*, 59, 117.
- ALBA alba, *aube*, 122.
- ALDARE altar, *autel*, 1.
- ALDE lado, *côté*, 26. ALDE BAT ETA BETHIKOTZ enteramente y para siempre, *entièrement et pour toujours*, 23.
- ALDEAN en comparación *en comparant*, 90. HEKIEN ALDEAN en comparación con ellos, *en comparant avec eux*, 24.
- ALDERA, ALDERAT hacia, para con, *vers, envers*, 13. GOIZ ALDERA hacia la mañana, *vers le matin*, 10.
- ALDETIK. BERE ALDETIK por su lado, *de son côté*, 26.
- ALDI vez, tiempo, ocasión, *fois, tour, occasion*. BERTZE ALDI BATEAN en otra ocasión, *une autre fois*, 20. LEHEN ALDIKOTZ por vez primera, *la première fois*, 144.
- ALDIZ en cambio, por otra parte, *par contre, de l'autre côté*, 15, 20.— MILA ALDIZ mil veces, *mille fois*, 8, 188.
- ALEGERA alegre, *gai*, 10.
- ALEGERAKI alegremente, *gaiement*, 4.
- ALEGIA parábola, *parabole*, 101.
- ALFER inútil, baldío, *inutile, vague*, 162, 187.
- ALFERRETAN en vano, en balde, *en vain*, 10, 65, 68.
- ALTXAGARRI consolador, reconfortante, *consolant, réconfortant*, 13, 66.
- ALTXARAZI hacer levantar, *faire lever*, 65.
- ALTXATU levantar; educar, criar, *élever*, 6, 10, 11, 20, 191.
- AMA madre, *mère*, 15. AMATASUN, 125.
- AMARRU trapacería, *adresse*, 49.
- AMARRUTSU trapacero, *trompeur*, 138.
- AMERIKETAN en las Américas, *en Amérique*, 161.
- AMETS ensueño, *rêve*, 4, 23.
- AMODIO amor, *amour*, 1, 13, 17, 26, 186.
- AMORE EMAN ceder, *céder*, 135.
- AMOREAGATIK (con el verbo terminado en -n, *avec le verbe achevé en -n*) a fin de que, *afin que*, 98.
- AMULTSU amante, afectuoso, amoroso, *amant, affectueux, amoureux*, 1, 26.— AMULTSUTASUN, 100.
- ANAIA (con a orgánica, *avec a organique*), hermano, *frère*, 149.
- ANIMALIA (con a orgánica, *avec a organique*) animal, *animal*, 8, 30, 183.
- ANTOLATU acomodar, adaptar, *accommoder, arranger*, 4, 64.



- ANTSIA (con a orgánica, *avec a organique*) solicitud, cuidado, *sollicitude, souci*, 5, 10.
- APARTATU apartarse, *s'éloigner*, 29.
- APHAINDU adornar, *orner*, 75.
- APHAIRU comida, *repas*, 30, 106.
- APHAL (adj.) bajo, *bas* (sentido moral, *sens moral*), 68, 148.
- APHALDU abajarse, someterse, *s'abaisser, se soumettre*, 4, 8, 26, 180.
- APHAZEGATU, APHEZEGATU apaciguar, *apaiser*, 23, 183.
- APHEZ sacerdote, cura, *prêtre*, 2, 12, 58.
- APHEZPIKU Obispo, *Evêque*, 147, 156, 166.
- APHUR BAT un poco, *un peu*, 188.
- APOSTOLU apóstol, *apôtre*, 148, 149, (passim).
- ARABE árabe, *arabe*, 31.
- ARABERA (tras nombre en caso posesivo, *après un nom au cas possessif*) de conformidad con, según, *conformément, selon*, 20, 25, 27, 147. NOLAKOA...ARABERAKOA tal como...así, *de la manière que...ainsi*, 13.
- ARAN valle, *vallée*, 62, 180.
- ARANTZA espino, *prunier sauvage*, 61.
- ARARTEKO mediador, *médiateur*, 109, 127. ARARTEKOTASUN, 134.
- ARAZI (se emplea para formar verbos factitivos, *on l'emploie pour former des verbes factitifs*): EZAGUN ARAZI hacer conocer, *faire connaître*, 145.
- ARBOLA árbol, *arbre*, 65, 123, 178.
- ARBUIATU rechazar *repousser*, 10, 153.
- ARDIETSI alcanzar, conseguir, *atteindre, obtenir*, 7, 22, 23, 148.
- ARE GUTIAGO menos aún, *moins encore*, 8, 68, 140.
- ARGI luz, *lumière*, 22, 33, 191.
- ARGITU iluminar, *illuminer*, 12, 192.
- ARIAGO más tal, *plus tel*. BESTIA ERABIATUAK BAINO ARIAGOAK más fieras que las fieras rabiosas, *plus féroces que les bêtes féroces*, 187.
- ARIA relación, *rapport*, 171.
- ARIMA alma, *âme*, 6, 10, 183, (passim).
- ARKA arca, *arche (de Noé)*, 75.
- ARMADA ejército, *armée*, 93.
- ARNEGATU renegado, *renégat*, 15, 115.
- ARNEGU blasfemia, *blasphème*, 115.
- ARNO vino, *vin*, 96, 106.
- ARPHEGI cara, *visage*, 129, 180, 192.
- ARRAILDU hendirse, *se fendre*, 118.
- ARRAIN pez, *poisson*, 23, 137, 192.
- ARRAIO rayo, *rayon*, 24.
- ARRANO águila, *aigle*, 192.
- ARRANTZAILE pescador, *pêcheur*, 142, 149.
- ARRAS enteramente, *entièrement*, 141, 30, 67, 109.
- ARRASTO rastro, huella, *empreinte, trace*, 31.
- ARRATS noche, tarde, *nuit, soir*, 10, 30, 106.
- ARRAZA raza, progenie, *race, lignage*, 65, 66, 69, 178.
- ARRAZOI razón, *raison*, 17.
- ARRAZOIN razón, argumento, *raison, raisonnement*, 2, 8.
- ARRAZOINAMENDU razonamiento, *raisonnement*, 136.
- ARRAZOINATU razonar, *raisonner*, 183.
- ARREBA hermana (de hombre, mientras que AIZPA lo es de mujer), *soeur (d'homme, tandis que AIZPA est de femme)*, 98.
- ARREN aunque, *quoique*. HAINITZ DEZAKEN ARREN aunque puede mucho, *bien qu'il puisse beaucoup*, 17.
- ARRIMU disposición, arreglo, compostura, *disposition, arrangement*, 24, 47, 106.
- ARROILTZE huevo, *oeuf*, 30.
- ARROSARIO Rosario, *Rosaire*, 1.
- ARTA, ARTHA cuidado, diligencia, *soin, diligence*, 1, 10, 25, 130, 164, 172.
- ARTALDE rebaño, *troupeau*, 83, 156.
- ARTEAN entre, *entre*, 16, 26.
- ARTERAINO hasta, *jusqu'à*. HARAT HEL ARTERAINO hasta llegar allí, *jusqu'à arriver là*, 24.
- ARTIKULU artículo, *article*, 63.
- ARTINO hasta, *jusqu'à*. ETHORRI ARTI-

- NO hasta que haya venido, *jusqu'à ce qu'il soit venu*, 69.
- ARTOSKI, ARTHOSKI con cuidado, diligentemente, *avec soin*, 21, 67, 69, 184.
- ARTZAIN pastor, *berger*, 147.
- ASALDATU alborotar, *troubler*, 107, 150.
- ASE satisfacción, hartura, *satisfaction*, *rassasiement*, 23.
- ASETU satisfacer, *satisfaire*, 155, 183.
- ASKI bastante, *assez*, 12, 22, 24, 31, 68, 189, 192.
- ASKO mucho, *beaucoup* (precede al sustantivo, *avant le substantif*), 16, 17, 25, 31, 33.
- ASKOTAN muchas veces, con frecuencia, *plusieurs fois, fréquemment*, 8, 22, 24.
- ASMATU idear, inventar, *imaginer, inventer*, 5, 9, 124.
- ASMU opinión, pensamiento, designio, *opinion, pensée, dessein*, 69, 184, 191.
- ASPALDIKO de hace tiempo, *de longtemps*, 135, 141.
- ASPALDION hace tiempo, *il y a longtemps*, 10, 83.
- ASPALDITIK desde hace tiempo, *depuis longtemps*, 78.
- ASPERKUNDE venganza, *vengeance*, 121.
- ASTI tiempo libre, *loisir*, 139.
- ATERBE albergue, *abri*, 79.
- ATHERA salir, *sortir*, 155.
- ATREBENTZIA atrevimiento, *hardiesse*, 18.
- ATSEGABE aflicción, *affliction*, 26.
- ATSEGIN placer, *plaisir*, 149. ATSEGIN IZAN ser placentero o agradable, *être agréable*, 30.
- ATXEMAN, ATZEMAN capturar, coger, *capturer, saisir*, 65, 101.
- ATXIKI guardar, conservar; reputar, juzgar, *garder, conserver; réputer, juger*, 2, 25, 33, 69, 112, 146, 184.
- ATZARRI vigilante, despierto, *vigilant, éveillé*, 2, 11, 50, 51, 141.
- AURDIKI lanzar, *jeter*, 102.
- AURKITU encontrar, *trouver, jeter*, 14, 188.
- AURTIKI lanzar, *jeter*, 118, 125.
- AURTIKARAZI hacer arrojar, *faire jeter*, 71.
- AUSARKI en abundancia, *abondamment*, 131.
- AUSART atrevido, *hardi*, 107.
- AUSARTATU atreverse, *oser*, 137.
- AUSARTZIA (con a orgánica, *avec a organique*) osadía, *audace*, 17, 142, 189.
- AUSIKI morder, *mordre*, 65, 186.
- AUTORITATE autoridad, *autorité*, 8, 10, 12.
- ATZARTASUN, AZARTASUN vigilancia, *vigilance*, 116, 131.
- AZKEN último, *dernier*, 184. AZKEN BURUAN en último término, finalmente, *à la fin, dernièrement*, 189.
- AZKENEAN, AZKENIAN finalmente, *finalment*, 8, 143.
- AZOTATU azotar, *fouetter*, 110.
- AZPI debajo, *dessous*. HAITZ AZPITAN debajo de los robles, *sous les chênes*, 5.
- AZTAPAR garra, *griffe*, 114.
- BADA (solo o precedido de ETA, en inicio de frase, *tout seul ou précédé de ETA, au commencement de phrase*) ahora bien, *or*, 15, 26.
- BAI sí, *oui*, 2, 15. BAI ETA ERE y también, *et aussi*, 69. BAI...BAI ya...ya, *soit...soit*, 9, 32, 148.
- BAI(A) asentimiento, *assentiment*, 128.
- BAIA defecto, *défaut*, 47.
- BAIMEN permiso, aprobación, consentimiento, *permission, approbation, consentement*, 5, 65.
- BAINAN pero; sino, *mais*, 15, 21, 65, 69, 144. BAINAN ERE pero también, sino también, *mais aussi*, 145, 186.
- BAINO que, *que* (solamente en comparativas, *seulement en comparatives*) 9, 34.
- BAITAKO. SALBATZAILA BAITAKO SIN-

- HESTEA la creencia (de) en el Salvador, *la foi (de) au Sauveur*, 69. Cf. 32, 143, 185.
- BAITAN en, *en, chez*. GU BAITAN en nosotros, *chez nous*, 7. ADIXKIDEA BAITAN en el amigo, *chez l'ami*, 26. SINHESTEN DUT JAINKOA BAITAN creo en Dios, *je crois en Dieu*, 29. BERE BAITARIK de sí mismo, *de soi même*, 5, 8, 17. BERE BAITARIK DOHA va de suyo, *cela va de soi* 21. BERE BAITAN SARTU entrar dentro de sí, *rentrer en soi*, 4.
- BAITEZPADA ineludiblemente, *inéluclablement*, 69, 118, 164.
- BAITEZPADAKO absolutamente necesario, *absolument nécessaire*, 5.
- BAIZIK más que; sino, *que; mais*, 19. BAIZIK ERE más que, *sinon, à l'exception de*, 184.
- BAKARRIK solamente, *seulement*, 26, 28.
- BAKARTASUN unicidad, *unicité*, 156.
- BAKE paz, *paix*, 26.
- BAKETU apaciguar, *apaiser*, 173.
- BAKOTX cada, *chaque*, 3, 16, 30, 143.
- BALENTRIA (con a orgánica, *avec a organique*) fanfarronada, *fanfaronnade*, 6, 15.
- BALIATU servirse de, *se servir de*, 169, 170, 172.
- BALIN BA sí, *si*, 26.
- BALIO (subst.) valor, *valeur, estimation*, 69.
- BALIOS (adj.) preciado, valioso, *valuable, précieux*, 11, 12.
- BALTSAMATU embalsamar, *embaumer*, 128.
- BALTSAN EMAN poner en común, *mettre ensemble*, 27, 131, 149.
- BANDERA bandera, *drapeau*, 117.
- BARATU detenerse, pararse, *s'arrêter*, 6, 7, 67, 85, 131.
- BARATZE huerto, *jardin*, 23, 109.
- BARBARO bárbaro, *barbare*, 32.
- BARKAGOGOR duro en perdonar, *dur à pardonner*, 113.
- BARKAMENDU perdón, *pardon*, 172.
- BARNA profundamente, *profondément*, 23, 25, 60.
- BARRAIATU dispersar, *disperser*, 176.
- BARUR ayuno, *jeûne*, 90, 159.
- BASA lodo, *boue*, 96.
- BASA HERRI (en oposición a HIRI HAN-DI) barrios o villorrios montañoses, *petits villages montagnards*, 148.
- BASO vaso, *vase*, 94.
- BAT uno, *un*, 19. BAT EGON estar unido, *rester uni*, 27. ERLIJIONERIK BAT ERE GABE sin ninguna religión, *sans aucune religion*, 9.
- BATASUN unidad, *unité*, 157.
- BATBEDERA cada uno, *chacun*, 181.
- BATHAIATU bautizar, *baptiser*, 144.
- BATHAIO bautismo, *baptême*, 117, 148.
- BATZUEK algunos, *quelques-uns*, 5, 76, 24.
- BAZKA pasto, alimento, *pâturage, aliment*, 27, 150, 177, 189.
- BAZKATU apacentar, *alimenter*, 166.
- BAZTER rincón, extremo, *coin, extrême*, 1, 178. BAZTERRERAT UTZI, BAZTERRERAT EMAN relegar, arrinconar, *reléguer, mettre dans un coin*, 24, 60, 115.
- BEDEREN al menos, *au moins*, 3, 24.
- BEGI ojo, *oeil*, 4, 20, 22. BEGIETARAT DOHANA constatable por los sentidos, *vérifiable par les sens*, 147.
- BEGIETARIK GALDU perder de vista, *perdre de vue*, 26.
- BEGIRALE vigilante, *vigilant, surveillant*, aurkibidea.
- BEGIRATU cuidar; preservar, *soigner; préserver*, 1, 11, 15, 145, 189.
- BEGIRATZAILLE vigilante, *vigilant*, 128.
- BEHAR necesario; necesidad, *nécessaire; nécessité*, 5, 8, 15, 26, 65. BEHAR IZAN ser necesario, *être nécessaire, falloir*, 68, 69.
- BEHARRI oreja, *oreille*, 191.
- BEHATU mirar, *regarder*, 4, 101, 133.
- BEHATZE, mirada, *regard*, 115.
- BEHERA abajo, *à bas* (con movimiento, *avec mouvement*), 5.

- BEHERE de abajo, inferior, *inférieur*, *bas*, 14, 188 .
- BEHIN ERE EZ nunca, *jamais*, 5.
- BEIZIK, 188. Cf. BAIZIK.
- BEKATORE pecador, *pêcheur*, 68, 145, 188.
- BEKATOROS pecador, *pêcheur*, 173, 188.
- BEKATU pecado, *péché*, 68, (passim).
- BEKOZ-BEKO cara a cara, *face à face*, 191, 192. BEKHOZ (con nombre en dativo, *avec nom au datif*) de cara a, *face à*, 150.
- BEHAR hierba, *herbe*, 61.
- BELARRI oreja, *oreille*. 11.
- BELDUR miedo, temor, *peur*, *crainte*, 12, 192. BELDUR GABE(A) intrépido, *intrépide*, 3.
- BELDURTI miedoso, *peureux*, 130.
- BELHAUN rodilla, *genou*, 12, 180. BELHAUNIKO de rodillas, *à genoux*, 94.
- BELO velo, *voile*, 10, 26.
- BELTZ negro, *noir*, 9, 157.
- BELZTU ennegrecer, *noircir*, 110. GEZURREZ BELZTU denigrar, calumniar, infamar, *dénigrer*, *calomnier*, 16.
- BENEDIKATU bendito, *béni*, 66.
- BENEDITANO benedictino, *bénédictin*, 1.
- BENTZUTU vencer, *vaincre*, 27, 145, 148.
- BENZUTZAILLE vencedor, *vainqueur*, 65.
- BERA el mismo, *lui même*. GAUZA NATURALETAN BERETAN, 19. JAINKOAREN BERAREN, 5. DENBORAZ BERAZ, 26. HORIEK BEREK, 26. JAINKO BERAREN GANIK, 17. IGUZKI BERETIK, 17. SAKRAMENTU BERAK, 147. ERLIJIONE GABEKOEN BEREN, 147. MUNDU HUNTAKO BEREKO, 25. ORAI BERETIK, 24. ORDUAN BEREAN, 143.
- BERAZ por lo tanto, por consiguiente, *par conséquent*, *donc*, 31, (passim).
- BERBERA él mismo, *lui même*, 45.
- BERBO, Verbo, *Verbe*. BERBO DIBINOA el Verbo Divino, *Le Verbe Divin*, 143.
- BERDURATU extender, *répandre*, 113.
- BERE su, *son*. *sa*, 16, 20, 24, 26, 66, (passim). BERENAZ, 26, 29. BERENTZAT, 20. BEREKIN, 17, 23.
- BERE(A) (el) suyo, *le sien*, 24.
- BEREHALA en seguida, *ensuite*, 53, 60, 191.
- BERETU hacer suyo, apoderarse, *s'emparer*, 65, 91, 173.
- BEREX aparte, *à part*, 108.
- BEREXI separar, apartar, *séparer*, *détourner*, 26.
- BEREZI especial, específico, *spécial*, *spécifique*, 145.
- BEREZIKI especialmente, particularmente, *spécialement*, *particulièrement*, 1, 17, 69.
- BERINA (a orgánica, a organique) vidrio, cristal, *verre*, *cristal*, 78.
- BERMATU garantizar, confirmar, *garantir*, *confirmer*, 22, 67.
- BERME garante, responsable, *garant*, *responsable*, 22.
- BERO caliente, *chaud*, 1.
- BEROTU calentar, *chauffer*, 65, 145.
- BERREHUN doscientos, *deux cents*, 147.
- BERRI nuevo; noticia, *neuf*; *nouvelle*, 64, 149, 186. BERRI ONA la buena nueva, *la bonne nouvelle*, 67.
- BERRITAN recientemente, *récemment*, 85.
- BERRITZ ERE de nuevo, *de nouveau*, 18.
- BERTSU casi igual, parecido, *presque égal*, *pareil*, 66, 147.
- BERTUTE virtud, *vertu*, 7, 8, 13, (passim).
